

TESTU-LOTURARAKO BALIABIDEAK:

EUSKARA TEKNIKOA



IGONE ZABALA (Koord.)



**Euskara Institutuak
argitaraturiko bestelako lanak**

Idazkera teknikoa

**Hitz-ordena, galdegaia eta komaren
erabilera**

Igone Zabala eta Juan C. Odriozola

Izan-sintagma

Igone Zabala eta Juan C. Odriozola

Informazioa eta eskariak:
Euskal Herriko Unibertsitatea
Argitalpen Zerbitzua

P. K. 1.397 - 48080 BILBO
Tf. (94) 464 77 00 (luz. 2148)
Faxa (94) 480 13 14
Posta elek. luxedito@lg.ehu.es

ESKATU GURE KATALOGOA

**TESTU-LOTURARAKO
BALIABIDEAK:
EUSKARA TEKNIKOA**

TESTU-LOTURARAKO BALIABIDEAK: EUSKARA TEKNIKOA

Igone Zabala (koord.)

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Koordinatzailea: Igone Zabala

Lanaren egilea eta jatorrizko izenburua:

- © *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*
1996, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 84-7585-837-6

Lege gordailua: BI - 1.771-96

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	13
TESTU-LOTURA: LOTURA TEMATIKOA ETA ERREFERENTZIA-SAREAK TESTU TEKNIKOETAN.....	15
<i>Igone Zabala</i>	
0. Sarrera.....	15
1. Lotura tematikoa.....	16
1.1. Testuaren eta esaldiaren mintzagaia.....	16
1.2. Parrafoa: esangura-unitatea.....	19
2. Testu-loturarako estrategiak.....	21
2.1. Erreferentziakidetasun-kateak.....	23
2.1.1. Erreferentziakidetasun-kateak perpaus bakunaren barruan... ..	24
2.1.1.1. Izenordain elkarkari-bihurkariak.....	24
2.1.1.2. Elementuen isiltzea.....	30
2.1.2. Erreferentziakidetasun-kateak perpausen artean.....	32
2.1.2.1. Elementu isilak.....	32
2.1.2.2. Errepikapenak.....	34
2.1.2.3. Artikulu mugatua (edo deklinabide mugatua) eta erakuslea.....	35
2.1.2.4. Hiperonimo eta hiponimoen erabilera.....	40
2.2. Inferentzi kateak.....	40
2.2.1. Hiperonimo → hiponimo kateak.....	41
2.2.2. Antonimoen erabilera.....	41
2.2.3. Nolabaiteko harreman morfoloikoa duten elementuez osaturiko kateak.....	41
2.2.4. Ekintza bat eta horretan parte hartzen dutenak harremanetan jartzea.....	42
3. Bibliografia.....	43

PERPAUSEN ARTEKO TESTU-MAILAKO LOTURA: TESTU ZIENTIFI- KOAK SORTZEN.....	45
<i>Jesus Mari Makazaga</i>	
0. Sarrera.....	45
1. Perpaua, paragrafoa eta testua.....	46
1. 1. Perpaua.....	46
1. 2. Paragrafoa.....	48
1. 3. Testua.....	49
2. Perpausen arteko loturak bideratzeko baliabideak.....	53
2. 1. Lokailuak eta esapideak.....	53
2.1.1. Lokailuak.....	53
2.1.2. Esapide edo lokuzioak.....	56
2. 2. Testu-mailako funtzioa duten juntagailuak.....	57
2. 3. Pronominalizazioa: erlazio anaforikoak eta kataforikoak.....	59
2.3.1. Erlazio anaforikoak.....	59
2.3.2. Erlazio kataforikoak.....	61
2.3.3. Testuko barne-erreferentziak.....	64
2. 4. Errepikapena.....	65
2.4.1. Hitzen errepikapena.....	65
2.4.2. Aldaketaren baten bidez egindako errepikapena.....	67
2.4.3. Erlazio anaforikoak.....	68
2. 5. Elipsia.....	68
2. 6. Mugagabe-mugatu egitura.....	69
2. 7. Testu-antolaketaarako elementuak.....	70
2. 8. Zenbait egitura.....	71
2.8.1. Egitura distributiboak.....	71
2.8.2. Galdera-erantzun egitura.....	71
2.8.3. Galdegai-mintzagai egiturak.....	72
2. 9. Perpausen arteko erlazio logikoak.....	74
2.10. Bata bestearen jarraian emandako perpausak.....	75
3. Literatur tradizioa eta lokailuak: hauen erabilerari buruzko zenbait.....	76
3. 1. Lokailuen sailkapena.....	76
3. 2. Lokailuen kokagunea.....	76
3. 3. Lokailuak eta komaren erabilera.....	79
3. 4. Lokailuen erregistro desberdinak.....	82
3. 5. Zaharkitutako lokailuak.....	83
3. 6. Hedatuak ez diren lokailuak.....	83
3. 7. Lokailuen balio-aniztasuna.....	84
3. 8. Azken oharrak.....	85
4. Testu-koherentzia bideratzen duten baliabideen zenbait erabilera oker edo zalantzazko.....	86
4. 1. <i>Ere</i> lokailuaren erabilera okerrak.....	86
4. 2. <i>Izan ere... bait-/... eta</i> egiturak.....	89
4. 3. <i>Ordea, berriz, aldiz, ostera</i> lokailuak.....	90
4. 4. Lokailuak eta komaren erabilera.....	92
4. 5. Lokailuak ez dagokien lekuan jartzea.....	92
4. 6. Lokailuen erabilera urria.....	95

4. 7. Paragrafoak	96
4. 8. Erlazio anaforiko ilunak	98
4. 9. <i>Beraiek</i> eta <i>beraien</i> forma indartuen gehiegizko erabilera	100
4.10. Gaizki gauzatutako erlazio kataforikoak	102
4.11. Osagai baten gehiegizko errepikapena	105
4.12. Perpausen arteko denbora-komuntadurarik eza	106
4.13. <i>Honezker</i> o/ <i>dagoeneko</i>	106
4.14. Zenbait posposizioen aurreko izenlagunaren falta	108
5. Bibliografia	111
TESTUAN IRUZKINAK SARTZEKO FUNTZIOA IZAN DEZAKETEN ANTOLATZAILAK: <i>HAU DA, HAIN ZUZEN ERE, ADIBIDEZ, BATEZ ERE</i>	113
<i>Igone Zabala</i>	
0. Sarrera	113
1. <i>Hau da, hain zuzen ere</i> eta <i>adibidez</i> bezalako testu-antolatzailen hiru funtzioak	114
2. Testu-antolatzailaren iruzkinaren barneko kokagunea	116
3. Azalduko testu-zatiaren eta iruzkinaren ezaugarriak eta kokapena ...	118
4. Testuan iruzkinak sartzeko balio duten testu-antolatzailen arteko be- reizketa semantikoa	121
4. 1. <i>Hau da/hain zuzen (ere)</i> : Birformulazioa/Finkapena	121
4. 2. <i>Hots</i> eta <i>alegia</i>	125
4. 3. Adibidegileak eta nabarmentzailak	126
5. Zenbait ohar estiloaren gainean	128
6. Bibliografia	130
«ZEIN (...) BAIT-/N» EGITURA	131
<i>Jabier Alberdi eta Julio García</i>	
0. Sarrera	131
1. Literatura-tradizioa	132
2. Egitura honen tokia gaurko euskaran	135
3. «Zein» izenordain erlatiboaren deklinabidea	140
3. 1. «Zein» erlatiboaren deklinabidea literatura-tradizioan	140
3. 2. «Zein» erlatiboaren deklinabidea gaurko euskaran	144
4. Menderagailua	146
5. Ordena literatura-tradizioan	147
5. 1. Barne-ordena	147
5.1.1. Baiezko esaldietan	147
5.1.2. Ezezko esaldietan	149
5.1.2.1. Aditz laguntzailearen ordena	149
5.1.2.2. Adizkiaren ordena	149
5.1.3. Gaurko uste okerra	151
5. 2. Kanpo-ordena	151
6. Aurrekaria	153
6. 1. Aurrekariaren ordena	153
6.1.1. Erlatibo-esaldia perpaus nagusiari dagokio	153

6.1.2. Erlatibo-esaldia mendeko perpausari dagokio.	155
6.1.3. Aurrekariaren eta erlatibo-esaldiaren arteko distantzia ...	157
7. Balio semantikoa	160
8. Puntuazio-zeinuak	163
9. Gaur erabiltzen diren egitura badaezpadako batzuk.....	163
9.1. Aurrekariaren eta erlatiboaren arteko distantzia: arazoak.....	163
9.2. «Zein bait-/n» egitura: ordena okerrak eta bestelako baliabideak.	164
10. Bibliografia	165

OHAR BATZUK -(E)LARIK ETA -(E)LA ATZIZKIEN ERABILERA ETA BALIOEI BURUZ..... 169
Antton Elozegi

0. Lan honen helburuak eta mugak	169
1. -(E)la eta -(e)larik atzizki menderatzaile zirkunstantzialen forma, aldaerak eta erroa	170
2. Atzizki horiek gramatikan	172
2. 1. Funtzioaz eta bien arteko berdintasun/ezberdintasunaz	172
2. 2. Hedadura dialektalaz.....	173
2. 3. Balioez eta erabilereaz	173
3. Jasotako adibideen egitura sintaktikoak eta balioak.....	174
3. 1. Sintaxi-egiturak	175
3.1.1. Mendeko zirkunstantzialak.....	175
3.1.2. Antzeko prominentzia duten gertaerak adierazten dituzten perpaus konposatuak («Sasi-mendekoak»)	175
3.1.3. Erlatibo baten bidezko parafrasia onartzen duten menderatuak («Erlatiboaren baliokoak»)	176
3. 2. Mendeko zirkunstantzialen balioak	176
3.2.1. Denbora-balioa	176
3.2.2. Modua.....	176
3.2.3. Kontzesioa.....	177
3.2.4. Kausa	177
3.2.5. Ondorioa	178
3.2.6. Balio zirkunstantzial lausoak: aurrekoen konbinaketak ...	178
3. 3. Antzeko prominentzia duten gertaerak adierazten dituzten perpaus konposatuak («Sasi-mendekoak»)	179
3. 4. Erlatibo baten bidezko parafrasia onartzen duten menderatuak («Erlatiboaren baliokoak»).....	181
4. Ondorio eta gogoeta batzuk	181
a) Erabilera zaharrak, erabilera berriak	181
b) Erabilera berriak baliatzen dituzten testuen generoak	182
c) Balio zabaletik «erabileraorotako» tresna bihurtzera	182
d) -(E)larik eta -(e)la-ren trukagarritasunaz.....	182
e) Erabilera berrien aztarnak testu klasikoetan?.....	183
f) Gaztelaniazko gerundioaren eraginaz	184
5. Balio eta erabilera «berriak» hizkera tekniko-zientifikoaren ikuspegi-tik	186
a) Ondoriozko perpausetan	187
b) «Sasi-mendekoak»	188

c) Erlatiboaren balioa dutenak	189
d) Geroaldiko adizkiekin	189
e) Atzeko kokapena	189
f) Gomendio orokorra	190
6. Bibliografia	190

EUSKAL BALDINTZAZKO ADIZKIAK ETA EUSKAL BALDINTZAPENAK..... 193

Juan Carlos Odriozola

0. Sarrera	193
1. Iraganean gauzatu ez zen mundu posiblea: <i>Dinosaurioak bizirik mantendu izan balira</i>	196
2. Inoiz gauza litekeen mundu posiblea: <i>Ozono-geruza desagertuko balitz</i> ...	201
3. Geure mundu hau: <i>Ur nahiko edaten ez badugu</i>	204
4. Ereduzko baldintzapenetatik kanpo	211
4. 1. Oztupoak iradokiz: <i>Komenigarria izango litzateke</i>	211
4. 2. Geure mundu erreala azaltzen saiatuz: <i>Baliteke mutazio bortitz bat gertatu izana eta horregatik</i>	213
5. Geuk asmatutako akordiozko mundua: <i>Zero absolutuan bageunde bezala</i>	218
6. Aldez aurretik ondo aztertu ez den mundu errealaren aurkako gertaerak: <i>Itsasoan bizi badira ere, ugaztunak dira</i>	219
7. Laburpena	223
8. Bibliografia	224

Hitzaurrea

Lan honen helburua, testu teknikoak euskaraz idatzi behar dutenei nolabaiteko laguntza eskaintzea da, helburu pedagogikoa alegia, eta horretarako, hainbat urtetan irakaskuntzan aritu ondoren lortu dugun esperientzia erabili dugu. Geure ikasleengan nabaritu ditugun hutsune eta zailtasunak erabili ditugu gehienetan abiapuntu modura. Hizkuntza teknikora, eta zehazkiago, hizkuntza idatzira murriztu gara eta askotan, itzulpengintzarekin zerikusia duten ideiak eskaini ditugu, euskara teknikoaren arazo ugari hain zuzen nahita edo konturatu gabe egiten den itzulpenetik baitatoz.

Artikulu-sorta gisa gauzatu dugu liburua eta ez gaika edo atalka antolaturiko testu-liburu modura. Horrek interesgarrien edota problematikoen iruditu zaizkigun gaiak ikutzea eta hainbat ikuspuntu erabiltzea baimendu digu, gai nagusiarekin zerikusia duten puntu guztiak aipatzera edota aztertzerara behartu gabe. Edonola, testuen koherentzia edota kohesioarekin zerikusia duten hizkuntz baliabide gehienak ikutu ditugula esan daiteke.

Lehen artikuluan, testu koherenteak idazteko berebiziko garrantzia duen puntu bat aztertu dugu: lotura tematikoa eta progresio tematikoaren arteko oreka lortzeko erabiltzen ditugun estrategiak agerian uzten saiatu gara. Halaber, testuaren kohesiorako eta ulergarritasunerako ere ezinbestekoa den beste puntu bat ikutu dugu, erreferentzia-sareena alegia.

Bigarren artikuluan, perpausaren mailatik testu-mailara iragaten garenean perpaus horien arteko loturak bideratzeko ezinbestekoak zaizkigun baliabideak aztertu dira banan banan, hots, lokailuak, pronominalizazioa, errepikapena, elipsia, mugagabe/mugatu egitura, perpausen arteko erlazio logikoak e.a. Ondoren, lokailuen gaiari zehazkiago eutsiz, baliabide horiek literatur tradizioan izan duten erabilera aztertu da eta azkenik, testu-lotura bideratzeko baliabide horien zenbait erabilera oker edo zalantzezko aztertu dira, aipaturiko literatur tradizioetik ateratako datuak erabiliz.

Hirugarren artikuluan itxuraz oso mugatua den gaia ikutu dugun arren testu teknikoetan maiztasun handiaz agertzen diren eraikuntza batzuk izan

ditugu hizpide, testuan iruzkinak sartzeko balio diguten *hau da, alegia, adibidez, hain zuen eta batez ere* bezalako testu-antolatzaileen erabilera alegia.

Menderakuntza da zalantzarik gabe perpausak lotzeko balio digun baliabideetako bat eta menperakuntza-mota bi aztertu ditugu hain zuzen laugarren eta bosgarren artikuluetan. Laugarrenean, erlatibo klasiko izenaz aipatu ohi diren «zein (...) bait-/n» motako eraikuntzak eta bosgarrenan, *-(e)la* edo *-(e)larik* menderagailua daramaten menperatuak. Biek izan dute erabilera zabala hizkuntza teknikoan eta askoren iritziz, gehiegizko erabilera ere. Aipaturiko bi lanetan mota honetako eraikuntzek literatur tradizioan izan duten erabilera aztertu da, askotan zalantzagarriztat salatu diren itzuliak zein puntutaraino diren zalantzagarri ikusteko asmoaz.

Azkenik, testuen modalitatearekin zerikusi zuzena duen baldintzazko adizkien eta baldintzapenen arteko harremana aztertu du seigarren lanak. Artikulu honetan *ba-* aurrizkia daramaten adizkiak banan banan aztertu dira, horien bidez adieraz daitezkeen baldintza, ondorioa, hipotesiak e.a. eta kasu bakoitzean inplikaturik dauden presuposizioak eta asertzioak agerian jarritz. Hortaz, testu teknikoetan oso ugariak diren hipotesiak kasu bakoitzean nola gauzatu behar diren jakiteko oso baliagarria den lana dugu.

Liburu honen egitasmoa aurrera eramateko Euskal Herriko Unibertsitatearen diru-laguntza izan dugu UPV 033.323-HA 194/94 proiektuaren bitartez.

TESTU-LOTURA: LOTURA TEMATIKOA ETA ERREFERENTZIA-SAREAK TESTU TEKNIKOETAN

Igone Zabala

0. SARRERA

Ezaguna da sintaxi eta hiztegi zuzena erabiltzeak ez duela ziurtatzen testu egokiak idatziko ditugunik. Bereziki garrantzitsua da testu bat erai-kitzerakoan «koherentzia» izenaz ezagutzen duguna¹. Koherentzia hori lortzeko orduan berebiziko garrantzia dute lokailuek eta testuan zehar ezartzen diren erreferentzia-sareak. Baina badago antzematen zailagoa izanik ere, testuaren koherentziaren oinarrian bertan dagoen beste fenomeno bat, lotura tematikoarena alegia.

Testu bat idazten dugunean, puntuz puntu garatuz goazen informazioan nolabaiteko progresioa behar da baina horrekin batera irakurleak une orotan «zertaz» ari garen jakingo duela segurtatu behar da. Lantxo honetako lehen atalean, lotura tematikoaren eta progresio tematikoaren arteko oreka lortzeko erabiltzen ditugun estrategiak agerian uzten saiatuko gara. Ez dugu gaian gehiegi sakonduko; besterik gabe edozein testu idazteko orduan buruan izan beharko genituzkeen zenbait ideia eskaintzen saiatuko gara. Geure iritziz, euskara teknikoaren irakaskuntzan alde batera ezin utz daitekeen eta askoz ere ikerketa sakonagoak behar dituen gaia da. Hortaz, gai honetarako lehen hurbilpena egitea izan da lantxo honen helburua eta ez azterketa exhaustiboa egitea.

Lanaren bigarren atalean, erreferentzia-sareez arituko gara. Erreferentzia-sare batzuetan benetako erreferentziakidetasuna dagoen bitartean beste

¹ *Koherentzia* berba koherentzia semantikoa edo pragmatikoa adierazteko erabiliko dugu eta azaleko koherentzia adierazteko *kohesioa* edo *lotura* hitzak erabiliko ditugu. Izan ere, koherentzia lortzeko erabiltzen ditugun hizkuntz baliabideez arituko gara gehienetan eta horixe da kohesio edo lotura izenaz ezagutzen dena. Kontzeptu horiei buruzko zehaztasun gehiago nahi izatekotan, hona hemen gaiari buruzko zenbait lanen aipuak: VAN DIJK (1980), DRESSLER (1974), HALLYDAY & HASAN (1976, 1980), GARAVELLI MORTARA (1974), GARCÍA BERRIO & VERA LUJÁN (1977), RIESER (1978), PETÖFI & GARCÍA BERRIO (1978).

batzuetan irakurleak zenbait elementu harremanetan jartzeko inferentzia erabili beharko du. Hortaz, erreferentziakidetasun-kateak eta inferentziakateak bereziko ditugu eta mota bakoitzeko kateetan parte hartzen duten elementuen jokaera finkatzen saiatuko gara. Lokailuen gaia ordea, ez dugu ikutuko lan-bilduma honen beste artikuluko batean testu-loturarako ezinbestekoak diren elementu horien gaia zehazki ikutzen baita.

Azkenik, azpimarratu beharrekoa da testu teknikoaz arituko garela. Hortaz, itzulpengintzaren ikuspegiari eutsiko diogu zenbait puntutan, hizkuntzaren erabilera berezi honetan agian hizkuntzaren beste esparruetan baino nabariagoa baita nahita edo konturatu gabe egiten dugun itzulpena. Izan ere, erreferentziaren mantentzeari dagokionez, kontutan hartzekoa da hizkuntza guztietan erreferentzia mantentzeko baliabideak ez direla berberak eta horrenbestez, askotan gertatzen dela hizkuntza batean elipsi edo anafora bat erabil daitekeen testuinguruan beste hizkuntza batean izen-sintagma ageria erabili behar izatea.

1. LOTURA TEMATIKOA

1.1. Testuaren eta esaldiaren mintzagaia

Garbi dago edozein testu deskodifikatzeko orduan, konturatu gabe bi galdera egiten diogula geure buruari: alde batetik, idazlea «zertaz» mintzatu den jakin behar dugu eta bigarrenik, «gai» horri buruz «zer» esan duen zehaztu behar dugu.

Esaldi² isolatu bat deskodifikatzeko orduan ere, bi galdera horiei erantzun behar izaten diegu. Esapidearen mailan, «zertaz» galderari erantzuten dion elementua *mintzagai* izenaz ezagutzen dugu eta «zer» galderari erantzuten diona, *galdegai* izenaz³. (1) adibidean, esate baterako, elikakatearen definizioari buruz ari garela badakigu, eta gainera ematen dugun informazioa definizioa bera dela ere esan dezakegu.

- (1) Elika-katea, laburki definiturik, janari-harremanen arabera antolatuturiko organismo-sekuentzia da.

² *Esaldi* berba, gramatika funtzionaletan erabili ohi den kontzeptu bati dagokio, komunikazio-helburu jakin batez esandako edo idatzirik hizkuntz unitateari alegia. *Perpaus* berba erabiltzen dugunean berriz, komunikazio-helburuak alde batera utzi, eta sintaxiaren azterketa-unitateaz aritzen gara besterik gabe.

³ Gaiari buruzko literaturan erabili ohi diren *tema* eta *topiko* kontzeptuak bereizi gabe erabiliko dugu hemen *mintzagai* berba. Modu berean, ez ditugu *errema* eta *foku* kontzeptuak bereziko eta *galdegai* berba erabiliko dugu besterik gabe. Gai honi buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izatekotan, hor daude EUSKALTZAINDIA (1987), OSA (1990) eta ZABALA & ODRIÓZOLA (1992) lanak.

Mintzagaia, esaldiaren hasieran joan ohi da hizkuntza guztietan, haren funtzio pragmatikoa zertaz hitz egingo dugun aurreratzea baita. Galdegaiaren kokapena ordea, ez da berbera hizkuntza guztietan: euskaraz, aditzaren ezker aldean joan ohi da, baina gaztelaniaz esate baterako, aditzaren eskuinaldean kokatu ohi da. (1) esaldian, mintzagaia *elika-katea* da eta galdegaia, *janari-harremanen arabera antolaturiko organismo-sekuentzia*.

Edonola, benetako esaldietara goazenean eta, arrazoi komunikatibo eta estilistikoengatik, askotan gertatzen da mintzagaiarekin zerikusia duen elementuren bat, edo elementu guztiak, aditzaren eskuinaldean kokatzea. (2) esaldian, adibidez, galdegaia (*harreman trofiko hau*) aurreratu egin da, azpimarratuago uztearren eta horren kausaz, mintzagaia (*ekosistemetako organismoen arteko harremanik garrantzitsuen*) aditzaren eskuinaldean gelditu da

- (2) Harreman trofiko hau da ekosistemetako organismoen arteko harremanik garrantzitsuen.

Testu bat eraikitzen dugunean, esaldi bakoitzak besteen gainean eragiten du eta ez da nahikoa esaldi bakoitzaren barnean informazioa ongi antolatuta egotea: irakurleak deskodifikatu ahal izango duen informazio-jario koherente bat lortzeko, esaldiak beren artean josi egin behar ditugu.

Testuak gai nagusi bat izango du eta horrek eskuragarri izan behar du irakurlearentzat une guztietan, baina gainera, zenbait azpigai ikutuko ditugu gai nagusiari buruzko informazioa osotuz goazen neurrian. Hortaz, edozein testu, mintzagai-segida modura antolatzen da eta galdegai berrien sarrerak, progresioa ziurtatzen du. Testu koherenteak eraikitzeak, mintzagaien jarraikortasunaren eta progresio semantikoaren (hots, galdegaien progresioaren) arteko oreka lortzea eskatzen du⁴.

- (3) Elika-katea, laburki definiturik, janari-harremanen arabera antolaturiko organismo-sekuentzia da. Elika-katearik ezagunena autore batzuek harrapakari-katea deritzotena da. Eredu honetan kontsumitzaile primarioak (belarjale, landare-parasito e.a.) produktoreez elikatzen dira. Hurrengo mailan, kontsumitzaile sekundarioek (haragijaleek, belarjaleen parasitoek) aurreko mailatik jango dute. Gero kontsumitzaile tertziarioak e. a. etorriko dira⁵.


(3) testuaren gai nagusia «elika-katea» da zalantzarik gabe. Horretaz gain, esaldi bakoitzean, mintzagai nagusi horrekin zerikusia duen azpigai

⁴ SLAKTAREN (1975) eta CHAROLLESEN (1978) ideiak errepikatu ditugu hemen. COMBETESEK (1986) lotura tematikoari buruzko ikerketen berrikustapen interesgarri bat egin du eta bertatik atera ditugu aipaturiko bi autoreen ideiak.

⁵ (1), (2) eta (3) adibideak UZEIren *Ekologia hiztegitik* hartuak edota moldatuak dira.

bat sartzen da eta horrela, esaldiz esaldi, progresio tematikoa lortzen da. Hona hemen progresio horren eskema.

(4)



Progresioa, (4) eskeman ageri diren mintzagai berriak sartuz lortzen da. Baina, testuari koherentzia ematen dion lotura tematikoan hainbat faktorek hartzen dute parte. Hasteko, testuaren lehenengo esalditik bigarrenerako urratsa oso laburra eta neurtua da, mintzagaia den elika-katearen definizio-tik abiatuta, kontzeptu horren barnean sar daitezkeen aukera guztien artean bakar batez baizik ez gara arituko (*elika-katerik ezezagunena*): orokorretik indibidualera iragatea baino ez dugu egin.

Hurrengo urratsa, aurreko esaldiaren mintzagaian (*harrapakari-katea*) oinarrituz egin da, elementu hori ordezkatzeko duen izen-sintagma bat (*ere-du honetan*) hautatu baita mintzagai izateko.

Azken mintzagai-segida logikari ongi doiturikoa da; izan ere ordinalen segida bati jarraiki eginda dago: *kontsumitzaile primarioak* → *kontsumitzaile sekundarioak* → *kontsumitzaile tertziarioak*. Edonola, izatez guztiz koherentea den mintzagai-progresio hau zenbait elementuz lagunduta dator. Hasteko, katea batez ari garela azpimarratzen diguten «testu-antolatzailak» daude, *hurrengo mailan* eta *gero* alegia. Bigarrenik, testu osoan zehar, elikadurarekin zerikusia duen katea batez ari garela (hau da, testuaren gai nagusia) buruan izaten laguntzen diguten bi elementu-multzo dago: alde batetik, aditzak (*elikatzen dira*, *jango dute*) eta bestetik, kontsumitzaile primario eta kontsumitzaile sekundario berben esanguraz jabetzen laguntzen diguten iruzkinetan azaltzen diren izen elkartuak (*belar-jaleak*, *haragijaleak*), hauek ere oinarrian *jan* aditza duten berbak baitira.

Izan ere, testuaren azken esaldian, hau da, irakurleak testuan dauden harreman tematikoez jabetuta dagoela ziurtzat eman daitekeenean, autoreak alde batera utzi du elikadurarekin zerikusia duen hiztegia eta, *gero*

kontsumitzaile tertziarioak etorriko dira gaineratu du besterik gabe. Horrela, gehiegizko errepikapenik ez egitea eta testua arintzea lortu du.

Hortaz, lotura tematikoa ezartzeko erabiltzen ditugun baliabideak hainbat izaeratakoak dira: mintzagaiaren eta galdegaiaren hautapena, erreferentziakidetasuna, erreferentziaren zabaltzea edo murriztea, eremu semantiko bereko elementuen arteko trukatzeta (sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak, hiponimoak, errepikapenak...), morfologia-mailan harremanetan dauden elementuak erabiltzea...

1.2. Parrafoa: esangura-unitatea

Testu zabalagoetara goazen neurrian, perpausetik gorako esanguradun unitatea den parrafoak berebiziko garrantzia hartzen du. Cassany-k (1993) azken muturreraino eraman du ideia hori, eta parrafoen erabilera egokia puntuazioaz ongi jokatzeko jakitearen aurrean jarri du testuen egokitasunaren ikuspegitik. Autore beraren hitzak errepikatuz, parrafoak testuaren edukia antolatzeke eta antolakuntza hori formalki erakusteko balio du.

Testuaren lotura tematikoaren ikuspegitik, parrafoa gai bakar bat garatzeko erabiltzen diren esaldien multzoa dela esan daiteke. Ildo honetatik, testu laburretan parrafoek duten funtzioa testu luzeetan atalek eta azpiataleak betetzen duten berbera da. Hortaz, (3) adibideko parrafo bakarraren esaldietan zehar ikusi dugun progresio tematiko bera beharko litzateke testu baten parrafoetan zehar ere, testu hori koherentea izango bada behintzat.

- (5) Orain dela 66,5 milioi urte, Kretazeo/Tertziario trantsizioan hain zuzen, gure planetan organismoen suntsipen masiboa gertatu zen, zeinak talde ezberdinetako bizidunak hunkitu baitzituen. Desagertu ziren animalien artean, dinosaurusak ditugu, ehun milioi urte baino gehiagotan Lurraren dominatzaileak izan zirenak.


Suntsipenen zergaitiei buruzko hipotesi ugari planteatu dira historian zehar, batzuk bitxiak, beste batzuk serioagoak edo zientifikoagoak, eta zenbaitzuk kontrajarriak ere.

Nahiz eta oraintsu arte Euskal Herrian dinosaurusu fosil gutxi ezagutu, azken aldiotan interes handiko aztarnategia aurkitu da Trebiño aldean. Bertan, krokodilo, dordoka, dinosaurusu herbiboro eta karniboroen aztarnak azaleratu dira besteak beste.

(5) testuko parrafo bakoitza erraz antzeman daitekeen gai bati buruz ari da. Gainera, parrafo batetik bestera, erraz ikus daitekeen progresio tematikoa dago. Lehen parrafoan idazlea, Kretazeo/Tertziario trantsizioan gertatu ziren animalien suntsipenez ari zaigu. Bigarren parrafoa suntsipen

horien zergatiari buruzkoa da eta azken parrafoan, Euskal Herriaren kasu bereziari buruzko informazioa eman digu (6). Ikusi kasu honetan progresio tematikoa ez dela lineala. Gaiaren arabera, askotan gertatzen da parrafo baten barneko edota parrafoen arteko progresio tematikoa lineala ez izatea, esate baterako, parrafo desberdinetan hasierako parrafoarekin nola-baiteko lotura duten ideiak garatzea..

(6)



Esaldietarako esan dugunarekiko paralelismo bat ezarriz, parrafo ba-koitzaren lehen esaldiak garrantzi berezia dauka, gai edo ideia nagusia sartzen duena baita. Horixe da irakurtzen den lehenengoa eta beraz, aurreko parrafoarekiko lotura ezartzen duena eta parrafo beraren gaia aurrera-tzen diguna. Gainerako esaldietan, gaiaren garapena eta zenbaitetan ondo-rio bat ere aurkituko dugu.

Hortaz, lokailuak eta testu-antolatzaileak oro har, oso ohikoak dira pa-rrafoen hasieran. Gune horretan *hortaz* edo *beraz* bezalako lokailu bat du-gunean, aurrekoaren ondorioztat har daitekeela ulertuko dugu berehala eta era berean, parrafoaren hasieran *halaber* edo *ildo beretik* badugu, aurreko parrafoaren argumentazioaren jarraipena dugula pentsatuko dugu zalan-tzarik gabe. Halaber, parrafo baten hasieran, *hala ere* edo *dena den* beza-lako antolatzaile bat badugu, bi parrafoen arteko harremana aurkaritza edo kontzesiokoa dela ulertuko dugu zuzen-zuzenean.

Dena den, nabarmenenak izanik ere, lokailuak ez dira parrafoen arteko lotura ziurtatzen duten elementu bakarrak. (5) testuari begiratzen badiogu, adibidez, bigarren parrafoaren hasieran dugun *suntsipenen* izenlagunak genitibo mugatua (-en) eramateak garrantzi handia dauka hasierako bi pa-rrafoen arteko lotura ezartzeko orduan. Izan ere, deklinabide mugatuaren erabilera posible egiten duena «suntsipenok» aurreko parrafoan aipatuta egotea da eta hortaz, irakurlea berehala ohartuko da aurreko parrafoaren gaiaz ari garela.

Modu berean, hirugarren parrafoa aurreko biekin uztartu ahal izateko, berebiziko garrantzia du lehen parrafoan Kretazeo/Tertziario trantsizioan suntsitu ziren animalien artean dinosaurusuak zeudela esanda egoteak. Izan ere, *dinosauru fosil* terminoak suntsituriko dinosaurusuen kontzeptu bera adierazten du beste hitz batzuk erabiliz.

Laburbilduz, galdegai/mintzagai bikotearen hautapena eta, oro har, elementuak esaldiaren barruan antolatzeko moduak eta era berean, esaldiak parrafoaren barruan antolatzeko moduak, ukaezinezko ga-

rrantzia dute lotura tematikoa ezartzeko eta beraz, testu koherenteak lortzeko.

Edonola, ez da ahaztu behar testu-loturan bestelako elementu batzuek ere parte hartzen dutela. Bereziki garrantzitsuak dira artikuluko honen bigarren atalean aztertuko ditugun erreferentzia-sareak eta inferentzia-kateak hain zuzen ere.

2. TESTU-LOTURARAKO ESTRATEGIAK

Koherentziadun testuek inoiz «ehundura»⁶ izenaz aipatu den ezaugarria dutenak dira. Interpretatzeko orduan testuan ageri den beste elementu batera jotzea eskatzen diguten elementu dependenteak, zalantzarik gabe, oso garrantzitsuak dira ehundura hori lortzeko orduan.


- (7) Ugaztunen sistema inmuneak, organismoaren integritatea mantentzeko diseinaturik dagoelarik, norberarena dena eta norberarena ez dena bereizten du eta lehenengoaren aurka era desegokian erantzuten ez duen bitartean, bigarrenaren aurka ekiten du. Horrela, antigeno deritzen substantzia arrotzekin kontaktuan jartzen denean, sistema inmunearen helburua, substantzia horiek organismoarengandik aldentzeko dituen erantzuna sortzea da.

(7) testuan adibidez, azpimarraturiko elementuen interpretazioa ezinezkoa izango litzateke, testuan ageri diren beste zenbait elementu kontutan izan gabe. Hona hemen elementu horien erreferentzia ezagutzeko egin behar ditugun loturak eta ehundura hori agerian uzten duen eskematorxo bat (7').

(8)

organismoa → norberarena dena eta norberarena ez dena
norberarena dena → lehenengoaren
norberarena ez dena → bigarrenaren
antigeno deritzen substantzia arrotzak → substantzia horiek

⁶ «Ehundura» berba HASANEK (1994) erabiliriko «texture» terminoa itzultzeko hautatu dugu.



Baina testuari ehundura ematen dioten elementuak ez dira erreferentzia heredentziaz lortzen dutenetakoak soilik, erreferentziadunak edo inolako erreferentziarik gabekoak ere izan daitezke. Oro har, bi motatako kateak ezar daitezke edozein testutako elementuen artean:

- (a) Erreferentziakidetasun-kateak.
- (b) Inferentzia-kateak⁷.

Lotura-modu horien arteko bereizkuntza irakurleari modu erraz batera ikusaraztearren, *Elhuyar* aldizkaritik harturiko testu batera joko dugu.

- (9) **Hizkuntza bat** «salbu» bide dago, baldin eta 2100 urteko horizontean **hizkuntza hori** hitz egingo duten umeak egongo direla kalkulatzan bada, baldin eta estatuak \emptyset bultzatzen badu, edota baldin eta milioika lagunek egindakoa bada. Baldin asko gauza onerako. Behiala, mende honen aurretiko urteetan, populazio-gune handiak mintzo ziren *bretoieraz* edo *navajoz*, baina gaur egunean *hizkuntza biok desagertze*-edo *daude*.

Goiko testuan tipografikoki agerian utzi nahi izan ditugun lau elementu-katea bereiz daitezke, ondoren laburbildu direnak hain zuzen ere.

⁷ HASAN (1994) «Identity chains» eta «Similarity chains» direlakoez mintzatu da eta REICHLER-BÉGUELIN (1989), «anaphore coréférentiel» eta «anaphore associative» direlakoez.

(10)

- (i) hizkuntza bat → hizkuntza hori → Ø → -a
- (ii) bretoiiraz → navajoz → hizkuntza biok
- (iii) «salbu» bide dago → desagertzeaz-edo daude
- (iv) baldin eta → baldin eta → baldin eta → baldin asko

Lehendabiziko katearen lokarria, erreferentziakidetasuna da zalantzarik gabe: *hizkuntza hori* esan ahal izateko eta areago, elementu hori isiltzeko edo artikulua mugatuaz ordezkatzeko, aldez aurretik aipatuta egon behar du hizkuntzak. Hortaz, *hizkuntza bat* eta *hizkuntza hori* bezalako izen-sintagmen artean dagoen aldea erraza da antzematen: lehenengoak lehenago aipatu ez den elementu bati egiten dio erreferentzia eta bigarrenak berriz, lehenago aipatu den elementu bati.

Baina gainerako kateetako elementuek ez dute eskatzen aldez aurretik aipatuta egotea. (ii) katearen kasuan, munduari buruzko ezagutza erabiltzen dugu *bretoierra* eta *navajoa* biak biltzen dituen *hizkuntza* hiperonimoarekin harremanetan jartzeko. Edonola, *bi hizkuntzak* eta *bretoierra eta navajoa* izen koordinatuek errealitatearen izaki-multzo beraren erreferentzia daramate.

(iii) katearen kasuan ere, testutik kanpoko ezagutza semantikora jo behar dugu *salbu egon* eta *desagertzeaz egon* esapideek aurkako ideiak adierazten dituztela antzemateko eta beraz, haien artean lotura bat ezartzeko. Esklusiozkoa da bi elementu horien arteko harremana eta ez erreferentziakidetasunezkoa.

Azken katea, are korapilotsuagoa da, *baldin eta* inolako erreferentziarik ez duen eta besterik gabe baldintzazko perpausak eraikitzeke balio digun gramatika-baliabidea hartu eta izen bat balitz bezala erabili dugu, zenbatzaile mugagabe eta guzti (*baldin asko*). Erreferentziakidetasunetik urrun dagoen lotura (morfologikoa) dugu kasu honetan.

Hortaz, testuaren ehoketan erabil ditzakegun baliabideak erreferentziakidetasun-sareetan oinarrituta daude batzuetan eta beste batzuetan nolabaiteko inferentzia eskatzen diguten harreman semantiko edo morfologikoetan. Lehenengoak sintaxi-erregelen bidez azal daitezke baina bigarrenek semantikara edota munduari buruz dugun ezagutzara jotzea eskatuko digute gehienetan.

2.1. Erreferentziakidetasun-kateak

Erreferentziakidetasun-kateak bi maila desberdinetan ezar daitezke, perpaus bakunaren mailan eta perpausen edo esaldien arteko mailan. Mai-

la bakoitzean, gainera, baliabide desberdinak behar ditugu eta maila bakoitzak bestea eskluitzen du lotura lortzeko erabil daitezkeen baliabide-motei dagokienez. Horrenbestez, aparteko sailak eskainiko dizkiegu bi maila horiei.

2.1.1. ERREFERENTZIAKIDETASUN-KATEAK PERPAUS BAKUNAREN BARRUAN

Perpaus bakunaren barruan bi motatakoak izan daitezke erreferentzia-kidetasun-kateak: izenordain elkarkari-bihurkarietan oinarrituta daudenak eta elementu isil bat dutenak.

2.1.1.1. *Izenordain elkarkari eta bihurkariak*

Perpausaren barruan erreferentziaren ikuspegitik perpausaren beste elementu batzuekiko menpekotasuna dutenak, izenordainen kategoriako zenbait elementu dira, bihurkariak eta elkarkariak hain zuzen⁸.

Izenordain elkarkariak, *elkar* eta *bata bestea* dira eta izenordain bihurkariaren artean, izenordain pertsonalen genitibo markadun forma batzuk (*neure, heure, geure, bere...*) eta horietaz osoturik dauden *bere burua, neure burua* e.a. bezalakoak daude. Elkarkari-bihurkariaren erabilera ongi deskribatuta dago Euskaltzaindiaren (1985, 1993) gramatiketan: *elkar* eta *bere burua* bezalakoaren erabilera finkatu samartua dagoen bitartean, *bere* eta *neure* bezalakoena nahasi samarra da.

Elkar eta *bere burua* bezalako izenordainen erreferentzia perpausaren bertan bilatu behar dela eta perpausaren betetzen duten harremanaren arabera deklinatu behar direla gogoraraziko diogu irakurleari besterik gabe. (12) adibidean, esate baterako, *elkarri* edota *batak besteari* datiboan deklinaturiko elkarkariak ditugu, *eskaini* aditzak hala eskatzen duelako.

- (11) **Zenbait animaliak**, populazioaren dentsitatea handiegi egiten deanean, **beren burua** hiltzen dute.
- (12) Komentsalismo harremanetan, **komentsalak eta ostalariak** nolabait teko saria eskaintzen diote { **elkarri/ batak besteari** }.

⁸ CHOMSKYREN «Gobernu eta Uztardura» esparru teorikoan hiru motatako izenkiak bereizi ohi dira: erreferentziadun esapideak, izenordainak eta anaforak. Izan ere hemen deskribatuko ditugun *elkar*, *bere burua* eta *bere* bezalako izenkiak anaforak dira esparru teoriko horretan aurrekari bat behar baitute txertaturik dauden perpausaren barruan. Gai honi buruzko informazioa nahi duenak jo dezan CHOMSKY (1981), SALABURU (1986, 1987) eta REBUSCHI (1986) lanetara.

Edonola, lan honetan ez dugu «Gobernu eta Uztardura» esparruko terminologia erabiliko eta izenordain berba, gramatika tradizionalaren zentzuan erabiliko dugu, izena ordezka dezakeen kategoria izendatzeko alegia. Anafora berba ere ez dugu aipaturiko esparru teorikoan bezala erabiliko, testuaren gramatiketan erabiltzen den zentzuan baizik: testuan beste nonbait eta beste modu batera errepikatuta dagoen elementua.

Genitibo markadun izenordainei buruz hitz egiten hasi aurretik, kome-nigarria da, euskal izenordainen sistemaz osotasun modura zertxobait esatea. Izan ere, sistema hau gaztelaniarena baino korapilatsuagoa da, izenordainen aldaera arruntei (*ni, gu, zu, zuek, hura, berori...*) forma intentsi-boak edo indartuak (*neu, geu, zeu, zeuek...*) gaineratu behar baitzaizkie. Lagunartean, bigarren pertsonako *zu/zeu* izenordainaren ordez, *hi/heu* erabili ohi da eta errespetuzko testuinguruetan *berori* erabil daiteke. Aukera horietaz gain, hainbat izenordainetarako, aldaera bat baino gehiago dago euskalki guztiak kontutan hartuz gero. Hona hemen *EGLU-I* gramatikak izenordain indartuetarako eskaintzen dituen aldaera dialektalak: *neu, nihaur, nerau, neroni, heu, hihaur, herori, zeu zuhaur, zerori, geu, guhaur, gerok, zeuek, zuihauk, zerok...*

Testu teknikoetan oso murriztua da lehenengo eta bigarren pertsonako izenordainen erabilera, horrelakoetan maizenik hirugarren pertsona erabiltzen baitugu. Erabilera horretarako, morfologia mailan behintzat erakusleak bezalakoak diren formak erabiltzen ditugu: *hura* singularrerako eta *haiek* pluralerako. Hirugarren pertsonako izenordainek ere, badituzte forma indartuak, alegia, *bera* singularrerako eta euskalkiz euskalki aldatzen diren *beraiek, berak, eurak* pluralerako.

(13)

	Singularra	Plurala
- indartua	HURA	HAIEK
+ indartua	BERA	BERAIEK BERAK EURAK...

Izenordain indartuak hainbat testuingurutan erabil daitezke: hasteko, izenordaina galdegai kontrastibo baten parte denean (14a); bigarrenik, *ere* eta *behintzat* bezalako testu-markatzaile kontrastiboak daramatzaten testuinguruetan (14b) eta azkenik, izenordainen errepikapenak eskatzen dituzten testuinguruetan (14c,d). Azken testuinguru hauek ere, izenordainak mintzagai (14c) edo galdegai (14d) hanpatu modura dituztenetakoak dira.

- (14) a. **Zeuk** esan didazu eta ez beste inork.
 b. **Neuk behintzat**, proiektu horretan parte hartzeko asmoa dut.
 c. **Nik neuk**, ez dut ezer esango.
 d. **Peruk berak** egingo du lan guztia.

Edonola, testuinguru horietan ere izenordain indartuak ez dira ezinbestekoak (14'). Oro har, mendebaldeko euskaldunek ekialdekoek baino ohitura handiagoa dute izenordain indartuak erabiltzeko (*EGLU-I*).

- (14) a. **Zuk** esan didazu eta ez beste inork.
 b. **Nik behintzat**, proiektu horretan parte hartzeko asmoa dut.
 c. **Nik**, ez dut ezer esango.
 d. **Peruk** egingo du lan guztia

Izenordain indartuen eta indartu gabeko izenordainen erabileraren muga eta aldaera ugarien arteko hautapena ez da inola ere geure eginkizuna. Izan ere, euskara batuari osotasunean dagokion arazo bat da eta Euskaltzaindia da, beharrezko baderitzo, horren inguruan erabaki bat hartzeko autoritatea duen bakarra.

Genitibo markadun izenordainen kasua, gainerakoena baino are korapilatsuagoa da ordea, esaldien interpretazioan eragin zuzena duen beste ezaugarri bat izan baitezakete izenordainok: irakurketa bihurkaria zein ez-bihurkaria izan dezakete. Absolutibo, ergatibo edo datibo marka daraman izenordain bat dugunean, badakigu ezin egin diezaiokeela erreferentzia perpaus bakun berean dagoen elementu bati (15a), baina genitiboa dararamaten elementuek, perpausaren beraren elementu bati edo perpausetik kanpoko elementu bati egin diezaiokete erreferentzia (15b).

- (15) a. Peruk {**bera/hura**} eramango du autoan.
 b. Peru {**bere/beraren/haren**} etxean bizi da.

(15a) esaldian izenordainaren forma indartua zein indartu gabea erabilita, badakigu, *bera/hura* izenordainak adierazten duen izakia ezin izan daitekeela *Peru*. (15b) perpaus berriz, anbiguitatea nabariki handiagoa da, *bere/beraren/haren* delakoak *Peru* berari edo beste pertsona bati egin baitiezaioke erreferentzia. Lehen kasuan, hau da, perpausaren barneko elementu bati erreferentzia egiten dionean, izenordainaren erabilera bihurkaria dugula esaten dugu.

Lehen eta bigarren pertsonako izenordainen kasuan, izenordainaren morfologia edozein izanda ere, anbiguitaterik gabea da irakurketa. Hortaz, (16a) adibidean interpretazio bakarra dago, genitibo marka daraman izenordainak, lehen pertsonakoa denez, ezinbestean perpausaren subjektuaren erreferentzia bera izan behar baitu. Hirugarren pertsonako izenordain bat erabiltzen denean berriz, hainbat izaki desberdini egin diezaioke erreferentzia: (16b) adibidean, bereziki, Peruri edo beste pertsona bati.

- (16) a. Nik {**nire/neure**} lana egigo dut.
 b. Peruk {**bere/haren/beraren**} lana egigo du.

Edonola, euskarari bere osotasunean begiratzen badiogu, hirugarren pertsonako izenordain genitiboen aldaera ugarietan ez dago anbiguitaterik eza ekarriko lukeen espezializatorik. Hona hemen aldaera desberdinek hartzen dituzten balioak.

- (17) Hirugarren pertsonako genitibo markadun izenordainen gaur eguneko erabilera

Singularra	Plurala	Bihurkaria	Indartua
HAREN	HAIEN	-	-
BERE	BERE(N)	+/-	+/-
BERAREN	BERAIEN	+/-	+/-
	EUREN	+/-	+/-

Erabilera errazena duen izenordaina *haren /haien* da: izenordain hau ezin egon daiteke esaldi berean erreferentziakidea den elementu batekin (18a). Kasu honetan, *bere* edo *beraren* erabili ohi da. Edonola, (18a) bezalakoetan, *bere* da literaturan maizenik azaltzen den aldaera, testuinguru honetan *beraren* erabiltzea, azken urteotako berrikuntza delarik (*EGLU-I* eta *Gramatika Laburra*). Hortaz, *bere/bere(n)* formak gomendatuko genituzke izenordain bihurkari modura.

- (18) a. Betidanik **gizakiak** natura {***haren/bere/?beraren**} probetxurako erabili du⁹.
 b. [Ekologoek gutxitan aztertu dute **ibaietako egurra**], [**haren** elikagai-kantitatea oso baxua baita].

Hortaz, (18a) eta (18b) adibideek *haren* eta *bere* izenordainen arteko kontraste minimoa agerian utziko lukete: aurrekaria perpaus bereko aditzean isladatzen den nor, nori edo nork motako sintagma bat denean, *bere* erabiltzea gomenda liteke; aurrekaria beste perpaus batean dagoenean berriz, *haren* erabili ohi da. Esate baterako, (18a) adibideko *gizakia*, *bere* dagoen esaldiaren *du* laguntzailearekiko komunztadura du eta horrexegatik erabili da *bere* izenordaina. (18b) adibidean berriz, *haren* erabili da, izenordain hau duen esaldiaren laguntzailean (*baita*) ez baitago aurrekariarekiko (*ibaietako egurra*) komunztadurarik.

Koordinaturiko bi IS ditugunean eta bata izenordaina denean, azken honen aurrekariak ez dauka aditzarekiko komunztadurarik eta beraz, *haren* erabili beharko genuke. (19) adibideko *ditugu* laguntzailearekiko komunztadura duena *zelula eta haren osagaiak* sekuentzia osoa da eta ez *zelula* soila:

- (19) **Zelula eta haren** osagaiak aztertuko ditugu.

⁹ * ikurrak, hori daraman elementua ezgramatikala dela esan nahi du.

? ikurrak, hiztunen arabera gramatikalitate-iritzi desberdinak egon daitezkeela esan nahi du.

Arazoak sortzen zaizkigu perpaus berean *bere* izenordainaren aurrekari izan daitezkeen bi elementu ditugunean. (20) esaldian adibidez, *bere* izenordainaren aurrekaria *harrapakaria* edo *harrapakina* izan liteke lehenago eman dugun erregelaren arabera.

(20) Harrapakaria harrapakinari bere gordelekuraino jarraiki zaio.

Honelako kasuetan badirudi munduari buruzko ezagutzak garrantzi handia duela eta aukera bat egitera eramaten gaituela. (20) adibidearen kasuan *bere* harrapakinarekin identifikatzea dateke ohikoena (20') baina (20'') bezalako kasu batean, harrapakaria bide da errazena *bere* izenordainaren aurrekari modura interpretatzeko.

(20') Harrapakaria **harrapakinari bere** gordelekuraino jarraiki zaio.

(20'') **Harrapakariak** harrapakina **bere** gordelekuraino eraman du.

Edonola, hegoaldeko euskalkietan, gramatikalizaturiko bereizketa bat dute munduari buruz dugun ezagutzak ezer gutxi laguntzen gaituenean. Hona hemen Euskaltzaindiaren (1985) gramatikatik harturiko adibide bat.

(21) a. **Andonik** Jose **bere** etxera eraman nahi zuen.

b. Andonik **Jose haren** etxera eraman nahi zuen.

Hizkuntza teknikoan nekez agertuko zaizkigu horrelako anbiguitate-kasuak. Edonola, sistema hau euskalki eta hizkeren artean guztiz finkoa ez denez, honelako kasu bat agertuz gero, anbiguitaterik ez duen itzuli bat bilatzen saiatu beharko genuke, hizkuntzaren erabilera teknikoa bereizten duen zehaztasuna mantentzearren.

Bestetik, aipatzekoa da izenordain hauen pluralaren arazoa: forma bihurkariaren pluralerako *bere/beren* aukerak ematen ditu Euskaltzaindiak (1987). Guk geuk, euskara teknikoaren kasuan behintzat singularreko eta pluraleko formak bereiztea gomendatuko genuke, erreferentzia-sare unibokoak ziurtatzeko bide bat baita. Ikus bedi anbiguitatea desagertu egiten dela lehian sartzen diren izen-sintagmetako bat plurala denean.

(22) a. **Harrapakariak** harrapakinak **bere** gordelekuraino eraman ditu.

b. Harrapakariak **harrapakinak beren** gordelekuraino eraman ditu.

Baina badago, izenordainen erabilera berezi bat erreferentziakidetasunekin zerikusirik ez duena, erabilera enfatiko izenez aipa dezakeguna hain zuzen. Honelakoetan, lehenago esan dugun bezala, izenordainen aldaera indartuak erabili ohi dira. Puntu honetan, berriro ere, gauzak korapilatu samartuak daude, euskara bere osotasunean kontutan harturik, singularrerako *bere* eta *beraren* aldaerak eta pluralerako *bere*, *beren*, *beraien* eta *euren* aldaerak aurki baitaitezke.

- (23) **Eboluzioaren Teoria** lanabes erabilgarri bihurtu zen orduan, fenomeno ulergaitz asko eta asko azaltzen baitziren {beraren/bere} baitan.

(23) bezalako adibideetan izenordainak adierazten duen erreferentea aurreko esaldian aipatua egotea da izenordain intentsiboaren erabilera deskateatzen duena. Edonola, euskalki guztietan ez da gertatzen testuinguru enfatikoetan izenordain intentsiboak erabiltzeko beharra. Hortaz, (23) adibideak *haren* ere onartuko luke *beraren* edota *bere* direlakoan ordez.

- (24) **Eboluzioaren Teoria** lanabes erabilgarri bihurtu zen orduan, fenomeno ulergaitz asko eta asko azaltzen baitziren **haren** baitan.

Puntu honetara heldu garelarik, zenbait ideia azpimarratzeko beharra dugu:

- (i) Izenordain indartuak erabiltzen diren testuinguruetan indartu ga-beak ere erabil daitezke.
- (ii) Gaur egun, tradizioan ikus daitekeenetik nabariki urrundu den izenordain indartuen gehiegizko erabilera ikus daiteke (*EGLU-I*).
- (iii) (17) eskemara itzuliz, *haren* eta *haien* izan ezik, gainerako aldaera guztiak [+bihurkari] zein [+indartua] ñabardura emateko erabiltzen dira. Horrek, idazlearen intentzionalitatea zein izan den jakitea ezinezko egiten du kasu askotan.
- (iv) Benetan interpretazioaren aldetik eragina duten ñabardurak, +bihurkari/-bihurkari oposaketari dagozkionak dira. Oposaketa horrek zerikusi zuzena du hizkuntza teknikoak eskatzen duen zehaztasunarekin, erreferentzia unibokoa izatea ezinbestekoa baita zehaztasun horretarako. Honi dagokionez, ekialdeko euskalkien joera dirudi finkoena: *bere* (bihurkaria) /*haren* (ez-bihurkaria). Ikuspuntu honetatik ere, *bere* izenordainaren pluralerako *beren* erabiltzeak dirudi zuhurrena¹⁰.
- (v) Enfasiarekin zerikusia duen izenordain intentsiboen erabilerak berriz, ez dirudi oso beharrezkoa neutroa eta konnotaziorik gabea izan beharko lukeen hizkuntza teknikorako.

¹⁰ Bistan da Euskara Teknikotik kanpo ere sortzen direla anbiguitateak izenordain hauen erabilera nahasiagatik. Hona hemen Jabier Alberdiri eskertu behar diogun *Euskaldunon Egunkari*tik ateratako adibide bat.

() ...*Xamardo... Dagoeneko Salaburuk bere lanpostua leihaketara ateratzeko agindua eman dio Kazetaritza Sailari.*

Adibide hau nekez interpreta daiteke EHUren gaur eguneko egoerari buruzko daturik gabe. Leihaketara aterako den lanpostua Salabururena izango dela pentsa lezake norbaitek Salaburu EHUren errektorea dela eta Xamardo Unibertsitate honetako gatazka batean sarturik dauden irakasleatarik bat dela jakin gabe. *Haren* izenordaina erabili izan balitz, ez legoke aipaturiko irakurketarako lekurik.

Hona hemen, geure iritziz, euskara teknikorako egokiena litekeen banaketa.

(25) Euskara Teknikorako gomenda litekeen erabilera

Singularra	Plurala	Bihurkaria	Indartua
HAREN	HAIEN	-	-
BERE	BEREN	+	-
BERAREN	BERAIEN	-	+
	EUREN	-	+

Hortaz, (25) eskemaren arabera, lehenago azaldu diren adibideak honelaxe eraikiko genituzke:

- (18') a. Betidanik **gizakiak** natura **bere** probetxurako erabili du (bihurkaria sing.).
 b. [Ekologoeak gutxitan aztertu dute **ibaietako egurra**], [**haren** elikagai-kantitatea oso baxua baita]. (ez-bihurkaria/ez-indartua).
- (19') **Zelula** eta **haren** osagaiak aztertuko ditugu (ez-bihurkaria/ez-indartua).
- (22') a. **Harrapakariak** harrapakinak **bere** gordelekuraino eraman ditu (bihurkaria sing.).
 b. Harrapakariak **harrapakinak beren** gordelekuraino eraman ditu (bihurkaria pl.).
- (23') a. **Eboluzioaren Teoria** lanabes erabilgarri bihurtu zen orduan, fenomeno ulergaitz asko eta asko azaltzen baitziren **beraren** baitan (ez-bihurkaria/+indartua).
 b. **Eboluzioaren Teoria** lanabes erabilgarri bihurtu zen orduan, fenomeno ulergaitz asko eta asko azaltzen baitziren **haren** baitan (ez-bihurkaria/ez-indartua).

2.1.1.2. Elementuen isiltzea

Euskaraz, perpaus bakunaren barruan aditzean isladaturik dauden (nor, nori eta nork) sintagmak isil daitezke. Izan ere, honelako elementuak ize-nordainak direnean ez dira ia inoiz ageriak (25), enfatizatu nahi ez badira behintzat (26).

(26) Ø hiru sail bereizi ditugu.

(27) Tresna hau {**geuk** /**guk**} egin dugu.

Honelako elementu isilek ez digute inolako arazorik sortzen erreferentziaren berreskurapenaren ikuspegitik aditzean gauzaturik baitaude. Elementuen isiltzea problematikoagoa da elementu baten isiltzean nola-

baiteko erreferentzia arbitrarioa ulertu behar denean. Honelako arazoak inpersonaletan eta objektua isiltzen duten eraikuntzetan sortzen zaizkigu. Izan ere, inguruan ditugun gaztelania, frantsesa eta ingelesaren jokaera euskararenetik urrun samar egonik ere, askotan konturatu gabe hizkuntza horien joera errepikatzen dugu. Hona hemen bi adibide:

- (28) ??Aldaketa horiek espeziearen suntsipenera eraman dute.
- (29) ??Antigorputzek toxina edo drogen sobredosien efektuen aurka babesten dute.

Honelako adibideetan, NOR izen-sintagma isildu dugu, eta izen-sintagma hori, itxuraz, aditzean isladaturik dago: *eraman dute* eta *babes dezakete* adizkiak nor-nork sailekoak baitira. Baina isildu dugun horrek irakurketa arbitrario edo inespezifiko eskatzen digu eta hori nekez lor daiteke euskaraz singularreko hirugarren pertsonaren bidez. (28) adibidea askoz ere egoitzaraz da euskaraz irakurketa arbitraria saihesten bada (28').

- (27') Aldaketa horiek espeziea suntsipenera eraman dute.

(29) adibidean irakurketa arbitrarioa mantentzeko baina hori ez da lortzen singularreko hirugarren pertsona erabiliz, pluraleko lehenengo pertsonaren bidez baizik:

- (29') Antigorputzek \emptyset toxina edo drogen sobredosien efektuen aurka babesten **gaituzte**¹¹.

Inpersonalei dagokienez, NOR-NORK motako aditzen eta NOR motako aditzen jokaerak bereizi behar dira. NOR-NORK motako aditzek bi modutara bihurtzeko daitezke inpersonal: NORK sintagmarako pluraleko hirugarren pertsona hautatuz (30) edo NORK sintagma ezabatuz (31). Azken aukera honek *°edun >izan* laguntzaile-aldaketa ere eragiten du eta aspektuarekin zerikusia duela dirudi, aditzak *-tzen* bukaera eraman behar baitu.

- (30) a. \emptyset Laginak ontzietan sartzen dituzte.
b. \emptyset Laginak ontzietan sartu dituzte.
- (31) Laginak ontzietan sartzen dira.

Interpretazioaren ikuspegitik ere, (31) bezalakoek interpretazio arbitrarioa duten bitartean, (30) bezalakoek interpretazio murriztagoa dute: aipatuko ez dugun baina zenbait elementuz osaturik dagoen multzo bat.

NOR motako aditzek interpretazio arbitrarioaren aukera baizik ez dute (32, 32'), (31) adibidearen interpretazio bera alegia:

¹¹ Ematen ari garen zehaztasun teknikoa gizakioi dagokigunean behintzat.

- (32) Hemendik joaten da kobazulora
 (32') (*interpretazio arbitrarioan) Hemendik doa kobazulora

Ez dugu gehiago sakonduko elementuen isiltzearen eta inperzonalak eraikitzearen arazo honetan¹². Edonola honelako egiturek arreta berezia eskatzen digutela azpimarratuko dugu. Izan ere, oso erraz eramaten gaituzte inguruko hizkuntzen kalko traketsak egitera.

2.1.2. ERREFERENTZIAKIDETASUN-KATEAK PERPAUSEN ARTEAN

Perpausen artean erreferentziakidetasun-kateak sortzen dituzten elementuak hainbat motatakoak izan daitezke:

- (a) Elementu isilak.
- (b) Errepikapenak.
- (c) Artikulu mugatua (eta, oro har, deklinabide-marka mugatuak) daramatzaten izen-sintagmak eta erakusleak.
- (d) Hiperonimo eta hiponimoen erabilera.

2.1.2.1. *Elementu isilak*

Batez ere aurrekaria perpaus konposatu beraren mugan dagoenean erabili ohi dira. Sintaxi-arauek agintzen dute, orduan, elementu isilen erabilera. Beste zenbaitetan ordea, aurrekaria elementu isila barruan duen perpaus (bakun eta konposatu)tik kanpo dago eta orduan, baliabide pragmatikoak dira elementu isil horien erreferentzia berreskuratzea baimentzen digutenak.

- (33) **Aztarnategia**, [Ø aurkitu berria izanik ere], oso joria da hondar fosiletan
- (34) Lehenago aipaturiko **suntsipen terminalen artean**, [mesozoikoaren amaieran Ø gertatu zen]a da, dudarik gabe, ikertzaile gehienak erakartzen dituena.
- (35) [**Dinosauru haragijaleek** belarjale guztiak jan zituzten] eta [gero, Ø gosez hil ziren].

Aurreko hiru adibideetan, elementu bat isildu dugu baina haren erreferentzia erraz berreskura daiteke prozedura sintaktikoen bidez. Hizkuntzaren sintaxia ondo erabiliz gero, badakigu nola eraiki halako perpausak. Irakurleak berehala deskodifikatuko ditu isilduriko elementu horiek berak ere sintaxiaren ezagutza bera baitu buruan. Areago, ez da posible isilduri-

¹² Euskarari buruzko argibide gehiago nahi duenak RODET (1992) eta EUSKALTZAINDIA (1993) lanetara jo dezake.

ko elementuen ordeaz gauzaturiko izen-sintagma jartzea perpausa ezgramatikal bihurtu gabe.

(36) adibidean isildu dugun elementua ordea, ez dago aurrekariaren perpaus (konposatu) berean eta bide pragmatikoetatik berreskuratzen dugu haren erreferentzia: aurreko perpausaren subjektuarekin edota mintzagaia-rekin identifikatzeko joera dugu¹³. Aurrekaria subjektua edo mintzagaia ez denean, zailago egiten da isiltzea, haren erreferentzia berreskuratzea ia ezinezko bihurtzen baita. Bestetik, elementu isilari dagokion izen-sintagma gauzatua jartzeak ez du gramatikaltasun-ezik eragiten.

- (36) **Dibertsitatea** komunitateen egiturazko ezaugarri bat da, espezieen kopurua, ugaritasun erlatiboa eta lagunaren banaketa ematen dituen.
Ø Zehazkiago aztertu aurretik, area minimoaz hitz egin behar dugu¹⁴.

Konparatu (36) adibidea (37a) adibidearekin: lehenengoan ez dugu inolako arazorik isildu den elementuaren aurrekaria identifikatzeko; bigarrenean berriz, oso neketsua egiten zaigu erreferentzia hori berreskuratzea. Ikusi erreferentzia modu esplizitoan gauzaturik duen (37b) esaldia askoz ere egokiago dela.

- (37) a. Dibertsitatearen kontzeptua aztertu aurretik, **area minimoaz** hitz egin behar dugu. Ø Komunitatea karakterizatzen duten espezie guztiak bere baitan dauzkan hedadura txikiaren lagin-azalera da.
b. Dibertsitatearen kontzeptua aztertu aurretik, **area minimoaz** hitz egin behar dugu. **Area minimoa** komunitatea karakterizatzen duten espezie guztiak bere baitan dauzkan hedadura txikiaren lagin-azalera da.

Hortaz, funtzio pragmatikoak edota funtzio sintaktikoak zeregin garrantzitsua betetzen du testuan zehar elementuak isiltzea erraztu edo zailtzeko orduan. Aurrekaritiko distantzia ere, oso garrantzitsua dateke, distantzia hori handiago egiten den heinean edonolako elementua ezabatzea zailago egiten baita.

Azkenik, aipatu beharrekoa da, itzulpenetik sortzen den eta euskaraz zuzena ez den isiltze-mota bat, izenki-predikatuen isiltzea alegia. Gaztelaniaz, honelako predikatuek *lo* izenordainaren bidezko ordezkapena onar-

¹³ Zenbait hizkuntzatan erreferentziaren mantentzeaz egin diren ikerketen arabera kontaktunetan haurrek eta nagusiek estratègia desberdinak erabiltzen dituztela dirudi: haurrek isiltzen den elementua mintzagaia-rekin identifikatzeko joera handia azaltzen duten bitartean, nagusiek perpausaren subjektuarekin identifikatzeko joera dute.

¹⁴ Ikus bedi adibide honen bigarren perpausaren bi elementu isil daudela, subjektuari dagokiona eta objektuari dagokiona alegia. Edonola, subjektuari dagokion elementu isilak perpausaren barruan hartzen du erreferentzia *dugu* aditz laguntzailetik, 2112 azpiatalean deskribatu dugun prozeduraren bidez alegia. Hortaz, erreferentzia baliabide pragmatikoen bidez hartu behar duen objektuaz soilik ari gara.

tzen dute eta euskaraz, horrelako izenordainik ez dugularik, oso ohikoa da itzulpenetan horrelako predikatua ordezkorik utzi gabe ezabatzea. Hona hemen adibide bat:

- (38) Se comprende que, tratándose de caracteres hereditarios, su distribución no sea uniforme ...aunque sean caracteres selectivamente neutros. Pero algunos ciertamente no lo son...
- (38') a. * Hala ere, batzuk ez dira \emptyset
b. Hala ere, batzuk ez dira **neutroak**

Euskaraz, (38') bezalako adibideetan izenki-predikatua errepikatze beharra dago, horren ordez ager daitekeen ordain gauzatu zein isilik ez baitugu.

2.1.2.2. Errepikapenak

Askotan testu batean zehar, gai-aldaketarik ez badago ere, gai nagusiari dagozkion elementuak errepikatze beharrean gaude.

- (39) **Biogeografia** organismoek espazioan eta denboran aurkezturiko banaketaren kausen azterketari deritzo. \emptyset atal nagusi bitan sailkatu da, zoogeografia eta fitogeografia, aztertutako bizidunak animaliak edo landareak ote diren kontutan hartuta. Beste ikuspegi batetik, **biogeografiaren** eremua hiru zatitan bana daiteke: alde deskriptiboa, alde kausala eta alde aplikatua.

(39) testuaren hirugarren esaldian *biogeografia* elementua errepikatze beharra dugu. Errepikapen horren arrazoi nagusia izen-sintagmak esaldi honetan aurrekaria dagoen esaldian ez zuen deklinabide-marka bat eramatea dateke (*biogeografiaren*). Ikusi (39) esaldia deklinabide-markaren aldaketarik gabe antolatuz gero elementua isiltzea posible dela (39'); edonola, hirugarren esaldian bigarrean baino zailago gertatzen da isiltze hori.

- (39') Beste ikuspegi batetik, {**biogeografia**/ \emptyset } hiru zatitan bana daiteke: alde deskriptiboa, alde kausala eta alde aplikatua.

Distantziaren arazoa logiko samarra da, azterketa psikolinguistikoek iradokitzen digutena kontutan hartuta, alegia, epe laburrean memoriak duen ahalmena 15 hitzen inguruan dagoela. 15 hitzen inguruan dago, era berean, esaldien batezbesteko hitz-kopurua. Horrenbestez, gehienez ere bi esaldiren arteko muga gandi dezake geure memoriak eta hirugarren esaldirako urratsa zailagoa dateke.

Edonola, garbi dago distantzia ez dela erreferentzia berreskuratzeko orduan eragina duen bakarra, perpausen konplexutasuna ere erabakitzailea da: gehienez ere menperatu bakarra duen perpausaren muga errazagoa

izango da zeharkatzen, erlatibo, iruzkin eta aposizioz beteta dagoen perpausarena baino. Bestetik, gogoratu behar den elementuak perpausaren duen kokapenak ere berebiziko garrantzia du: mintzagaia errazago gogoratzen da bestelako elementuak baino.

Bukatzeko, esan beharrekoa da elementu bat errepikatu gabe utz daitekeen esaldien kopurua hizkuntzaz hizkuntza ere aldatzen dela. Hortaz, itzulpenak egiten ditugunean bereziki zaindu behar den kontua da elementuen errepikapena. Ezinbestekoa da, testua behin baino gehiagotan irakurtzea isilduriko elementuen erreferentzia berreskuratzerik ba ote dagoen ikusteko.

2.1.2.3. Artikulu mugatua (edo deklinabide mugatua) eta erakusleak

(i) Bai artikulu (edo deklinabide) mugatua bai erakusleak ere, *bat/batzuk* bezalako artikulu mugagabeen osagarriak dira erreferentzia-kateetan. Elementu bat lehen aldiz aipatzen denean, *bat* erabili beharko dugu; aipatutako elementu batez ari garenean berriz, mugatzailea edo erakuslea erabiliko dugu.

(40) B hepatitis **birus baten** bidez iragaten da pertsona batetik bestera eta munduan zehar zabalduta dagoen arren, intzidentzia desberdina du herrialde batetik bestera.

B hepatitisaren birusa, Hepadnabirusa da eta gibeledu zeluletan sartzeko ahalmena du. **Birus honi** hainbat antigeno eta antigorputz elkartzen zaizkio.

(ii) Edonola, mugatzaileak eta erakusleak ez dute berdin jokatzeko: erakusleak barne-contrastea ezartzen du eremu lexiko baten barruan; mugatzaileak berriz, eremuen arteko kontrastea ezar dezake. (41) adibidean, esate baterako, landareen eta animalien eremuen arteko kontrastea lortzen da mugatzailearen bidez. (40) adibidean berriz, *birus honi* izen-sintagmak birus guztien artean hepatitisaren birusaz soilik arituko garela adierazten digu.

(41) Endozookoria, **zenbait landareen eta zenbait animalien** artean ezartzen den erlazio mutualista da. **Landareak** bere hazien sakabakuntza lortzen du eta **animaliak** mimetismoa bezalako sariak lortzen ditu.

(iii) Bai erakusleen kasuan, bai mugatzailearen kasuan ere, oso ohikoa da izena ezabatzea. Ezabaketa hori egiteko, noski, izen horren erreferentzia testuigurutik erraz berreskura daitekeela segurtatu behar dugu. Mugatzailearen kasuan oso ohikoa da ezabaketa aurrean genitibo marka daraman izen bat dagoenean. (42) adibidean, esate baterako, *arrakasta* hitza isildu dugu *animaliaren arrakasta* = *animaliarena* eginez. Edonola,

kasu honetan duguna ez da zehazki erreferentzikedetasuna, izan ere *landarearen arrakasta* eta *animaliaren arrakasta* esapideetan azaltzen diren *arrakasta* biek ez dute erreferentzia berbera.

- (42) Landarearen arrakasta segurtaturik dago eta baita animaliarena ere.

Arreta handiagoaz jokatu behar dugu, ordea, ezabatzen den izena genitiboen kateamendu baten partaide denean, genitiboen kateamendu horrek zailago bihurtzen baitu deskodifikazioa: bi genitibo kateatu dugunean zaila izaten da deskodifikazioa, baina bi genitibo baino gehiago izateak erabat ezinezkoa egiten du ulerkuntza.

- (43) Landarearen moldapenen konplexutasuna handia da eta baita animaliareneana ere.

Erakusleak ere, askotan erabiltzen ditugu izenik gabe eta halaber, kasu honetan ere, falta den izena zein den garbi egon behar du irakurlearentzat. Izena agerian duen izen sintagmaren funtzioak eta distantziak eragin handia dute ezabaketa onartzeko orduan. Konparatu (44) eta (45) adibideak.

- (44) Hondartzaren eraketa itsasbazterreko **higadura-fenomenoarekin** lotutako prozesua denez, **fenomeno horren** aipamena derrigorrezkoa da hondartzen jatorria hobeto ulertzeko.
- (45) *Medicago marina* bezalako belar-espezieek **ile ugari** dituzte hosto eta enborretan. **Hauei** esker, landare-ehunak erre lezaketen eguzki-izpiak isladatzea, traspirazioa murriztea eta euri-tantak hostoetan atxekitzea lortzen dute.

(44) adibidean beharrezko dirudi *fenomeno* izena errepikatzeak; (43) adibidean berriz, ez dirudi *ile* izena errepikatzea horren beharrezkoa denik. Arrazoiak aurrekariaren deklinabide-markarekin eta beraz, esaldian betetzen duten funtzioarekin zerikusia dauka: nor, nork eta agian nori sintagmak errazagoak dira berreskuratzen deklinabideko gainerako markak daramatzatenak baino.

Azkenik, izena ezabatzeko erraztasuna handiagoa da aurrekariaren perpausuan erreferentziaren aldetik lehian sar litezkeen izen-sintagmen artean numero-desberdintasuna dagoenean: singularreko edo pluraleko erakusleek zuzenean eramango gaituzte hurrenez hurren singularreko eta pluraleko izen-sintagmetara. (46) adibidean, *animalia*, *fruitua* eta *haziak* sar litezke lehian, erakusleari erreferentzia emateko orduan, baina plurala den bakarria *haziak* denez, horixe hartuko dugu *hauek* erakuslearen aurrekari-tzat.

- (46) Animaliak fruituarekin batera **haziak** ere liseri litzake eta beraz, **hauek** ongi babestuta egon behar dute.

Genero-bereizketarik ez dugu egiten, ordea, euskaraz eta hori kontutan hartu beharreko faktorea da itzulpenak egiten ditugunean: gaztelaniaz, generoaren estrategia erabili denean euskaraz arreta handiaz jokatu behar da izena ezabatzeokotan. Hortaz, (47') itzulpena ez litzateke oso egokia; izan ere, gaztelaniaz erakusleen graduen estrategiaz gain, generoaren estrategia erabiltzen ari gara eta euskaraz berriz, ez dugu generoaren estrategia erabiltzerik eta graduen arteko oposaketak ez dirudi gaztelaniarena bezain zehatza izenordainen erabilera anaforikoan (hau/hori/hura). Horrenbestez, euskararako egokiagoa da izenak errepikatzen dituen (47'') itzulpena edo (47''').

- (47) La endozoocoria es una relación mutualista que se da entre **un animal** y **una planta**. **Esta** consigue la dispersión de sus semillas y **aquel** ventajas del tipo del mimetismo.
- (47') #Endozookoria, landare baten eta animalia baten artean ezartzen den erlazio mutualista da. **Hark** bere hazien sakabanakuntza lortzen du eta **honek** mimetismoa bezalako sariak lortzen ditu¹⁵.
- (47'') Endozookoria, landare baten eta animalia baten artean ezartzen den erlazio mutualista da. **Landareak**, bere hazien sakabanakuntza lortzen du eta **animaliak**, mimetismoa bezalako sariak lortzen ditu.
- (47''') Endozookoria, landare baten eta animalia baten artean ezartzen den erlazio mutualista da. **Lehenak**, bere hazien sakabanakuntza lortzen du eta **bigarrenak**, mimetismoa bezalako sariak lortzen ditu.

(iv) Askotan, erakusleak ez du izen-sintagma bat ordezkatzeko, aurreko esaldian deskribatu den prozesu, egoera edo baldintza-multzoa baizik. Kasu honetan gaztelaniaz, «*eso*» erakusle neutroa erabili ohi da eta beraz, ez dago inolako anbiguitaterik. Baina euskaraz berriro ere, ulergaitz samarrrak dira izenik gabeko itzulpenak, genero-oposaketarik ez baitago: *hau* edo *hori* erakusle soilak baino askoz egokiagoak dirudite *faktore hau*, *egoera hau*, *badintza horiek* e.a. bezalako izen-sintagmak. (48) adibidean, esate baterako, egokiagoa da *datu honek*, *honek* soilak baino.

- (48) Sekzioaren apartekotasunen artean, iridioaren diagraman lehenengoa baino handiagoa den bigarren erpin baten aurkikuntza aipatu behar da. **Datu honek** nanoplankton kalkareoaren urripen handiarekin zerikusia dauka.

(v) Azkenik, erakusleen graduaren eta erabilera anaforiko eta kataforikoaren artean dagoen harremanaz hitz egingo dugu. Hizkuntza mintzatuaren erakusleek zeregin deiktikoa izan ohi dute, alegia, objektuak mundu errealean kokatzeko funtzioa. Hortaz, hiru gradutako erakusleak daudela esan daiteke: *hau* erakusleak (1. gradukoa) mintzatzeko denarengandik

¹⁵ # ikurrak forma baten testuinguru baterako ezegokitasuna adierazten du.

hurbil dauden izakiak adierazteko erabili ohi da, *hori* (2. gradukoa) urrunago dauden izakiak aipatzeko erabiltzen da eta *hura* (3. gradukoa) mintzatzen den pertsonatik urrun dauden objektuak aipatzeko orduan hautatu ohi da.

Edonola, ohikoena izaten da erakusleek balio deiktikorik ez izatea idatziriko testuetan erabiltzen ditugunean: lehenago aipatu den elementu bat ordezkatzeko (erabilera anaforikoa) edo beranduago aipatuko den elementu bat aurreratzeko (erabilera kataforikoa) izan ohi dute. Erabilera anaforikorako *hori* zein *hau* erabili ohi dira (49) eta erabilera kataforikorako *hau* da erabiltzen den erakusle bakarra (50)¹⁶. Bi erabilerok sortzen dituzte azpiatal honetan hizpide ditugun erreferentziakidetasun-kateak: erabilera anaforikoa «IS-*a(k)* → (IS)erakuslea» motako kateei dagokie eta erabilera kataforikoa «(IS)erakuslea → IS-*a(k)*» motako kateei.

- (49) Guadalajarako Unibertsitateko ikerlariek X kromosomaren sekzio batekin identifikatu dute **otsoaren zenbait ezaugarriekin erka litezkeen sintomak eragiten dituen gaixotasuna**. Ikertzaileen iritziz, kromosomaren «mikrosatelitea» deritzon eskualdean gertatzen da {**sindrome hori/sindrome hau**} eragiten duen egitura-aldaketa.
- (50) Tamainuaren arabera, **haitzulo-mota** {**hauek/#horiek**} bereizi ohi dira: **makrokobak** (20cm baino gehiagokoak), **mesokobak** (0.1-20 cm bitartekoak) eta **mikrokobak** (0.1 cm baino gutxiagokoak).

Erabilera kataforikoan erakuslea daraman izen-sintagma galdegaia izan ohi delarik, (50') bezalakoak zalantzagarriztat har daitezke:

- (50') # **Haitzulo-mota hauek**, tamainuaren arabera bereizi ohi dira: **makrokobak** (20cm baino gehiagokoak), **mesokobak** (0.1-20 cm bitartekoak) eta **mikrokobak** (0.1 cm baino gutxiagokoak).

Hortaz, anafora-funtzioa duen erakusledun izen-sintagma galdegaia denean, *hori* erakuslea erabiltzea da egokiena. Izan ere, *hau* erabiliz gero irakurleak horretan katafora bat ikusteko joera izango du. *Hori* erabilita ordea, irakurketa bakarra dago, anaforarena alegia.

- (51) Atzerago, harea metatzen hasten den lekuan eta haizeak hondar-mendisen itxura eta lekua maiz aldatzen duen zatian, hedadura txikiko landare-sail bat aurki daiteke. {**Horiexek/#hauexek**} dira hain zuzen *Euphorbio-Agropyretum junceiformis* asoziazioa eratzen dutenak.

¹⁶ LAFITTEK (1944) *hau* erakusleari balio kataforikoa egozten dio soilik: «...**Hau** ...sert à annoncer ce qui suit: ...hitz hauek erran ziozkan...
...**Hori** sert a rappeler ce qui précède: ...hitz hoik esan eta jaiki zen...»

(51) adibidean *hauexek* idatziz gero, irakurleak ondoren *Euphorbio-Agropyretum junceiformis* asoziazioa eratzen duten landareen izenak eskainiko ditugula pentsatuko du eta bigarren irakurketa bat beharko du *hauexek* horretan balio anaforikoa ikusteko. *Horiexek* irakurtzean berriz, berehalakoa da irakurketa anaforikoa.

Izena isiltzen denean, *berau* (*hau* erakuslearen forma indartua) ere erabili ohi da, testuan lehenago aipatu den zerbaiti erreferentzia egiteko (52). Edonola, *berau* ez da onargarria (50) adibidearena bezalako erabilera kataforikoetarako (50"). Areago, ez da oso gomendagarria inolako testuingurutan.

- (52) Holandako zientzilariek arrakastaz erabili duten soinu-teknika berria erabiliz, **hondakinaren osagaiak laborategian banatzea** lortu dute. {**Hori/Hau/ Berau**} lehen urratsa baino ez da.
- (50") # Tamainuaren arabera **berauek** bereizi ohi dira haitzulo-moten artean: **makrokobak** (20cm baino gehiagokoak), **mesokobak** (0.1-20 cm bitartekoak) eta **mikrokobak** (0.1 cm baino gutxiagokoak).

Erakusleen aldaera indartuetatik eratorritako *bertan* leku-aditzondoa ere erabili ohi da balio anaforikoa behar denean (53).

- (53) Ihardun emankor horren emaitzarik preziatuena, «**Espezieen jatorriaz**» **liburua** dugu. **Bertan**, Eboluzioaren teoria agertu zuen.

Äzkenik, aipatzekoa da plural hurbilaren erabilera, erakusle anaforikoen ordezkua izan baitaiteke. Izan ere, (54) adibidea, *fenomenoon*, *fenomeno horren* duen (44) esaldiaren pluralaren parekoa da.

- (54) Hondartzaren eraketa, itsasbazterreko **higadura-fenomenoekin** lotutako prozesua denez, **fenomenoon** aipamena derrigorrezkoa da hondartzaren jatorria hobeto ulertzeko.

Hona hemen erakusleen eta pareko baliabideen erabilera anaforiko eta kataforikoen eskema bat.

- (55) Erakusleen erabilera anaforiko eta kataforikoak

Singularra	Plurala	ANAFORA	KATAFORA
HAU	HAUEK	+ [-galdegai]	+ [+galdegai]
HORI	HORIEK	+ [±galdegai]	—
?BERAU	?BERAUEK	+ [±galdegai]	—
—	-OK	+ [±galdegai]	—

? ikurrak aldaera hauek oso gomendagarriak es direla esan nahi du.

2.1.2.4. Hiperonimo eta hiponimoen erabilera

Erreferentziakidetasun-sareak sortzeko beste bide bat hiperonimo edo hiponimoak erabiltzean datza. *Animalia* eta *intsektu* izenen eta *eltxo*, *erle*, *listor* e.a. izenen artean dagoen harremana hiperonimia/hiponimia motakoa da. Testuinguru egokian hiperonimoek hiponimoak ordezkatu eta erreferentziakidetasun-sareak sor ditzakete.

- (56) **Erleek**, erasotzeko nahiz babesteko, pozoizakaren muturrean dagoen eztena erabiltzen dute. Zaku hori uzkurto egiten da eta eztenaren bidez, etsaiaren ehunetara pasarazten dute pozoia. **Intsektu hauek**, hil egiten dira eztenkadaren ondoren. Beste intsektu batzuk ordea, listorrek esate baterako, ezten-kolpe asko eragin dezakete hil baino lehen.

Aipatu beharrekoa da, hiponimo → hiperonimo lotura egiten dugunean erakuslea erabiltzeko beharra dugula, artikulua mugatua erabiliko bagenu ez baikenuke erreferentziakidetasunik adieraziko: (56) adibidea, esate baterako, *intsektu hauek* izen-sintagmaren ordez *intsektuak* jartzen badugu, erleez ez ezik gainerako intsektu guztiez ere mintzatuko ginateke.

Bestetik, hiperonimo → hiponimo harremana ezartzen dugunean ez dugu erreferentziakidetasunik lortzen hurrengo atalean aztertuko ditugun inferentzia-harremanak baizik. Konparatu (56) eta (57) adibideak: (57) adibidean *intsektu guztiek* izen-sintagma ez da *erleak* izen-sintagmaren ez *listorrek* izen-sintagmaren ez eta *erleak* eta *listorrek* izen-sintagmaren erreferentziakide.

- (57) Dakigunez, **intsektu guztiek** ez dute ziztada-ahalmen berbera izaten. **Erleak** eztenkadaren ondoren hil egiten badira ere, **listorrek** eztenkolpe asko egiteko gai dira hil baino lehen.

2.2. Inferentzia-kateak

Inferentzia-kateak ezartzea posible egiten diguten estrategiak ugariak dira. Haien artean, ondoko hauek aipatuko ditugu:

- (a) Hiperonimo → hiponimo kateak.
- (b) Antonimoen erabilera.
- (c) Nolabaiteko harreman morfologikoa duten esapideez osaturiko kateak.
- (d) Ekintza bat eta horretan parte hartzen dutenak harremanetan jartzea.

2.2.1. HIPERONIMO → HIPONIMO KATEAK

Aurreko sailean esan dugunez, hiperonimo → hiponimo motako kateak inferentziak egitera eramaten gaituzten kateak dira, orokorretik indibidualera iragaten garenean ezinezkoa baita erreferentziakidetasun-kateak eraikitzea.

- (58) Etengabeko lurperaketak eta azaleratzeak saihesteko, **dunetako landareek** moldaera desberdinak garatu dutuzte. *Elymus generoko zenbait espezieak* adibidez, zurtoin zinbelak dituzte; *Panocratium maritimum* **espezieak**, berriz, erraboilak (erreserbak gordetzeko eraladatu diren lurpeko kimuak) ditu eta *Aetheorriza bulbosak*, tuberkuluak (erreserba-substantzietan aberatsak diren zurtoinaren lodiguneak).

2.2.2. ANTONIMOEN ERABILERA

Antonimoak edo nolabait aurkakotzat hartzen ditugun elementuak dituzten kateak ere laguntzen gaituzte testuari ehunduraren ezaugarria ematen.

- (59) Pilula antisorgailuaren erabilera normaldu zenez geroztik, **emakumearen** askatasunerantz urrats garrantzitsua eman zela sarritan entzun izan dugu. Oraingoan, **gizonek** izango ei dute norabide berean aurrera egiteko aukerarik.

(59) adibidean, testu-loturan parte hartzen duten elementu bakarrak ez badira ere, *emakume/gizon* antonimoek lagundu egiten gaituzte ehundura edo lotura hori lortzeko orduan.

2.2.3. NOLABAITEKO HARREMAN MORFOLOGIKOA DUTEN ELEMENTUEZ OSOTURIKO KATEAK

(60) adibideari ehundura ematen diona, *estimatus* partizipioaren eta *estimazio* izenaren artean dagoen morfologiako harremana da: bi hitzek dute oinarrian *estimatu* aditza.

- (60) Haginaren zura, erretxina gabekoa eta oso gogorra, bai zurgintzan eta bai arozintzan betidanik **estimatus izan da**, eta **estimazio hori** izango litzateke Euskal Herrian hagin bakan batzuk geratzearen arrazoi nagusia.

Ikusi *estimazio* izena *hori* erakusleari lotuta azaltzen dela eta horrek esan nahi du alde zuretik aipatuta dagoen elementutzat jotzen dugula.

Edonola, inferentzia bat egin behar izaten dugu *estimatuia izan da* aditz-esapidetik *estimazio* izenera heltzeko. Era berean (61) adibidean *ekologiko* izenondoa eta *ekosistema* izena harremanetan jartzen ditugu biek *ekokultur* erroa dutelako.

- (61) Lurrazpiko inguruneak eta bertako izakiek unitate **ekologiko** oso be-
rezia osatzen dute. **Ekosistema** hipogeoan faktore abiotikoeak eta tro-
fikoeak denek batera parte hartzen dute.

2.2.4. EKINTZA BAT ETA HORRETAN PARTE HARTZEN DUTENAK HARREMANETAN JARTZEA

Aipatu ditugun kateen artean, hauxe da seguruenik ikusten zailena egiten zaiguna. Gaixotasun batez hitz egiten dugunean, badakigu horrekin harremanetan, gaixoak, sintomak, tratamenduak e.a. egongo direla. Hor-
taz, (62) adibidean, itxuraz lotura-elementu nabaririk ez badago ere, mun-
duari buruz dugun ezagutzatik datorren koherentzia ikus dezakegu. Gaixo-
tasun batez ari gara eta testuak, sintomak, gaixo-mota eta tratamenduaz
hitz egiten digu.

- (62) Badira hiru **hepatitis**-mota nagusi. Hirurek eman dezakete **klinika**
berbera eta beraz, ez dago horren bidez elkarrengandik bereizterik.
Edozein adinetan gerta daitezke baina batez ere **ume** eta **gazteetan**
agertzen dira. Behar den bezala eboluzionatzen duen gaitzak, ez du
tratamenduaren beharrik, nahikoa izango da higienearen aldetik
neurri batzuk hartzea.

Modu berean, edozein erreakzio kimikotan badakigu zenbait erreak-
tibok parte hartu behar dutela (63) eta ekologian, ingurune batez hitz
egiten dugunean, bertako bizidunei buruz hitz egitea da espero dezake-
guna (64).

- (63) Disoluzio akuosoetan **urak katioiekin** (base ahulak eratzeko)
ematen duen **erreakzioari** hidrolisia deritzo. Azido edo base ahu-
leko (edo azido eta base ahuleko) gatzak hidrolizatzen direla esa-
ten da.
- (64) Lurgaineko eta haitzuloetako **inguruneen** arteko banaketa graduala
da. Tartean dauden guneek eta **bertako bizidunek** ere tarteko ezau-
garriak dituzte.

Laburbilduz, testuko elementuen artean sortzen diren kateak dira tes-
tuari ehundura ematen diotenak. Katea horiek bi motatakoak izan daitez-
ke: erreferentziakidetasun-kateak eta inferentzia-kateak.

(65) Erreferentzi sareetan parte hartzen duten elementuen motak

	Elementu-motak	Katemaien kokapena	
		Perpau berean	Perpau desberdinetan
Erreferentziakide-tasun-kateak	Izenordain elkarkari-bihurkariak	+	-
	Elementu isilak	+	+
	Errepikapenak	-	+
	Mugatzailea	-	+
	Erakuslea	-	+
Inferentzia-kateak	Hiperonimo → hiponimo kateak	-	+
	Antonimoak	-	+
	Morfologiazko harremanak	-	+
	Ekintza baten eta partehartzailen artekoak	-	+

Igone Zabala
Euskara Teknikoa
Zientzi Fakultatea. EHU
P.K:644 48080 BILBO
P. E: fvpzauni@lg.ehu.es

3. BIBLIOGRAFIA

- CASSANY, D. (1993), *La cocina de la escritura*. Barcelona. Anagrama.
- COMBETTES, B. (1986), «Coréférence et connexité thématique dans le discours», in Michel Charolles, János S. Petöfi & Emel Sözer eds. *Research in Text Connexity and Text Coherence*, Papers in Textlinguistics, Vol. 53 (1), Helmut Buske Verlag Hamburg.
- CHAROLLES, M. (1978), «Introduction aux problèmes de la cohérence des textes», *Langue Française*, 38: 4-71.
- CHOMSKY, N. (1981), *Lectures on government and binding*, Dordrecht. Foris.
- DIJK, T.A. van (1980), *Texto Contexto*, Madrid. Cátedra.
- DRESSLER, W. (1974), *Introduzione alla linguistica del testo*, Roma. Officina.
- EUSKALTZAINDIA (1985), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-I*, Bilbo.
- (1987), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-I (eranskina)*, Bilbo.
- (1990), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III*, Bilbo.
- (1993), *Euskal Gramatika laburra: perpau bakuna*, Bilbo.
- GAVARELLI MORTARA, B. (1974), *Aspetti e problemi della linguistica testuale*, Turín. Giappichelli.
- GARCÍA BERRIO, A. & VERA LUJÁN, A. (1977), *Fundamentos de la teoría lingüística*, Madrid. Alberto Corazón.
- HALLYDAY, M.A.K. & HASAN, R. (1976), *Cohesion in English*, London. Longman.
- (1980), *Text and Context* Tokyo. Sophia University.

- HASAN, R. (1994), «The Texture of a Text», in David Graddol & Oliver Boyd-Barred eds. *Media Texts: Authors and Readers*. Great Britain. The Open University.
- LAFITTE, P. (1944), *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Elkar. Donostia (1979).
- OSA, E. (1990), *Euskararen Hitzordena komunikazio zeregien arauera*. EHUko Argitarapen Zerbitzua.
- PETÖFI, J.S. & GARCÍA BERRIO, A. (1978), *Lingüística del texto y crítica literaria*, Madrid. Alberto Corazón.
- REBUSCHI, G. (1986), «Theorie du liage, diachronie et enontiation: sur les anaphores possessives du basque», *ASJU*, 1986: 325-341.
- REICHLER-BÉGUELIN, M.J. (1989), «Anaphores, connecteurs, et processus inférentiel», in Christian Rubattel ed. *Modèles du discours. Recherches actuelles en Suisse romande*, Berne. Editions Peter Lang.
- RIESER (1978), «El desarrollo de la gramática textual», in Petöfi, J.S. & García Berrio, A. eds. *Lingüística del texto y crítica literaria*, Madrid. Alberto Corazón.
- RODET, A. (1992), «Construccions amb lectura arbitrària en basc», *ASJU*, XXVI-1:145-179.
- SALABURU, P. (1986), «La teoría del ligamiento en la lengua vasca» *ASJU* XX-2: 359-412.
- (1987), «Kategoria gauzatuak eta kategoria isilak», in P. Salaburu (ed.), *Sintaxi arazoak*, EHU Argitarapen Zerbitzua, 13-34.
- SLAKTA, D. (1975), «L'ordre du texte», *Etudes de Linguistique Appliquée*, 19: 30-42.
- ZABALA, I. & ODRIUZOLA, J.C. (1992), *Idazkera Teknikoa 1. Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera*, EHUko Argitarapen-zerbitzua.

PERPAUSEN ARTEKO TESTU MAILAKO LOTURA: TESTU ZIENTIFIKOAK SORTZEN

Jesus Mari Makazaga

0. SARRERA GISA

Sarritan aurkitzen da unibertsitateko ikaslea testu bat sortu beharrean. Testuek forma eta helburu desberdinak izan ditzakete. Izan daitezke irakasleak eskatzen dion idazlantxoak (gai jakin bati buruz eta laburki), jende aurrean azaldu beharreko lan sakonagoak, tesina bat, eta abar.

Egin behar duen testua idazten hasi aurretik ongi pentsatu beharko du ikasleak zer adierazi nahi duen, zein helburu dituen eta nori zuzentzen dion lana. Faktore hauek kontutan izan beharko ditu testua antolatzerakoan; eta faktore hauen arabera egingo du testuaren antolaketa (zein zatitan eta nola antolatu testua), aukeratuko du hizkuntza-maila (hizkera arrunta testuaren hartzailea hiztun arrunta bada, teknikoagoa hartzaileak espezialitatea menderatzen bada), testuan erabiliko duen presuposizio-maila (hartzaileak gaia menderatzen bada, erabil dezakegu presuposizio-maila altua, baina arlo horretan aditua ez bada, nekez ulertuko ditu idazleak suposatutzat ematen dituen zenbait kontzeptu edo ideiareneko arteko lotura; beraz, ideiak gehiago edo gutxiago landuko ditu irakurlearen edo testu-hartzailearen ezagutzen arabera), eta abar.

Lan honetan testuez arituko gara. Lehen atalean testuaren osagai diren paragrafoez eta perpausuez, hauen egituraketaz arituko gara. Bigarrean, testuak sortzeko ditugun baliabideez; perpaus-multzo batetik paragrafo baterako zubia, eta paragrafo-multzo batetik testu baterakoa nola eraiki dezakegun azaltzea da gure asmoa. Hau da, nola lortu perpausen eta paragrafoen hurrenkera bat testu bilakatzea. Hirugarren atalean testu-sorkuntzan erabiltzen ditugun lokailuez arituko gara, tradizioan nola erabili izan diren aztertuz, batez ere laugarren atalari begira. Atal honetan, bukatzeko, testu-sorkuntzan egiten diren akatsez arituko gara, kasu bakoitzean egitura gomendagarriak emanez.

Lan honi hasiera emateko oinarritzko terminoen azalpena ematea litza-teke lehendabiziko pausua.

1. PERPAUSA, PARAGRAFOA ETA TESTUA

1.1. Perpauza

Perpauza definitzen ez jakin arren, hiztun gehienek ezagutu eta identifikatuko luketen terminoa da. Izan ere, gramatika guztietan aurki daitezke perpauzari buruzko aipamen eta azalpenak. Perpauza, errazenera jota, puntu batetik hurrengo puntura doan hitz-katea litzateke¹. Beste saio bat egin da, aditza (agerian nahiz isilean) duen egitura sintaktiko autonomia dela esan izan da. Zergatik autonomia? Zentzu-osotasuna duen egitura delako, beste ezereen beharrik ez duelako bere ulermenerako.

Gramatikaren unitate zabalena eta osoena dela ere esan izan da, ez baita gramatika perpauza baino goragoko egiturez arduratzen. Gramatikek ez dute perpauza baino egitura zabalagorik izan aztergai.

Hala ere, edozein testutako zenbait perpauz hartzen badugu, argi geratzen da perpauzek elkarren artean erlazioak dituztela. Hau erakusteko, gatozen literaturako testu batzuetatik ateratako perpauz batzuekin²:

- (1) Orduan, geisoetxera eraman bearko dogu. (E. Erkiaga, *Batetik bestera*.)
- (2) Orduan, itxi deiogun baketan. (E. Erkiaga, *Batetik bestera*.)
- (3) Bazterrak xautu eta xeatu zituzten, beraz. (J. Zaitegi, *Platoneneko atarian*.)
- (4) Badituzu, alabaina, Euskalerrian ni baino bereter jakintsuagoak, ugarri. (R. M. Azkue, *Ardi galdua*.)
- (5) Aitzitik, eman-arazi zioten, hura hartu nahiz zabiltzanei yaterat eta edaterat. (Larregi, *Testamen zaharreko historia*.)
- (6) Eskola haundian aldiz, errient erdalduna ginuen, euskararen kontra koa gainerat, bertze aunitzen gisa. (Xalbador, *Odolaren mintzoa*.)
- (7) Ireak ordea, Mirei, azabatzea bezain beltzak, eta neri dirdai dagidateanean, baso bat ardo egosi edaten dudala zirudidan. (Orixe, *Mireio*.)
- (8) Bestalde, Aristotelesen garaian jakintzak atzera-samar zebiltzan, eta ala barkakizun da ori uste izanagatik. (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*.)
- (9) Eta ez da segurki gobernamentuaren hobena baldin hori ez bada hola egiten. (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*.)
- (10) Hori ordea aditzen da halako obra egiten denean ahalik hobekiena, bihotz bero eta karitate handi batekin. (S. Pouvreau, *Philotea*.)

¹ «Elkarrekin loturikako zenbait elementuz osatutako katea, sekuentzia» GOENAGA, P.

² Artikulu honetan erabili ditugun adibideak iturri desberdinetakoak dira. Batetik, euskal literaturakoak ditugu; hauek *Orotariko Euskal Hiztegitik* eta Gramatika Batzordeko literatur corpus informatizatutik jaso ditugu. Bestetik, hizkera teknikoko adibideak erabili ditugu; hauek ikasleen idazlanetatik eta testu teknikoetatik —ikus UZEI, adibidez— atera ditugu. Azkenik, geuk asmatutako adibideak ere sartu ditugu, adibide egokien faltan ginenean.

Hemengo perpaus hauek inongo gramatika-araurik bortxatu gabe egin-dako perpausak direla esan daiteke, ongi osatutako perpausak, eta badute-la beren esanahia, bai baitirudi arazorik gabe uler daitezkeela.

Hala ere, perpaus hauek irakurtzen ditugunean zerbait somatzen dugu. Gorago perpausak esanahi aldetiko osotasuna duela esan dugun arren, badirudi zerbait falta zaiela goian emandako hauei; badirudi perpaus hauen testuingurua behar dugula, hauen erabateko esanahia lortu nahi badugu, behintzat.

Gatozen, hortaz, goiko perpausen esanahia hurrenez hurren beren aurreko testuinguruakin osatzera:

- (1') Ama ikertu eban medikuak. Eskuturreko tintiña neurtu eutsan. Arpegira begiratu eutsan eta begietara bere bai. - Nogaz bizi zaree? - Ama eta biok, soillik.
- (2') Ez al dozu ikusten erbi-txakurra dana?
- (3') Sokrate ta sofistak arteko liskarrak zergatik gertatu ziran azaltzea luze izango lizake. Egia esateko, sofistok etziran azaren azken orrietarik.
- (4') Nere otoitzak lagun egingo dizute. Auxe da nere burubidea.
- (5') Zer gauza espantagarria siriar heientzat aurkhitzeaz, ustekaberik, bere buruak etsaien artean! Samariako erregek nahi zituen hil-arazi guziak; ordean Eliseak gibelatu zuen hartarik.
- (6') Baina ni haren ganat (Uharriet apezaren ganat) trankil joaiten nintzan, harek eman ikasgai zatiak osoki ikasten eta haren erakaspenak gogotik entzuten.
- (7') Itxas-ura bezain urdin ditin begiak Bikendiñe'k;
- (8') Aristotelesek ere ala uste zuen, baiña filosofu ona zenez, ba-zekian orrekin etzuela jainkoaren bearra ukatzen;
- (9') Herrietako buruzagien eginbidea da beraz herriko larreak oihanez bethetzea.
- (10') Gertatu da (...) Rahabanen exenplua ekartzen duela, zeinak bidezkoen ostatatzeo ofizioa behar legez eginik, bere gaineko loria bat ardietsi baitzuen;

Goiko saileko perpausen aurrekoak eman ditugu, eta testuinguru honekin lortu dugu hasierako perpausari interpretazio egokiago eta osoagoa ematea. Osatu egin ditugu hasierako perpausen esanahiak.

Zer esan nahi du honek? Badela perpausen arteko erlazio bat, perpausak ez daudela testu batean irla modura, besteengandik bananduta, eta perpausak elkarren artean duten erlazioez baliatuko garelako testua egiteko.

Honek esan nahi du edozein testutan aurki dezakegun edozein perpausak testuinguru baten barruan bakarrik izango duela erabateko zentzua. Perpausak ez dira kontzeptu itxia; testuinguruaren beharra dute esanahia osatzeko. Beraz, esan dezakegu perpausak esanahi erlatiboki osoa duten gramatikaren unitateak direla eta alboko perpausekin edo testuinguruarekin dituen erlazioengatik bakarrik lortuko dugula perpaus bakoitzaren zentzu osoa.

Honek esan nahi du goiko saileko perpausen esanahiak beren aurreko perpausekin osatu ditugun bezala, orain eman ditugun perpausekin ere gauza bera gertatzen dela eta hauek ere aurreko testuingurua behar dutela osoki interpretatuak izateko. Eta honela jarraituko dugu testu osora heldu arte. Bigarren saileko adibideei begirada bat ematen badiegu askotan perpaus bat baino gehiago hartu behar izan dugula ohartuko gara, ahalik eta esanahi osoena lortzearren.

Perpaus bat hartzen dugun bakoitzean perpausa baino gorago bidaliko gaituen egitura edo elementuren bat izango dugu askotan, elementu anaforikoren bat (erakusleak: *hori, horrela...*), lokailuren bat (*orduan, beraz, al-diz...*), adibidez. Elementu hauek perpausaren mugak gainditzen dituzte. Beraz, derrigorrezko egiten zaigu perpausa baino goragoko kontzeptu batera jotzea. Kontzeptu hau paragrafoa izango da.

1.2. Paragrafoa

Perpausa baino zabalagoa den hurrengo unitatea paragrafoa da. Goian ikusi dugu nola gera daitezkeen perpausak zintzilik testuingururik gabe (eta testuingurua emanik ere gera daitezke zintzilik baldin eta alboko perpausetik erlazioak ez baditugu zehazten edo ongi gauzatzen); beraz, perpausaren testuinguru gertukoena paragrafoa da. Paragrafoaren testuinguruak emango die perpausari zentzu aldetiko osotasuna. Beraz, perpausak paragrafoetan biltzen direla esango dugu (hala ere, ez da ahaztu behar perpaus-multzo batek testu oso bat osa dezakeela, paragrafo bakarreko testua, alegia; kasu honetan testua ere litzateke perpausaren hurrengo kontzeptu zabalagoa).

Nola moldatuko ditugu paragrafoak?

Badira ongi moldatutako paragrafoetan aurkitzen diren printzipio batzuk: ideien batasuna eta progresioa³.

A. Batasuna: batasunari gagozkiola, perpausak ideia bat adierazten duen bezala, paragrafoak ideia hau garatu egiten du. Ideia bat adierazi bakarrik ez dugu egin behar, garatu ere egin behar dugu, esplikatuz, frogatuz, zehaztuz, sakontuz. Beraz, paragrafo bakoitzak ideia nagusi bat darama eta gainontzeko ideiak honen zerbitzutan ageri dira (esplikatzeko, zehaztuko, frogatzeko...). Esan beharrik ez dago, testu-hartzailearen ezagutza-mailak definituko duela paragrafoen luze-laburtasuna: zein den irakurlea, ideia bat gehiago edo gutxiago garatu beharko dugu. Beraz, normalean:

—Ideia bat dugu perpaus bakoitzeko.

—Ideia nagusi bat paragrafo bakoitzeko.

³ Ikus, liburu honetan bertan, I. Zabalen artikula, «Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia- sareak testu teknikoetan».

B. Progresioa: batasunaz gain progresioa ere aipatu dugu, progresiorik gabe ez genuke eta ezer aurreratuko, beti egoera berean geundeke. Beraz, aurreratu egin behar da paragrafoan zehar, ideia nagusiaren garapena egin behar da.

Garapen hauek era askotakoak izan daitezke: ordena lineala (leku-denborazkoa), ordena tematikoa —analitika-zatiketa—, ordena logikoa —baldintza, arrazoa, indukzioa/dedukzioa—, ordena psikologikoa (ezaguna denetik hain ezaguna ez denera, garrantzitsuenetik hain garrantzitsua ez denera), eta abar.

Bi motatako paragrafoek dute berebiziko garrantzia, sarrerak eta ondorioak. Sarreran tesia adierazi, interesa sortu eta irakurlea gidatzen da. Irakurleak erakartzeko bideak aurkitu behar dira; zuzenean gaia azaldu beharrean, arlo zabal batetik hastea komeni da askotan, irakurle gehiago erakartzeko...

Ondorioetan, egindako bidea erakusten da puntu nagusiak laburbilduz, arrazonamenduaren etapak eta horien emaitzak ondo markatzen saiatuz.

Goian perpausa testuingururik gabe zintzilik geratzen dela ikusi dugun bezala, paragrafoa ere zintzilik gera daiteke goragoko testuingururik gabe; testuinguru zabalago baten barruan (testu baten barruan) ere gera daiteke zintzilik alboko paragrafoekiko erlazioak ongi ez gauzatzeagatik. Honek esan nahi du paragrafoak ere bere testuinguruaren beharra duela; bestela, paragrafo jakin batek balio desberdinak izan ditzake testuingurua aldatuz gero. Beraz, paragrafoa perpausaren testuingurua den bezala, testua izango da paragrafoaren testuinguru globala.

1.3. Testua

Orain arte esan dugunaren arabera paragrafoa perpausa baino unitate zabalagoa da. Beraz, perpausa baino goragokoa bada eta perpausaren parean ez badago beste kategoria gramatikalik, esan dezakegu perpaus-multzo bat dela paragrafoa. Era berean, paragrafo-multzoa testua izango dugu (gerta daiteke, hala ere, gorago esan dugun bezala, paragrafo bakarreko testua izatea; kasu horretan, paragrafo-multzoak osatu beharrean perpaus-multzoak osatuko luke testua), baina ez edozein perpaus edo paragrafo-multzo, zenbait baldintza bete beharko dituen multzoa baizik. Adibidez, perpaus batetik besterako pausua ezin da nolana ere, ez eta ideia batetik besterakoa ere.

Idea-multzo egituratu eta koherentea dela esan genezake testua.

Koherentziak ideien batasuna eta progresioa adierazten du. Ideien batasuna testuaren gaiak eta testuaren barnean egiten diren erreferentziek (aurretik ezaguna dugun zerbaiti egiten zaizkion erreferentziek) gauzatuko dute. Ongi eraikitako testuetan perpausak aurretik esan dugun zerbaiti erreferentzia egiten dioten elementuak izango ditu, testuaren batasunak eskatzen baitu baldintza hau.

Progresioak, aldiz, ideia berrien ekarpena adierazten du. Testu batean etengabe ideia berriak sartzen dira; honela, testua aurrerantz eramanez, testuaren progresioa gauzatzen da.

Multzo kontzeptuak, berriz, osotasuna esan nahi du. Esanahi aldetik osotasuna du testuak. Komunikazioko mailarik altuena litzateke. Informazioen bat falta denean, osotasun hau apurtu egiten da.

Paragrafoen nahiz perpausen arteko erlazio semantiko eta formalen bitartez osatuko dugun sare nagusia da testua. Erlazio hauek ugariak eta sendoak izaten dira normalean, eta perpaus-sare edo ehuna den testua osatzen dute.

Gatozen orain testu baten zati batera:

Tratamendua:

C.P.R. teknika *hau* helburu terapeutikoarekin *ere* erabiltzen da, zeren behin kanalizatu eta gero esfinterektomia egin baitaiteke, eta *horrela* kole-dokoan dauden harriak aterako dira.

Polipektomia, barizearen esklerosia eta laser izpizko fotokoagulazioa dira endoskopioaz baliaturik egiten diren *beste* teknika terapeutiko *batzuk*.

Terapeutika aldetik *ere* gertatu dira aldakuntza eta aurrerapenak; *hala ere* oraindik eritasun kutsagarri gehienek ez dute tratamendu berezirik, sintomatikoa baizik.

Alabaina, aspaldi honetan zenbait sendagai espezifikoko sortu dira. *Hauen* artean Zimetidina eta Ranitidina aipatuko ditugu urdaileko ultzerak tratatzeko. *Edota* behazun-azidoak (kenodesoxikoliko eta ursodesoxikolikoak, adib.), kolesteroletan aberatsak diren behazun-harriak disolbatzeko.

Lehenago aipatutako *beste* teknika berri *batzuk ere* erabiltzen dira: polipektomia, esfinterektomia, laser izpizko fotokoagulazioa, angiografia bidezko enbolizazioa, eta abar.

Nahiz eta testu zabalago baten zatia izan goiko testu hau, badirudi ez dugula aparteko arazorik, terminologia gorabehera, testuaren edukiaz jabetzeko. Testu-zati honetan paragrafoen eta perpausen arteko erlazioa gauzatzen duten elementu ugari (letra etzanaz eman ditugunak) agertzen zaizkigu, *hala nola, ere, hala ere, alabaina, hauen, lehenago, beste, hau, horrela, hauen*, eta abar. Hauei esker izango du testuak koherentzia —testuaren barnean erreferentzia ugari egiten da eta batasuna ematen zaio; eta, gainera, testuak progresio bat du; ideia berriak azalduz, aurrerantz doa—. Beraz, elkarren artean ongi erlazionaturik dauden paragrafo nahiz perpaussez osatua izango da testua.

Har dezagun orain testu-zati berbera, baina perpausen arteko erlazioak gauzatzen zituzten elementu horiek gabe:

Tratamendua:

C.P.R. teknika *hau* helburu terapeutikoarekin erabiltzen da, zeren behin kanalizatu eta gero esfinterektomia egin baitaiteke, eta kole-dokoan dauden harriak aterako dira.

Polipektomia, barizearen esklerosia eta laser izpizko fotokoagulazioa dira endoskopioaz baliaturik egiten diren teknika terapeutiko batzuk.

Terapeutika aldetik gertatu dira aldakuntza eta aurrerapenak; oraindik eritasun kutsagarri gehienek ez dute tratamendu berezirik, sintomatikoa baizik.

Aspaldi honetan zenbait sendagai espezifiko sortu dira. Zimetidina eta Ranitidina aipatuko ditugu urdaileko ultzerak tratatzeko. Behazun-azidoak (kenodesoxikoliko eta ursodesoxikolikoak, adib.), kolesteroletan aberatsak diren behazun-harriak disolbatzeko.

Teknika berri batzuk erabiltzen dira: polipektomia, esfinterektomia, laser izpizko fotokoagulazioa, angiografia bidezko enbolizazioa, eta abar.

Paragrafoen eta perpausen arteko erlazioak bideratzen dituzten elementuak, lokailuak, elementu anaforikoak eta bestelakoak kendu egin dizkiogu. Itxuragabeko testua dugu aldaketa honen ondorioz. Perpausak elkarren jarraian dituen testua dugu, baina elkarren arteko erlazio espliziturik gabe. Kohesio falta nabarmena du bigarren testu honek; perpausak elkarri «pegatuta» dituen testua dugu, «collage» baten antzera. Ez du baina testu guztiek behar duten barne-loturarik, ez eta heldutasunik ere. Ez dago testuan barne-erreferentzia espliziturik, eta itxuraz perpaus batetik bestera eta paragrafo batetik bestera nolanahi egin da pausua. Gai batetik besterako pausuak ere baldarki egin dira, eta ideiak bat-batean aldatu ditu. Bigarren testu edo testu-zati hau ez litzateke oso egokia.

Testu batean ezin dugu progresioa edo aurreramendua nolanahi egin. Ongi egindako testu batek **oreka** gorde behar du testuko elementu ezagunen eta ezezagunen artean. Hau da, elementu berriak nahitaez sartu behar dira (bestela ez genuke progresiorik izango), baina hauek elementu zaharrek dituzten erlazioak gauzatu; bestela jauzi handia egiten dugu. Aurrerapausuak, hortaz, ez dira azkarregi egin behar; polikiegi ere ez, ordea. Hemen datza lehen aipatzen genuen oreka hori. Aurrerapausuak polikiegi ematen badira, errepikapen-inpresioa izango du irakurleak. Azkarregi egiten badira, aldiz, testuak inkoherentea emango du, nekez ohartuko garela-ko elementu berrien eta zaharren arteko erlazioez.

Atera dugun ondorioak esango digu, beraz, testuak ezin direla nolanahi egin. Perpausarekin alderatzen badugu, zailago egiten zaigu testu bat edo paragrafo bat zergatik dagoen gaizki osatua esatea. Perpausaren egitura paragrafoarena eta testuarena baino askoz ere aztertuago dago, eta perpausa osatzeko irizpideak askoz zehatzagoak dira. Dena den, ikusi dugun bezala, testuekin ere baditugu printzipio batzuk.

Nolanahi ere, antzeko definizioa eman diegu paragrafoari eta testuari, eta hau zertxobait zehaztu behar da. Dirudienez, paragrafoa testu txiki bat da. Neurria da bien arteko desberdintasunetako bat; perpausak paragrafoa bilduko du. Neurriak eraginak ditu bakoitzaren erabileran, paragrafoarekin ezin izango baititugu testu oso batekin egin ditzakegun arrazonamenduak egin; testu batean arrazonamendu konplexuak egin ditzakegu, eta pa-

ragrafo batean, ez hainbeste. Adibidez, nekezago sartuko dugu paragrafo batean testu batean sar daitezkeen tesia, antitesia eta sintesia.

Bestalde, ongi eraikia den testuak ulergarria izan behar du. Zenbat eta hitz zehatzagoak eta egokiagoak eta egitura sinpleagoak eta argiagoak erabili, orduan eta ulergarriagoa izango da testua. Zenbat eta argiago egin ideien arteko lotura, orduan eta ulergarriago egingo dugu testua. Baldin eta ideien arteko lotura argi geratzen ez bada, hots, ideia batetik bestea inferitzerik ez badugu, testuaren komunikazioa ilundu egingo da, eta irakurleak ez du ulertuko. Beraz, sintaxiak eskaintzen dizkigun elementuekin argitu beharko ditugu perpausen arteko lotura hauek.

Perpausen eta paragrafoen arteko erlazioak eta loturak hiru mailatan gauza daitezke:

- Maila sintaktikoan (sintaxiaren printzipioak eta arauak erabiliz).
- Maila semantikoan (testuaren gaiaren bitartez).
- Maila pragmatikoan (testuaren ingurune estralinguistikoari dagokio; testuaren sortzaileari eta hartzaileari, eta hauen inguruneari).

Hemendik aurrera, beraz, testua osatzeko bete behar ditugun printzipioez (baldintzez, faktoreez) hitz egingo dugu; helburua ikasleari testu zientifikoaren sorkuntzan erabil ditzakeen baliabideak zeintzuk diren eta nola erabil ditzakeen erakustea litzateke, batetik, eta zer ezin dezakeen egin, bestetik; beraz, printzipio horiek testu zientifikoetan nola gauzatzen diren azalduko dugu eta testu zientifikoaren sorkuntzan, eta oro har orotarikoko testuen sorkuntzan, egiten diren okerrak, euskal literatur tradizioak esaten digunaz baliatuz, zuzentzen ahaleginduko gara.

Laburbilduz

Perpasean oinarritzen den gramatikatik testu-gramatikara pasatu behar dugula ikusi dugu. Izan ere, gramatika tradizionalentzat aztergai den perpaus kontzeptutik gorago badela beste zerbait erakutsi dugu. Perpausa baino kontzeptu zabalago hori testua da —paragrafoa bien artean legoke—. Kontzeptu hauetaz —perpaseaz, paragrafoaz eta testuaz— aritu gara lehen atal honetan, eta batez ere testu egokiak sortzeko bete behar ditugun baldintzez; bestela esanda, testu onaren ezaugarriak finkatzen aritu gara. Hauxek dira:

- Batasuna: ideien batasuna izan behar dugu. Testuan sartzen ditugun perpaus berriek aurrekoekin erlazioa izan behar dute.
- Progresioa: ideiak garatu egin behar dira, eta testuan elementu berriak sartu behar dira.

Bien arteko oreka gordetzean —hartu da, elementu zaharrekiko erlazioa mantendu eta elementu berriak jauzi handirik gabe sartuz joatean— datza testuaren egokitasuna. Beraz, testuko elementu zaharren eta berrien arteko oreka gorde behar dugu

2. PERPAUSEN ARTEKO LOTURAK BIDERATZEKO BALIABIDEAK

Atal honetan testuak osatzerakoan ditugun baliabideez arituko gara, hau da, perpausen arteko loturak gauzatzeko ditugun baliabideez. Baliabide hauek lagunduko digute ongi osatutako testu bat egiten, perpausen arteko erlazioak zein eratakoak diren ongi zehazten eta, azken finean, testu koherente, zehatz eta anbiguotasunik gabea gauzatzen. Horixe da, izan ere, hizkera teknikoaren helburu garrantzitsuenetako bat.

Esan beharra dago, geroago ikusiko dugun bezala, perpausen arteko erlazioak perpaus bakoitzaren edozein gunetan gauza daitezkeela.

Ondorengo hauek dira testua gauzatzeko erabiltzen ditugun baliabide-etako batzuk:

1. Lokailuak eta esapideak.
2. Lokailu funtzioa duten juntagailuak.
3. Pronominalizazioa: erlazio anaforikoak eta kataforikoak.
4. Errepikapena.
5. Elipsia.
6. Mugagabe-mugatu egitura.
7. Testu-antolaketaarako elementuak.
8. Zenbait egitura (distributiboak, galdera-erantzun egitura, galdegai-mintzagai egiturak...).
9. Perpausen arteko erlazio logikoak (kausa, ondorioa, baldintza, denbora-hurrenkera, konparazioa).
10. Bata bestearen jarraian emandako perpausak.

Gatozen puntu bakoitza azaltzera.

2.1. Lokailuak eta esapideak

2.1.1. Lokailuak

Lokailuen aurkezpen laburra egingo dugu puntu honetan, eta hirugarren sailean arituko gara hauei buruzko zehaztapen luzeagoak egiten.

Perpausak elkarren artean semantikoki lotzeko erabiltzen diren elementuak dira lokailuak. Perpaus batek aurrekoarekin (edo aurrekoekin) duen erlazio semantikoa esplizitatzen dute. Testu batek behar duen lotura edo koherentzia bideratzeko tresnak dira. Lokailuen funtzioa garrantzitsua da testuaren koherentziaren aldetik, testuaren batasuna eta progresioa lortzen baititugu lokailuekin. Ideia berriak lehengoekin lotzen laguntzen dute (batasuna), eta aurrerapausua ematen dute (gauza berriak sartzeko erabiltzen dira). Irakurleari gauzak erraz eman behar zaizkio, erraz ulertzeko moduan; honek esan nahi du ezin dugula ideiaz bat-batean aldatu; eginkizun honetarako egokiak dira lokailuak.

Ondorengo elementu hauek dira, besteak beste, lokailu deituko ditugunak:

<i>ere</i>	<i>gainera</i>	<i>bestalde</i>	<i>halaber</i>
<i>behintzat</i>	<i>bestela</i>	<i>osterantzean</i>	<i>ordea</i>
<i>berriz</i>	<i>ostera</i>	<i>aldiz</i>	<i>aitzitik</i>
<i>bizkitartean</i>	<i>bitartean</i>	<i>bien bitartean</i>	<i>artean</i>
<i>alta</i>	<i>alabaina</i>	<i>alabadere</i>	<i>dena den</i>
<i>dena dela</i>	<i>hala ere</i>	<i>hala eta guztiz ere</i>	<i>haatik</i>
<i>horratik</i>	<i>barren</i>	<i>badarik ere</i>	<i>beraz</i>
<i>bada</i>	<i>hortaz</i>	<i>orduan</i>	<i>honenbestez</i>
<i>horrenbestez</i>	<i>hainbestez</i>	<i>zeren</i>	<i>zergatik</i>
<i>alabaina</i>	<i>bada</i>	<i>izan ere</i>	...

Formaz aditzondo edo adizlagun jatorrikoak dira asko, baina gerora, fosilizazio-prozesu bat izan eta gero, perpaus-mailako funtzioa izatetik testu-mailako funtzioa izatera pasatu dira. Testu-antolatzaileak direla esango dugu⁴.

Ez dituzte perpausen arteko loturak bakarrik bideratzen, baita testuzati edo paragrafoen artekoak ere. Ez da arraroa lokailu bat paragrafo-hasieran ikustea. Izan ere, perpausak bezala, paragrafoak ere elkarren artean erlazionaturik egon daitezke.

- (11) Ondestek, gero ikusiko dugun bezala, ez du gordailu-eginkizuna bakarrik. *Bestalde*, liseri-hodi honekin harreman estua duen gurgin-sistema bat kontutan hartu behar dugu.
- (12) *Alabaina*, aspaldi honetan zenbait sendagai espezifiko sortu dira.

Nahiz eta gramatika tradizioaletan *konjuntzio* izena hartzen duten (baita *komodin* edo *lotura-hitz* ere), ez ditugu juntagailuekin nahastu behar. Funtzio desberdina dute hauek. Juntagailuak perpaus batean perpausen arteko elkarketa —sintaxi-mailako lotura— gauzatzen duen bitartean, lokailuak testu-mailako lotura gauzatzeko erabiliko ditugu. Bi elementu hauen distribuzioak, kokaguneak eta funtzioak desberdinak dira.

Juntagailuek kokagune nahikoa finkoa dute, lokailuek mugikortasun handiagoa duten bitartean. Bestalde, bi juntagailu nekez agertuko zaizkigu

⁴ Terminologiari buruzko ohar bat egin beharrean gara hemen; artikulua honetan EUSKALTZAINDIK (1990) erabili duen terminologia erabiliko dugu. Lan horretan, forma aldetiko irizpidea erabiliz funtzio bera duten hiru elementu bereizten dira: lokailuak, esapideak eta testu-mailako funtzioa duten juntagailuak. Artikulu honetan zehar esplikatzeko dira guztiak. Bestalde, berriki burutu duen doktoretza-tesian, Luis Mari Larringanek beste terminologia bat erabiltzen du; honek elementu hauek guztiak funtzionalki deskribatzen ditu eta guztiak testu-antolatzaile deitzen duen multzoan sartzen ditu —irizpide hau ere kontutan hartzen dugu lan honetan zehar—. Azkenik, beste zenbait lan eta gramatikatan juntagailu eta komodin ere deitu izan zaie (ikus, adibidez, ZABALA & ODRIEZOLA eta ETXEBARRIA).

batera; baina ager dakizkiguke juntagailu bat eta lokailu bat elkarrekin⁵. Honek erakusten digu bien artean desberdintasunik badela. Bereizi egin behar ditugu, hortaz, juntagailuak eta lokailuak (edo, oro har, testu-antolatzailuak).

Lokailuek ez dute funtziorik betetzen perpausaren barnean; perpausetik at dauden elementuak dira; beren eginkizuna testuaren baitan kokatzen da. Perpausaren analisisian ez lukete, beraz, lekurik. Hori erakusten digute hainbestetan lokailuen inguruan jartzen ditugun komek. Eten nabarmena egiten da lokailuen aurretik eta ondoren gehienetan.

Irakurketa erraztu egiten dute, erritmoa apurru; testuaren ulermenari mesede egiten diote eta estiloa arindu egiten dute. Batez ere, ongi zehazten dute perpausen arteko erlazioa zein eratakoa den. Adibidez, *beraz* badugu perpausen batean, badakigu aurreko perpausaren (edo perpausen) ondorioa dela lokailua agertzen den perpausaren adierazten duguna. Ez badugu lokailurik jartzen, gehiago kostako zaigu kausa-ondorio erlazio horretaz jabetzea. Beraz, zehaztasunaren aldetik lagungarriak ditugu eta baita irakurketaren aldetik ere, etenaldiak markatzen dizkigute eta.

Lokailuak ez dira euskalki guztietan berdin erabiltzen. Gainera, badira euskalki jakin batzuetan bakarrik (edo gehienbat) erabiltzen direnak.

Esan daiteke zein eratako lokailuak erabiltzen ditugun, halako testu-mota dela. Adibidez, denbora adierazten duten lokailuak baditugu batez ere, narrazioa izango dugu, eta kausazkoak, ondoriozkoak eta aurkaritzakoak baditugu, argudiaketa izango dugu.

Lokailuen kokaguneari dagokionez, erlazioatuta dauden bi perpausetako bigarreanean doazela esan behar da; baina hemen kokaleku nahikoa librea dute (batzuek beste batzuek baino gehiago). Juntagailuak baino askoz mugikorragoak dira. Dena den, perpausaren hasiera inguruan aurkituko ditugu gehienetan, normala den bezala, perpausaren aurreko testuinguruarekin duten erlazioaren berri ematen dute eta. Mintzagaiaren⁶ ondoren joateko joera dute askotan, normalean komaz lagundurik.

(13) *Alabaina*, aspaldi honetan zenbait sendagai espezifiko sortu dira.

(14) Lipidoek, *aldiz*, behazun gatzen beharra dute.

⁵ Ikus horretarako EUSKALZAINDIA (1990), 27-31 orrialdeetan egiten den bereizketa.

+ MIKEL zintzoa da *eta* zu, *aldiz*, bihurri samarra.

+ *MIKEL zintzoa da *eta* zu, *baina* bihurri samarra.

⁶ Mintzagaiaren kontzeptuaz geroago (2.8.3. atalean) hitz egingo dugu. Oraingoz esan dezakegu lehendik ezaguna den elementua izan daitekeela, predikazioaren testuingurua edo solasaren unibertsoa mugatuko diguna. Mintzagaia hanpatu nahi dugunean perpaus-hasierara eramaten dugu ondoren etenaldi bat —koma— eginez. Zenbait lokailu perpaus-hasierako mintzagai hauen ondoren joateko joera dute. Mintzagaiaz zehaztasun gehiago nahi duenak jo beza EUSKALZAINDIA (1987), OSA (1990) eta ZABALA & ODRIUZOLA (1992) lanetara.

Bi perpausen (edo gehiagoren) arteko erlazioa gauzaten dutela esan dugu lokailuek, baina bi perpaus hauek era desberdinetakoak izan daitezke:

a. Izan daitezke puntuz banandutako bi perpaus:

(15) Sistema sinpatikotik datozkigun beste nerbioek egiten dutena (...) mugikortasuna gutxiagotzea da. Hormonek *ere* mugikortasuna aldarazten dute.

b. Izan daitezke juntagailuz juntatutako bi perpaus:

(16) Terapeutika aldetik *ere* gertatu dira aldakuntza eta aurrerapenak eta, *hala ere*, oraindik eritasun kutsagarri gehienek ez dute tratamendu berezirik, sintomatikoa baizik.

c. Izan daitezke alborakuntzaz (komaz edo, nahi bada, Ø juntagailuaz) juntatutako bi perpaus:

(17) Animalien mailan liseri-aparatua da eboluzioan zehar desberdintzen den lehenengoetarikoa, *gainera*, endodermotik datorren organismo baten hazieran *ere* bera agertu eta diferentziatu ohi da lehenetarikoen artean.

Dena den, hirugarren sail honetan ohar bat egin beharra dago; badirudi lokailuarekin nahiz lokailurik gabe, juntagailurik ez dagoenean (alborakuntza) koma batek isladatzen duen isilgunea lagunarteko hizkerari bakarrik egokitu behar litzaiokeela. Horrelakoetan egokiagoa da hizkera landuagoetarako puntuaren nahiz ikasleen artean ahaztuxea dagoen puntu eta komaren erabilera.

2.1.2. *Esapide edo lokuzioak*

Lokailuek bezala, testu-antolatzaile funtzioa duten lokuzio edo esapide asko aurki ditzakegu; oso multzo irekia osatzen dute.

A. Aurkaritzakoen artean era honetako esapideak ditugu:

*zernahi gisaz
edonola (ere)
edozein moduz*

*nolanahi ere
edozein bere
edozein kasutan (ere)*

*nolanahi den
edozein modutan ere
guztiarekin ere*

B. Emendiozkoetan:

*era berean
ildo horretatik
era horretan*

*modu berean
zentzu berean
zer esanik ez*

*ildo beretik
bide batez
...*

C. Kausa-ondoriozkoen artean era honetakoak:

horrela
hori dela medio

horregatik
hortik

hori dela eta
horren ondorioz

Goian esan dugunaren arabera, kategoria berekoak lirateke esapideak eta lokailuak, funtzio berbera betetzen dutenez gero. Dena den, formaz desberdinak dira⁷. Lokuzio edo esapide modukoak dira formalki, lokailuak trinkoagoak diren bitartean. Esan daiteke formaz lokailuak baino gardenagoak direla.

Aldaera ugari izan ditzakete (euskalkietan forma desberdin asko aurkituko dugu), eta lokailuen multzoa irekia bada, hauena are irekiagoa da. Perpausen arteko lotura adierazteko erabiltzen dira. Ez dira perpausaren osagai (perpausaren analisisan ez dute lekurik), edo behintzat osagai marginalak dira; solas-mailako erlazioak gauzatzeko erabiltzen ditugu, lokailuak bezala. Hauek bezala, perpausaren hasiera aldera agertzeko joera dute esapideek, eta komaz inguraturik agertuko zaizkigu gehienetan. Hala idaztea gomendatuko dugu guk; ez dira berdin ondorengo bi perpausak:

(18) Horrela, egin behar dugun esperimntua ez da beharrezkoa.

(19) Horrela egin behar dugun esperimntua ez da beharrezkoa.

2.2. Testu-mailako funtzioa duten juntagailuak

Juntagailu funtzioa ez ezik, lokailuek betetzen duten funtzioa ere bete dezakete juntagailuek; horretarako, puntuz (edo puntu eta komaz) banandutako bi perpausetatik bigarrenaren hasieran jartzen dira, eta lokailuek duten funtzio berbera izaten dute, hau da, perpausen arteko erlazio semantikoaren berri ematea. Gorago esan dugu juntagailuek, juntagailu funtzioa betetzen dutenean, hau da, perpausak sintaxi-mailan juntatzen dituztenean, leku nahikoa finkoa dutela; leku hau juntatzen dituzten bi perpausen artekoa izaten da normalean:

(20) Elikagaien hondakinek ura galtzen dute, *eta*, gorozki bihurturik, ondestean gordetzen dira.

Bigarren erabilera honetan —inolaz ere ez bestea bezain ohikoa—, aldiz, juntagailua perpausaren hasiera-hasierara eramaten dugu, perpausak

⁷ Bereizketa hau egiten da behintzat *Euskal Gramatika Lehen Urratsak III* liburuan, eta hala mantendu nahi izan dugu guk hemen. Kontua da desberdintasuna —bide batez, ez oso gardena— forma aldetikoa dela eta ez betetzen duten funtzioari begiratzu egina. Horrek esan nahi du funtzioari begiratzu guztiak —lokailuak nahiz esapideak— talde batean sar daitezkeela. Horrela egin du berriki defendatu duen tesian Luis Mari Larringanek, guztieki testu-antolatzaille izena emanez.

aurreko testuinguruarekin duen erlazioa gauzatzeko. Aurreko perpausera bagoaz, perpausetik gora goaz, testura, hain zuzen. Beraz, erabilera honetan testu-mailako eginkizuna beteko dute lokailuek:

- (21) Tabakoak badu zerikusirik tumore gaiztoen %30en etiologian, kasu bakoitzean ebidentzia gehiago edo gutxiagorekin. *Baina* datu kuantitatibo horiek guztiek baino garrantzi handiagoa du pertsonaren eta gizartearen borondatez eragin kaltegarri hori baztertzea posible dela pentsatzeak.
- (22) Horregatik, mehartzeko erabiltzen diren jan-neurri guztien funtsa horixe da, kalorien kopurua gutxitzea. *Eta* zer da kaloria?...

Hortaz, lokailuek mugikortasuna duten bezala, testu-mailako funtzioa betetzen duten juntagailuak hasiera-hasieran doaz normalean (salbuespena *baina* litzateke: *Ez da, baina.../ Baina ez da...*). Ondorengo hau ezin dugu esan:

- (22') * Zer da *eta* kaloria?

Perpaus baten hasieran ez ezik, paragrafo baten hasieran ere ager daki-guke juntagailua; lokailuen gisara.

Juntagailuak testu-mailako funtzio hau betetzen duenean ez da ohikoen-a, lokailuek ez bezala, ondoren koma izatea. Era berean, ez da onargarria izango aurretik koma eramatea; puntua edo puntu eta koma beharko ditu juntagailuak aurretik bigarren erabilera honetan. Hortaz, ez dugu zuzentzat jotzen ondorengo adibide hau:

- (23) *Horregatik, mehartzeko erabiltzen diren jan-neurri guztien funtsa horixe da, kalorien kopurua gutxitzea, *eta* zer da kaloria? ...

Nolanahi ere, juntagailuen ohiko erabileratik aparte dagoen honek (testu-mailako lotura gauzatzeko funtzio honek) ohiko erabilera —perpaus elkartu bat osatzeko maila bereko bi perpaus juntatzekoa, hain zuzen— baino lagunartekoagoa eta «dibulгатiboagoa» dirudi, txartzat ematekoa ez bada ere. Honen ordeaz, juntagailuen ohiko erabilerara edo juntagailurik gabeko egituretara jotzea litzateke, beraz, arruntena.

- (24) Horregatik, mehartzeko erabiltzen diren jan-neurri guztien funtsa horixe da, kalorien kopurua gutxitzea. *Eta* zer da kaloria? ... (Estilo dibulгатiboagoa duena)
- (25) Horregatik, mehartzeko erabiltzen diren jan-neurri guztien funtsa horixe da, kalorien kopurua gutxitzea *eta* oraintxe definituko dugu delako kaloria hau: ... (Juntagailuen ohiko erabilera)
- (26) Horregatik, mehartzeko erabiltzen diren jan-neurri guztien funtsa horixe da, kalorien kopurua gutxitzea. Kaloria hitz hau definituko dugu orain. (Juntagailurik gabekoa)

2.3. Pronominalizazioa: Erlazio anaforikoak eta kataforikoak

Testu batean agertzen diren izenak, izen-sintagmak edo bestelako elementuak ordezkatzeari deitzen diogu pronominalizazioa. Ordezkapen hau izenordain edo erakusleen bitartez egiten dugu. Erakusle honek testuinguruko beste elementu bati egiten dio erreferentzia. Elementu anaforiko edo kataforiko deitzen diegu elementu hauei. Elementu hauetako batek erreferentzia egiten dion izen edo izen sintagma joan daiteke ordezkatzeko erabili dugun elementuaren aurretik nahiz ondoren. Aurretik badoa, **erlazio anaforiko** dela esango dugu. Adibidez:

- (27) Oraindik *arazo asko* ditugu erabakitzeke, gehienak gaitzaren etiologia eta patogenia ez jakiteagatik datozkigu. *Hauek* argitu eta gero, behar duten tratamendu egokia aurkitzea ez da inolako arazoa izango.

Hau da, aurrekaria edo ordezkaturia izaten den sintagma aurretik doa, eta ordezko gisa erabili dugun elementua, ondoren. Azken elementu honi elementu anaforiko deituko diogu. Ordena hau da pronominalizazioetan erabiliena eta normalena (ezkerretik eskuinerakoa).

Bestalde, ordezkaturia den izena edo sintagma ordezkapena egiteko erabili dugun elementuaren ondoren joan daiteke; honi **erlazio kataforiko** deituko diogu (eskuinetik ezkerretik). Elementu kataforikoak era honetakoak dira: *hau, hauxe, hauexek, ondorengo hau(ek)*... Ez da bestea bezain erabilia, baina hizkera teknikoetan oso praktikoa denez, gero eta gehiagotan heltzen diogu egitura honi.

Ongi ezagutu behar ditugu erlazio anaforiko eta kataforiko hauek erabiltzean bete behar ditugun baldintzak, okerrik edo gaizkiulerturik egin nahi ez badugu. Beraz, *hura/bera, beraiek, honako hau ...* gisakoak erabiltzerakoan kontu izan behar dugu testua ahalik eta zehatzen gera daki- gun, eta anbiguotasunik gabe egin dezagun. Gai honetaz ikus, halaber, Zabalak liburu honetan duen artikulua.

2.3.1. Erlazio anaforikoak

Era honetako erlazioetan elementu batek testuan lehenago aipatu dugun elementu bati egiten dio erreferentzia. Pronominalizazio hauek normalean duten norabidea, lehen esan dugun bezala, ezkerretik eskubirakoa dugu. Hau da, aurrekari deituko dugun elementu bat dugu lehendabizi eta honi erreferentzia egiten dion anafora ondoren.

Anafora-funtzioa betetzen dutenak erakusleak eta hauetatik eratorritako formak dira normalean, aurrekariarekiko gertutasun-urruntasuna erakutsiko diguten hiru graduak erabiliko ditugularik. Beraz, *hau, hori, hura*, har ditzaketen kasu-marka desberdinekin; *berau, berori, bera (berauek, beroriek, beraiek* pluralekoak); *honenbeste, horrenbeste, hainbeste, hain-*

bat gisako konparaziozko formak. Hauek berez forma konposatuak dira, eta lehenengo zatian erakusleen genitiboa dute (erakusle honek beteko du anafora-funtzioa); bigarren zatiak, berriz, konparazioa egiteko balio du. Perpaus konparatiboak egiteko balio duten *honen*, *horren* eta *hain* ere, hortaz, anaforikotzat hartu beharko ditugu, erakusleak baitira jatorriz.

(28) Gaixotasun hori ez da *hain* arrisksua.

Perpaus honekin adierazten dugu ez dela lehen esan dugun bezain arrisksua edo pentsatzen dugun bezain arrisksua. Beraz, erreferentea inplizituki edo esplizituki ager daiteke. Hauen artean gehien erabiltzen direnak hirugarren graduak dira: *hain* eta *hainbeste*. Erakusleetan, berriz, lehenengo gradukoa dela esango genuke gehien erabiltzen dena testuetan balio anaforikoarekin.

Elkar izenordain elkarkaria ere anaforikotzat jo dezakegu aurrekaria (pluralekoa beti) behar duelako. Aurreko zerbaiti egiten dio erreferentzia; aurrekaria perpaus berean dago (agerian edo ezkutuan); ezkutuan dagoenean, aurreko perpausera jo behar dugu honen bila.

(29) *Elkar* ikutzen daude.

Erakusleen hiru graduak dituzten aditzondoak ere anaforikoak dira: *hemen*, *hor* eta *han*.

Hona erlazio anaforikoen adibide batzuk:

- (30) Itxura denez, edozein herritan tabakismoaren arazoa seriozki planteatzeko edozein plangintzak behar-beharrezkoak ditu neurri legalak bere aldamenean, eraginkorra izango bada. Mendebaldeko herririk gehienetan legeak agertu dira *gai hauen* inguruan.
- (31) Puntu honetan erretzaile pasiboen arazoa ukitu nahi nuke. *Horrela* deritza ez-erretzaile izanik, bere inguruko beste erretzaileek kontsumitzen duten tabakoaren kea, bere borondatearen kontra, irensten duenari. *Ke honen* zatirik nagusia korronte sekundarioa deitutik dator.
- (32) Pisua jaisteko modurik egokiena kalorien eguneroko ahoratzea gutxitzea izaten da. Nola ulertzen da *hori*? Gorputza makina bat bezalako da, bere eguneroko ihardunean aurrera egiteko erregaiak behar dituena. *Balantze honetan*, janari bidez ahoratzen ditugun kaloriak gorputzak bere eguneroko lanean erretzen dituenak baino gehiago direnean, soberan (edo erre gabe) geratu diren kaloria horiek pilatu egiten dira. *Horregatik*, mehartzeko erabiltzen diren jan-neurri guztien funtsa horixe da, kalorien kopurua gutxitzea.
- (33) ... zenbait kasutan odol-mota bat eta beste bat ez direlako adosten, inkompatibleak direlako. *Hemendik* sortu da odol-taldearen kontzeptua.
- (34) Halere, O odola ez da *hain* kaltegabekoa...

Argi ibili behar dugu erlazio anaforiko hauekin, askotan aurki baititza-kegu egitura anbiguoak. Sarritan gertatzen da ez dakigula anaforak aurreko testuinguruko zein elementuri egiten dion erreferentzia (aukera desberdinak daudenean). Batzuetan testuinguruak argituko digu arazoa, baina beste askotan anbiguotasuna izaten jarraituko dugu. Honek esan nahi du testu zientifikoek behar duten zehaztasuna eta anbiguotasun falta arriskuan egon daitekeela elementu anaforikoak gaizki erabiltzen baditugu. Arrisku hau ebitatzeko beharrezko egingo zaigu ongi zehaztea anaforak zein elementuri egiten dion erreferentzia. Dena den, erabilera okerrak zuzenduko ditugun azken atalerako utziko dugu puntu hau.

2.3.2. Erlazio kataforikoak

Lehen graduko erakusleak eta hauetatik eratorritako formak eta esapi-deak dira erlazio kataforikoetan izen-sintagma, izen-sintagmen zerrenda —kasu honetan pluraleko formak erabiliz— edo perpaus bat ordezkatzeko erabiltzen diren elementuak.

<i>hau</i>	<i>hauxe</i>	<i>hauek</i>
<i>hauexek</i>	<i>honako hau(ek)</i>	<i>honakoa(k)</i>
<i>ondorengo ... hau(ek)</i>	<i>hurrengo ... hau(ek)</i>	<i>ondoko ... hau(ek)</i>
<i>ondokoa(k)</i>	<i>ondokook</i>	<i>zera</i> ⁸

Lekune batean kokatu nahi ez dugun elementua ordezkatzeko dute elementu hauek, ordezkatzeko sintagma edo perpausa luzeegia delako lekune horretan jartzeko, edo beste arrazoi batzuegatik (estiloa...). Ordezkatutako sintagma edo perpausa aditzaren atzera, bukaerara, eramaten da (edo, nahi bada, aditz nagusia aurrera). Beraz, elementu anaforikoa, honek ordezkatzeko duen elementua baino lehenago agertuko zaigu eta ordezkatzeko elementua, ondoren. Literaturan, gehienetan —ez beti— bi puntuak erabiltzen dira egitura hauetan.

- (35) Zentzu honetan, ikerketa sakon eta fidagarri batek *honako hau* erakutsi zuen: merkatuan dauden botiken artean %20 onartu daitezkeela inolako beldurrik gabe, daudenetatik %25 onartezinak direlarik.
- (36) *Ondorengo zeinu hauek* dira erabiltzen direnak: ...
- (37) *Honako hauexek* dira sendagai honen ezaugarriak: ...
- (38) *Hauxe* da eritasun larri horri buruz egindako ikerketak dioena: ...

⁸ Elementu kataforiko hau ez da hizkera-maila jasorako erabilgarria, baztertzekoa da testu landuetatik duen bat-batekotasun kutsuagatik. Beraz, erabilgarriagoa litzateke ahozko eta lagunarteko erregistrorako. Ideia berbera ikus daiteke ZABALA & ODRIOZOLA (1992), 50. orrialdean eta EUSKALITZAINDIA (1985) 89. orrialdean.

Egitura hauekin perpaus luzeak eta ilunak gerta daitezkeen egiturak saihesten ditugu; galdegai-funtzioa betetzen duen sintagma edo perpaus luzea atzera botatzen dugu, honen ordezeko elementua (*hau, haue(xe)k, honako hau, ondorengo hau...*) jarriz eta aditza aurreratuz⁹. Honela, ez dugu izango aditza bukaera-bukaeran duten perpaus luze horietakoa. Argitasuna ekarriko dio, beraz, testuari.

Esan beharrik ez dago hizkera teknikorako mesedegarria dela bide hau. Egitura hau testu zientifikoetan askotan erabili izanak ematen digu bere baliagarritasunaren berri. Hizkera zientifikoetan, hauek dituzten ezaugarrienatik, perpaus konplexuak, puntuz puntu (era sailkatuan) emandako zerrendak, grafikoak, irudiak, eta abar agertzeko joera handia dago, eta testuaren osagai hauek elementu kataforikoen bitartez sartuko ditugu testuaren baitan. Guretzat, era honetako egiturak eta edukiak testuaren barruan sartzeko dugun baliabide bakarra litzateke; noski, elementu kataforikorik gabe egin ahal da eta egiten da zenbait kasutan, baina ez da besteak bezain zehatza izango, eta guk kataforikoen erabilera gomendatuko dugu. Gardentasun eta zehaztasun handiagoa ematen diote testuari elementu hauek.

- (39) Gantz-azidoen formula generikoa honako hau da:
 $\text{CH}_3 - (\text{CH}_2)_n - \text{COOH}$
- (40) Ahoko patologia hiru taldeotan sailka genezake:
 - a) Txantxarra.
 - b) Periodontopatiak.
 - c) Oklusio gaizto eta maloklusioa.

Har ditzagun bi adibide. Egitura desberdinak egin ditugu bakoitzean. Lehenengoan galdegai luzea (kortxete artean eman duguna) aditzaren aurrean jarri dugu, hau da, bere jatorrizko lekuan. Aditza, hortaz, bukaeran agertuko zaigu. Bigarrenean, aldiz, *hauxe* komodinak (izan daiteke besteren bat) ordezkaturako du (41) adibidean aditzaren aurrean doan galdegai luzea, eta hau aditzaren atzera bota dugu, ulergarritasun eta irakurgarritasunean irabaziz, gure ustez. Kasu honetan perpausaren egitura guztia hasieratik irakurtzen dugu, eta gero, jakinaren gainean garenean, ematen zaigu luzea den elementua.

- (41) Eta honela, liseri-hodiaren hiru eragin hauen bitartez —jariaketa, mugikortasuna eta zurgapena— lortzen dena [zenbait ekintza metabolikotarako erabiliz, adibidez, energiaren sorkuntzarako —haziera eta iraupenerako behar diren beste konposatu kimikoak sortzeko—, mantenugaiak gorputzarentzat baliagarri izatea] da.
- (41') Eta honela, liseri-hodiaren hiru eragin hauen bitartez —jariaketa, mugikortasuna eta zurgapena— lortzen dena *hauxe* da, [zenbait

⁹ Ikus ZABALA & ODRIUZOLA (1992) 49. orrialdean.

ekintza metabolikotarako erabiliz, adibidez, energiaren sorkuntzarako —haziera eta iraupenerako behar diren beste konposatu kimikoak sortzeko—, mantenugaiak gorputzarentzat baliagarri izatea].

Uste dugu bide aproposa eta mesedegarria dela, ulermenerako eta irakurketarako egokia, batzuetan testuaren estiloa zertxobait motel dezakeen arren.

Ongi ezagutu behar dugu kataforiko hauen erabilera, ez baitira beti ongi erabiltzen.

Elementu kataforikoa aditzaren aurrean jarriko dugu gehienetan, normalean galdegaiaren ordezkua izaten baita, eta, beraz, berezko galdegaiak bete beharko lukeen tokian joan behar baitu.

Galdegaiaren ordezkoak izaki honen lekuan doazenez, forma hauek era indartuak onartzen dituzte galdegaiari enfasia edo indar berezia eman nahi diogunean (adibidez, *honako hauexek*, *ondorengo hauexek*, *hauxe...*).

Ez da zuzena izango, hortaz, ondorengo perpausako lehena, baina bai bigarrena:

(42) **Honako hauexek* liseri-aparatuaren osagaiak dira: ...

(42') *Honako hauexek* dira liseri-aparatuaren osagaiak: ...

Elementu kataforikorik gabeko ondorengo adibide hauek (aditza aurreratu dugu galdegaia atzera pasatuz), okerrak ez izanik ere, ez ditugu gomendatuko:

(42'') Liseri-aparatuaren osagaiak dira...

(41'') Eta honela, liseri-hodiaren hiru eragin hauen bitartez —jariaketa, mugikortasuna eta zurgapena— lortzen dena da [zenbait ekintza metabolikotarako erabiliz, adibidez, energiaren sorkuntzarako —haziera eta iraupenerako behar diren beste konposatu kimikoak sortzeko—, mantenugaiak gorputzarentzat baliagarri izatea].

Adibide hauetan galdegai luzea —planteatzen duen arazoa dela medio— aditzaren atzera eraman dugu; beste era batera esateko, aditza aurreratu egin dugu. Kasu hauetan aditza bere jatorrizko lekuan egongo balitz, hau da, perpaus-bukaeran, ulermen aldetik arazoa sortuko luke perpausak, irakurlea aditzaren zain bukaerara arte egotera behartuko bailuke honek. Ezin dugu txartzat eman egitura hau, literaturan era horretako adibide asko aurki daitezkeenez gero, baina guk —Zabala & Odriozolak (1992) 49. orrialdean bezala— hizkera teknikoetarako nahiago dugu (42') adibideko egitura, argiagoa eta gardenagoa dela iruditzen zaigu eta. Esan behar da (42'') eta (41'') adibideetan, elementu kataforikorik erabili ez dugunez, ezin izango ditugula bi puntuak erabili, ez dugulako hausturarik egiten, eta perpausak aurrera jarraitzen duelako.

Kontuz ibili behar dugu elementu kataforikoen kokagunearekin; izan ere, kataforikoak badira, galdegaia ordezkatzeko erabiliko dira, eta, beraz, galdegaiari dagokion kokagunean. Honek esan nahi du *Etxezarreta irakasleak esan du hau* gisako perpaus bateko *hau* erakuslea ez dela kataforikoa, anaforikoa baizik. Hau da, aurretik eman dugula Etxezarreta irakasleak esan duena, eta aurretik esandako horri egiten diola erreferentzia *hau* erakusleak (perpaus hau ezin dugu erabili Etxezarreta irakasleak esan duena aditzaren atzean esan nahi badugu). Bestelako egitura izango da *Etxezarreta irakasleak hau esan du* gisakoa. Perpaus honetan *hau* kataforikoa dugu, aditzaren aurrean dugunez galdegaia delako; honek esan nahi du informazio berria dakarkigula, ez dugula lehendik eman irakasleak esan duena. Hemen galdegaia den perpausa ordezkatzan ari da *hau* erakuslea, perpaus hori, luzea delako edo, aditzaren atzera eraman eta gero. Elementu kataforikoak erabiltzen ditugun egituretan bi puntuak erabil daitezke¹⁰.

Elementu kataforiko hauek ordezkatzan dutena perpausa denean, bi puntuen ondoren aditzaren atzera eraman dugun mendeko perpausak menderakuntza marka gorde izan du zenbait testutan. Dena den ... *hauxe da esan duena*: ... *-(e)la* egiturari ez deritzogu oso dotore, bi puntuen isilgune horrek nolabait debekatu egiten baitu ondorengo mendeko perpausaren *-(e)la* atzizkia agertzea.

Laburbilduz:

- (43) *Hauxe* aurkitu da: heredentzian zitoplasmak ere zeregina dauka. (Maila landuetarako eredu).
- (44) (?) *Hauxe* aurkitu da: heredentzian zitoplasmak ere zeregina daukala. (Ez dirudi oso dotorea bi puntuen isilgunearen ondoren *-(e)la* atzizkidun mendekoa erabiltzeak).
- (45) (?) *Zera* aurkitu da: heredentzian zitoplasmak ere zeregina dauka. (Galdegaiaren ordezeko *zera* hau, lehenxeago esan dugun bezala, baztertzekoa litzateke testu landuetatik, duen bat-batekotasun kutsuagatik¹¹; ahozko eta lagunarteko hizkerarako gorde dezakegu).

2.3.3. *Testuko barne-erreferentziak*

Era honetako erlazioetan aipatzekoak dira testuan egiten diren barne-erreferentziak (anaforiko zein kataforiko gisakoak hauek ere). Orain arte ikusi ditugun erlazio anaforiko eta kataforikoetakoak baino urrutiagoko erreferentziak izan daitezke, eta, jakina, ezkerraldera nahiz eskuinaldera

¹⁰ Bide batez esan beharra dago liburu honetako beste artikuluko batean aztertzen dituela I. ZABALAK *hots, hain zuzen (ere), hau da, adibidez...* gisako antolatzaileak, testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketenak. Elementu hauek ere lagungarri gertatzen dira aztertzen ari garen egiturak adierazteko orduan.

¹¹ Ikus ZABALA & ODRIÓZOLA (1992), 50. or. eta EUSKALTAINDIA (1985), 89. or.

egin daitezke. Era honetako aditzondoekin egin ditzakegu barne-erreferentzia hauek:

- (46) *Lehen* esan dugun bezala...
- (47) *Gero* aipatuko ditugu honelakoak.
- (48) *Gorago* aipatu dugun bezala...
- (49) *Beherago* hitz egingo dugu arazo honetaz.
- (50) *Goian* aipatutakoa...
- (51) *Geroago* aipatuko dugun bezala...

Bi eratakoak izan daitezke elementu hauek: espazioari dagozkionak eta denborari dagozkionak:

- A. *Goi, aurre, atze, ondo, behe...*
- B. *Lehen, gero, ondo, aurre, atze...*

Kontu izan behar da elementu hauekin, nahasgarriak izan baitaitezke. Adibidez, gerta liteke *aurre* posposizioa erabiliz irakurleak ez jakitea denboraz ala espazioaz ari garen:

- (52) *Ikus aurrerago* gai honetaz dioguna.

Zer esan nahi du honek? testuan zehar (espazio-zentzua) joan behar dugula aurrera (beraz, bukaerarantz) ala denboran zehar (beraz, hasierarantz)? Seguraski irakurle gehienak testuan zehar joango dira aurrera, baina ez da oso argia dagoen bezala.

Egia da aditz jokaturik dugun kasuetan ez dela arazorik, aditzaren aspektu-markak esaten baitigu *aipatu den* ala *aipatuko den*. Alabaina, badi-ra aditz jokaturik gabeko erreferentziak (*ikus aurrerago ...* gisakoak), eta hauetan arazoa planteatu daiteke ez badugu ondo zehazten kontua (beti denboraz edo beti espazio-erreferentziak erabili, aditz jokaturik erabili batzuetan, anbiguo ez diren elementuak —*goi, behe*— erabili ...).

2.4. Errepikapena

Izen edo izen-sintagma baten errepikapenarekin ziurtatu egingo dugu testuinguru sintaktikoa. Testuari batasuna emango dio errepikapenak aurretik esan denari (ideia zaharrei) erreferentzia egiten baitiogu baliabide honen bitartez. Zenbait eratakoak izan daitezke errepikapenak:

2.4.1. *Hitzen errepikapena*

- (53) ... *gizonezkoen* eta emakumezkoen osasuna. *Gizonezkoek* gehiago edaten dutenez ...
- (54) *Zenbait produktu... Produktuak... Produktu hauek...*

Errepikapen-mota bat *izen mugagabe* - *izen mugatu* egituran ematen dena izan daiteke. Hau aparteko sail batean jarri dugu, baina errepikapen-modu bat litzateke:

- (55) *Gehigarri batzuk* erabiltzen ziren historiaren hasierako denboretan.
Gehigarri hauek ... Gehigarriak ...

Izena errepikatu egiten dugu testuan zehar, baina bigarren perpaus-ean, eta hemendik aurrera ere, ezaguna zaigunez, era mugatuan erabiltzen da.

Sintagmen errepikapenak testuan hauen artean dagoen distantziarekin du erlazioa. Esan nahi da zenbat eta gertuago egon erreferentzia bereko bi sintagmak, orduan eta nekezago egingo dugula errepikapena, gehienbat arrazoi estilistikoengatik, itsusi geratzen baita errepikapena; kasu honetan elementu anaforikoen bitartez zehaztuko dugu bien erreferentziakidetasuna. Alderantziz ere esan daiteke; zenbat eta urrunago egon testuan erreferentzia bera duten bi sintagmak, orduan eta errazago egingo dugu errepikapena, anaforikoekin bi elementuen arteko erlazioa ilun geratzeko aukera askoz handiagoa dagoelako. Beraz, honako zehaztapen hauek egin ditzakegu:

a. Erreferentzia bera duten bi sintagmak perpaus berean badaude, normalean erlazio anaforikoak erabiliko ditugu. Adibidez:

- (56) Garrantzi handikoa dugu ekintza mekanikoa, *honen* bidez...

Ez dugu esaten ondorengo hau:

- (57) Garrantzi handikoa da ekintza mekanikoa, *ekintza mekaniko* honen bidez...

b. Bata bestearen jarraian doazen perpausetan, ondorengo bi irtenbi-deak erabil ditzakegu: batetik, erlazio anaforikoa, eta bestetik, errepikapena, batez ere bi elementuen arteko erreferentzikidetasuna argi geratzen ez bada. Adibidez:

- (58) Ura eta mineralak kolonean bertan birzurgatzen dira. *Kolonak* badu mikrobio-flora aberatsa...

Errepikapena egiten da anaforaren bidez eginez gero gaizkiulertuak egon zitezkeen eta (bada beste elementu bat anaforaren aurrekari dela pentsa dezakeguna —*ura*—), eta gaizkiulertu hau anaforen gradu-bereizketarekin saihestu bazezakeen ere, autoreak nahiago izan du errepikapenera jotzea, badaezpada. Kontua da ez dugula beldurrik izan behar izen-sintagmen errepikapena egiteko, askotan lagungarri gerta dakiguke eta.

c. Bi elementuak elkarrengandik urrutiago daudenean, normalean, sintagmaren errepikapenera joko dugu (errepikapen hutsera edo aldaketaren batekin egiten dugunera), askotan ez baita erraza izaten elementu anaforikoekin urruti dauden sintagmen arteko erreferentzikidetasuna zehaztea.

Beraz, kontuz ibiltzea komeni da sintagma baten gehiegizko errepikapenekin; batez ere, nahikoa jarraian datozen perpausetan. Honek astundu egingo luke testua. Monotonia egingo zaigu testua.

(59) (??) HIESa ... HIESak ... HIESari ...

(60) (??) Gehigarriak ... Gehigarriak ... Gehigarriek ... Gehigarri hauek...

Beti ere hobe dugu ondorengo sailean esplikatuko dugun aldaketaren bat duten errepikapenetara jotzea.

2.4.2. Aldaketaren baten bidez egindako errepikapena

Errepikapen hutsa egin beharrean, aldaketaren bat dutenak dira. Egoiak gertatzen dira izen-sintagma edo egitura sintaktiko baten gehiegizko errepikapenak eta honek sortzen duen monotonia saihesteko. Sinonimoak bilatu behar dira, hitz konkretuen generikoak, hitz bereziei dagozkien arruntak (aposizioak), eta abar.

(61) ... *errefluxu gastroesofagikoa galerazten* du. *Eginkizun hau* ondo betetzen ez duenean, ...

(62) *Gehigarrien* erabilera elikaduran gure mendeko gauza bezala kontsideratzen da eta teknologia moderno edo berriekin erlazionatzen. Hala ere, *produktu hauen* historia giza historiaren hasiera-hasierako denboretaraino iristen da.

(63) *Prebentzio-sistema hau* guztiz eraginkorra da, gaur egun, eta *neurri hauek* emakumezko ukitu guztietara iritsiko balira, esan genezake Rh eritasuna desagertu egingo litzatekeela hamar urteren buruan.

(64) *HIESa* azken 25 urteotakoa dugu. *Gaixotasun hau ... xx. mendeko gaixotasun deituriko hau...*

Atal honen barruan sar ditzakegu **biltzaileak** deituko ditugunak. Hauek ere aldaketaren batekin egindako errepikapenak liriateke:

(65) (...). *Arazoa* adibide batekin hobeto ulertuko dugu.

(66) *Gauzak laburtuz*, badago talde maile unibertuala, beste talde guztiei odola emateko gai dena, O taldea hain zuzen.

(67) *Aurreko guztiagatik*, T edo lehenagoko letra duen edozein botika iraugita dago, eta gure osasunerako ez genuke kontsumitu behar.

(68) *Prozesu hau guztia* merkatu librearen esparruan sartzen da.

Aurreko testu-zatian edo testuinguruan zehar aipatu ditugun ideiak ordezkatu (funtzio anaforikoa) ez ezik, bildu ere egiten dituzte elementu hauek.

Azkenik, esan beharra dago errepikapenen artean bi era nagusitakoak aurki ditzakegula, **esplizituak** eta **inplizituak**. Esplizituetan argi geratzen da zenbait elementuren arteko erreferentziakidetasuna. Inplizituetan, aldiz, ez dago bi elementuen arteko erreferentziakidetasunik, baina biek dituzte zenbait ezaugarri semantiko berdin, eta ezaugarri komun horretan datza errepikapen inplizitua.

- (69) Merkatuan dauden *botiken* %20 onar daitezkeela inolako beldurrik gabe, beste %25 onartezinak diren bitartean. *Multzo* ikaragarri horretatik %30ek bakarrik dute balioa orokorki, gainerantzekoa erdibidekoa edo eskasa da.

Bigarren perpausean *botika* hitzaren errepikapen inplizitua dugu, *Botika-multzo ikaragarri ...* suposatu behar dugulako.

2.4.3. Erlazio anaforikoak

Gorago aipatu ditugun erlazio anaforikoak dakarzkigu berriz; hauek ez dute berezko esanahirik, eta aurrekariaren esanahia ekartzen dute perpausera, nolabaiteko errepikapena eginez:

- (70) Diagnostiko arloan baditugu aurrerapenak; *honela*, analitika aldetik erradioinmunoentsaioa dugu; *honek* gastrina, hepatitis-birusen antigeno eta antigorputzak, prostaglandinak eta abar neurtzeko balio du, hain zuzen.
- (71) ... *Horretaz* arituko gara.

2.5. Elipsia

Aurreko perpausean edo perpausetan —esplizituki nahiz inplizituki— agertzen delako, ezagutuztat jotzen dugun elementuaren elipsia dugu testu-koherentzia markatzen duten beste bideetako bat¹². Baliabide honek ere harremanetan jarriko ditu testu bateko perpausak elkarren artean.

Elipsiaren barruan fenomenoetako bat adjektibazioa izan daiteke (izenlaguna nahiz izenondoa geratzen dira izenaren elipsia egin eta gero). Inongo adjektiborik ez duen izen baten elipsia ere egin daiteke. Baita, egiturak ez errepikatzearren, egitura oso baten elipsia ere. Parentesi artean ematen dugu elipsia izan duen sintagma:

¹² Hemen aipatu behar ditugu euskara «pro-drop» hizkuntza izatearen abantailak. Izan ere, euskaraz subjektua eta objektuak erraz isil ditzakegu —baldin hauek isladarik badute aditz laguntzailean—; honek esan nahi du euskaraz elipsia beste hizkuntza askotan baino gehiagotan erabil dezakegula, hizkuntz ekonomiaren aldetik dituen alde onak agerraraziz.

- (72) Botika psikofarmakoak eta psikotropikoak. (*Botika*) *Psikofarmakoek...*
- (73) Udako elikagaiak eta negukoak ... *Udako (botika)en artean...*
- (74) Gaur egungo gazteak ez dira garai batekoak bezalakoak. *Egungo (gazte)ak* argalak eta luzeak dira.
- (75) Sendagaia, gizakien eta abereen gaixotasunak sendatzeko edo prebenitzeko ahalmenak dituen edozein substantzia edo konposizio da. *Azido azetil-salizilikoa (da sendagai horietako bat)*, esate baterako.
- (76) Odol Rh positiboa duenaren kasua alderantzizkoa da: (*odola*) hartu edozeinengandik har dezake, (*odola*) eman ordea Rh positiboeti soilik eman diezaieke.
- (77) Ez gara konturatzen gehigarri hauek ez diotela elikagaiari inolako balio mantentzailerik eranstean; fabrikaziorako ez dira beharrezkoak (*gehigarriak*) teknikoki eta egiten dutena zera da, produktuen azken prezioa igo erazi.
- (78) Odol-transfusioa gauza ona dela ezin uka. Baina zoritxarrez (*odol-transfusioa*) ez da ondorio egokiak dituen prozedura.

Horago aipatu dugun pronominalizazioa ere, nolabaiteko elipsitzat jo dezakegu:

- (79) ... analitika aldetik erradioinmunoentsaioa dugu; (erredioinmunoentsaio) *honek* gastrina, hepatitis-birusen antigeno eta antigorputzak, prostaglandinak eta abar neurtzeko balio du, hain zuzen.

Baita errepikapen inplizitua ere:

- (80) Bi ikertzaileek artikulua idatzi dute. (Artikuluaren) *Eraskina* bietako batek egin du.
- (81) Merkatuan dauden *botiken* %20 onar daitezkeela inolako beldurrik gabe, beste %25 onartezinak diren bitartean. (*Botika-*) *Multzo* ikaragarri horretatik %30ek bakarrik dute balioa orokorki, gainerantzekoa erdibidekoa edo eskasa da.

(80) adibidean, adibidez, anafora ere (*honen*) erabil genezakeen, baina elipsia ere —gertutasunagatik eta ulergarritasunagatik— ez da gaizki geratzen. Kontua da oreka bilatu behar dela anaforen, elipsiaren eta errepikapenaren erabileran.

2.6. Mugagabe-mugatu egitura

Izen edo sintagma baten errepikapenaren kasua dugu hau, baina desberdintasun batekin. Kasu honetan, izen bat edo sintagma bat lehenengo aldiz aipatzen dugunean era mugagabean agertuko zaigu normalean, eta bigarrenetan eta ondorengoetan, jadanik aurkeztua eta ezaguna dugunez, era mugatuan, mugatzaileak edo erakusleren batek lagundurik.

- (82) Ondoren mihiak elikagai-multzo hau eratu eta biribilduko du, *bolo bat* osatuz. *Bolo hau* irensketa-unean mugimendu baten bidez faringe aldera pasatzen da.(...) Boloa ...
- (83) *Edozein elikagai*k, behin ahoratu ondoren, murtxikatzea, listuzkaketa eta irensketa jasan behar ditu. *Elikagaiak* mihiko sentimen-mukosarekin harremanak edukitzean listuaren jariaketa eragiten du.

Batzuetan, elementu anaforiko hutsa ezin izaten dugu erabili ez baita argi geratzen testuinguruko zein elementuri egiten dion erreferentzia (urrutiegia dagoelako edo sintagma bat baino gehiago izanik anbiguo gerta daitekeelako); honelakoetan, komenigarria da errepikapenera jotzea, eta izena edo sintagma, honen lehendabiziko errepikapenetik aurrera, era mugatuan agertzea da normalena; elementu anaforiko hutsaren ordean, izena edo sintagma mugatzaileaz edo erakusleren batez ematea.

Beraz, perpausaren egoera komunikatiboa adierazten digu egitura honek. Era mugatuan ematen ditugun sintagmak ezagunak eta lehenago aipatuak izango dira, eta era mugagabeen doazenak elementu berriak izango dira diskurtsoan.

- (84) *Bolo hau* irensketa-unean *mugimendu baten* bidez faringe aldera pasatzen da.

Bolo hau: ezaguna, lehendik aipatua.

Mugimendu bat: ezezaguna, berria.

Beraz, sintagma mugatu bat dugunean, aurretik aurkeztutako sintagma mugagabe bati egiten dio erreferentzia (honek batasuna ematen dio testuari), eta aldi berean progresio bat egiten dugu (ezezagunetik ezagunera pasatu gara, beste ideia bat adieraziz).

Nolanahi ere, ez da derrigorrezkoa izen bat erabiltzen dugun lehen aldiari beti era mugagabeen ematea, izan baitezake mugatuko duen izenlagun edo erlatibozko perpausen bat. Baina ordena logikoena **sintagma mugagabea (hasieran) - sintagma mugatua (ondoren)**, eta ez alderantzizkoa, denez, horretarako joera dagoela esan nahi dugu, besterik ez.

2.7. Testu-antolaketaarako zenbait elementu

Testua antolatzeko erabil ditzakegu formula edo esapide moduko elementuak. Lagungarriak gertatzen zaizkigu testua egituratzeko eta ulergarriago egiteko. Erraztu egiten dute testuaren egitura eta ulermena. Testuaren zatiak nola antolatuko diren erakusten digute; zer esango den hasieran, zer ondoren, zer bukatzeko; zeintzuk diren lanaren helburuak, honen ondorioak noiz ematen diren, esandakoaren laburpena noiz egingo den, eta abar. Era honetakoak ditugu:

<i>Hasteko</i>	<i>hasiera emateko</i>	<i>helburuak azaltzeko</i>
<i>lehenik (eta behin)</i>	<i>ondoren</i>	<i>gauzak honela</i>
<i>hau honela izaki</i>	<i>honekin batera</i>	<i>jarraitzeko</i>
<i>laburtzeko</i>	<i>bukatzeko</i>	<i>bukaera emateko</i>
<i>honen ondorioa azaltzeko</i>	<i>honen ondorioz</i>	

Hauek ere, lokailuen gisara, testu-mailako lotura gauzatzen dute, eta normalean komak lagundurik agertzen zaizkigu (guk hala gomendatuko genuke —lehenago ere aipatu dugu— hizkera teknikoetarako), perpausaren analisitik kanpo dagoen zerbait direla ongi zehaztearren. Beraz, hauen funtzioa testuaren baitan kokatuko da, berau antolatu eta egituratzeko.

- (85) *Lehenik ... Bigarren atalean ... Hirugarrenean ... Azkenik ...*
- (86) *Hasteko ... Jarraitzeko ... Bukatzeko ...*
- (87) Gaia azaltzeko, informazioa lau ataletan banatuko dut: *lehenik* ikuspegi historikoa emango da, hau da tabakoa minbizi-sortzaile bezala ezagutzen den unetik hasita Doll eta Hill-ek zientifikoki frogatu zuten arterainokoa. *Bigarren atalean* egungo egoera azalduko da: zer dakigu, zer egin da eta zer lortu da. *Hirugarrenean* biriketako minbiziak soilik arituko naiz, tabakoarekin duen harreman bereziagatik. *Azkenik*, etorkizuna: zein da minbiziaren aurkako borrokaren planifikazioa, epe laburreko etorkizunean.

Bariazio estilistiko ugari izan ditzakete era honetako antolatzaileek.

2.8. Zenbait egitura

2.8.1. Egitura distributiboak

- (88) *Batetik ... Bestetik ...*
- (89) Bi izan ziren aldaketa hori gauzatu zuten gertakariak: *batetik*, tabako-orriak ontzeko metodo berria asmatu zen. *Bestetik*, mekanizazio industrialia izan zen erabateko faktorea.
- (90) *Bata ... Bestea ...*
- (91) Ez hau egiten da. Ez bestea esaten da. Ez da ezer egiten.
- (92) *Edo* esan bezala egiten da. *Edo* ez da egiten.

Esan beharra dago normalean era honetako egiturak perpaus (elkartu) baten barnean gertatzen direla, eta ez dela ohikoena egitura hauek perpausa (puntu) baino gorago hedatzea.

2.8.2. Galdera-erantzun egitura

Erlazio estua dute galderek eta erantzunek. Ezin ditugu bata bestea-rengandik banandu. Bien egiturak paraleloak dira, eta hain estua da bien

arteko erlazioa, non gehienetan elipsia ematen baita erantzunean, galderako zenbait elementu ez errepikatzearen. Garrantzitsuena galdegaia (galdezailearen erantzuna) ematea da; gainontzeko guztiak ez digu hainbeste axola, eta gainera, galderan esana dugu. Beraz, sail hau elipsiaren eta ondoren datorren galdegaiaren taldeetan sar daiteke, bi baliabideak erabiltzen dira eta:

- (93) Eta zer da kaloria? Fisikan, bero-kantitateak neurtzeko onartu den unitatea. Ur gramo baten tenperatura 14,5°C-tik 15,5°C-ra igotzeko behar den bero kantitatea. (Elipsia)

Erantzuna den perpausa bakarrik hartzen badugu, seguraski ezin izango dugu dena ulertu; aurreko perpausera (kasu honetan galderara) jo behar dugu zentzu osoagoa izateko. Presuposizioekin jokatzeko da maiz erantzunetan, eta elipsia oso arrunta izango da, galderan ematen baitzaigu ezkutatzeko diren sintagma eta aditza. Erantzunetan sarritan egiten da aditzaren elipsia, mintzagaia ere ez bada. Askotan izango dugu izen-sintagma soil bat erantzun gisa. Honek esan nahi du oso erlazio estua dela galderaren eta erantzunaren artekoa, beraien egitura paraleloek erakusten duten bezala.

Beraz, izenaren (edo izen-sintagmaren) eta aditzaren elipsirik ez bada egiten, galderaren egitura berbera izango du erantzunak:

GALDERA: Galdezailea + aditza + gainontzeko osagarriak.

ERANTZUNA: Galdegaia + aditza + gainontzeko osagarriak.

- (94) Zer + da + kaloria?

- (95) [Bero-kantitateak neurtzeko onartu den unitatea] + da + kaloria.

Dena den, esan beharrekoa da *galdera-erantzun* egiturak ez direla edozein motatako testuetan erabiltzen; oso ohikoak dira dibulgaziozko lanetan eta testu-liburuetan. Goi-mailako testu zientifikoetan, estilo hau ez da oso erabilia.

Beraz, hauek lirake bi aukerak:

- (96) Zergatik suntsitu ziren dinosaurusak? ... (Dibulgaziozko lanetan, testu-liburuetan).

- (97) Dinosauruen suntsipenaren kausak ... (Maila jasoagoko testu zientifikoetan).

2.8.3. Galdegai-mintzagai egiturak

Perpausen batean galdegaia edo mintzagai hanpatua badugu, hau da, ordena neutrorik ez badugu, zerbaiti enfasia eman nahi izan diogulako

izango da. Hanpatutako elementuak, askotan lehendik ezaguna denak, predikazioaren testuingurua adieraziko digu (mintzagaia) edo informazio berriena ekar dezake (galdegaia)¹³.

- (98) Atzo nik zure lana irakurri nuen (ordena neutroko parpau neutroa, galdegai eta mintzagairik gabea)
- (99) Atzo nik *zure lana* irakurri nuen (ordena neutroko perpau ez-neutroa: tonuan oinarritua)
- (100) Atzo *neuk* irakurri nuen zure lana (ordena ez-neutroa duelarik, ezin-beste markatua den perpausa)
- (101) *Atzo* irakurri nuen nik zure lana (ordena ez-neutroa duelarik, ezin-beste markatua den esapidea)
- (102) Atzo nik *irakurri* egin nuen zure lana (perpau markatua: aditzaren ekintza galdegai)
- (103) Atzo nik, *irakurri nuen* zure lana (perpau markatua: aditzaren baieztapena galdegai)

Mintzagaia hanpatzeko osagaia perpau hasierara eramaten da, etenaldi batekin normalean. Galdegaia den elementua hanpatzeko, aldiz, aditzaren arrimura (ezkerretara) joango zaigu. Bi egitura hauetako bat dugunean presuposizio batzuekin jokutzen dugu; mintzagai hanpatuaren kasuan badakigu edo aurretik aipatutako zerbaitez ari garela edo aurreko perpausoko mintzagaiarekiko gai-aldaketa bat egin ondoren sartutako beste mintzagai batez; edonola ere, predikazioaren testuingurua adieraziko digu, hau da, hitz egin behar dugunaren testuingurua, unibertsoa; galdegaiaren kasuan, berriz, pentsa daiteke aurretik agertu den, edo ondoren agertuko den, edo agertu ezean suposa dezakegun beste elementuren batekin kontrakotasunen bat egiteagatik erabiltzen dela.

Honek guztiak esan nahi du mintzagai zein galdegai egituretan testuinguruarekin erlazio nabariak dituela perpausak.

- (104) Zenbait eritasunetan jan-neurri bereziak behar dira. Diabetean adibidez, azukre eta karbohidratoen kontsumoa gutxitu beharra dago. Giltzurrun-intsufizientzian *proteinak eta potasioa dira* murriztu beharrekoak, gai hauen metabolismoan sorturiko produktuak ezin baitituzte iraitzi erasandako giltzurrunek.

Bigarren perpausoko ordena ez-neutroa da, eta bertan galdegaia eta mintzagaia ditugu. Honek esan nahi du badugula bigarren perpau honetan presuposizio bat, nahitaez aurreko testuinguruarekin lotzen duena. Mintzagaia *murriztu behar izana* da alde batetik (informazio ezaguna), baina baita *giltzurrun insufizientzian* ere. Azken hau ez da informazio ezaguna, aurreko perpausoko mintzagaiarekiko gai-aldaketa bat adierazten duena

¹³ Ikus ZABALA & ODRIOZOLA (1992), 42. or. eta Osa (1990).

baizik. Bigarren perpauseko predikazioko elementurik inportanteena (galdegaia) *proteinak eta potasioa* dira, aditzaren aurretik jarri dugun sintagma enfatizatua. Informazio berriena litzateke, eta kasu honetan aurreko perpauseko galdegaiaren kontrajarpen gisa uler daiteke (diabetean *azukre eta karbohidratoak*, giltzurrun-insufizientzian *proteinak eta potasioa*).

2.9. Perpausen arteko erlazio logikoak

Askotan erlazio logiko hauek beste elementuren batzuek lagundurik agertzen zaizkigu; lokailuek eta esapideek, adibidez, kausa, ondorioa, denbora-hurrenkera gisako erlazioak gauzatzen laguntzen gaituzte. Hala ere, erlazio logiko hauek elementu laguntzaile hauek gabe ere egin daitezke; hori bai, kontuz ibili behar dugu, eta saiatu irakurleak ongi uler dezan erlazioa; ulertu ezean, derrigorrezko egingo zaigu elementu laguntzaile hauek ematea.

Baldintza:

- (105) Batzuetan ez du ondo betetzen errefluxu gastroesofagikoa galerazteko eginkizuna. Esofagitisa eta estenosi peptikoa sortuko dira.

Lehendabiziko perpausari baldintzazko egitura jar diezaiokegu eta bi perpausen arteko puntua kendu, baldintzazko erlazioa argiago erakusteko:

- (105') Errefluxu gastroesofagikoa galerazteko eginkizuna ondo betetzen ez badu, esofagitisa eta estenosi peptikoa sortuko dira.

Kausa - ondorioa:

- (106) Duela gutxi mediku batek esan zidan gaixo bat ongi aztertu eta miatu ondoren etxera aspirina-kaxa bat errezetaturik bidaltzen bazuen, gaixoa adarra jo zioten ustearekin geratzen zela. Erabakia hartu zuen gauza bera errezetatzeko baina beste izen komertzial batekin eta gainera dexente garestiagoa zena.

Bigarren perpausaren hasieran (bi perpausen artean) jar dezakegu, erlazioa argiago egin nahi badugu, *hori zela eta* moduko esapide bat edo lokailuren bat.

Denbora-hurrenkera:

- (107) Elikagaiak mihiko sentimen-mukosarekin harremanak ditu. Listuaren jariatuta eragiten du honek. Listuak aldeztu aurretik murtxikatuak izan diren elikagaien gain ihardungo du. Mihiak elikagai multzo hau

eratu eta biribilduko du, bolo bat osatuz. Bolo hau irensketa-unean mugimendu baten bidez faringe aldera pasatzen da.

Denbora-hurrenkera argiago adierazteko denbora aditzondoak (*gero, ondoren, orduan*) erabil ditzakegu.

Adibide hauek guztiak koherenteak dira, nahiz eta perpausen arteko lotura ez dugun esplizitatu.

2.10. Bata bestearen jarraian emandako perpausak

Ez da hau testu-koherentzia gauzatzeko nahikoa baldintza, izan baititzakegu elkarren artean inongo erlaziorik ez duten bi perpaus bata bestearen jarraian emanak. Horrela ez genituzke testua osatzeko beharrezko diren baldintzak beteko, eta txartzat emango genuke horrela egindako perpaus-multzoa.

Hala ere, bide honek, beste bide batzuekin batera gehienetan, laguntzen du testu-koherentzia lortzen. Izan ere, askotan gertatzen bada ere, bata bestearen jarraian emandako perpausak ez dute elkarren arteko lotura espliziturik zertan izan, bien artean lotura semantikoa badugu. Perpausen hurrenkerak garrantzia du erlazio anaforikoetan (aurrekaria-anafora), kausa-ondorio egituretan, baldintza-ondorio egituretan, eta abar.

Laburbilduz

Testu-mailako lotura gauzatzeko ditugun baliabideez aritu gara.

- Hauen artean testu-antolatzaile funtzioa duten lokailu, esapide eta juntagailuak azaldu ditugu; elementu hauek perpausen arteko lotura esplizitatzen dute, perpaus-hasieran doaz normalean eta juntagailuen kasuan eta zenbait lokailuren kasuan —*ere, behintzat, bederen*— izan ezik, etenaldi modura sartzen ditugu testuan. Ez dute funtziorik perpausaren barruan, testu-mailakoa da beren eginkizuna.
- Bestalde testuko elementuei erreferentzia egiten dieten elementu pronominalak ditugu; elementu anaforikoek aurretik aipatu den zerbaiti egiten diete erreferentzia eta kataforikoek ondoren esango den elementu bati.
- Sintagmen errepikapenak eta elipsiak ere testu-mailako lotura gauzatzeko laguntzen dute; hala ere, baliabide hauek, pronominalizazioa bezala, ezin dira nolnahi erabili, badituzte —argitasuna batez ere— bete beharreko baldintza batzuk.
- Azkenik, garrantzi gutxiagoko baliabide batzuk ere azaltzen ditugu, hala nola, mugatu-mugagabe egitura eta perpausen arteko erlazio logikoak.

3. LITERATUR TRADIZIOA ETA LOKAILUAK: HAUEN ERABILERARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Lokailuen erabilera onak testua aberastu egiten du eta irakurketa onerako ere lagungarri gertatzen da. Honek esan nahi du testu aberats eta ulergarria egiteko erabili egin behar ditugula; baina hauek erabiltzeko lokailuen erabilera ongi ezagutu behar dugu.

Hirugarren atal honetan lokailuen erabilerari buruzko ohar aipagarrienak azalduko ditugu, hurrengoan nabarmenenak diren erabilera okerrak zuzenduko ditugun bitartean. Lokailuen erabilerari buruz zehaztasun gehiago nahi duenak Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III. Lokailuak* liburura jo dezake; han aurkituko ditu behar dituen zehaztasun gehienak.

3.1. Lokailuen sailkapena

Lokailuen sailkapenari dagokionez, hona hemen *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III. Lokailuak* liburuan, irizpide semantikoari jarraituz, egiten dena:

- Emendiozkoak:** *ere, gainera, bestalde, halaber (orobat, berebat), behintzat, bederen, behinik behin, badere, badarik (ere).*
- Hautakariak:** *bestela (bertzenaz), osterantzean, gainerantzean, ezpere(n), ezpabere.*
- Aurkaritzakoak:** *ordea, berriz, ostera, aldiz, aitzitik, bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean, alta, alabaina, alabadere, dena den, dena dela, hala ere, hala eta guztiz ere, haatik/hargatik, horratik/horregatik, barren, badarik ere.*
- Ondoriozkoak:** *beraz, bada, hortaz (bada), orduan, honenbestez, horrenbestez, hainbestez.*
- Kausazkoak:** *zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere.*

Jakina, zenbat eta lokailu gehiago ezagutu, orduan eta aukera gehiago izango dugu lokailu-aukeraketarako, eta aberatsagoa egingo dugu testuaren estiloa ere.

3.2. Lokailuen kokagunea

Goian esan dugu lokailuek askatasun handia dutela kokaguneari dagokionez, nahikoa mugikorrek direla. Juntagailuekin konparatuz, askoz ere askatasun handiagoa dute. Ia perpausetik at dauden elementu marginalak dira, askeak; eta, etenaldi gisa gehienetan, leku bat baino gehiagotan koka daitezke perpausaren barruko hitz-ordena aldatu gabe.

Honek ez du esan nahi, hala ere, edozein lokailu edozein lekutan koka dezakegunik. Lokailu bakoitzak (batzuetan lokailu-talde batzuek) bere askatasunaren barruan, kokagune jakin batean agertzeko joera erakusten du. Gainera, lokailu batzuk besteak baino mugikorrakoak dira zentzu honetan.

Dena den, lokailuaren eginkizuna hau doan perpausak aurrekoarekin dituen erlazio semantikoen berri ematea denez, normalena lokailua perpausaren hasiera aldean agertzea da, edo hasieran edo hasierako elementuren baten —askotan mintzagai hanpatuaren— ondoren. Beraz, joera nagusi gisa, esan dezakegu lokailuak **perpausaren hasieratik hurbil** kokatzen direla. Zenbat eta perpaus-hasieratik gertuago egon, orduan eta gertuago izango du lokailuak aurreko perpausa eta azkarrago ohartuko gara bi perpausen arteko erlazioaz.

Honek ez du esan nahi lokailurik ezin ager dakigukeenik perpaus baten bukaera inguruan; bai, agertuko zaizkigu, baina honelako kasuetan, normalean, edo perpausa oso laburra delako, edo lokailuaren aurretik doan mintzagaia nahikoa luze delako izango da. Nekez agertuko zaigu, alabaina, lokailurik perpaus luze baten azken muturrean. Beraz, mugikorrek direla esan dezakegu, baina muga batzuen barruan¹⁴.

- (108) *Bestalde*, hestemeharrak baditu bere entzimak, proteinen kontra (erepsinak), lipidoen kontra (lipasak) eta gluzidoen kontra (maltasak) ihardungo dutenak.
- (109) *Beraz*, nahitaezkoen eta aukeran eros daitezkeen artean ikaragarriko desproporzioa dago.
- (108') (??) Hestemeharrak baditu bere entzimak, proteinen kontra (erepsinak), lipidoen kontra (lipasak) eta gluzidoen kontra (maltasak) ihardungo dutenak, *bestalde*.
- (109') (??) Nahitaezkoen eta aukeran eros daitezkeen artean ikaragarriko desproporzioa dago, *beraz*.

Perpausaren hasieran agertzeko joera nagusi horren barruan lokailuen kokalekua mugikorra dela esan dugu, baina ez da hau gertatzen lokailu guztiekin. Esan behar da zenbait lokailuk nahikoa finkoa dutela kokalekua, eta hau mantentzen saiatu beharko ginatekeela. Batzuek hasieran agertzeko joera handia erakusten dute, beste batzuek zenbait elementuren ondoren, beste batzuk mugikorrakoak dira eta ia edozein lekunetan aurkituko ditugu.

¹⁴ Ikus dezagun honen erakusgarri, VILLASANTEK *beraz* lokailuari («conjunción» deitzen dio) buruz idazterakoan dioena: «Generalmente aparece colocado en cabeza de frase, pero a veces también en segundo o **aun** tercer lugar del sintagma» (*Sintaxis de la oración compuesta*, 164. or.). Dirudienez, arraroa egiten zaio, eta hala markatzen du, *beraz* lokailua perpaus hasieratik hain urruti joatea.

Adibidez, *aitzitik, bizkitartean, hala ere, dena den, bestalde, alabaina, gainera* gisakoak hasieran agertzeko joera dute, zenbaitetan perpausaren barneragoko lekuneetan aurki ditzakegun arren.

Berriz, oster, aldiz, ordea gisakoek luzea nahiz laburra izan daitekeen osagai baten ondoren joateko joera nabarmena dute. Mintzagaiaren ondorengo posizioa da normalean hartzen duten lekunea, aurreko perpau-seko osagaiaren batekiko kontrakotasun baten mesedetan. Era honetako lo-kailuak perpaus-hasieran nekez aurkituko ditugu:

(110) (??) *Aldiz*, honek ez du hori egin.

(111) (??) *Ordea*, ez gara mendira joan.

Zenbait autore zaharrek, Axularrek besteak beste, erabiltzen du *ordea* perpaus-hasieran, baina ez da azken mendeetako erabilerarik hedatuena (B. Atxagak, adibidez, gustokoa badu ere erabilera hau). Gaur egun perpausaren barnean ematen da.

Gauza bera gertatzen da *ere, behintzat, bederen* gisakoekin. Lokailu hauek ere nekez aurkituko ditugu perpaus hasieran (*ere* inoiz ez), ia beti osagai baten ondoren —eta honi nahikoa loturik— ematen baitira.

Debeku moduko honek gogorragoa dirudi goiko lokailuak (*aitzitik, hala ere, dena den...*) perpaus barnean azaltzekoa baino.

Orain arte esandakoaz gain, **beste baldintza batzuk** ere bete behar ditu lokailuak kokaguneari dagokionez. Ezingo du, bistan denez, izen-sin-tagma bat erditik hautsi, ez eta mendeko perpaus bat eta galdegai-aditz hurrenkera ere. Ikus ditzagun hurrenez hurren, kasu hauek.

(112) *[Arrazoi ez hain, *bestalde*, praktikoekin]_{IS} erabiltzen ziren gehigarriak.

(113) *[Behin ikertzaileek, *ordea*, garatzen dutenean]_P, izugarritzko gorakada izango du aurkikuntza honek.

(114) *[XX. mendean, *ordea*, garatu diren]_P gehigarriak era askotakoak dira.

(115) *Gehigarrien erabilera [gure mendeko gauza, *beraz*, da] Gald.-Ad.

Honako hauek lirateke erabilera egokiak:

(112') *Bestalde*, [arrazoi ez hain praktikoekin]_{IS} erabiltzen ziren gehigarriak.

(113') [Behin ikertzaileek garatzen dutenean]_P, *ordea*, izugarritzko gorakada izango du aurkikuntza honek.

(114') [XX. mendean garatu diren]_P gehigarriak, *ordea*, era askotakoak dira.

(115') *Beraz*, gehigarrien erabilera [gure mendeko gauza da] Gald.-Ad.

(115'') Gehigarrien erabilera, *beraz* [gure mendeko gauza da] Gald.-Ad.

Laburbilduz

Perpausetik kanpo daudenez, lokailuek ez dute perpauaren barruan inolako funtziorik izango; beren funtzioa testuaren barruan kokatu behar da. Honen esan nahi du ez dutela leku jakinik izango perpauetan, eta honen barruan «tartekatatu» behar ditugula lokailuak. Tartekatze hau ezin da nolana egin, baldintza batzuk errespetatuz baino.

1. Ahal izanez gero (lokailu bakoitzaren joerak errespetatuz) perpau hasiera aldean ematea komenigarriagoa da testuaren ulermen onerako.
2. Horretaz gain, beste baldintza estuago bat bete behar dugu: lokailuak ezin du IS bat erditik hautsi, eta ezin dugu mendeko perpau batean tartekatatu, ez eta Galdegai-Aditz egituran ere.
3. Tartekatze hau normalean komak lagundurik egingo da, hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala.

3.3. Lokailuak eta komaren erabilera

Literatur tradizioan —literatur tradizioko komaren erabileraz hitz egin badaiteke behintzat— esan dezakegu lokailuak askotan agertzen direla komarekin. Honela agertzen zaizkigu normalean:

- Koma artean.
- Ondoren komaren bat dutela (perpau-hasieran badoaz).
- Aurretik koma bat dutela (perpau-bukaeran doazenean).

Esan beharra dago komarik gabe ere agertzen direla elementu hauek euskal literaturan. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar puntuazio-marken erabilera ez dela erabatekoa izan euskal literatur tradizioan —gauza bera gertatzen da beste hizkuntzetan—; autore, euskalki eta garaien arabera erabilerak nahikoa aldatzen dira. Gaur egun ere gertatzen da zenbait kasutan hori; etenaldia kontu nahikoa subjektiboa denez, batzuek etenaldi jakin bat komarekin indartzen dute, beste batzuentzat koma jartzeko adina-ko etenaldirik ez den bitartean.

Lokailuak —oro har— komaren laguntzarekin agertzeak XIX eta batez ere XX. mendeko testuetan agertzen du nagusitasuna. Honek ez du esan nahi lehen egiten ez zenik (Etxepare, Axular, Tartas, Etxeberri Ziburukoa, eta abarrek erabiltzen zituzten komak lokailuekin), nahiz eta egia den gutxiago erabiltzen zirela komak. Dena den, eta kontutan hartzen baditugu batetik, puntuazioak literaturan izan dituen erabilera desberdinak eta bestetik, XVI eta XVII. mendeetako puntuazio-sistemaren eta egungoaren arteko diferentzia nabarmenak, oso erlatiboki baino ezin diogu eman bere garrantzia testu zaharretako erabilerari.

Zalantzan jarri ezin dena da argi dagoela lokailuen aurretik eta ondoren, gehienetan behintzat, etenaldi bat dagoela, irakurketan geldialdia egi-tera bultzatzen gaituena. Perpausekoak baino gehiago testukoak diren elementuak dira lokailuak; nahikoa askeak, beraz. Hauen izaera aske hori koma artean jarriz markatzen dugu. Azken bi mendeotako literaturako datuetan (batez ere xx. mendekoetan) argi ikusten da joera orokorra koma artean ematekoa dela¹⁵.

Gramatika eta estilo-liburuetan ere gehienetan komaz inguraturik ematea gomendatzen da eta batzuetan derrigortu ere.

Bestalde, kontutan hartzeko gauza da komarik ez erabiltzeak testua eta honen irakurketa nabarmenki ilun dezakeela; bi irakurketa desberdin izan ditzake zenbait perpausek komarik ez badugu erabiltzen, lokailu-esapidea-rena edo adizlagun-aditzondoarena. Zenbait lokailu eta esapidek balio bat baino gehiago dutelako gertatzen da hau¹⁶:

Gainera (posposizioa) eta *gainera* (lokailua).

Orduan (aditzondo) eta *orduan* (lokailua).

Bestela (aditzondo) eta *bestela* (lokailua).

Halaber (aditzondo) eta *halaber* (lokailua).

Bada (adizkia) eta *bada* (lokailua).

Berriz (aditzondo) eta *berriz* (lokailua).

Horregatik (adizlaguna) eta *horratik* (lokailua).

Honela (adizlaguna) eta *honela* (lokailu gisakoa).

Hori dela eta (mendeko perp.+ junt.) eta *hori dela eta* (esapidea).

Beraz, interpretazio desberdina egingo dugu koma artean (lokailua edo honen gisakoa) edo komarik gabe (aditzondo edo adizlaguna) ematen baditugu.

(116) Kasu honetan ere *halaber* gertatuko ote da?

(116') Kasu honetan ere, *halaber*, gertatuko ote da?

(117) Horretaz *gainera* ez da ezer aipatu txostenean.

(117') Horretaz, *gainera*, ez da ezer aipatu txostenean.

(118) *Horrela* egin behar dugun lana luze joango zaigu.

(118') *Horrela*, egin behar dugun lana luze joango zaigu.

(119) Arazo hori *berriz* egingo dugun esperimentuan planteatuko zaigu.

(119') Arazo hori, *berriz*, egingo dugun esperimentuan planteatuko zaigu.

¹⁵ Nolanahi ere, ez zaigu iruditzen isilguneak ezinbestez koma eskatu behar duenik. Beste hizkuntza batzuetan badira isilgune garbiko kasuetan komarik ez ipintzeko joerak. Ingelesezt, adibidez, lokailuen artean ez da beti koma erabiltzen (*so* lokailuaren kasuan, adibidez), nahiz eta argi egon isilunea badela. Guk, hala ere, komaren erabilera gomendatuko dugu, honek duen praktikotasunagatik eta orain aipatutako joera horiek ez direlako oraingoz gure artean he-
datu.

¹⁶ Puntu honetarako ikus OSA (1990) 249. orrialdean.

- (120) *Bestela* egindako ebakuntza oso arriskutsua izango da.
- (120') *Bestela*, egindako ebakuntza oso arriskutsua izango da.
- (121) Elikatzean *bada* sarritan egiten den akatsa eta ...
- (121') Elikatzean, *bada*, sarritan egiten den akatsa eta ...
- (122) Dirua beharrezkoa *dela eta* dena libre dagoela esaten duena ez dabil zuzen.
- (122') Dirua beharrezkoa *dela eta*, dena libre dagoela esaten duena ez dabil zuzen.

Askotan komaren erabilerak saihestuko du interpretazio anbigua. Beste batzuetan, perpausaren ordena zertxobait aldatzen delako edo testuinguruarekin nahikoa izan dezakegulako, ez dugu anbigutasunik, zentzu estu batean behintzat, interpretazio zuzena egiteko. Honelako kasuetan, hala ere, komaren erabilerak lagundu egingo digu irakurketan, era honetara bi aldiz irakurri behar izana saihestuz.

Beraz, I. Zabalak eta J.C. Odriozolak dioten bezala «... testu zientifikoaren erredakzioan, hobe da soberazko puntuazioa erabiltzea gaizkiulertuak sortzeko posibilitatea uztea baino»¹⁷.

Honenbestez, guri hizkera teknikoetarako gomendagarria iruditzen zaigu lokailuekin komak erabiltzea, alde batetik etena badelako, bestetik —gure ustez— azken bi mendeotako literatur tradizioko eta gaur egungo testuetako erabilera nagusiena hori delako eta azkenik, zalantzazko egiturak saihesteko lagungarriak direlako. Honetaz gain irakurketarako ere lagungarri gertatzen dira.

Alabaina, salbuespen modura edo, esan behar da lokailu guztiek ez dutela komekin joateko joera hain nabarmena. Adibidez, *ere* lokailuak aurretik ez du inoiz komarik eramango aurreko elementuari enklitikoki loturik baitoa. Gauza bertsua gertatzen zaie emendiozko taldeko *behintzat*, *bederen* gisako lokailuei; hauei aurretik koma jartzeak aurreko elementuarekin duten erlazio estua apurtzea suposatuko luke.

Bestalde, mintzagai hanpatuaren ondoren —eta mintzagai hau aurreko perpausako beste elementu batekin kontrajartzeko egiten den hanpadura bideratzeko— erabiltzen ditugun *berriz*, *aldiz*, *ostera* lokailuek literaturan ondorengo koma gehiagotan agertzen dute aurrekoa baino. Honek erakusten du badela mintzagaiaren eta lokailuen arteko nolabaiteko lotura. Nolanahi ere, ez da *ere* lokailuak duena bezain estua (aurretik koma dutela agertzen zaizkigun adibide ugariak erakusten diguten bezala) eta aurretiko eta ondorengo komen arteko adibide-kopuruan ez dago hainbesteko aldeirik. Gainera, gaur egungo erabileran, oro har, esango genuke ohikoena lokailu hauek koma artean jartzekoa dela. Beraz, ez dirudi desegokia denik lokailu hauentzat ere aurretik koma proposatzea (lehen aipatu dugun gaizkiulertuak ebitatzeko egiten den komaren erabilerarengatik eta lokailuen

¹⁷ Ikus *Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera*, 61. or.

sailean komaren erabilerari dagokionez lortuko genukeen salbuespen bakarrek —emendiozko *ere*, *behintzat*, *bederen*— erregulartasunarengatik)¹⁸.

Laburbilduz

Testu zientifikoetarako, ondorengo arrazoiak direla medio:

- Batetik literatur tradizioan komaren kontuan erabateko erabilerarik ez bada ere, komaz lagunduriko adibideak nagusi dira azken bi mendeetan (eta xx. mendean bereziki), oro har, lokailuen eta esapideen sailean. Honek esan nahi du badela komaz markatzeko adinako eternaldia lokailuen ondoren, eta gehienetan aurretik ere, baldin eta ez badoaz perpaus-hasieran.
- Bestetik, oso lagungarriak gertatuko zaizkigu koma hauek testuaren interpretazio egokiago eta zehatzago baterako.
- Irakurketarako ere oso lagungarri dira.

Gomendioa honako hau litzateke:

- Lokailu eta esapideak koma artean erabiltzea, salbuespen gutxi batzuk alde batera utziz. Salbuespena batez ere aurreko elementuarekiko atxikimendu berezia duten emendiozko *ere*, *behintzat* eta *bederen* gisakoena litzateke; hauei aurreko koma jartzea nahikoa gogorra gerta daiteke.

3.4. Lokailuen erregistro desberdinak

Lokailuen artean badira testu zientifikoetan leku handirik ez luketena, duten erabilerarengatik, agertzen diren testuinguru edo testu-motarengatik, eta abar.

Adibidez, *orduan* eta *barren* bezalako lokailuak nekez agertuko zaizkigu testu zientifiko batean¹⁹. Ez dute leku handirik hizkera teknikoan, herri-mailako testuetan eta elkarrizketetan erabiltzen direlako gehienbat. *Orduan* aditzondo modura erabil genezake (*orduan bakarrik gertatzen da prozesua*), baina ondorioa adierazteko lokailu modura egokiagoak aurkituko ditugu (*beraz*, *hortaz*, *bada*).

Barren lokailuarekin ere honen antzeko zerbait gertatzen da; herri-mailako testuetan agertzen da (J. San Martinen *Zirikadak* liburuan adibi-

¹⁸ *Berriz*, *aldiz*, *ostera* moduko lokailu «mintzagai-txertatzaile» hauentzat ondorengo koma bakarrik —eta ez aurrekoa— proposatzen dute ZABALA & ODRIEZOLAK (ikus 46. orrialdean), *behintzat*, *bederen* gisakoekin parekatuz. Adibidez:

+ Lehenengo erreakzioan, oxidatu egin da burdina; bigarrean *berriz*, erreduzitu egin da.

¹⁹ Izatekotan baliteke, lehenaren kasuan, logika edo algebrako *Baldin A*, ... *orduan B* gisako formula jakin batean agertzea, baina nekez testu baten barruan.

dez) eta elkarrizketa denean bakarrik; beraz, nekez izango da erabilgarria testu zientifikoetan. Horretaz gain, ez da oso hedatua, eta leku gutxi batzuetan bakarrik erabiltzen denez, bere erabilera ez da ezaguna.

3.5. Zaharkitutako lokailuak

Zenbait lokailu jadanik ez da erabiltzen; honek ez du esan nahi erabil ez daitezkeenik, baina horretarako beren erabilera ongi ezagutu behar dugu (balioa, kokagunea...) eta ziur egon behar dugu irakurleak ere ezagutzen duela; bestela, ez dugu testuaren ulermen ona ziurtatuko. Hauen erabilera ezagutu nahi duenak Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III, Lokailuak* liburura jo dezake.

—Lokailu batzuk zaharkituak geratu dira: *badarik ere, alabadere, ezperen...*

—Beste batzuen balioetako bat zaharkitua geratu da: adibidez *alabaina* eta *bada* lokailuekin gertatzen da hau; bi balio dituzte, baina gaur egungo testuetan balio bat nagusitu da: *alabaina*-ren kasuan aurkaritzakoa hegoaldean eta esplikatiboa iparraldean, eta *bada*-ren kasuan ondoriozkoa, kausazkoa ahaztuz.

Bi balio dituzten lokailuetan badirudi gaur egun bietako bat bakarrik erabiltzen dela; beraz, hizkera teknikoetarako gomenda daitekeena da gaur egun erabiltzen dena bakarrik erabiltzea, biak erabiltzeak lekarkeen nahasketa ebitatu asmoz. Zaharkitua, beraz, alde batera uzteak mesede egin diezagukeela uste dugu.

Arazoa iparraldeko erabilera eta mendebaldekoa bat ez datozenean izango dugu. Hori gertatzen da *alabaina* lokailuaren kasuan; iparraldean gaur egun balio esplikatiboarekin erabiltzen da, eta hegoaldean aurkaritzabalioarekin. Hemen adostasun batera iritsi beharko genuke beharrezko dugun batasuna lortzeko.

3.6. Hedatuak ez diren lokailuak

Euskararen eremu osorainoko hedadura izan ez duten lokailuak eta hauen aldaera dialektalak ere badira, lagungarri gerta dakizkigukeenak zenbait kasutan, eta berreskura daitezkeenak zenbait testuingurutarako edo gehiegizko errepikapenetan ez erortzeko. Aberasgarria da ezagunak ez zaizkigun lokailu eta aldaerak ezagutzea, beti berberak erabili beharrean. Horretarako, lokailu eta aldaera hauek erabiltzen diren euskalkira jo behar dugu, eta, lehen lokailu zaharrekin esan dugun bezala, hauen erabilera ongi ezagutu erabiltzen diren euskalkian, gero erabili nahi baditugu. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III, Lokailuak* liburura jotzea dugu onena horretarako.

Dena den, kontutan izan behar dugu euskalkietako lokailu edo aldaera hauek erabili baino lehen, hauek erabiltzean komunikazioa ziurtatua dugula, irakurleak ezagutzen dituela hauen erabilerak.

Alta, osterantzean, ezpabere, orobat, berebat ... dira forma hauetako batzuk.

3.7. Lokailuen balio-aniztasuna

Zenbait lokailuk beste balio batzuk izan ditzakete. Izan dezakete lokailuek duten testu-antolatzaile funtzioa, eta baita adizlagun- edo aditzondo-funtzioa ere (garai bateko zenbait lokailuren lokailu gisako balio-bikoiztasuna ez aipatzearren). Beraz, kontutan hartzekoa da zalantzarri edo anbiguo diren perpausak egin aurretik. Adibidez, *gainera, halaber, bestela, berriz, aldiz, hargatik, horregatik, bada*, eta abarrek erabilera bat baino gehiago dute.

- (123) Zu *berriz* etorriko zara gure etxera.
- (123') Zu, *berriz*, etorriko zara gure etxera. (Pello ez da etorriko. Zu, berriz, bai).
- (124) Gauza *beraz* ari gara hitz egiten.
- (124') Gauza, *beraz*, ez da txantxetako.
- (125) *Gainera* erori zitzaion likidoa arriskutsua zen.
- (125') *Gainera*, erori zitzaion likidoa arriskutsua zen.

Kasu hauetan, goian esan dugun bezala, oso inportantea da komaren erabilera forma hauen balioak bereizteko.

Hargatik eta *horregatik*-en kasuan, bina balio izan ditzakete: batetik, motibatiboko marka dutenez, arrazoia adierazten dute; bestetik, aurkaritzako lokailu dira. Beraz, nahasgarriak gerta dakizkiguke testuaren ulermenerako. Baditugu, ordea, hauen sailekoak diren *haatik* eta *horratik* formak, lokailuen testu-antolatzaile funtzioa bakarrik dutenak. Aurkaritzako lokailuak dira eta forma aldetik *-gatik* motibatiboaren kasu marka badute ere, ez dute kausazko baliorik. Beraz, *hargatik* eta *horregatik*-ekin gertatzen zitzaigun bikoiztasun hori saihestuko dugu forma hauekin. Gomendagarria litzateke, hortaz, aurkaritza baliorako *haatik* eta *horratik* formak erabiltzea nahasgarriak izan daitezkeen *hargatik* eta *horregatik* barik (hauek motibatiborako edo arrazoia adierazteko bakarrik erabiliko ditugu). Hona hemen literaturatik hartutako bi adibide:

- (126) Hemen laborariak ez daki arbola tratatzen. *Hargatik* erranen darotzut zer egiten den bertze tokietan.
- (127) Aita galdu ginuen arte (...) artzantza izan zen ene lan nagusia, handik goiti, *hargatik*, denetarik zerbeit egin behartu zitzaudan.

Bi adibide hauetan ikusten dugu *hargatik* formaren balio bikoitza. Lehendabizikoan kausazko kasu-marka daraman adizlaguna da; bigarreanean, aldiz, aurkaritza adierazten duen lokailua.

Hortaz / horretaz formak ere bereizi behar ditugu. Lehena ondoriozko lokailua litzateke (fosildua), eta bestea kasu-marka instrumentala daraman bigarren graduko erakuslea.

3.8. Azken oharrak

Dena den eta *dena dela*, lokailu guztiak bezala, fosildutako formak dira (beste lokailu asko jadanik adizlagun ez diren bezala; formaz bai, baina funtzioz, ez). Honek esan nahi du ez dutela inolako aldaketarik onartzen aditz-jokoari dagokionez. Beraz, subjektu pluralerako ez da onargarria *direnak direla*, iraganerako *zirenak zirela* eta *zena zela* onartzen ez diren bezala.

Askotan ikusiko ditugu lokailuak juntagailuen arrimura; ezin izango ditugu, ordea, bi juntagailu metatu; ezinezkoak dira, adibidez, **eta baina*, **baina edo* konbinazioak, baina bai *eta ... aldiz*, *eta ... ordea*, *baina hala ere*, *eta beraz*, *baina ... aldiz* (gutxiagotan) gisakoak. Honek esan nahi du badela juntagailuen eta lokailuen arteko desberdintasuna, kasu honetan distribuzioan oinarritua.

Laburbilduz

Lokailuez aritu gara hirugarren atal honetan. Hauei buruz literatur tradizioiko datuek zer dioten azaltzen saiatu gara.

- Saillapena: EGLU-III liburukiko semantikan oinarritutako saillapena ekarri dugu hona.
- Kokagunea: nahikoa libreak badira ere, lokailu bakoitzak bere joerak ditu kokaguneari dagokionez; hala ere, oro har, esan daiteke perpausaren hasiera aldean kokatzen direla —aurreko perpausarekiko erlazioa gauzatzen dutenez gero—.
- Koma: oro har, komak lagunduta —bai aurretik, bai ondoren— ematea gomendatzen dugu, horretarako arrazoiak emanez. Salbuespena aurretik komarik onartzen ez duten *ere*, *behintzat*, *bederen* modukoak lirateke.
- Erregistroa: ez dira lokailu guztiak erregistro berekoak, eta irizpide honen arabera zenbait lokailuren erabilera ez dugu gomendatzen —lagu-narteko hizkerarako egokiagoak direlako...—.
- Hedadura eta antzinatasuna: lokailu batzuk jadanik ez dira erabiltzen eta beste batzuk ez dira euskararen geografia guztian ezagutzen. Hone-lakoetan kontuz ibiltzea proposatzen dugu, baina gureak ez diren beste euskalkietako elementuei atek itxi gabe. Erabilera zaharkituak baztertea proposatzen dugu.
- Balio-aniztasuna: zenbait lokailuk balio bat baino gehiago izan dezakete; kontu hau koma erabiliz edo lokailuaren balio zaharrena baztertuz saihas daiteke.

4. TESTU-KOHERENTZIA BIDERATZEN DUTEN BALIABIDEEN ZENBAIT ERABILERA OKER EDO ZALANTZAZKO

Lokailuen literatur tradizioako erabilerari begiradatxo bat eman ondoren, gatozen orain gaur egungo testuetan —batez ere ikasleenetan— agertzen diren erabilera oker batzuetara. Gaur egungo zenbait erabilera ez dotoz bat literatur tradizioak erakusten digunarekin. Azken puntu honetan literatur tradiziotik urrundu diren erabilerak azalduko ditugu eta gure us-tez, hizkera teknikoari begira bereziki, egokiak diren egiturak proposatu-ko.

Erabilera okerra izan gabe ere ideia bat adierazteko bi aukera ditugu-nean, hizkera teknikorako zein hobetsi edo gomendatuko genukeen ere adieraziko dugu azken puntu honetan.

4.1. *Ere* lokailuaren erabilera okerrak

Akats gehien sortarazten dituen lokailua da ziurrenik. Lokailuen sai-lean gehien aipatzen dena dugu hau, gramatika, estilo-liburu eta gisa ho-netako liburuetan.

Lokailu hau ezkerraldean daraman elementuari —mintzagaia denari— enklitikoki loturik doa.

A. *Ere* perpaus-hasieran jartzea da egiten den akatsetako bat.

(128) **Ere* ditu elikadurak beste arazo praktiko batzuk.

(129) *Beroa energi mota bat denez, *ere* kaloria energi unitate bat da.

(130) **Ere bai...*

Interferentzia garbia erakusten duen akatsa litzateke. Hemen perpaus barrura eraman beharko dugu lokailua, eta dagokion osagaiaren atzean ja-rri.

(128') Elikadurak beste arazo praktiko batzuk *ere* baditu.

(129') Beroa energia-mota bat denez, kaloria *ere* energi unitate bat da.

(130') ... *ere bai. / ... ere.*

B. Ez dagokion osagaiari lagunduz (honen atzean) ere askotan erabil-tzen da *ere* lokailua.

(131) Nagusiak elizara joan dira. Zenbait ume elizara *ere* joan dira.

Aurreko perpausari gehitzen zaion elementuaren atzean eman behar dugu *ere*. Kasu honetan lehenengo perpausean elizara joan diren nagusiak ez ezik, bigarren perpauseko zenbait ume ere joan direla esaten da. Beraz,

zenbait ume da nagusiak sintagmari gehitzen zaiona, eta *ere* lokailuaren aurretik jarri behar duguna.

(131') *Zenbait ume ere* joan dira elizara.

C. Lokailu honekin gertatzen den beste akats batzuk *baita ... ere* egiturari dagozkio. Honako egitura hauek bezalako ugari ikusten dira idazlanetan.

(132) * ... Mikelek *baita ere* (*Mikelek ezta *ere*).

(133) * ... Mikelek *ere baita* (*Mikelek *ere ezta*).

(134) ... *Baita* Mikelek *ere*.

D. Hemen agertzen zaigun beste adibide batek zalantzak eskaintzen ditu:

(135) *Baita ere ...* (Perpaus-hasieran)

Zenbait hiztun eta idazlek txartzat emango lituzkeen arren, literaturan dokumentatutako egitura dugu. Ez da, nolana ere, erabiliena; beraz, erabil ditzakegu euskaraz egitura hau baino jatorragoak direnak. *Ere* lokailu soila erabil dezakegu egitura honen orde, edo beste lokailu edo egitura batzuk perpaus-hasiera-hasieratik eman nahi badugu emendiozko balioa:

(136) *Halaber, ...*

(137) *Era berean, ... / Modu berean ...*

E. *Ere* lokailua ez agertzea; adibidez, egitura distributiboetan:

(138) ... bai itxura fisikoaren aldetik eta bai osasun aldetik.

(138') ... bai itxura fisikoaren aldetik eta bai osasun aldetik *ere*.

Era honetako egituretan *ere* lokailurik gabeko adibideak literaturan (batez ere iparraldean) agertzen zaizkigun arren, ez da gehien erabiltzen dena, eta normalagotzat joko dugu *ere* lokailuarekin erabiltzea. Gainera, argiago geratuko zaigu emendiozko balioa.

Era honetako adibideak *ere* agertzen dira:

(139) *Ikertu egin zuten *baita*.

(139') Ikertu *ere* egin zuten.

F. Literaturan dokumentatua dagoen beste egitura bat aditz jokatuaren ondorengo *ere* lokailua daramana dugu, zenbaitek txartzat, edo zalantzarritzat behintzat, emango lituzkeen arren.

(140) Esan dugu *ere* ez dugula horrelakorik egingo.

Esan behar da ekialdeko literaturan agertzen dela gehienbat egitura hau eta ez gehiegitan gainera, eta interpretazio nahikoa bihurria eta anbigua izaten duela. Hortaz, literatur tradizioan erabilia dagoenez, ezin izango dugu esan txartzat ematekoa denik egitura hau, hizkera arrunterako bederen (nahiz eta badakigun ez dela erabiliena); alabaina, hizkera teknikoetan, hauek behar duten zehaztasunagatik, nekez onartzekoak lirateke era honetako perpaus anbiguoak —*ere* zein osagaiari lagunduz doan garbi erakusten ez duten perpausak—.

(141) Erabiltzen da *ere* C.P.R. teknika hau helburu terapeutikoarekin.

Egitura hau erabiltzen duen ekialdeko tradizioan *ere* lokailu hori interpreta dezakegu *teknika hau* sintagmarekin, *helburu terapeutikoarekin* sintagmarekin eta baita aditzarekin berarekin *ere*. Ezin dugu honelako interpretazio ilunik onartu testu zientifiko batean, eta *ere* dagokion osagaiaren ondoren emango dugu adierazi nahi dena zehazki adierazteko:

(141') C.P.R. teknika hau *ere* erabiltzen da helburu terapeutikoarekin.

(141'') C.P.R. teknika hau helburu terapeutikoarekin *ere* erabiltzen da.

(141''') C.P.R. teknika hau erabili *ere* egiten da helburu terapeutikoarekin.

Ikasleen idazlanetatik ateratako adibide honetan gauza bera gertatzen da:

(142) Lurra gaixotzen da *ere*.

Zer esan nahi du hau idatzi duenak perpaus honekin? Uraz gain, adibidez, lurra *ere* gaixotu egiten dela ala zikintzeaz gain, adibidez, gaixotu *ere* egiten dela lurra. Askotan testuinguruak lagunduko digu interpretazio egokia egiten, baina beste zenbaitetan baliteke nahikoa ez izatea. Beraz, gauzak ahalik eta argien azaldu behar direlakoan gaude. Goiko adibidearen ordezkoi aukera egokiagoak honako hauek lirateke:

(142') Lurra *ere* gaixotzen da (itsasoaz gain lurra *ere* gaixotzen da).

(142'') Gaixotu *ere* egiten da lurra (kutsatzeaz gain gaixotu *ere* egiten da).

(142''') *Halaber (era berean)*, lurra gaixotu egiten da.

Gauza bera gertatzen da hurrengo adibide honekin:

(143) Esan du *ere* zitoplasman oinarriturik dagoela.

Egitura honen bitartez adierazi nahi duguna hurrengo hauetako baten bitartez adieraztea litzateke egokiagoa:

(144) *Esan ere* esan du zitoplasman oinarriturik dagoela.

(145) Zitoplasman oinarriturik dagoela *ere* esan du.

- (146) *Era berean*, zitoplasman oinarriturik dagoela esan du.
 (147) Zitoplasman *ere* oinarriturik dagoela esan du.

Honek erakusten digu *ere* lokailua oso mugikorra dela, eta erabat aldatzen dela perpausaren edo testuaren esanahia *ere* lokailua mugitze hutsarekin. Honekin batera aipatzekoa da gaur egun ugaltzen ari den aurrekoaren antzeko egitura hau: aditza + *baita ere*. Egitura honek ere aurrekoaren arazo berberak sortzen ditu.

4.2. *Izan ere... bait-/... eta egiturak*

A. Ezin dira txartzat eman egitura hauek, baina esan beharra dago zenbait ikasle/idazle/esatarik uste duela *izan ere* lokailuak derrigorrez eskatzen duela *bait-* (edo *eta*) menderakuntza-marka aditzean; eta ez da horrela. Egia da literatur tradizioan dokumentatua dagoela *izan ere ... bait-* egitura, baina ez da, ez eta gutxiagorik ere, egiturarik erabiliena. Askoz gehiagotan erabiltzen da aditzean markarik gabeko egitura. Beraz, puntu honetan ez dugu *izan ere ... bait-* egitura txartzat eman nahi; esan nahi duguna da, zenbaiten ustearen kontra, ez dela egitura posible bakarra, eta gainera askoz gutxiagotan erabilia izan dela literaturan. Beraz, zerbait gomendatzekotan, menderakuntza-markarik gabekoa gomendatuko genuke.

- (148) *Izan ere*, beti entzun *baitugu* ongi jaten dugun ospea dugula.
 (149) *Izan ere*, ongi jaten dugun ospea dugula beti entzun dugu *eta*.
 (150) *Izan ere*, beti entzun dugu ongi jaten dugun ospea dugula. (ERABILIENA).

Menderakuntza-markarekin sarritan ikusten da egungo euskara idatzian eta mintzatuan; baina gure gomendioa hedatuagoa, zaharragoa eta sarriago erabilia denaren (*izan ere ... ø*) aldekoa litzateke. Literaturan (*Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusean) *izan ere* lokailuari dagozkion adibideen artean oso gutxi aurkitu ditugu menderakuntza-markarekin, eta hauek autore gutxi batzuen testuetan gainera.

B. *Izan ere / «es ke»*: *izan ere* lokailuari ahozko eta lagunarteko hizkeran batez ere, gaztelaniazko *es que ...* egiturak jan dio lekua; ez da, nolana ere, euskara idatzian normalean egiten den akatsa, eta gutxiago hizkera teknikoan.

C. *Hain zuzen (ere)*²⁰ / *izan ere*: bi hitz esango ditugu *hain zuzen* eta *izan ere*-ren arteko ustezko nahasketaz. Badirudi zenbait idazlanetan bien erabile-

²⁰ Esan beharra dago *hain zuzen (ere)* antolatzaileaz diharduela liburu honetan bertan I. ZABALA «Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzaileak: *hau da, hain zuzen (ere), adibidez, batez ere...*» izeneko artikuluan.

ra nahikoa nahasia dela, eta bata zein bestea berdin erabiltzen direla. *Hain zuzen ere* ez da esplikatiboa, deiktikoa baizik, zerbait zehazki erakutsi eta esplikatzeko diguna. Bestalde, *izan ere* kausazkoa da, hau da, zerbaiten arrazoia edo esplikazioa adierazten digu. Luis M.^a Larringanek, bere tesi-lanean, biak talde berean sartzen ditu, finkapenerako testu-antolatzaileen barruan, baina ez du ukatzen semantikoki duten desberdintasuna. Tesi-lan honetatik hartuak dira honako adibideak; berauetan ikusten dugu trukaezinak direla:

- (151) Paradoja bada ere, gerra irabazi eta, irabazteagatik *hain zuzen*, hanka egin behar.
- (151') *Paradoja bada ere, gerra irabazi eta, irabazteagatik, *izan ere*, hanka egin behar.
- (152) Txarra da gerra, orain ezaguna dena. Indioak ziren horretan humanitarioenak, hitz honek zentzurik badu behintzat. *Izan ere* hauek beraien guda eta borroketetan ez zituzten etsaien haurrak hiltzen.
- (152') *Txarra da gerra, orain ezaguna dena. Indioak ziren horretan humanitarioenak, hitz honek zentzurik badu behintzat. *Hain zuzen ere* hauek beraien guda eta borroketetan ez zituzten etsaien haurrak hiltzen.

4.3. *Ordea, berriz, aldiz, oster*a lokailuak

Batzuetan truka badaitezke ere, ez dira berdin-berdinak. Adibidez, *ordea* lokailuak ez du aurreko perpausaren esanahiaren kontrako aurkaritza bakarrik adierazten, baita aurreko perpausaren esanahitik ondoriozta (presuposa) dezakegunaren kontrakoa ere.

- (153) Ez gara, *ordea*, mendira joaten.

Adibide hau hartzen badugu, honen aurreko perpausetik ondorioztatu behar dugu gu mendira joatea normala dela, edo mendira joan beharko genukeela, edo mendira joatea gustatzen zaigula. Beraz, era honetako perpausa espero beharko genuke aurreko testuingurutzat:

- (153') Natura oso maite dugu.

Eta emaitza hauxe litzateke:

- (153'') Natura oso maite dugu. Ez gara, *ordea*, mendira joaten = Natura oso maite dugun arren, ez gara mendira joaten (kontzesioa).

Baina nekez onartuko ditugu *aldiz*, *ostera* edo *berriz* bezalako lokailuak *ordea*-ren lekuan:

- (154) *Natura oso maite dugu. Ez gara, *aldiz*, mendira joaten.
- (155) *Natura oso maite dugu. Ez gara, *berriz*, mendira joaten.

Aldiz, berriz eta *ostera* lokailuek kontrajarren konkretuak egiten dituzte, aurretik esandakoari zerbait berria eransteko erabiltzen dira, mintzagaia eransteko. Adibidez:

- Nik... Zuk, aldiz...*
- Mendia ... Hondartza, aldiz...*

Badu *ordea* lokailuak beste hirurek duten mintzagaien kontrajarpenerako erabilera hori ere; horretaz gain, *ordea*, badu beste balio bat; lokailu honekin aurreko perpausetik ondoriozta dezakegun ideia ukatu ere egiten dugu; hau da, natura oso maite dugunez, normalena litzateke gu mendira joatea; bada, ideia hori ukatzen dugu *ordea* lokailuarekin. Beraz, *ordea*-ren bigarren erabilera honekin presuposizioaren ukapena egingo genuke eta *aldiz, berriz, oster*a-rekin —eta baita *ordea*-ren lehen erabilerarekin ere— mintzagai-aldaketa bat.

- (153") Natura oso maite dugu. Ez gara, *ordea*, mendira joaten.
- (156) Natura oso maite dugu. Zibilizazioa, *aldiz*, gorrotatu egiten dugu.
- (156') (???) Natura oso maite dugun arren, zibilizazioa gorrotatu egiten dugu.

Honek guztiak esan nahi du ezin ditugula, zenbaitetan egiten den bezala, pare-parean erabili *ordea* eta *aldiz* (edo *berriz*). *Ordea*-k besteak ordezka ditzakeen bitartean, *aldiz, berriz eta oster*a ezin eman ditzakegu beti *ordea*-ren orde; beraz, markatuak lirateke.

- (157) Proteinen kontra aurretik pepsinak jokutzen du (eta horretarako urdaileko azidotasa behar du); gero tripsina pankreatikoak eta duodenoko urinek aminoazido bihurtzen dituzte. Lipidoak, *ordea*, aho-ratzen diren bezala mantentzen dira duodenora ailegatu arte.
- (157') (...) Lipidoak, *aldiz*, aho-ratzen diren bezala mantentzen dira duodenora ailegatu arte.
- (158) Prestatuak gaude landare-biologiari buruzko edozein ikerketatan parte hartzeko. Ez dugu, *ordea*, era horretako ikerketetan parte hartzerik izan orain arte.
- (158') *Prestatuak gaude landare-biologiari buruzko edozein ikerketatan parte hartzeko. Ez dugu, *aldiz*, era horretako ikerketetan parte hartzerik izan orain arte.

Laburbilduz, hauxe litzateke lokailu-talde honen eskema:

	Mintzagaien kontrajarpena	Kontzesioa
Ordea	+	+
Ostera	+	-
Berriz	+	-
Aldiz	+	-

4.4. Lokailuak eta komaren erabilera

Aurreko atalean gomendatzen genuen lokailuak —eta hauen funtzio bera duten esapideak— komaren laguntzaz ematea. Gomendio hau zenbait arrazoi direla medio eman dugu; arrazoi garrantzitsuenak literatur tradizioan duten erabilera, lokailuetan egiten diren eten nahikoa garbiak eta anbiguo gerta daitezkeen egiturak uxatzea —testu zientifikoetan batez ere— lirateke.

Hizkera teknikoetan zehaztasunari eta anbiguotasun faltari arreta berezia eskaini behar diegu; puntu hauek ongi zaindu behar ditugu, eta kasu honetan ere hauxe izango da gure helburua: egitura zehatzak eta anbiguotasunik gabeak ematea. Horretarako, komak oso lagungarri gerta dakizkiguke. Erabili egingo ditugu.

Beraz, gure gomendioa testu zientifikoetan komak erabiltzea litzateke, anbiguo gerta daitezkeen egiturei atentzio berezia eskainiz.

Hau ez da ikasleen idazlanetan gertatzen dena, askotan behintzat. Komak ez dira askotxotan erabiltzen, eta honek egitura anbiguoak edo irakurtzeko deserosoak ekar ditzake. Era honetako egiturak ditugunean bereziki gomendatzen dugu koma erabiltzea, nahiz eta edozein kasutarako gomendagarria izan komaren erabilera.

4.5. Lokailuak ez dagokien lekuan jartzea

Idazlanetan askotan egiten den okerra dugu hau. Lokailuak erabili behar direla esan dugu, baina hauen erabilera ezagutu eta errespetatu behar dugu erabili ahal izateko. Ez da, ordea, nahi adina errespetatzen baldintza hau egungo testuetan. Azter dezagun puntu hau kasuz kasu.

A. Lokailuak ezin du izen-sintagma bat erditik hautsi

(159) *Era honetako, aldiz, gehigarri batek kalteak ekar diezazkiguke.

(159') Era honetako gehigarri batek, aldiz, kalteak ekar diezazkiguke.

B. Galdegai-aditz egitura ezin du hautsi

Literaturan salbuespen gutxi batzuk aurki daitezke, baina nekez aurkituko dugu lokailu bat galdegaiaren eta aditzaren artean. Adibidez, *aztertu* aditzaren ekintza galdegai izaki:

(160) *Aztertu, *beraz*, egin behar da ezaugarri hau.

(160') *Beraz*, aztertu egin behar da ezaugarri hau.

(160'') Aztertu egin behar da, *beraz*, ezaugarri hau.

Beraz, lehenengo adibidea bezalakoen ordez, azken bietako bat gomendatuko genuke.

C. *Lokailua ezin da mendeko perpaus batean tartekatuz*²¹

- (161) *Saiakera hori, *beraz*, egin arren, ez dugu ezer lortuko.
- (161') *Beraz*, saiakera hori egin arren, ez dugu ezer lortuko.
- (161'') Saiakera hori egin arren, *beraz*, ez dugu ezer lortuko.
- (162) *Zuri, *alabaina*, erakutsi behar dizugun operazioa ez da gauza erraza izango.
- (162') *Alabaina*, zuri erakutsi behar dizugun operazioa ez da gauza erraza izango.
- (162'') Zuri erakutsi behar dizugun operazioa, *alabaina*, ez da gauza erraza izango.
- (163) *Pertsona bakoitzak, *hortaz*, kaloria-kopuru desberdina behar duela esan dezakegu.
- (163') *Hortaz*, pertsona bakoitzak kaloria-kopuru desberdina behar duela esan dezakegu.

D. *Lokailuak perpaus-hasieratik ahalik eta gertuen egon behar du*

- (164) (??) Erosi baino lehen eta batez ere kontsumitu baino lehen, ez da batere kostatzen zeinu horiei begiradaxo bat botatzea, *horrela bada*.
- (164') *Horrela bada*, erosi baino lehen eta batez ere kontsumitu baino lehen, ez da batere kostatzen zeinu horiei begiradaxo bat botatzea.
- (165) (??) Liseri-hodi honekin harreman estua duen guruin-sistema bat kontutan hartu behar dugu, *bestalde*.
- (165') *Bestalde*, liseri-hodi honekin harreman estua duen guruin-sistema bat kontutan hartu behar dugu.
- (166) (??) Egungo bizitzarekin lotuz, makarroia, arroza edo pastak jan behar direla esaten digute jakintsuek, *hala ere*.
- (166') *Hala ere*, egungo bizitzarekin lotuz, makarroia, arroza edo pastak jan behar direla esaten digute jakintsuek.

Lokailuek, perpaus batek aurreko perpausarekin —edo perpausarekin— duen lotura semantikoaren berri ematen dutenez, perpausaren hasieran agertzeko joera dute. Honek esan nahi du perpaus-bukaeran jartzen badi-

²¹ Debeku honek ez dirudi hain gogorra emendiozkoen saileko zenbait lokailurekin; hala nola, *ere*, *behintzat*, *bederen* ... Izan ere, ez dirudite txarrak ondorengo adibide hauek:

+ [Anaiari *behintzat* eman diola] esan du.

+ [[Ikerketa hori *ere* zuzenduko duela] adierazi du irakasleak.

Sakonkiago aztertzea litzateke kontu hau, izan baitaiteke lokailuen ondoren eten bat egotea, eta mintzagaiak izatea bai *Anaiari behintzat* eta bai *Ikerketa hori ere* —kasu hauetan ez litzateke bortxatuko ematen dugun debekua—.

tugu, bukaerara arte itxaron behar dugula bi perpausen arteko erlazioaz jabetzeko. Perpaua laburra bada, ziurrenik ez da ezer gertatuko (perpaua-bukaeran doa lokailua, baina perpaua-hasiera ere gertu du), baina perpaua luzea bada, perpaua guztia irakurtzen aritu behar dugu bi perpausen arteko erlazioaz jabetu arte. Ez da hau biderik erosoena, ez eta gomendagarriena ere.

Beraz, lokailua perpausaren hasieratik ahalik eta gertuen ematea litza-teke gomendioa, beti ere lokailu bakoitzaren joerak (kokaguneari dagokio-nez) errespetatuz. Honela testuaren interpretazioa eta irakurketa erraztu egingo dugu.

E. Lokailu bakoitzak bere joera du kokaguneari dagokionez

- (167) (??) *Aldiz*, beste produktu batzuk ez dira hain arriskutsuak.
- (167') Beste produktu batzuk, *aldiz*, ez dira hain arriskutsuak.
- (168) (??) *Berriz*, sendagai hauek ez dute kontraindikaziorik.
- (168') Sendagai hauek, *berriz*, ez dute kontraindikaziorik.

Galdera-ikurrak jarri dizkiegun adibideak bezalakoak askotan agertzen zaizkigu idazlanetan, baina ez dugu uste erabilerarik onena denik.

Lokailu guztiek duten mugikortasunaren barruan joerak ikusten ditugu; lokailu batzuk kokagune desberdinetan ager daitezke, baina joera nagusi bat izango dute:

- Berriz, aldiz, ostera, ordea* modukoak mintzagai hanpatuaren ondoren (perpaua barruan) ageriko zaizkigu gehienetan; oso arraroa da perpaua-hasieran aurkitzea.
- Behintzat, bederen, behinik behin* gisakoak perpaua barruan dute kokagune ohikoena.
- Hala ere, halere, hala eta guztiz ere, dena den, gainera, alabaina ...* lokailuek perpaua-hasieran agertzeko joera dute.
- Beraz* lokailuak mugikortasun handia du eta edozein kokagunetan aurkituko dugu, beti ere perpausaren hasiera aldean agertzeko joera nagusiaren barruan.

Honek esan nahi du lokailu bakoitzaren joerak errespetatu behar direla, eta mugikortasun handirik ez duten lokailuak normalean agertzen zaizkigun lekuneetan jarri behar ditugula.

F. Lokailuak behar ez duten kokagunean ematen dira askotan

- (169) *Lan bat makinaz egin dugu. Bestea eskuz egin dugu, *aldiz*.

Lekuz aldatu dugu. Lokailua, kontraste jakin baten mesedetan, mintzagaiaren ondoren jarri ordez, perpausaren beste elementuren baten ondo-

ren jartzen da askotan. Aurreko perpauseko mintzagaiarekin kontrastatzen duen elementuaren atzetik joan beharko dute zenbait lokailuk (besteak beste *aldiz*, *berriz* eta *ostera*-k). Beraz, era honetara litzateke:

(169') Lan bat makinaz egin dugu. Bestea, *aldiz*, eskuz egin dugu.

Argi dago kasu honetan mintzagaia *bestea* dela, eta *aldiz* lokailuak *lan hori* eta *bestea*-ren arteko kontrajarpena egiten duela, ondorengo kasuan *makinaz* eta *eskuz* direlarik kontrajartzen diren mintzagaiak:

(170) Bi lan ditugu, bata makinaz egin duguna, eta bestea eskuz egin duguna. Makinaz laburra egin dugu. Eskuz, *aldiz*, luzea egin dugu.

Eta ez:

(170') *Bi lan ditugu, bata makinaz egin duguna, eta bestea eskuz egin duguna. Makinaz laburra egin dugu. Luzea, *aldiz*, eskuz egin dugu.

4.6. Lokailuen erabilera urria

Idazlan askotan ikusten den joera dugu hau. Ez dira lokailuak behar beste erabiltzen. Perpausak testuaren barnean irlatzat jotzen dira lokailurik erabili ezean, hauen artean inongo erlazio logiko-pragmatikorik esplizitazten ez delako. Lokailuen erabilerari gagozkiolarik, ikasleen artean gehien somatzen den akatsa dela esango genuke. Perpausak ez dira elkarren segidan erlaziorik gabe jarritako egitura isolatuak; jadanik esana dugun bezala, perpausaren gainetik dagoen osotasun baten osagai dira. Osotasun hau testua da, eta testua aldeztu aurretiko plan baten arabera eraikitako osotasuna duen perpaus-multzo komunikatiboa da.

Lokailuen erabilera urriak perpausen arteko erlazioaren gauzatze falta dakar. Askotan testuinguruak esango digu zer eratako erlazioa den, baina ezin da ukatu lokailu batek gauzak nabarmenki errazten dizkigula. Lokailurik erabili ezean, askoz ere denbora gehiago erabili behar dugu testua bere osotasunean interpretatu ahal izateko.

Lokailurik gabeko testu bat kohesiorik gabea izango da, ez bailuke testuak behar duen batasunik. Perpaus bakoitzean zerbait berria esaten ariko ginatke, aurretik esandakoarekin dituen erlazioak adierazi gabe, aurretik esandakoari erreferentziarik egin gabe. Elkarren artean erlazio espliziturik ez luketen perpausen metaketa litzateke lokailurik gabeko «testua».

Esan beharrik ez dago paragrafoen arteko erlazioak gauzatzeko ere askotan lokailuak behar direla. Hauen faltak, perpausen kasuan bezala, paragrafoen isolamendua dakar.

Honekin lotu beharreko beste kontu bat aukeran ditugun lokailuen ezagutza urria da; ez dira lokailu gehiegi erabiltzen ikasleen testuetan; ho-

nek lokailu gutxi batzuen gehiegizko errepikapena dakar. Arazo hau konpontzeko Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III. Lokailuak* liburura jo dezake ikasleak, eta bertan azter ditzake atal bakoitzeko lokailuen erabilerak. Azter ditzake bere euskalkikoak ez diren lokailuak eta gaur egun gehiegi erabiltzen ez direnak —gauza bera esapideekin—. Horrela aberastu egingo luke estiloa eta perpausen arteko erlazioak bideratzeko gailu hauen multzoa ere bai, bai baitirudi lokailu eta esapide gutxi batzuk bakarrik erabiltzen direla ikasleen artean. Honako hau litzateke gehien hedatuta dagoen testu-antolatzaileen multzoa:

- Ondorioa adierazteko: *beraz, horrela.*
- Kontrajarpena adierazteko: *aldiz.*
- Emendioa adierazteko: *bestalde.*
- Aurkaritza adierazteko: *hala ere, dena den, baina.*
- ...

Testu-antolatzaile hauetaz gain beste asko ditugu. Alde batetik, hain erabiliak ez diren lokailuak; beste batetik testu-antolatzaile funtzioa duten juntagailuak; azkenik, badugu aurreko bi horien erabilera bera duten esapide edo lokuzioen multzo zabal bat ere. Guztiak batuz, honako aukera hauek —ez dira guztiak trukagarriak izango beti, noski— ere izan ditzakegu testu-antolaketarako:

- Ondorioa: *hortaz, horrenbestez, horregatik, hori dela eta, hori dela medio, hortik, horren ondorioz...*
- Kontrajarpena: *berriz, ostera, ordea...*
- Emendioa: *gainera, halaber, zer esanik ez, era berean, modu berean, ildo beretik, zentzu berean, bide batez, era horretan...*
- Aurkaritza: *aitzitik, alabaina, horratik, zernahi gisaz, nolana ere, nolana den, edonola (ere), edozelan bere, edozein modutan ere, edozein moduz, edozein kasutan (ere), guztiarekin ere...*

Lokailu eta esapide hauek erabiltzeak, ulergarritasuna eta zehaztasuna emateaz gain, aberastasuna ere emango dio testuari.

4.7. Paragrafoak

Askotan testu bateko paragrafoak gaizki egiten dira. Lehenengo eta behin esan behar da paragrafoak egitea ez dela perpaus bat egitea bezain gauza zehatza eta ezaguna. Ez da erraza izaten paragrafo bat egitea, edo, bestela esanda, puntu eta aparte noiz egin jakitea. Batzuetan ikusten ditugu paragrafo oso luzeak dituzten testuak. Beste batzuetan oso paragrafo laburrekoak ere. Zein da egin behar dugun paragrafo-mota, luzea ala laburra? Bien arteko oreka lortu behar bada, zein puntutan dago oreka hori? Idazlan bakoitzean funtsezko ideia nagusi batzuk izaten dira. Ideia nagusi

horietako bakoitzari paragrafo bat legokioke. Beraz, paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat adieraziko dugu normalean. Dena den, gerta liteke ideia hauetako bat garatzeko (berez paragrafo batean egin behar duguna) paragrafo oso luzea behar izatea. Egoera honetan gaudelarik, zerbaitek esango digu ezin dugula, adibidez, orri osoko paragrafo bat egin, nahiz eta ideia nagusi bakar bat (hori bai, trinkoa eta sakona berau) garatu bertan. Ez da batere erakargarria izango orri osoko paragrafo bat; ez dugu irakurtzeko gogorik izango. Zer egin dezakegu hau saihesteko? Paragrafoak garatzen duen ideia nagusia zatitu eta paragrafo txikiagoak egin. Hori bai, paragrafo txiki bakoitzak bere autonomia behar du; ezin da zintzilik geratu. Bestalde, izan dezakegu paragrafo oso txikiak dituen testu bat. Dirudienez irakurketarako nahikoa eroso izan daiteke, baina akats bat izan dezake; testuaren progresioa azkarregi egiten ari garen sentsazioa izan dezakegu. Hau da, ideia batetik beste baterako jauzia azkarregi egiten ari garela pentsa dezakegu zenbait kasutan. Izan ere, askotan paragrafo laburrak dituen testuak ez ditu ideia nagusiak behar bezala garatzen, eta azkarregi egiten du jauzi ideia nagusi batetik beste batera. Beraz, garapen minimo bat behar dute ideiek.

Laburbilduz, bi eratako okerrak izan daitezke paragrafoak antolatzerakoan:

- A. **Puntu eta aparte ugarirekin** (paragrafo txiki askorekin) egindako testua. Kohesio falta erakus dezakete. Dena puntu eta apartez josia, ideia nagusi asko, baina hauetako bakoitza behar bezala landu gabe.
- B. **Puntu eta aparterik gabeko** testu luzea. Ez du irakurtzeko gogorik ematen. Atsedenaldirik ere ezin dugu egin irakurketan. Ideia nagusi trinkoegiak.

Adibidez, atal honetako lehen paragrafoa luzeegia da; apropos egin dugu horrela, irakurleari atentzia deitzeko. Ez dago dudarik ideia gehiegi daudela pilatuta bertan eta modu hobe eta erakargarriagoan jar daitekeela. Halaxe da, eta paragrafo luze hori lau paragrafo txikiagotan zatika dezakegu; paragrafo bakoitzean ideia bat garatuko dugu. Lehendabizikoan arazoa azaltzen da (hasieratik ... *oreka hau?* arte egin dezakegu zatiketa). Bigarrenean paragrafoa egiteko irizpidea ematen da (*Idazlan bakoitzean-etik adieraziko dugu normalean* arte). Hirugarrenean paragrafo luzeegiez ari gara (*Dena den-etik zintzilik geratu* arte); laugarrenean, azkenik, paragrafo laburregiez (*Bestalde-tik behar dute ideiek* arte).

Beraz, ikusten da **neurria** behar dela, ez luzeegiak, ez eta laburregiak ere. Paragrafo bateko ideia nagusia 30 lerroko paragrafo batean azaldu beharrean, bana dezakegu ideia nagusi hori zati nagusitan. Baina, noski, zati nagusi hauek laburregiak egin gabe eta mozketak leku egokietan eginik.

Garrantzitsua izango da paragrafoen antolaketa ona testu bat osatzeko, begiek ere beren garrantzia baitute. Izan ere, gaur egungo testuak

begietatik sartzen zaizkigu batez ere, irakurri egiten ditugu; hortaz, testua erarik erakargarrienean egitea litzateke egokiena.

Ez dago esan beharrik testua luzea bada, hau ere ataletan zatikatu behar harko dugula. Atal bakoitzari izenburua jartzeak lagundu egiten du, eta, aldi berean, atal bat sakona eta trinkoa bada, azpiatalak egingo ditugu, hauei ere irakurlea gidatzeko izenburuak jarritz.

Bestalde, esan behar da puntu eta aparte egiteak ez duela esan nahi hurrengo paragrafoak ez duenik zerikusirik aurrekoarekin. Ideia desberdina garatuko du bakoitzak, baina ideia nagusi hauek badute beren arteko lotura Erlazio hauek gauzatzeko, perpausetan egiten dugun bezala, baditugu zenbait elementu: lokailuak, esapideak, juntagailuak, elementu anaforikoak, eta abar. Hauek lagunduko digute testua sare ordenatu legez ikusten, paragrafoen arteko erlazioak ere esplizituki adierazita dituen sare ordenatu legez, alegia. Honek esan nahi du puntu eta aparte egiteagatik ez goazela beste testu batera, testu beraren beste ideia bat lantzera baizik, eta ideia honek baditu bere erlazio semantiko-pragmatikoak aurrekoarekin eta ondorengoarekin.

4.8. Erlazio anaforiko ilunak

Pronominalizazio-erlazioa zer puntutaraino den nahikoa memoriak esango digu; ezin dugu baliabide hau erabili aurrekaria ezin denean aurkitu edo oso ilun dagoenean.

Askotan gertatzen zaigu erlazio anaforikoren baten bitartez sortutako egitura bat ilun geratzen zaigula, elementu anaforikoaren erreferentzia zein den ez dagoelako garbi (bat baino gehiago izan daitezkeelako), edo urrutiegi dagoelako. Egitura anaforikoetan bete beharreko baldintzarik garrantzitsuena honako hau da: ongi zehaztea zein elementuren artean egiten den erlazio anaforikoa, edo bestela esanda, aurreko testuinguruko zein elementuri egiten dioten erreferentzia elementu anaforikoek (erakusleek...).

Era honetako erabilera okerrak ikus daitezke ikasleen idazlanetan. Kasu horietan zehaztu egin beharko dugu aurrekari-anafora erlazioa zein elementuren artean egiten den.

Gatozen adibideetara:

A. Ondorengo adibideetan ez da zehazten aurrekaria, hau nahikoa garbi eta hurbil dagoelako:

- (171) Oraindik *arazo asko* ditugu erabakitzeko; gehienak gaitzaren etiologia ez jakiteagatik datozkigu. *Hauek* argitu eta gero, behar duten tratamendu egokia aurkitzea ez da inolako arazorik izango. (Aukera bakarra dugu).
- (172) Alabaina, aspaldi honetan *zenbait sendagai* espezifiko sortu dira. *Hauen* artean Zimetidina eta Ranitidina aipatuko ditugu urdaileko

ultzerak tratatzeko. (Aukera bakarra dugu eta gertu dago aurrekaria).

- (173) Endoskopiaren arloan lehen baino tresna berri eta egokiagoak ditugu, eta baita teknika berriak ere, adibidez *C.P.R. delakoa* (atzetik goranzko kolangio-pankreatografia): *honen* bidez, Vater-en anpuluak kanalizatu eta gero, koledokoa eta Wirsung-en hodia ikusiko ditugu. (Gertu dugu aurrekaria, eta, gainera, ongi bereizten da beste aurrekari posibleetatik, singularrean ez baitugu lehen graduko erakusleak —*honen-ek*— erreferentzia egiten dion gertuko sintagmarik —urrutiago badugu *endoskopi arloan* sintagma—.)

Azken adibide honetan ikusi dugunez, aurrekaria argi egoteaz gain erakuslearen numeroarekin jokatu dugu. Aurrekari posibleetatik bata pluralekoa zen eta bestea singularrekoa. Bigarren honi erreferentzia egiteko nahikoa izan dugu erakuslea singularrean ematea.

B. Ongi zehazteko beste bide bat erakusleen graduak erabiltzea litzateke; hau da, bi aurrekari posible baldin baditugu, hauen distantziaren arabera erabiliko ditugu *hau*, *hori* edo *hura*.

(174) ... hestemeharra eta hestelodia. (*Azken*) *honek*...

(175) ... hestemeharra eta hestelodia. (*Lehen*) *hura*...

C. Ondorengo adibideetan, bestalde, aurrekari posible ugari daudenez —letra etzanaz ematen ditugu aurrekari posible guztiak—, aurrekaria zein den ongi zehazteko erakuslea bakarrik eman beharrean izena edo izen-sintagma ere errepikatzen da:

(176) Dietetika aldetik *elikagaiak*, *uraren*, *gatzen* (sodiozkoak, potasiozkoak, kaltziozkoak, burdinazkoak, eta abarren), *bitaminen* eta *substantzia organikoen* (gluzido, lipido eta proteinen) nahasketa dira. *Substantzia organiko horiek* oso tamaina handikoak izaten dira eta kimikoki elkartuak dauden osagai soilagoz daude eratuak (adib. azukrez, aminoazidoz eta gantz-azidoz).

(177) Bestetik badaude egiazko *guruinak*, ongi bakoiztuak, liseri-aparatuaren kanpoan kokatuak eta zenbait *jariaketa*-mota edukitzeko berezituak; *jariaketa hauek* liseri-hodira hodi batzuen bidez jariatzen dira.

(178) Urdailaren eta hestegorriaren artean dago hestegorriaren beheko esfinterra; *esfinter honek* ez dauka egitura anatomiko konkreturik, kontzeptu fisiologiko bat da eta errefluxu gastroesofagikoa galerazten du. (Erakusle hutsarekin nahikoa litzateke, argi baitago kasu honetan *honek* erakusleak gertuen dagoen elementuari egiten diola erreferentzia).

(179) Hestemeharraren mukosak zeharkako tolesturak ditu, balbula konibenteak deritzenak; *balbula hauek* biloskatz beterik daude eta biloska hauei esker zurgapen-azalera asko gehitzen da, horrela, zurgape-

na behar den bezala egiteko.(Zehaztapena egin da; tolesturak edo balbulak ziren aurrekari posibleak, biak gauza bera; hala ere bietako bat aukeratu du eta izena errepikatu du.)

D. Goiko adibideetan aukera posible ugari ditugu, eta zehaztapena egin dugu. Aurrekaria nahikoa urrun geratzen zaigunean ere, errepikape-nera joko dugu:

- (180) *Gehigarrien* erabilera gure mendeko gauza bezala kontsideratzen da eta teknologia berriekin erlazionatzen. Hala ere *produktu hauen* historia giza historiaren hasiera-hasierako denboretaraino iristen da, eta honen azpian zera dago: betidanik gizakiak bere superbizipenerako elikagaien kontserbazioari aurre egin behar izan diola. Horrela, gatz erabiltzen zen gazikietan, kea arrain eta haragiak ketzeko, eta legami eta hartzigarriak ogia, garagardoa, ardoa, gaztak, eta abar egiteko. *Gehigarri hauek* ez elikagaiak mantentzeko asmoz, baizik eta kontsumitzailea engainatzeko erabiltzea ez da hain gaurkoa, zeren eta...

E. Beste era bateko zehaztapenak aurrekari posibleen ordenari erreferentzia eginez lortzen dira. Zenbatzaileen laguntzaz egin daiteke. Adibidez:

(181) ... ultzerak, gastritisa eta tumoreak. *Lehenak ... Bigarrenak...*

(182) ... ultzerak, gastritisa eta tumoreak. *Azkenak (azken hauek)...*

Beraz, anbiguotasunen bat gerta daitekeen kasuetan ongi zehaztuko dugu elementu anaforikoak zein elementuri egiten dion erreferentzia. Horretarako goian ikusi ditugun bideak jarraituko ditugu.

4.9. *Beraiek* eta *beraien* forma indartuen gehiegizko erabilera

Gaur egungo testuetan gehiegi erabiltzen den forma dugu *beraiek* ize-nordaina. Hirugarren graduko erakusle pluralaren forma indartua dugu. Singularreko *bera*-ri dagokio.

<i>berau</i>	<i>berauek</i>
<i>berori</i>	<i>beroriek</i>
<i>bera</i>	<i>beraiek</i>

Beraz, *bera*-k duen erabilera bera du *beraiek* izenordainak. Bi dira hauek:

1. Euskalki guztietan erabiltzen da aurrekaria perpaus berean duenean.

(183) *Irakasleak* esan du *berak* burutuko duela ikerketa.

2. Aurrekaria beste perpaus batean agertzen bada, iparraldean *hura* erabiltzen dute, eta hegoaldean *bera* erabiltzeko joera dago.

(183') Irakaslearekin hitz egin dugu. *Berak* egingo du ikerketa. (Hegoaldean).

(183'') Irakaslearekin hitz egin dugu. *Hark* egingo du ikerketa. (Iparraldean).

Honek esan nahi du *bera* ager dakigukeela aurrekaria nonbait aipatua badugu, berdin da perpaus berean izan edo beste perpaus batean izan. Azken kasu honetan, noski, *hura* ere erabil dezakegu, iparraldeko tradizioari jarraituz.

Beraiek izenordainarekin (*bera*-ren pluraleko baliokidea denez) gauza *bera* egin dezakegu; hau da, aurrekaria aipatua den edozein kasutan erabil dezakegu, baina baita *haiek* eta *horiek* forma indartugabeak ere, aurrekaria beste perpaus batean badugu.

Dena den, bi ohar egin behar dira hemen:

A. *Beraiek* ez da forma indartu bakarra literaturan, ez eta erabiliena eta zaharrena ere (zubereraz hasten da erabiltzen XVIII-XIX mendetan, eta XX. mendean hedatzen da hegoaldera; gainera, kuantitatiboki ia pisurik ez duen forma da, gaur eguneko erabilera baztertzen badugu). Badira beste batzuk, zaharragoak eta askoz ere erabilia-
goak; adibidez, *berak*, *berek* eta *eurak*.

B. Askotan indartugabea beharko litzatekeen kasuetan erabiltzen da.

Beraien erreflexiboarekin beste horrenbeste gertatzen da. Aditzarekin komunztadura egiten duen sintagmaren bat badu erreferentziakide (hau da, aurrekaria perpaus berean badago nor, nork edo nori sintagma gisa), erabil daiteke. Erreferentziakidea perpaus bereko sintagma gramatikal gisa agertu ezean, *haien* edo *horien* ere erabil ditzakegu (iparraldeko tradizioari jarraituz). Beraz, bi ohar *beraien* formari buruz ere:

1. Forma honetaz gain badira tradizio, erabilera eta hedadura handiagoa izan dutenak: *bere* (pluralerako ere, forma zaharra) eta *beren* (agian hobestekoa litzatekeena, *beraien*-en aldean askoz gehiagotan erabili izan dena).
2. Ez dago beti forma indartua erabili beharrik; aurrekaria beste perpaus batean agertzen bada, nahikoa dugu forma indartugabea erabiltzearekin.

Azalpen hauekin ez dugu *beraiek* eta *beraien* formen erabilpena gaitzetsi nahi izan; hauei muga batzuk jarri, eta testuinguru batzuetan erabil daitezkeen forma bakarrak direlako uste hedatua alde batera utzi nahi izan dugu. Izan ere, badirudi ez dagoela beste formarik hirugarren graduko erakusle indartuetan; ikasleen idazlan gehienetan agertzen zaizkigun forma

bakarrak dira, forma indartugabeak (*haiek, horiek*) edo bestelako indartuak (tradizio gehiago duen *beren*) erabili beharrean.

- (184) Beraz, Euskal Herriko jendea ondo elikatzen zela esan daiteke. *Beraien* elikaduran barazkiek oso leku garrantzitsua betetzen zuten.

Aurrekaria beste perpaus batean duenez, ez dago forma indartua erabili beharrik:

- (184') Beraz, Euskal Herriko jendea ondo elikatzen zela esan daiteke. *Haien* elikaduran barazkiek oso leku garrantzitsua betetzen zuten.

Hurrengo adibidean badu aurrekaria perpaus berean, eta erabil daiteke *beraien* bihurkaria, baina beti ere, *beren* bezalako forma ahaztu gabe.

- (185) Honetaz gain, zenbaitek oiloak eta untxiak dituzte *beraien* kontsumorako.

4.10. Gaizki gauzatutako erlazio kataforikoak

Era honetako adibideak ikus daitezke askotan idazlanetan:

- (186) Liseri-aparatuaren osagaiak dira ...
(187) Saiatuko naiz arazoa bi gaitan finkatzen ...

Ez lirateke txartzat ematekoak, baina kontuz ibili behar dugu. (186) adibidean ezin ditugu bi puntuak erabili eta jarraian eman behar ditugu liseri-aparatuaren osagaiak; (187) adibidean, berriz, bi gaiak finkatzen hasi aurretik, badirudi egokiagoa dela puntua edo puntu eta koma erabiltzea, eta horrela beste perpaus batekin hastea.

Hala ere, argitasunaren mesedetan, nahiago ditugu honelako hauek:

- (188) *Honako hauek / hauek / ondorengo hauek* dira liseri-aparatuaren osagaiak: ...
(189) Saiatuko naiz arazoa *honako/ondorengo bi gai hauetan* finkatzen: ...

Askotan komodin moduko aurrekari hauek testua argitu egiten dute, eta ondoren datorren galdegai luzearen aurkezleak dira. Jakina, ez dira derrigorrezkoak, baina irakurketa eta ulermena errazteko balio dute. Ez baditugu horrelako komodin hauek erabiltzen anbiguo gera daiteke testua.

- (190) Liseri-aparatuaren osagaiak dira...

Adibide hau hartzen badugu, gerta daiteke irakurleak ez jakitea zein diren liseri-aparatuaren osagaiak, edo aurretik esan ditugunen batzuk edo ondoren datozenak; gerta litekeena da. Beraz, badirudi gomendagarria dela elementu hauen erabilera. Batetik argitasuna ematen dute (oso luzea den galdegaia atzera botatzea errazten dute, aditza aurreratuz) eta bestetik anbiguotasunak baztertzeko ere balio dute.

Dena den, aukerakotzat eman beharrean gaude, euskaraz egitura hau baino gehiago baitago galdegai luze baten aurrean gaudenean. Izan ditzakegun aukerak honako hauek dira:

1. GALDEG. + ADITZA; aditza bukaeran.

(191) Heredentzian zitoplasmak ere zeregina daukala aurkitu da.

2. HAUXE / HONAKO HAU + ADITZA: GALDEG.; komodina + aditza + galdegaia.

(192) Hauxe aurkitu da: heredentzian zitoplasmak ere zeregina dauka.

3. ADITZA + GALDEG.; aditza aurrean eta galdegaia atzean, inongo komodinik gabe.

(193) Aurkitu da heredentzian zitoplasmak ere zeregina daukala.

(194) «Amak esan dit biyar lan asko daukala eta ezin etorri ahal izango dala.»

4. GALDEG.: galdegaia bakarrik, aditzaren elipsiarekin.

(195) «Ostatuan maitxo batean nindagola bertze mai batetik emakume gazte apain batek eni buruz, euskaraz: «Gabon jauna, emengo aldi?.»

5. GALDEG. + ADITZA + GALDEG.: aditza galdegaiaren barnean tartekatua.

(196) «Ikusten dezu, amak esan zion, oyeke dira añ poliki kantatzen duten txoriak.»

Beraz, badirudi bide hauek guztiak posible direla. Hala ere, hizkera teknikoetarako argiena eta zehatzena dena aukeratzea litzateke kontua, eta bigarrenak dirudi guztietatik argiena eta erosoena.

Hirugarren egitura (*Esan du irakurriko duela*, adibidez) egokia eta hedatua da euskara mintzatuan edo euskara mintzatuan oinarritu nahi duen euskara idatzian. Aditzaren eta eskubialdeko galdegaiaren artean tonu-aldaketa bat edo isilune bat dago. Idatziak diren testuetan, aldiz, ez dago

tonu-aldaketa adierazteko baliabiderik, eta ondorengo perpausa bezalakoak idaztean, ezin izango dugu bereizi perpauseko galdegaia (edo *azkeneko ikerkuntzetan* edo *heredentzian zitoplasmak ere zeregina daukala*):

(197) Azkeneko ikerkuntzetan aurkitu da heredentzian zitoplasmak ere zeregina daukala.

Beraz, bigarren aukerarako egokiagoak lirateke eskemako lehendabiziko edo bigarren aukerak erabiltzea; hona hemen, hurrenez hurren:

(197') Azkeneko ikerkuntzetan(,) heredentzian zitoplasmak ere zeregina daukala aurkitu da.

(197'') Azkeneko ikerkuntzetan hauxe aurkitu da: heredentzian zitoplasmak ere zeregina dauka.

Laugarren egiturak eta bosgarrenak ez dute kutsu tekniko handiegirik; kolokialtzat jo daitezke, eta testu teknikoetan ez lirateke oso erabilgarriak.

Beraz, goraxeago esan dugun bezala, bigarren egitura izango da hizkera teknikorako argiena eta erosoena. Normalean bi puntuak jarriko ditugu aditzaren ondoren, baina izan dezake (literatur tradizioak hala erakusten digu) koma bat. Dena den, ez dugu uste koma denik gehien erabiltzen den puntuazio-marka. Gainera, egitura hauetan gertatzen den etena nahikoa luzea dela iruditzen zaigu, koma batekin adierazten duguna baino luzeagoa. Hortaz, bi puntuen aldekoa litzateke gure gomendioa.

Horretaz gain, aditzaren aurrean behar du komodinak, eta ez atzean; izan ere, atzera bota dugun galdegai luzearen ordezkapena egiten dute, eta, beraz, hauen jatorrizko lekuan joan behar dute:

(198) (???) Liseri-aparatuko zatirik inportanteenak dira *honako hauek*...

Gaizki ez dago baina beste esanahi bat luke, aurretik esandako zerbaitetz ariko ginateke eta ez aurkeztera goazen zerbaitetz. Bestalde, liseri-aparatuaren zatien izenak ondoren badatoz, honako egitura hau eman behar dugu:

(198') *Honako hauek* dira liseri-aparatuko zatirik inportanteenak: ...

Egin ezin duguna honako hau da:

(199) *Ikerketa batek adierazi zuen *hauxe*: euskaldunok proteina eta karbohidrato gutxi eta koipeki gehiegi jaten genuela.

Honen ordez, aditzaren aurrean eman behar dugu elementu kataforikoa:

- (199') Ikerketa batek *hauxe* adierazi zuen: euskaldunok proteina eta karbohidrato gutxi eta koipeki gehiegi jaten genuela.

Batzuetan ordezkaturako elementuaren kokalekuari ere egiten zaio erreferentzia, zehaztasun gehiagoren bila: *ondorengo, honako...*

- (200) Pertsonen eguneroko kalori beharrianak *faktore hauen arabera* aldatzen dira: pisua, konstituzio fisikoa, burutzen den iharduera, ingurunekeo tenperatura eta zenbait berezitasun fisiologiko (hardunaldia, sukarra, etab.).
- (200') Pertsonen eguneroko kalori beharrianak *ondorengo faktore hauen arabera* aldatzen dira: pisua, konstituzio fisikoa, burutzen den iharduera, ingurunekeo tenperatura eta zenbait berezitasun fisiologiko (hardunaldia, sukarra, etab.).

4.11. Osagai baten gehiegizko errepikapena

Badira hau saihesteko irtenbideak. Erabil ditzakegu sinonimia, aldaketaren batekin egindako errepikapena, elementu anaforikoak, eta abar.

Ezin dugu perpaus bakoitzean eman errepikaturik izen edo sintagma bat. Nekagarria eta astuna geratuko zaigu askotan, monotonoa. Ezin dugu honelako testurik egin:

- (201) HIESa ... HIESAk ... HIESari ...

Ekar ditzagun hona 2.4.2. ataleko bi adibide:

- (63) *Prebentzio-sistema hau* guztiz eraginkorra da, gaur egun, eta *neurri hauek* emakumezko ukitu guztietara iritsiko balira, esan genezake Rh eritasuna desagertu egingo litzatekeela hamar urteren buruan.
- (64) *HIESa* azken 25 urteotako dugu. *Gaixotasun hau ... xx. mendeko gaixotasun deituriko hau...*

Aldaketa bat egiten da gehiegizko errepikapenean ez erortzeko; sinonimoak bilatzen dira, hitz generikoak, eta abar. Baldintza hauek bete behar ditugu, ordea:

- A. Forma batetik besterako pausuan esanahirik ez aldatzea.
- B. Forma desberdinek erreferentzia bera dutela (gauza bera direla) argi egotea.

Baldintza hauek betetzen baditugu, erabil dezakegu forma baten gehiegizko errepikapenak sortzen duen monotoniari ihes egiteko dugun bide hau; aldaketaren batekin egiten dugun «errepikapena», alegia.

Gehiegizko errepikapenez ari garenez, esan daiteke egitura sintaktiko baten gehiegizko errepikapenak ez duela irakurlearen arreta bermatuko, eta ahal delarik aldaketak egin behar ditugula perpausen syntaxian ere, monotonia batean erortzerik ez badugu nahi behintzat.

- (202) Lehendabizikoa medikuaren errezetarekin bakarrik lor daitekeen botika da. Bigarrena errezeta berezia behar duen botika da. Hirugarrena iraungitze-data berezia duen botika da. Azkena hozkailuan gorde behar den botika da.

Honen ordez, hainbestetan errepikatu gabeko egituren bitartez ematen badugu, erakargarriago egingo dugu pasartea. Era askotara egin daiteke. Hona hemen hauetako bat:

- (202') Lehendabiziko botika medikuaren errezetarekin bakarrik lor daitekeena den bitartean, bigarrenak errezeta berezia behar du. Hirugarrenak, berriz, iraungitze-data berezia du eta, bukatzeko, azkena hozkailuan gorde behar da.

4.12. **Perpausen arteko denbora-komunztadurarik eza**

Askotan gertatzen da denbora-komunztadurarik ez dela gordetzen perpausen artean.

- (203) *Ezin zituen zortziak bukatu. Beraz, *hemendik* aurrera...

Iraganeko adizkia eta orainaldiko erreferentzia duen adberbioa ez dira ezkontzen, eta *hemendik* formaren ordez *ordutik* bezalako bat beharko genuke:

- (204) Ezin zituen zortziak bukatu. Beraz, *ordutik* aurrera...

Perpausaren barnean ere gertatzen dira era honetako adibideak.

- (205) *Oraindik* ez zekien zer gertatzen zen.

Orainaldiko eta etorkizuneko perpausetan erabiltzen den *oraindik*-en ordez, *artean* edo *anartean* —ikus K. Cid-en artikulua— moduko aditzondoak erabiltzea litzateke egokiago, hauek lehenaldiko adizkiarekin komunztadura gordetzen baitute.

4.13. **Honezkero/dagoeneko**

Bi forma hauen artean gertatzen den nahastea nahikoa zabaldua da. Bien erabileretan presuposizioak ditugu, batarenean susmo bat besterik ez

dena, eta bestearnean susmoa izan beharrean gertatu den zerbaitek sortu duen ezustekoa (gertakizun horrek sortu dion harridura dela medio). Beraz, presuposizio desberdinak ditugunez, bien arteko erabilerak bereizi egingo ditugu, nahiz eta gaur egun testu askotan erabilera berbera izaten duten, batzuetan biak nahastuz eta besteetan bietako bakarra bi balioekin erabiliz:

- (206) Bukatzear zegoen. *Honezker*o bukatu du.
- (207) 3etan bazkaldu du. *Dagoeneko* hor ari da igerian.

*Honezker*o aditzondoak adierazten duena da norbaitek ziur ez dakien zerbaitez egiten duen susmoa. Susmo bat da, ezin dugu egiaztatu.

Dagoeneko, aldiz, norbaitek izan duen ezusteko baten ondorioz erabiltzeko dugu. Askotan erabiltzen da *honezker*o-ren ordeaz.

- (208) **Dagoeneko* egina izango dute lana.
- (208') *Honezker*o egina izango dute lana (suposizioa).

*Honezker*o erabili behar ez denean agertzen da askotan:

- (209) **Honezker*o hasi dugu esperimendua eta biharko izango ditugu ondorioak (ez dago suposiziorik).
- (209') Hasi dugu esperimendua eta biharko izango ditugu ondorioak.
- (210) **Honezker*o bilera batzuk egin dira (suposiziorik gabe, errealak).
- (210') (*Jadanik*) bilera batzuk egin dira.

Dagoeneko-k ez du aspektu-markarik onartzen ez eta ezezko perpauzetan ere, ez baitira errealak:

- (211) **Dagoeneko* ez dugu egin / **Dagoeneko* ez du balio.
- (212) **Dagoeneko* ez da hemen bizi / **Honezker*o ez da hemen bizi.
- (213) **Dagoeneko* aterako ditugu ondorioak.
- (211') *Oraindik* ez dugu egin / *Jadanik* ez du balio.
- (212') *Jadanik* ez da hemen bizi.
- (213') *Laster* aterako ditugu ondorioak.

Honek esan nahi du hiru aditzondo ditugula lehian²²:

1. *Jada, jadanik (ja)*: ez-markatua, orokorra, baiezko nahiz ezezko perpauzetan (ingelesezko *already* eta *no more* nahiz *any more*-en ordaina izan daitekeena).

²² Honetarako ikus Karlos CIDEK «Adverbs and particles of change and continuation» artikuluan egiten duen hiru aditzondo-taldeen arteko bereizketa.

2. *Dagoeneko*: markatua, perpaus afirmatiboetan bakarrik erabil daitekeena; orainaldiko aditzekin; ziurtasuna adierazten du; baita ezustea edo harridura ere; *already*-ren ordaina da (ez *no more* edo *any more* formena).
3. *Honezker*: hau ere markatua; ez du ziurtasuna adierazten, suposizioa edo susmoa baizik. Ez da *dagoeneko*-ren ordezkaria ematekoa, ziurtasuna / suposizioa kontrajarriak daudenez gero.

4.14. Zenbait posposizioen aurreko izenlagunaren falta

Euskaraz baditugu nahitaez izenlaguna (genitibo kasu-marka) eskatzen duten posposizioak: *honen arabera*, *horren ordezkaria* ... Ezin dira genitiborik gabe agertu.

Bestalde, badira dirudienek ezkerreko izenlagun hori hain esplizituki eskatzen ez duten elementuak eta testu askotan hala agertzen direnak. Edo ez dute hain esplizituki eskatzen genitiboa edo ohituraren poderioz genitiboa daraman elementua ezabatuz joan da, ez erabilteraino kasu askotan. *Ondorio*, *aurka(ko)*, *kontra(ko)*, *antz(eko)*, *alde(ko)*, *behar*, *bitarteko(ko)*, *gain(eko)* ... dira hauetako batzuk. Adibidez:

- (214) Eta *ondorioz*, prozesua errepikatu egiten da.
- (215) *Ondoriorik* zuzenena eritasun larria izango da.
- (216) *Aurkakoa* esan zuen beste ikertzaile-talde batek.
- (217) *Adibiderik* garbiena azido azetil-salizilikoa da.
- (218) *Antzeko* zerbait gertatzen da sendagai naturalekin.
- (219) Ez dago *beharrik*.
- (220) *Aldeko* ziren guztiak.
- (221) *Bitartean* dago osagaia.

Hedatzen ari den erabilera dugu; hala ere, bati baino gehiagori zerbait falta dutela irudituko zaio.

- (214') Eta (eragin) *honen ondorioz*, prozesua errepikatu egiten da.
- (215') *Honen ondoriorik* zuzenena eritasun larria izango da.
- (216') *Honen aurkakoa* esan zuen beste ikertzaile-talde batek.
- (217') *Honen adibiderik* garbiena azetil-salizilikoa da.
- (218') *Horren antzeko* zerbait gertatzen da sendagai naturalekin.
- (219') Ez dago *horren beharrik*.
- (220') (Ikerketa) *haren aldeko* ziren guztiak.
- (221') *Hauen bitartean* dago osagaia.

Adibide hauetan egin dugun aldaketarekin ulermen aldetik seguraski ez dugu ezer berririk erantsi; gauza bakarra egin dugu: goiko adibideetan elipsi bitartez isildutako izenlagunak erantsi ditugu (aldaketa forma aldetikoa izan da), eta hauekin badirudi ez zaigula ezer zintzilik geratzen.

Badirudi gure hizkuntz senak bigarren taldeko adibideak eskatzen dizkigula. Baina, zer gertatzen da literaturan? Egiaztatzen al da gure senak esaten diguna?

Euskal literatur tradizioan posposizio hauetan guztietan bigarren erabilera hau —izenlagunarekin agertzen dena— agertzen zaigu batez ere; posposizioen forma (genitiboa eskatzen duen posposizioaren forma) litzateke beraz, literatur tradizioak ontzat emango lukeena. Beraz, gomendatzekoa litzateke elementu hauen aurrean genitibodun izen, izenorde edo erakusleren bat jartzea. Posposizio hauetako zenbaiten literaturako erabileraren emaitzak ikustea besterik ez dago:

- AURKA(KO), KONTRA(KO)*: erabilera nagusia izenlagunduna dugu euskal literaturan. Oso gutxitan agertzen dira *aurkako* nahiz *kontrako* posposizioak izenlagunik gabe. Beraz, *horren kontrakoa naiz*, eta ez *kontrakoa naiz*.
- ANTZ(EKO)*: gauza bertsua gertatzen da honekin ere: edo izenlagunarekin doa, edo hitz elkartu baten bigarren osagai modura (*gizen antzekoa, gaztelu antzekoa*) nagusiki. Erabilera honetaz gain, ez da erabiltzen izenlagunik gabe. *Antzeko gauza gertatu da* baino hobe *Honen antzeko gauza gertatu da*.
- ONDORIO*: kasu honetan ere izenlagunarekin agertzen da gehienetan, eta bestela, *jokabide horrek ondorioak izango ditu* gisako perpausetan. Nolanahi ere, ondorioaren kausa agerian agertzen da, izenlagun nahiz sujetu modura. Beraz, *Honen ondorio nagusia ...* hobe *izango da Ondorio nagusia ...* baino.
- ADIBIDE*: agian hitz honetan ez da gehienetan izenlagunik agertzen literaturan. Beraz, ez legoke arazorik genitiborik gabe emateko. Hala ere, ez legoke gaizki genitiboarekin, batez ere anbiguotasunen bat ebitatzeko: ... *gertaera honen adibiderik garbiena...*
- BEHAR(RIK)*: kasu honetan literaturako datuek haxe erakusten dute: 1. Aditz partizipioarekin erabil daiteke (*ez dago esan beharrik*); 2. Posposizio modura eska dezake Ø kasu-marka, hitz elkartua osatuz (*ez dago gazeta beharrik*), edo genitiboa (*ez dago horren beharrik*). Honek esan nahi du forma batean edo bestean, ia beti izango duela aurretik laguntzailea (partizipioa edo izena nahiz izenordaina). Oso gutxitan agertuko zaigu posposizio hau aurreko izen edo izenordainik gabe. Beraz, *ez dago honen beharrik* eta ez *ez dago Ø beharrik*).
- BITARTEKO*: *Bitarteko gauza bat da* gisako adibide gutxi dira literaturan. Bakarrik agertzen bada lexikalizatuta dagoenean izango da (*Bitartekoak ginen*: «mediador»). Bestelakoetan *Hauen bitarteko gauza bat da* bezalakoak ageri zaizkigu literaturan normalean.
- GAINEKO*: Posposizio honek ere zalantzarik gabe laguntzailea eskatzen du literaturako adibideetan; batzuetan Ø markarekin agertu-

ko da laguntzailea, hitz elkartua osatuz (*karroza gaineko tokia*), eta besteetan genitibo markarekin (*tresna hauen gaineko estalkia*). Aurkitzen dira, baina gutxiagotan, bakarrik agertzen den adibi-deak.

—*ALDE(KO)*: *Alde nago* edo *Aldeko naiz* bezalakoen ordez *Horren alde nago* edo *Horren aldeko naiz* hobetsi behar dugu, literaturako testigantzek hala erakusten dute eta.

Posposizio hauetako batzuk zenbait kasutan Ø markadun laguntzailea eska dezaketela esan dugu, hitz elkartu bat osatuz (*antz, behar, gain*, eta hemen aipatu ditugun beste asko dira era horretakoak). Dena den, aipatze-koa dela iruditzen zaigu erabilera honek dituen mugak edo debekuak²³. Adibidez, hurrengo saileko egiturak erabil ditzakegu:

- (222) *Etxe aurrean / Mahai gainean / Hidrolisi bitartez.*
- (223) *Egunkari beharrik ez dut.*
- (224) *Gaztelu antzeko etxea.*
- (225) *Titulu bila nabil.*

Baina posposizioaren aurretik doan forma (izen-multzoa) adjektibo baten bitartez zehazten badugu, zailago egingo zaigu onargarritzat ematea:

- (222') **Etxe zuri aurrean / *Mahai txiki gainean / *Bat-bateko hidrolisi bitartez.*
- (223') **Atzoko egunkari beharrik ez dut.*
- (224') **Loarreko gaztelu antzeko etxea.*
- (225') **Ingeleseko titulu bila nabil.*

Kasu hauetan genitiboko kasu-markaren beharra dugu.

- (222'') *Etxe zuriaren aurrean / Mahai txikiaren gainean / bat-bateko hidrolisiaren bitartez.*
- (223'') *Atzoko egunkariaren beharrik ez dut.*
- (224'') *Loarreko gazteluaren antzeko etxea.*
- (225'') *Ingeleseko tituluaren bila nabil.*

Laburbilduz, hauxe litzateke egingo genukeen gomendioa:

- Dagokion izenarekin edo izenordainarekin agertu behar dute normalean elementuok, hauen posposizio-izaerak hala eskaturik. Izenak edo izenordainak posposizioak eskatzen duen genitiboaren marka eraman behar-ko du gehienetan, batzuetan hitz elkartuetara jo dezakegun arren (*ez dugu*

²³ Ikus A. AREJITAREN artikuluko 73. orrialdean.

esperimentu beharrik). Nolanahi ere, hitz elkartu hauetan zehaztapenen bat egiten denean, nahitaez eskatuko du genitiboaren kasu-marka (*ez dugu horrelako esperimentuen beharrik*).

5. BIBLIOGRAFIA

- AREJITA, A. (1991), «Hitz-konposaketako zenbait korapilo», in *Euskal Sintaxiaz Gauontza* sorta. Labayru ikastegia. Bilbo.
- CID, K. (1991), «Adverbs and particles of change and continuation», in Johan van der Auwera ed. *Workings papers* (European Science Foundation).
- DIJK, T. A. van (1988), *Texto y contexto*, Cátedra. Madril.
- ETXEBARRIA, J.R. (1979), «Euskararen komodinak (I)», *Anaitasuna*, 378 zb., 1979 (III).
- (1979), «Euskararen komodinak (II)», *Anaitasuna*, 381 zb., 1979 (V).
- EUSKALTZAINDIA (1985), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I*, Euskaltzaindia. Iruñea.
- (1987), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (Eranskina)*, Euskaltzaindia. Bilbo.
- (1987), *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia* (hiztegia eta corpusa), Desclée De Brouwer-Mensajero. Bilbo.
- (1990), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)*, Euskaltzaindia. Bilbo.
- (1994), «Leioako Biltzarrerako Gramatika Batzordeak prestatutako txostena», in *Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. Euskera XXXIX*, 1994 (3) : 831-968, Bilbo.
- GOENAGA, P. (1980), *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia.
- HABE-UZEI (1992), *Osasun Zaintza*, HABE. Donostia.
- LAFITTE, P. (1944), *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Elkar. Donostia, 1979.
- LARRINGAN, L.M.^a (1995), *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboan eta argudiapen testuan*, Doktoretza-tesia (argitaragabea).
- LEWANDOVSKY, Th., «Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera tesia-
ren aurkezpen gisan», *Tantak*, 1989, maiatza :13-32.
- OSA, E. (1990), *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Argitarapen zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- SALABURU, P. & KINTANA, X. (1984), *Euskara hobean hobe*, Argitarapen zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- UZEI (1986), *Medikuntza I. Liseriketa. Hiztegia*. Elkar. Donostia.
- VILLASANTE, L. (1976), *Sintaxis de la oración compuesta* Oñati.
- (1978), *Estudios de sintaxis vasca* Oñati.
- ZABALA, I. & ODIOZOLA, J.C. (1990), «Komaren erabilera», *SENEZ*, 6. urtea (1-2): 101-116.
- (1992) *Hitz-ordena, galdegaia eta komen erabilera*, Argitarapen zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- ZOCK, M. (1986), *Arianaren haria* [Boni Urkizuren itzulpena], HABE. Donostia, 1992.
- ZUBIMENDI, J.R. & ESNAL, P. (1993), *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.

TESTUAN IRUZKINAK SARTZEKO FUNTZIOA IZAN DEZAKETEN ANTOLATZAILEAK: HAU DA, HAIN ZUZEN (ERE), ADIBIDEZ, BATEZ ERE...¹

Igone Zabala

0. SARRERA

Lan honetarako testu-antolatzaile guztien artean multzo txiki batara eta antolatzaile horien erabilera batara bakarrik murriztu izanak baditu zenbait arrazoi: hasteko, horiek guztiek testuan aposizio modura txertatzen diren iruzkinak sartzeko balio dute (horixe da, hain zuzen, aztertuko dugun erabilera); bigarrenik, geure ikasleen lanetan, aposizioak txertatzeko orduan, antolatzaile hauen inguruko zenbait zalantza eta erabilera desegoki ikusi ditugu urteetan zehar eta azkenik, orain arteko euskal gramatika eta azterketetan ikutu gabe egon dira. Izan ere, gaitik hurbilen egon daitekeen *Euskal Gramatika Lehen Urratsak III* lokailuei buruzko gramatikan antolatzaile hauek aipatu ere ez dira egiten, gramatika horretan lokailutzat hartu direnen artean ez baitaude².

Geure helburua pedagogikoa izan da neurri handian eta beraz, ikasleengan somatu ditugun zalantzazko erabilerak zeri zor zaizkion finkatzea eta ikasleen hutsunea konpontzen lagun lezakeen sistematika bat garatzea lortu nahi izan dugu besterik gabe. Hortaz, testu-antolatzaile hauek hainbat kokagune eta funtzio izan badezakete ere, aposizioak txertatzeko erabilera baino ez dugu aztertu, hori baita ikasleei arazoak sortzen dizkiena.

¹ Nire eskerrik beroenak Jesus Mari Makazagari *Orotariko Euskal Hiztegiaren corpus*-etik behar nituen adibideak eskaini dizkidalako. Halaber, eskerrik asko berari eta liburu honetan parte hartu duten gainerakoei, artikuluaeren hasierako bertsioren ganean egin dizkidadaten iruzkingenatik.

² Hain zuzen ere lan hau bukatzeko zorian geundenean, antolatzaile hauek aztertu dituen euskarari buruzko lehen lana heldu da, Luis M.² Larringanen doktoretza-tesia alegia. Edonola, geure lanaren helburua Larringanena baino askoz ere xumeagoa da, ez baitugu testu-antolatzaile hauen funtzio eta erabilera guztiak agortu nahi izan. Halaber, ez dugu horiei buruzko teoria orokor bat garatzeko asmoa izan. Esan gabe doa noski, Larringanen lana oso lagungarria gertatu zaigula geure helburuak iristeko.

Bestetik, antolatzaile bakoitzaren balio semantiko eta funtzionalak aztertu ditugu afinitateen araberrako taldeak egiteko. Azkenik, antolatzaile bakoitzak sartzen duen iruzkinaren barruan bete dezakeen kokagunea eta iruzkinak berak esapidetan betetzen duen kokagunea ere aztertu dugu, kokagune desegokiak zein diren zehazteko asmotan. Azterketa hori egiteko, hainbat testu teknikatik ateratako adibideez ez ezik, *Orotariko Euskal Hiztegiaren corpus*-etik ateratako adibide-zerrenda luze batez ere baliatu gara.

1. HAU DA, HAIN ZUZEN ERE ETA ADIBIDEZ BEZALAKO TESTU-ANTOLATZAILEEN HIRU FUNTZIOAK

Lan honetan, bederatzi testu-antolatzailez arituko gara.. Zenbait sailetan antolatzaile gehiago azter litezke baina lanari zenbait muga jarri nahi izan dizkiogu. Hona hemen, aztertu ditugun antolatzaile horiek zehazki zein diren eta horiek dituzten zenbait aukera (parentesi artean):

- hau da*,
- hots, alegia*,
- hain zuzen (ere)*,
- adibidez, hala nola eta esate baterako (besteak beste, kasu, esaterako)*,
- batez ere, bereziki (batik bat, bereziki, nagusiki, zehazki...)*.

Antolatzaile hauek hiru funtzio desberdin bete ditzakete edozein testutan:

(a) Alde batetik, testu bateko perpaus edo esapide biren arteko lotura logikoa ezartzeko erabil ditzakegu. Hau da, *EGLU-III* gramatika lokailuei egotzen zaien funtzioa bete dezakete. Erabilera hori goiko antolatzaile gehienek bete dezakete, hemen bi adibide baino emango ez badugu ere.

- (1) Egia esan ezin dezakegu orduko Charles Darwin lar razionalistatzat jo, debozioz beterik so egiten baitzion ingurune jori hari. **Hau da**, XIX. mendean Naturaren gainean nagusi ziren ideiak tente zeuden artean haren gogoan.
- (2) Zenbait kasutan, gainera, orduko izakien gaurko errepresentantea ere aurkitu da. **Esate baterako**, *Metalogenium personatum*, burdinaren eta magnesioaren siderobakterio oxidatzaile anaerobikoa, Gunflint-en aurkituriko *Eoastrion* bakterio fosilaren gaur eguneko ordezkatzaile hartzen da.

Funtzio bera duten hainbat antolatzaile erabil daitezke testuinguru honetan. *Hau da*, *hots* edo *alegia* antolatzaileen ordez, esate baterako, ondo-koak erabil daitezke: *bestela esanda*, *beste hitz batzuetan*, *hobeki esanda*, *hitz gutxitan*, *esan nahi baita*, *honek esan nahi du*, *esan gabe doa...*

(b) Perpaus baten barruko elementu bat azpimarratzeko ere erabil ditzaitekegu. Erabilera honetan gehien bat *hain zuzen*, *adibidez*, *esate baterako*, *batez ere* eta *bereziki* aurkitu ditugu. *Hain zuzen* antolatzaileak kontrastibo bihurtzen du harekin doan elementua. *Adibidez* eta *esate baterako* antolatzaileek berriz, elementu hori adibide modura eskaintzen dugula adierazten dute besterik gabe eta *batez ere* eta *bereziki* bezalakoek, elementu bat nabarmentzen dute klase baten barnean, beti ere gainerako elementuak baztertu gabe.

- (3) Horrela balitz, suntsipenen maiztasuna oso konstantea litzateke, baina erregistro fosilak **hain zuzen ere** kontrakoa erakutsi du.
- (4) Estromatoliteak gaur egun ere eratzen ari dira, Australiako kostan eta golko Pertsikoko kostan **adibidez**.
- (5) Aipatzekoa da, udan **bereziki** lurzoruko bero izugarriari aurre egiteko, animalia hauek guztiak dunetako landareetara igotzen direla.

(c) Azkenik, perpaus baten barruan elementu baten eta elementu hori azaltzen edo zabaltzen duen iruzkin baten arteko lotura ezar dezakete.

- (6) Stanier eta Van Niel-ek, zelulen koplexutasun-maila desberdinetan oinarriturik, talde bitan banatu zituzten bizidunak: prokariotoak, **hots**, nukleorik gabeko izakiak, eta eukariotoak, **hau da**, benetako nukleoa daukatenak.

Hauxe da lan honetarako geure interesa erakarri duen erabilera eta izan ere, erabilera hori baino ez dugu aztertuko. Erabilera honek (a) eta (b) erabileretatik argi eta garbi bereizten duen zenbait ezaugarri ditu:

- (i) Iruzkina aposizio modura gauzatzen da eta beraz komen artean edo parentesi baten barruan idatzi ohi da.
- (ii) Testu-antolatzailea ere, komaz banaturik joan ohi da.
- (iii) Askotan, antolatzailea ezabatuta ere, esangura bera du perpausak.

- (6') Stanier eta Van Niel-ek, zelulen koplexutasun-maila desberdinetan oinarriturik, talde bitan banatu zituzten bizidunak: prokariotoak, nukleorik gabeko izakiak, eta eukariotoak, benetako nukleoa daukatenak.

- (iv) Iruzkin osoa ezabatuta ere, esapidea gramatikaren eta semantikaren ikuspuntutik, osoa izaten da.

- (6'') Stanier eta Van Niel-ek, zelulen koplexutasun-maila desberdinetan oinarriturik, talde bitan banatu zituzten bizidunak: prokariotoak, eta eukariotoak.

(6'') esapidea esate baterako, (6) eta (6') esapideen baliokidea izan daiteke *prokariotoak* eta *eukariotoak* zer diren dakienaren-

tzat, baina ez da baliokidea termino horien azpian dagoen konzeptua zein den ez dakienarentzat.

- (v) Erabilera honetan testu-antolatzaileok ez dute onartzen ez juntagailurik ez menderagailurik ere. Konparatu, hemen errepikatu dugun *hain zuzen ere* antolatzailearen (b) erabilerearen (3) adibidea, (c) erabilerearen adibidea den (7) esapiderekin. Azken honetan, *eta* juntagailuak esapidea desegokia egingo luke.

(3) Horrela balitz, suntsipenen maiztasuna oso konstantea litzateke, baina erregistro fosilak **hain zuzen ere** kontrakoa erakutsi du.

(7) Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, hiru konpartimentutan egongo ziren, (#eta) **hain zuzen ere**, nukleoan, mitokondrioetan eta kloroplastoetan³.

Juntagailuekin batera joan ahal izatea da, hain zuzen *EGLU-III*-k lokailuei egotzen dien ezaugarri bereizgarrietako bat.

2. TESTU-ANTOLATZAILEAREN IRUZKINAREN BARNEKO KOKAGUNEA

Azpiatal honetan, antolatzailearen eta txertatzen duen iruzkinaren arteko ordenaz hitz egingo dugu; izan ere, bi multzo egin daiteke antolatzaile hauen guztien artean:

- (a) Iruzkinaren hasieran (ezkerraldean) doazen antolatzaileak: *hau da, hots, hala nola*.
- (b) Iruzkinaren aurrean zein atzean, hau da, ezkerraldean zein eskuintaldean joan daitezkeenak: *alegia, hain zuen (ere), adibidez, esate baterako, bereziki, batez ere*.

Aurreko adibideetara itzuliz, (6) esapidean *hots* eta *hau da* antolatzaileek ez dute iruzkinaren bukaerako kokagunea onartzen (6')⁴.

(6) Stanier eta Van Niel-ek, zelulen koplexutasun-maila desberdinetan oinarriturik, talde bitan banatu zituzten bizidunak: prokariotoak, **hots, nukleorik gabeko izakiak**, eta eukariotoak, **hau da, benetako nukleoa daukatenak**.

(6') #Stanier eta Van Niel-ek, zelulen koplexutasun-maila desberdinetan oinarriturik, talde bitan banatu zituzten bizidunak: prokariotoak, nu-

³ # ikurra elementu baten testuinguru baterako ezegokitasuna adierazteko erabiltzen dugu.

⁴ LARRINGANEK (1995) tartekatuta eta bukaeran ere aurkitu du *hots* zenbait kasutan. Hala ere, berak antolatzaile honen erabilera guztiak aztertu dituen bitartean, geure azterketa iruzkinak txertatzeko erabilera murriztuta dago. Edonola, aipaturiko kokaguneetan bakanka baino ez zaiola agertu azpimarratu du Larringanek berak.

kleorik gabeko izakiak, **hots**, eta eukariotoak, benetako nukleoa daukatenak, **hau da**.

Era berean, (8) adibideko *hala nola* antolatzailea ezin jar daiteke iruzkinaren eskuinaldean (8').

- (8) Supernoba deritzon leherketa itzelak izar aintzindariaren materia gehiena espaziora jaurtikitzen du: hidrogeno- eta helio-kondarren apurrak eta beste atomo batzuen, **hala nola**, karbonoa, silizeo, burdina eta aluminioaren kantitate garrantzitsuak.
- (8') # Supernoba deritzon leherketa itzelak izar aintzindariaren materia gehiena espaziora jaurtikitzen du: hidrogeno- eta helio-kondarren apurrak eta beste atomo batzuen, karbonoa, silizeo, burdina eta aluminioaren, **hala nola**, kantitate garrantzitsuak.

(9) adibideetako *hain zuzen* eta *alegia* antolatzaileak iruzkinaren eskuinaldeko bukaeran jar daitezke inolako arazorik gabe. Hortaz, askoz ere askeagoak dira kokaguneari dagokionez (9').

- (9) Dagoeneko azaldu dugun bezala, dinoflagelatuek lau material zurrun eta geldo, **{alegia/hain zuzen ere}**, zelulosa, dinosporina, kaltzita eta silizea, erabiltzen dituzte zelula gordeko duten egiturak eraikitzeko.
- (9') Dagoeneko azaldu dugun bezala, dinoflagelatuek lau material zurrun eta geldo, zelulosa, dinosporina, kaltzita eta silizea **{alegia/hain zuzen ere}**, erabiltzen dituzte zelula gordeko duten egiturak eraikitzeko.

Gauza bera esan daiteke *adibidez* eta *esate baterako* antolatzaileei buruz (10, 10'):

- (10) Zenbait espeziek, **{esate baterako/adibidez}** *Medicago marina*, ile ugari du hosto eta enborretan.
- (10') Zenbait espeziek, *Medicago marina*, **{esate baterako/adibidez}**, ile ugari du hosto eta enborretan.

Gauza bera esan daiteke *batez ere* eta *bereziki* antolatzaileei buruz, iruzkinaren ezkerrean zein eskuinaldean joan baitaitezke (11, 11').

- (11) Bestalde, industrian eragin handia eduki nahi da, enpresa ertain eta txikietan **{bereziki/batez ere}**.
- (11') Bestalde, industrian eragin handia eduki nahi da, **{bereziki/batez ere}** enpresa ertain eta txikietan.

Komaren erabilerari dagokionez, antolatzailea ezkerrean jartzen denean, komen artean joan ohi da (6, 8, 9). Antolatzailea eskuinaldean (bukaeran) jartzen denean berriz, ohikoa izaten da ezkerrean (aurrean) komarik ez jartzea (9'). Iruzkinaren luzerak ere, eragina du komaren era-

bilerarako: hitz edo segmentu bakarreko iruzkina denean, errazagoa da antolatzailea komaz ez mugatzea (10, 10').

Ondoko eskeman antolatzaile bakoitzaren kokagune posibleak laburtu ditugu:

(12)

Antolatzailea	Antolatzailearen iruzkinaren barruko kokape	
	Iruzkina ezkerrean	Iruzkina eskuinean
Hau da	+	-
Hain zuzen	+	+
Hots	+	-
Alegia	+	+
Hala nola	+	-
Adibidez	+	+
Esate baterako	+	+
Batez ere	+	+
Bereziki	+	+

3. AZALDURIKO TESTU-ZATIAREN ETA IRUZKINAREN EZAUGARRIAK ETA KOKAPENA

Testu-antolatzaile hauek txertatzen dituzten iruzkinak hainbat izaera eta luzeratakoak izan daitezke, hitz batetik hasita (13), esaldi oso bateraino (17). Normalean, iruzkinak azaltzen duen elementuaren deklinabide-marka bera eraman ohi du (13, 14, 15, 16) eta gainera, ohikoena da elementu horren ondo-ondoan egotea, bien arteko harremana berehalakoa izan dadin.

- (13) Esporofito gaztea, **hots**, enbrioia, gametofito emearen bizkarroia izaten da denbora mugatuan zehar.
- (14) Ziklo biologikoen garapenean, belaunaldi berriaren, **hau da**, esporofitoaren, agerpena oso garrantzitsua izan da.
- (15) Xilemak, **hots**, ehun eroaleak, ura eta gatz mineralak sustraietatik landarearen gainontzeko aldeetara garraiatzen ditu.
- (16) Anelidoen zelomaren lakinketa gradu askoz ere gorenago bateraino eraman da, parakuntza metamerikoraino **hain zuzen ere**.
- (17) Azter dezagun orain, gorago aipatu dugun bigarren galdera, alegia, nola gertatu zen izaera prokariotikotik izaera eukariotikorainoko jauzia.

Txertatzen den iruzkinak ez du azaltzen duen elementuarekiko komunztadura sintaktikoa izan behar; elkarrekin identifika daitezkeen elementuak izan behar dute besterik gabe. (18) adibidean, hain zuzen, harremanetan jartzen ditugun elementuetariko bat singularra eta bestea plurala dira (*oinarria = klima eta dietaren aldaketak*).

- (18) Nahiz eta azalpen hauek puntu bateraino espekulatiboak izan, euren oinarria, **hau da, klima eta dietaren aldaketak**, ondo frogatuta dago.

Honelako testu-antolatzaileez sarturiko iruzkinak elementu nominal baten atzean joan ohi dira. Edonola, aditzaren atzean ere joan daitezke eta kasu honetan ohikoena da txertatzen dutena aurreko perpaus osoari dago-kion iruzkina izatea eta beraz, berori ere perpausa izatea (19). Kasu honetan lokailuen antzeko funtzioa betetzen dute, azalduko perpausa eta iruzkina puntuaz edo puntu eta komaz banaturik ditugunean aparteko bi perpaus ditugu baina komaz banaturik badaude, perpaus alboratuak ditugula uler dezakegu⁵.

- (19) Baina, zianobakterioek, elektroi-emaile gisa ura erabiltzean, fotosintesi oxigenikoa asmatu zuten, **hau da**, ordurarteko atmosfera anoxikoa oxigenoz «kutsatzen» hasi ziren.

Oro har ez da egokia perpausaren barneko elementu bat aditzaren atzean doan iruzkin batez azaltzea. (20, 21) bezalako esaldietan zaila da iruzkina zein elementuri dagokion antzematea, azaldua eta azalpena urrunegi baitaude⁶. Hizkuntza teknikoan gomendagarria da, geure iritziz, horrelakoak ez erabiltzea, mezuan anbiguitateak sartzeko arriskua nabariki handitzen baitute.

- (20) # Protoizar horrek, eguzkiaren eboluzioari buruzko bigarren teorian proposaturiko protoizarren antz handia edukiko luke, **alegia, eguzki-sistema** errotazio astiotsuko hodei baten kolapsoaz sortu zela dioen teorian.
- (21) # Eusko Jaurlaritzaren Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak enpresek erronkari aurre egiteko behar duten tresna nagusia Bilboko ihardunaldietan aurkeztu zuen, «**ERAIKITEN** Teknologia eta Produktu Garbien Ekintza-Plana» **hain zuzen**.

⁵ Perpaus konposatuaren mota desberdinei buruz, ikusi EUSKALTZAINDIA (1990).

⁶ Egia esan, euskal tradizio idatzian honelako batzuk aurki daitezke (i). Edonola, ohikoena azaldua eta azalpena jarraian joatea da (ii).

(i) *Beraz, gutxienez eneolitos-garaitik aberatsak eta beartsuak nabarmentzen asi ziran Euskalerrian, artzantza sortu zanetik alegia.* (J.M. BARANDIARAN: «Lehen euskal gizona».)

(ii) *Olerkirik garaienak, lirak eta zortzikoak alegia, espetxean ondu zitun.* (GAZTELU: «Musika ixila»)

Edonola, salbuespenak dira perpausaren galdegaia azaltzen duten iruzkinak. Kasu honetan, eta are errazago aditza pisu semantiko txikiko *izan* denean, iruzkina aditzaren atzean joan ohi da⁷.

- (22) Arbaso primitiboa prokarioto aerobikoa eta fototrofo fakultatiboa zatekeen, **hau da**, nitrogenoa fixatuko ez zukeen baina oxigenoa fotosintesiaren bidez askatuko zukeen eta arnasketa aerobikoa zitokromoen bidez egingo zukeen zianobakterioa.

(22) adibidean, *zatekeen* adizkiak ez du azalduaren eta azalpenaren arteko harremana apurtzen: azaldua galdegaia da eta gainera iruzkina luzeegia da galdegai horren eta *izan* aditzaren artean tartekatzeke. Hona hemen, semantikoki indartsuagoak diren aditzak dituzten adibideak: kasu honetan azaldua galdegaia izatea da zalantzarik gabe iruzkina aditzaren eskuinaldean jartzera eramaten gaituena.

- (23) Aipaturiko parakuntza lofoforatuetan ikus daiteke, **hau da**, foronido, brakiopodo eta ektoproktoetan.
- (24) Aldaketak zoriz gertatzen dira, **alegia** kausa eta ondorioaren arteko zerikusirik gabe.
- (25) Mikrofosilak munduan zeharreko harri zahar guztietan aurkitu dira, **hala nola**, kanadako Gunflint Iron formazioan, Txina-ko Pangjapu formazioan, Kaliforniako Beckspring-en eta Mauritaniako Richat-en.

Azaltzen dugun elementua galdegaia denean, esan bezala, aditzaren eskuinaldeko gunera eraman daiteke iruzkina. Baina hori ez da ezinbestekoa, azalduaren ondoan ere jar daiteke azalpen hori. Kasu honetan, iruzkinaren bukaeran ez dugu komarrik jarriko «galdegai-aditz» sekuentzia ez apurtzeko. Iruzkina oso luzea bada, egokiagoa da aditzaren atzean uztea.

- (23') Aipaturiko parakuntza lofoforatuetan, **hau da**, foronido, brakiopodo eta ektoproktoetan ikus daiteke.
- (24') Aldaketak zoriz, **alegia**, kausa eta ondorioaren arteko zerikusirik gabe gertatzen dira.

⁷ Honelakoak oso ugariak dira tradizio idatzian:

() *Hamabortzetarik hamabitan, onak dira sartu oraino ere edo hots, onerateko urratsa dutenak* (HIRIART-URRUTI: «Zezenak errepublikan»).

() *Orri apur oetan edesti onen lenengo aroak azaldu nai nituzke: Jesukristoren sinismena gure alderdian sortu baño lenagokoak, alegia* (J.M. BARANDIARAN: «Lehen euskal gizona»).

() *Baina, dakidanez, behin bakarrik adierazi du hori Aita Villasantek, hainbeste aldiz aipatu dugun euskeraren zenbaki honetan, hain zuzen ere* (MITXELENA: «Mitxelenaren idazlan hautatuak»).

() *Atzerritar etsaia, beraren izkiluz garaitu beharra zen, hau da, beraren hizkeraren bidez* (MIRANDE: «Idazlan hautatuak»).

Edonola, garbi dagoena da galdegai ez diren elementuak azaltzen dituzten iruzkinak nekez eraman daitezkeela aditzaren eskuinaldeko gunera. (26) adibidean, iruzkinak azaltzen duen elementua ez da galdegaia eta beraz, koma daramate iruzkin horren hasierak eta bukaerak ere. Bestetik, ez da oso egokia iruzkina aditzaren eskuinaldeko gunera eramatea (26').

(26) Orduan naturaren funtsezko indarrak, hots, indar elektromagnetikoa, indar grabitatorioa, indar ahula eta indar sendoa, bat egingo ziren.

(26') # Orduan naturaren funtsezko indarrak, bat egingo ziren, hots, indar elektromagnetikoa, indar grabitatorioa, indar ahula eta indar sendoa.

Iruzkinak azaltzen duen eta galdegaia ez den elementu hori, ordea, aditzaren eskuinaldeko gunera eraman daiteke eta orduan, egokiena da iruzkina ere aditzaren eskuinaldean kokatzea, azaldutako elementuaren ondoan gelditzen baita (26").

(26") Orduan bat egingo ziren naturaren funtsezko indarrak, hots, indar elektromagnetikoa, indar grabitatorioa, indar ahula eta indar sendoa.

Laburbilduz, iruzkinak hainbat luzera eta izaeratakoak izan daitezke. Ohikoena azaltzen duten elementuaren ondo-ondoan joatea da. Edonola, batzuetan aditzaren eskuinaldean ere ager daitezke. Azken kokapen hau guztiz egokia da iruzkinak aurreko perpaus osoa azaltzen badu, hau da, bera ere perpausa bada, edo bestela, azaltzen duen elementua perpausaren galdegaia bada. Aditzaren eskuinaldean txertaturiko iruzkinak galdegaia ez den elementu bat azaltzea, ez da oso egokia bi arrazoiengatik: alde batetik, euskal tradizio idatzian oso gutxitan agertzen diren ordenaketak di-relako eta bestetik, hizkuntza teknikoak eskatzen duen zehaztasuna arriskutan jar dezaketelako.

4. TESTUAN IRUZKINAK SARTZEKO BALIO DUTEN TESTU-ANTOLATZAILEEN ARTEKO BEREIZKETA SEMANTIKOA

4.1. *Hau da/hain zuzen (ere)*: **Birformulazioa/Finkapena**

Has gaitezen *hau da* eta *hain zuzen* antolatzaileen arteko kontraste semantikoa aztertzen. (27) adibidean bi antolatzaile hauen funtzioak konparatzen baditugu, berehala konturatzen gara kontraste nabaria dagoela.

- (27) Ezaugarriok kontutan harturik, prokariotoetan **bi talde** egin genitza-ke, **eubakterioena**, hau da, benetako bakterioena, eta **arkeobakterioena hain zuzen**.

Hain zuzen antolatzaileak txertatzen duen iruzkinaren eta azaltzen duen elementuaren artean, badago nolabaiteko progresioa transmititzen den informazioaren ikuspegitik (*bi talde* → *eubakterioena eta arkeobakterioena*). *Hau da* antolatzaileak sartzen duen iruzkinak berriz, dagokion elementuaren esanahia argitu baino ez du egiten (*eubakterioena = benetako bakterioena*). Hortaz, *hau da* antolatzaileak txertatzen dituen iruzkinen «aurrekaria», mugatua izan ohi da, *hain zuzen* antolatzaileak txertatzen dituenak berriz, mugagabeak izan ohi dira. (28) adibidearen iruzkina, esate baterako, ez da oso egokia⁸.

- (28) # Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, hiru konpartimentutan egongo ziren, hau da, nukleoan, mitokodrioetan eta kloroplastoetan.

Adibide honetarako posible litzateke *hau da* antolatzailearen bidez sarturiko iruzkin bat hiru konpartimentuok aldeaz aurretik aipaturik baleude (28'), bestela *hain zuzen* antolatzailea egokiagoa litzateke (28").

- (28') Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, aipaturiko hiru konpartimentuetan egongo ziren, **hau da, nukleoan, mitokodrioetan eta kloroplastoetan**.
- (28") Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, hiru konpartimentutan egongo ziren, **hain zuzen ere, nukleoan, mitokodrioetan eta kloroplastoetan**.

Larringanek (1995) bi sail desberdinetan sartzen ditu *hain zuzen (ere)* eta *hau da* antolatzaileak: lehenengoa «FINKAPENERAKOAK» sailean eta bigarrena, «BIRFORMULATZAILEAK» sailean. Terminologia horri eutsiz, esan dezagun *hain zuzen ere* antolatzaileak lotzen dituen bi testu-zatien artean **finkapen-harremana** dagoen bitartean, *hau da* antolatzaileak lotzen dituen elementuen artean **birformulazio-harremana** dagoela.

Edonola, birformulazio-harremana mugatutzat har daitezkeen bi elementuren artean ez ezik, mugagabeak diren elementuen artean ere ezar daiteke (29). Izan ere, birformulazioaren azpian nolabaiteko identitate-harre-

⁸ Hona hemen euskal tradizio idatziaren adibide pare bat:

() *Orduan Krispiñek, hau da danetarik okerrenak, gerrikoa askatu eta lurrera erortzen utzi zituan prakak* (OSKILLASO: «Kurloiak»).

() *Alabainan euskaldun guztiz gehienek jadanik badute hizkera komun bat: erdara hain zuzen ere* (MIRANDE: «Idazlan hautatuak»).

mana dagoenez, identifika daitezkeen elementuak behar dira: bi elementu mugaturen edo bi elementu mugagaberen arteko harremana behar da.

- (29) Honela, gure planetan 5.000 milioi eta 50.000 milioi espezie artean bizi izan omen ziren, eta egun 40 milioi espezie egon daiteke, **hau da, orain arte existitutakoen %1.**

(29) adibidean birformulazio-harremana dagoela esan dugu baina edonola, *hau da* antolatzailearen bidez txertaturiko iruzkina ez da alde zurretik ezaguna izan daitekeen definizio edo kontzeptu bat. Kalkulu bat egitea eskatzen digun datu bat baizik. Hortaz, finkapen edo zehaztapenezko harremana ere ikus daiteke irakurleari kalkulu hori egiteko beharra kentzen baitio eta horrenbestez, *hain zuzen* antolatzailea ere onargarri samarra izan liteke.

- (29') Honela, gure planetan 5.000 milioi eta 50.000 milioi espezie artean bizi izan omen ziren, eta egun 40 milioi espezie egon daiteke, orain arte existitutakoen %1 hain zuzen.

Bestetik, finkapen-harremanak ez du ezinbestean eskatzen azaldua mugagabea izatea. Harremana batzuetan zehaztua → xehekatuagoa motakoa izan daiteke, bai azaldua bai eta iruzkina ere sintagma mugatuak izanik (30). Kasu honetan nolabaiteko progresioa dago eta *hau da* antolatzailea ez da onargarria. Konparatu (29) eta (30) adibideak: lehenengoan, iruzkinean azaltzen den portzentaia lehenago testuan eman diren datuetatik atera daiteke kalkulu bat eginez, baina bigarren adibidean ematen den portzentaia, ezin ondoriozta daiteke testuingurutik, gaiari buruzko ezagutza da balio hori eskain dezakeen bakarra.

- (30) Alabaina, allergien intzidentzia jendeak uste baino txikiagoa da, eztenkaden %0,3 eta %3 bitartekoa hain zuzen.
- (30') # Alabaina, allergien intzidentzia jendeak uste baino txikiagoa da, hau da, eztenkaden %0,3 eta %3 bitartekoa

Finkapen-harremana, «adierazpen orokorra → adierazpen konkretua» motakoa ere izan daiteke (31, 32).

- (31) Hauxe da migrazio-garaietan eta bereziki ekaitz gogorreko egunetan (giza presentzia urriena den egunetan hain zuzen ere) normala izaten da limikolo, kaio, txenada, itsas enara eta beste hegazti-espezie batzuetako talde handiak gure hondartzetara hurbiltzea atsedean eta elikagai bila.
- (32) Orain dela gutxi arte, kalitatearen bilakaera nagusi izan den modu berean, berau baztertu gabe, produktzio garbia bultzatzen da gaur egun, ingurugiroan arrastorik utziko ez duen industri iharduera, hain zuzen.

Mota honetako finkapen-harremana birformulaziotik oso hurbil dago eta beraz, *hau da* antolatzailea ere erabil daiteke. Azken batean, *hain zuzen* edo *hau da* antolatzailea aukeratzeko orduan garrantzi handia izango du idazleak egiten duen presuposizioak: idazleak iruzkinean ematen den informazioa irakurleak nolabait buruan izan dezakeela presuposatzen badu, *hau da* erabiliko du (31', 32'); azalduaren eta iruzkinaren artean dagoen harremana antzematen zaila dela uste badu berriz, *hain zuzen* antolatzailea aukeratzeko du (31, 32).

- (31') Hauxe da migrazio-garaietan eta bereziki ekaitz gogorreko egunetan (**hau da**, giza presentzia urriena den egunetan) normala izaten da limikolo, kaio, txenada, itsas enara eta beste hegazti-espezietako talde handiak gure hondartzetara hurbiltzea atsedean eta elikagai bila.
- (32') Orain dela gutxi arte, kalitatearen bilakaera nagusi izan den modu berean, berau baztertu gabe, produkzio garbia bultzatzen da gaur egun, **hau da**, ingurugiroan arrastorik utziko ez duen industri iharduera.

Finkapen-harremana «hiperonimo → hiponimo» motakoa ere izan daiteke. Kasu honetan, azalduko elementua mugatua (34) zein mugagabea (33) izan daiteke, aipaturiko harreman horrek beti baitarama nolabaiteko finkapena.

- (33) Zenbait intsektuk, erleek eta erlastarrek, **hain zuzen ere**, babeserako erabiltzen dute eztena .
- (34) Eztena babeserako erabiltzen duten intsektuak, erleak eta erlastarrak, **hain zuzen ere**, erlauntza arriskuan dagoenean erasokor bihurtzen dira.

Azalduko elementua mugagabea izatearekin batera, irakurlearen gaiari buruzko ezagutza-eza presuposatzen dugu eta beraz, ezin ikus daiteke birformulazio-harremanik: *hau da* antolatzailea baztertzekoa da (33'). Azalduko elementua mugatua denean berriz, birformulazio-harremana ere ikus daiteke irakurleak iruzkinean ematen den informazioa buruan izan dezakeela presuposatzen bada, edo testuinguruan bertan informazio hori aurki badaiteke (34'). (34) eta (33) esapideak testu berean badaude, esate baterako, (34') adibidearena birformulazio-harremana litzateke eta *hau da* guttiz onargarria litzateke.

- (33') # Zenbait intsektuk, **hau da**, erleek eta erlastarrek, eztena babeserako erabiltzen dute.
- (34') Eztena babeserako erabiltzen duten intsektuak, **hau da**, erleak eta erlastarrak, erlauntza arriskuan dagoenean erasokor bihurtzen dira.

4.2. *Hots eta alegia*

Alegia eta *hots* antolatzaileen erabilera *hain zuzen* eta *hau da* antolatzaileenaren erdian dagoela esan daiteke⁹. *Alegia* da erabilerarik zabalena duena eta *hots* antolatzaileak aurreko atalean azaldu ditugun bi antolatzaileen erabileretako zenbait dauzka baina ez guztiak.

Hasteko, bai *alegia* eta bai *hots* antolatzaileak ere, sintagma mugatuak zein mugagabeak azal ditzakete. Hortaz, bai finkapenezko bai birformulaziozko harremanetan parte har dezakete. Aurreko saileko adibideak errepikatuz,

- (28a) Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, hiru konpartimentutan egongo ziren, {**hots/alegia**}, nukleoan, mitokodrioetan eta kloroplastoetan.
- (28b) Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, aipaturiko hiru konpartimentuetan egongo ziren, {**hots/alegia**}, nukleoan, mitokodrioetan eta kloroplastoetan.

Halaber, bai azalduko elementua bai iruzkina ere mugagabeak direnean erabil daitezke bi antolatzaile hauek. Kasu honetan zaila da harremana finkapenezkoa ala birformulaziozkoa den antzematea, lehenago esan dugunez, idazlearen presuposizioen arabera, bata zein bestea izan baitaiteke mota honetako adibideetan dagoena:

- (29') Honela, gure planetan 5.000 milioi eta 50.000 milioi espezie artean bizi izan omen ziren, eta egun 40 milioi espezie egon daiteke, {**alegia/hots**}, orain arte existitutakoen %1.

Zehaztua → xehekatuagoa motako finkapen-harremanetan, *alegia* erabil daiteke baina *hots* antolatzailea ez da oso egokia.

- (30') Alabaina, alergiaen intzidentzia jendeak uste baino txikiagoa da, {**alegia/#hots**}, eztenkaden %0,3 eta %3 bitartekoa.

⁹ Hona hemen euskal tradizio idatziaren adibide batzuk:

() *Bainan haren gogoa, bihotza, lana, hots haren izaite guztia, solas eta urrats, Euskal Herriari, Euskalduntasunari zatxizkizkola...* (HIRIART-URRUTI: «Zenbait aurpegi»).

() *Nabarmego oraindik: Euskal adimenareztat ez bada ere, eta ez dakit horrelako entelekiarik inon aurki ote daitekeen, hots atseginagoa duela euskal belarriarentzat Axularren prosa Altubek eredutzat hautetsi dizkigun zenbait zatirenak baino* (MITXELENA: Mitxelenaren idazlan hautatuak).

() *Eta aldaketa ori, nai ta naiez, oraindik arrizko aizkorak egiaz aizkorak zirana bazekiten garaian egin zuten: eneolitos aldian, alegia* (J.M. BARANDIARAN: «Lehen euskal gizona»).

() *Oñastarraren euskal-izenak, indoeuropatarren bi mito edo ipui gogorazten dizkigute: Thorren mallu eta Jupiterren geziakiko mitoak alegia* (J.M. BARANDIARAN: «Lehen euskal gizona»).

Finkapen-harremana, «adierazpen orokorra → adierazpen konkretua» motakoa denean berriz, *hots* zein *alegia* erabil daiteke (31, 32).

- (31") Hauxe da migrazio-garaietan eta bereziki ekaitz gogorreko egunetan (**{hots/alegia}** giza presentzia urriena den egunetan) normala izaten da limikolo, kaio, txenada, itsas enara eta beste hegazti-espezietako talde handiak gure hondartzetara hurbiltzea atsedean eta elikagai bila.
- (32") Orain dela gutxi arte, kalitatearen bilakaera nagusi izan den modu berean, berau baztertu gabe, produkzio garbia bultzatzen da gaur egun, **{hots/alegia}**, ingurugiroan arrastorik utziko ez duen industri iharduera.

Finkapen-harremana «hiperonimo → hiponimo» motakoa denean eta azalduko elementua mugatua denean *hots* zein *alegia* erabil daitezke. Baina azalduko elementua mugagabea denean, *hots* antolatzailea ez da onargarria.

- (33') Zenbait intsektuk, **{#hots/alegia}** erleek eta erlasterrek, eztena babeserako erabiltzen dute.
- (34') Eztena babeserako erabiltzen duten intsektuak, **{hots/alegia}** erleak eta erlasterak, erlauntza arriskuan dagoenean erasokor bihurtzen dira.

	Antolatzaileak			
	Hau da	Hain zuzen	Hots	Alegia
Birformulazio-harremanak				
ISmgt. → ISmgt.	+	-	+	+
ISmgg. → ISmgg.	+	-	+	+
orokorra → konkretua	+	-	+	+
hiperonimoa (mgt.) → hiponimoa	+	-	+	+
Finkapen-harremanak				
ISmgt. → ISmgt.	-	+	+	+
ISmgg. → ISmgg.	-	+	+	+
zehaztua → xeheketuagoa	-	+	-	+
orokorra → konkretua	-	+	+	+
hiperonimoa (mgt.) → hiponimoa	-	+	+	+
hiperonimoa (mgt.) → hiponimoa	-	+	-	+

4.3. Adibidegileak eta nabarmentzaileak

Adibidez, hala nola eta *esate baterako* antolatzaileek txertatzen dituzten iruzkinak ere nolabaiteko finkapen-harremana dute azalduko testu-zatietekin, baina *hain zuzen* antolatzailearekin doan zehaztapena «aurrekariaren» multzo osoa estaltzen duen bitartean, *adibidez* bezalakoek multzoaren zenbait kide baino ez dute zehazten. Honelako testu-antolatzaileei «ADIBIDEGILEAK» deritze Larringanek (1995).

- (35) Supernoba deritzon leherketa itzelak izar aintzindariaren materia gehiena espaziora jaurtikitzen du: hidrogeno- eta helio-kondarren apurrak eta beste atomo batzuen, hala nola, karbonoa, silizeo, burdina eta aluminioaren kantitate garrantzitsuak.
- (36) Funtzio polinizatzaileez gain intsektuen hainbat aktibitate —**esaterako elikatu, babeslekuak eraiki e.a.**— bete ohi dituzte landareetan.

(35) adibidean *hala nola* antolatzailea erabili dugu eta beraz, aipaturiko atomo horien artean aipatu ez ditugun batzuk ere egon daitezkeela ulertzen dugu; *hain zuzen* antolatzailea erabili izan bagenu berriz, jaurtikitako atomo-mota guztiak aipatzen ari ginela ulertu beharko genuke. Era berean, (36) adibidean intsektuek loreetan betetzen dituzten zenbait funtzio aipatu ditugu, ez betetzen dituzten guztiak.

Batez ere eta bereziki bezalako testu-antolatzaileek *hain zuzen* eta *adibidez* bezalako esangura semantikoaren artean daude. Izan ere, informazioan nolabaiteko progresioa egiten dute eta iruzkinak azalduaren saileko elementu gehienak adierazten ditu, baina ez guztiak, nabarmenenak baizik (37). Larriganek (1995) «NABARMENTZAILEAK» deritze mota honetako antolatzaileei.

- (32) Ramapithecus-en zati oseo batzuk bakarrik ezagutzen dira, **batez ere, hortzak eta baraila-zatiak**.
- (11) Bestalde, industriari eragin handia eduki nahi da, enpresa ertain eta txikietan bereziki.

Hona hemen lan honetan aztertzen ditugun antolatzaileek azalduaren eta iruzkinaren artean ezar ditzaketen harreman semantikoak.

(33)

Antolatzailea	Iruzkina eta azalduko testu-zatiaren arteko harreman semantikoa			
	Birformulazioa	Finkapena	Adibidegintza	Nabarmentzea
Hau da	+	-	-	-
Hain zuzen	-	+	-	-
Hots	+	+	-	-
Alegia	+	+	-	-
Hala nola	-	-	+	-
Adibidez	-	-	+	-
Esate baterako	-	-	+	-
Bereziki	-	-	-	+
Batez ere	-	-	-	+

- BIRFORMULAZIOA: Progresiorik gabeko identitate-harremana. Azaldutako elementua eta iruzkina biak mugatuak edo biak mugagabeak izan ohi dira:
 - *eubakterioena = benetako bakterioena* (27 adibidean),
 - *40 milioi espezie → orain arte existitutakoen %1* (29 adibidean).
- FINKAPENA: Nolabaiteko progresioa duen identitate-harremana. Iruzkinak azaltzen duen elementuaren sail osoa estaltzen du. Azaldutako elementua mugagabea izan ohi da. Baina batzuetan mugatua ere izan daiteke:
 - *bi talde → eubakteriona eta arkeobakterioena* (27 adibidean),
 - *eztena babeserako erabiltzen duten intsektuak → erleak eta erlastarrak* (34 adibidean).
- ADIBIDEGINTZA: Nolabaiteko progresioa dago, baina iruzkinak ez du azaldutako elementuaren sail osoa estaltzen. Azaldutako elementua mugagabea izan ohi da.
 - *beste atomo batzuen → karbonoa, silizeoa, burdina eta aluminioaren* (35 adibidean).
- NABARMENTZEA: Nolabaiteko progresioa dago, iruzkinak ez du azaldutako elementuaren sail osoa estaltzen, nabarmenenak diren elementuak baizik. Azalduko elementua mugatua zein mugagabea izan daiteke.
 - *zati oseo batzuk bakarrik → hortzak eta baraila-zatiak* (32 adibidean),
 - *industrian → enpresa ertain eta txikietan* (11 adibidean).

5. ZENBAIT OHAR ESTILOAREN GAINEAN

— Estiloaren aldetik egin behar den lehen oharra bistan dagoen zerbait da. Iruzkinak ez dira gehiegi erabili behar. Izan ere, iruzkin bat sartzen dugun bakoitzean, eten bat egiten dugu testuaren informazio-jarioan. Egia da iruzkinek puntu bakoitzean sakontzea eta datu bakoitza zehazkiago azaltzea baimentzen digutela baina, edonola, testuaren ideia nagusietan galtzera ere eraman gaitzakete. Cassany-ren hitzak geureak eginez, testu ulergarriak idatzi nahi dituenak soberazko adarrak ebakitzen saiatu behar duela esan dezakegu.

- (34) Heriotzaren eta biziaren oinarriak batzuetan iturri bera dutela ez da beti burutazio hutsa, alegia, batzuetan naturaren jokaera isladatzen duen zerbait da. Aztergai dugun kasuan, lehenak, hots, heriotzaren oinarriak, Gipuzkoako armarrarian agertzen den hagina, hau da, *Taxus*

baccata, deitutako zuhaitzean gauzatzen dira, eta bigarrenak, hots, biziaren oinarriak, zuhaitz berberarengandik lor daitekeen taxol ize-neko substantzian, I. irudian azaltzen den konposatuan alegia.

Bistan da (34) adibidean iruzkin gehiegi dagoela eta inolako iruzkinik gabe ere, informazio bera eskain litekeela. Hortaz, argitasunaren eta arintasunaren oreka bilatu behar da testuetan iruzkinak txertatzeko orduan.

—Aurreko azpiataletan aipaturiko antolatzaileen ordez, bi puntuak erabil daitezke zenbaitetan. Bi puntuak egokiagoak izaten dira, batez ere, iruzkinak luzeak eta korapilatsuak direnean. (35) adibidean, bi fosil-mota elementuari dagokion iruzkina bata eta bestea testu-antolatzaileez lagunduta dator eta horrela, deskodifikatzen errazagoa da.

- (35) Baraila, organo murtxikatzaile huts modura jokatzen duenez, nabari-ki murrizten da eta murrizpen horrek aldaketa substantzialak eragiten ditu aurpegiaren konfigurazioan: aurpegia txikiago bihurtzen da, mustur irtena desagertzen delarik; modu berean, bekokia arteztu egiten da eta kokotsa agertzen zaigu.
- (36) Europan bi fosil-mota agertu zaizkigu: azpegi orokortuak dituen bata, eta Neanderthaletara eramango duten azpegiak progresiboki erakusten dituen bestea.

—Iruzkinak menperatu baten barruan daudenean, eta hau edozein motatako antolatzaileen bidez txertaturiko iruzkinei buruz esan daiteke, deskodifikazioa errazago egiten da iruzkina komen artean sartu beharrean parentesien bidez mugatzen bada (37).

- (37) Gizakiak [dieta ez-espezializatuari (hau da, dieta omniboroari) dagozkion] hartz txiki eta uniformeak erakusten ditu.

—*Adibidez* antolatzailearen familiakoen kasuan, perpausean eten bat txertatzeak arazoak ekartzen dizkigunean, eta zehazkiago azal dutako elementua mugatua denean, *bezalako* forma erabil dezakegu, horrek ez baitigu perpausaren erritmoa apurtzen. Konparatu (38) eta (38') adibideak. (38') arinagoa da inolako etenik egiten ez baitu.

- (33) Anfibioak, apoa eta igela esate baterako, aintziren inguruan bizi dira.
- (33') Apoa eta igela bezalako anfibioak aintziren inguruan bizi dira.

—Komaren erabilerari dagokionez, artikuluan zehar esakainiriko ideia nagusiak laburbilduko ditugu:

- (i) Azterturiko antolatzaileek txertatzen dituzten iruzkinak komen artean joan ohi dira.

- (ii) Iruzkinak azaltzen duen elementua galdegaia denean eta iruzkin hori aditzaren ezker aldean (aurrean) doanean, ez da komarik jartzzen iruzkinaren eta aditzaren artean. Batzuetan, galdegaia azaltzen duten iruzkin hauek aditzaren eskuinaldera (atzerantz) eramaten dira, orduan hasierako eta bukaerako komak mantentzen dira.
- (iii) Testu-antolatzailea bera ere, komez mugaturik erabili ohi da, baina ez beti. Ohikoagoa izaten da koma antolatzailea iruzkinaren hasieran jartzzen denean eta gutxiagotan agertzen da, antolatzailea iruzkinaren bukaeran doanean. Azkenik, errazagoa izaten da antolatzailearen eta iruzkinaren artean komarik ez azaltzea iruzkina oso laburra denean, luzea denean baino.

6. BIBLIOGRAFIA

- CASSANY, D. (1993), *La cocina de la escritura*. Barcelona. Anagrama.
- EUSKALTAINDIA (1990), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*, Bilbo.
- LARRINGAN, L.M. (1995), *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboa eta argudiapenezkoa*. Doktoretza-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ZABALA, I. & ODRIOSOLA, J.C. (1992), *Idazkera Teknikoa 1. Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera*. EHUko Argitarapen-zerbitzua.

«ZEIN (...) BAIT-/N» EGITURA

Jabier Alberdi y Julio García

0. SARRERA¹

Gaur egun, euskaraz eskolatua edo euskal gramatikaz zerbait jantzia den edonork badaki erlatiboazko egitura hau («zein ... bait-/n») ez dela atzo goizeko berrikeria. Dena den, jakina denez, oraintsu arte egitura honek nahiko ospe txarra izan du gramatikari eta idazleen artean eta oraindik ere ez dira gutxi egitura hau errezeloz ikusi eta baliabide badaezpadakotzat edo saihestu beharrekotzat jotzen dutenak.

(Aurre)Iritziak (aurre)iritzi, ezin uka daiteke mendeetan barrena erlatibo honek tradizio zabala izan duela mugaz bestaldeko eta mugaz honaindiko euskal testuetan. Horregatik uste dugu egitura honek azterketa zehatzagoa behar duela; are gehiago, kontuan hartzen bada baliabide hau testu tekniko askotan eta itzulpengintzan oro har giltza izan daitekeela erdara batzuetako «periodo» luzeak egokitzapen larregi barik emateko eta beste-lako zailtasun sintaktikoak gainditzeko.

Egitura honen alde gaude, beraz; hobeto esan, baliabide honi, neurritz eta tentuz, etekina ateratzearen alde. Baina, jakina, horrek ez du esan nahi aurrerantzean egitura hau albo-erdaretako erlatiboan ordain bakartzat erabili behar dugunik edo bestelako euskal bideak bazter utzi behar ditugunik, ezta erdaretako erlatiboei beti eta nahitaez euskal erlatibo bat egokitu behar diegunik (erlatiboan inguruko transposizioez, besteak beste, ik. Biguri, 1994). Eta baliabide bat zuzentasunez eta egokitasunez erabiltzeko, ezagutu egin behar da lehenik.

Horixe da, hain zuzen, lan honen helburu nagusia: euskal egitura hau hobeto ezagutzea. Artikulua, erlatibo «klasiko» honen inguruko zenbait

¹ Lan hau egiteko, funtsean, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* «corpusaz» baliatu gara. Izugarri handia den «corpus» horretatik adibidetegi aski zabala —mila esalditik gora dituen adibidetegi— aukeratu genuen, garai eta euskalki guztietako idazleak sarturik. «Corpusa» aukeratzeko eta osatzeko lan honetan Jesus Mari Makazaga lankidea izan dugu gidari eta aholkulari; horregatik, aurrera baino lehen, geure eskerrona agertu nahi diogu, lan hau ezinezkoa izango baitzen bere laguntzarik gabe.

auzi eta gorabehera argitzera dator: 1) hizkuntza idatzian izan duen oihartzuna eta bilakaera; 2) egitura honek gaurko euskarari izan dezakeen tokia; 3) «zein» izenordain erlatiboaren deklinabidea; 4) egitura honetan adizkiari dagokion menderagailua; 5) erlatibo-esaldiari dagokion osagaien ordena, hala nola, erlatibo-perpauzak perpau nagusian hartzen duen gunea; 6) «zein» erlatiboaren eta bere aurrekariaren arteko distantzia eta hurrenkera-arazoak; 7) egitura hau erlatibo ez-murriztailea bakarrik adierazteko erabil daitekeen ala ez-murriztailea nahiz murriztailea; 8) puntuazio-zeinuak.

1. LITERATURA-TRADIZIOA

Erlatibo honen alde eta aurka mintzatu direnek, batekoek nahiz beste-koek, onerako nahiz txarrerako, zuzperrarazteko nahiz isilarazteko, denek aipatu digute idazle zaharren lekukotasuna. Aldekoek, batik bat, egitura honek idazle «zahar» edo «klasikoen» artean izan zuen oihartzun zabala azpimarkatu dute; eta informazio horren arabera, filologia-kontuetan aditua ez denak, beharbada, pentsa lezake egitura hori lapurterazko literatura klasikoaren garaiko baliabide zaharkitua dela, arkaismoa alegia. Baina beharago frogatuko denez, azken uste hori neurri handi batean okerra da.

«Zein bait-/n» egitura ez da idazle «zahar» gutxi batzuen ohitura bakartua, hizkuntza idatzian hedatuz eta mamituz joan den egitura ongi sustraitua baizik. Erlatibo honetaz baliatu diren idazleen artean azpimarka ditzagun egitura berezi hau halako maiztasun batez erabili dutenak, denak ez baitira neurri berean baliatu aipatutako egituraz; hona hemen, haietako batzuk²: Leizarraga³ (XVI, L), Materre (XVII, L), Axular (XVII, L), Pouvreau (XVII, L), Etcheberri Sarakoa (XVIII, L), Larreguy (XVIII, L), Barateciart (XVIII, L), J.A. Moguel (XIX, B), Añibarro (XIX, B), Duhalde (XIX, L), Astarloa (XIX, B), Bartolome (XIX, B), J.J. Moguel (XIX, B), *CatLlo* (XIX, B), *JesBih* (XIX, L), *CatLuz* (XIX, Aezk.), *MarIL* (XIX, L), Jauretche (XIX, L), Iztueta (XIX, G), Hiribarren (XIX, L), Lardizabal (XIX, G), Duvoisin (XIX, L), Legaz (XIX, GN), Elissamburu (XIX, L), Arbelbide (XIX, BN), Iturzaeta (XIX, B).

² Jakina, zerrenda hau gure *corpus* eta datu mugatuaren artean egindako aukeraketaren emaitza mugatua da, osa daitekeen eta osatu beharreko zerbait, alegia. Idazlanak aipatzeko *Orotariko Euskal Hiztegiako* laburdurez baliatu gara; kako artean [] euskalkia ematen da hurrengo laburduren arabera: B=bizkaiera, G=gipuzkera, GN=goinafarrera, IGN= iparraldeko goinafarrera, HGN=hegoaldeko goinafarrera, L=lapurtera, BN= behenafarrera, MBN= mendebaldeko behenafarrera, EBN=ekialdeko behenafarrera, Z=zuberoera, Aezk.=aezkera, Zar.=zaraitzuera, Er.=erronkariera.

³ Etxeparek ez bide du egitura hau erabiltzen, beharbada bere lana hitz lauakoa barik hitz neurtuzkoa izan zelako; dena den, balio anaforikodun beste galdetzaila batzuen adibideak ez dira falta haren idazlanetan: «nori (...) bait-», «zeren (...) bait-», «nola ere (...) bait-»...

Ikus daitekeenez, formula hau, gehiago edo gutxiago, literatura-tradizioidun euskalki nagusietan agertzen zaigu, hots, lapurteraz, zuberoraz, gipuzkeraz eta bizkaieraz. Are gehiago, halako tradizio literariorik izan ez duten eguzki aldeko euskalkietan ere badago; adibidez, hegoaldeko goinafarreraz (Lizarraga Elkanokoa), Baztango literatura-hizkuntzan (B. Etchenique, *CatB*, Legaz), aezkeraz (*CatAe*, *Orbarako dotrinak*) eta zer esanik ez, baita behenafarreraz ere (*CatLuz*, Arbelbide)⁴. Aurrera baino lehen, gauza bat argitu nahi genuke, badaezpada ere: orain artekoak hizkuntza idatzirako baizik ez du balio; hortaz, esandakotik ezin da ondoriorik atera aipaturiko euskaren ahozko errealitateari buruz (Salaburu, 1980:14-15).

Erlatibo berezi honen aztarnak euskara guztietan agertzen zaizkigun arren, bistan da baliabidearen benetako garapena ekialdeko euskalkietan gertatu zela lehendabizi, handik gainerako euskalkietara zabaltzeko geroago⁵.

Bilakaera historikoa arakaturaz gero, honako joera hau ageri da: erlatibo honetaz baliatzen diren idazleen kopurua goraka doa mendeak aurrera joan ahala (XVI-XIX), harik eta XX. mendean aurrekoan —idazle-kopuruz, zabalera dialektalez eta maiztasunez— bere «gailurrera» iritsitako tradizio hori eteten den arte. Hots, haustura ia erabatekoa eta bat-batekoa gertatzen da mende batetik bestera egitura honen erabilerari dagokionez; izan ere, XX. mendean idazle gutxik erabiltzen dute erlatibo hau eta, salbuespenak salbuespen, erabili ere bakanka baizik ez dute egiten⁶. Are gehiago, itxura denez kasu honetan, beste batzuetan ez bezala, etena orokorra izan zen, esan nahi baita haustura mugaz bestaldeko literaturara ere zabaldu zela (Villasante, 1985; *OEH*, III, «bait-»: 703).

Beste batzuetan bezalatsu, oraingoan ere gramatikarien jarrera garbitalari, edo hobeto esan, aranatarren ondoko garbizaletasun sintaktikoari⁷ egotzi behar zaio hauste horren «erantzukizuna» (Villasante, 1979:87-88). Euskara hizkuntza positiboa izanik, sintaxiarekiko ikuspegi garbitalari batetik ezin zuten begi onez ikusi mendeko perpausaren hasieran menderagailuak erabiltzea, joera berri horrek euskara hizkuntza erromanikoen moldeetara makurtzea baitakar eta azken batean euskararen «jatortasun» eta «berezitasun sintaktikoa» bera lardaskatzea. Iritzi hauen eragina berehalaxe somatu zen alde bietako literaturan, «zein bait-» egitura ia-ia guztiz desagertarazteraino (*OEH*, III:703).

⁴ Gure *corpusean* agertu ez arren, pentsatzekoa da sortaldeko gainerako euskalkietan ere (zaraitzueraz eta erronkarietaz) badirela esaldi-mota honen lekukotasunak.

⁵ Dena den, antzina batean «balio anaforikodun galdegilea + bait-» egitura orokorra izango zen; eta geroago, sartaldeko euskalkietan «bait-» horren galera ia erabatekoa gertatu zen bitartean, sortaldeko euskalkietan ikaragarri ugaldutako «bait-» partikularen zereginak eta beraren inguruko egiturak (*OEH*, III, «bait-»: 703).

⁶ Gure *corpusean* zazpi idazle azaltzen zaizkigu, egitura honen adibide banarekin.

⁷ Jarrera-aldaketa XX. mendearekin batera dator. Horrela, Campionek XIX. mendearen azken aldera (Campion, 1884, II: 768) ez du inolako eragozpenik erabilera hau iruzkinik bat ere egin gabe jasotzeko.

Esan bezala, haustura orokorra izan zen, baina iparraldean joera garbizeleak ondorio bereziak izan zituen. Itxura denez, «zein (...) bait- (...)» egitura «kutsatuaren» ordean, «bait-» soila —izenordain anaforikorik gabe— ugalduta zen garbitasunaren onerako eta zehaztasunaren kalterako (Villasante, 1985); izan ere, iparraldeko usuarioan «bait-» menderagailu soilaz eraturako esaldiak anbiguotasun-maila handikoak eta balio anitzekoak (kausalak, erlatiboak, konpletiboak, moduzkoak...) gertatzen dira (ik. *OEH*, III: «bait» sarreraren hirugarren adiera, 708-709; Villasante, 1979: 212-223). Villasanteren iritziz, izenordain anaforikoen «inausketa» neurri handi batean atzerapausoa izan zen, anaforikoen laguntzarik gabe mendeko perpausen ñabardurak eta balioak lausotuta geratzen direlako eta azken batean idazleek⁸ zorrotzu, zehaztu eta doitutako tresna kamustea, zehazgabetea eta pobretzea izan zelako, hitz batez, idazleen eskutik egindako bidea desegitea edo alferrik galtzea.

Laburki bada ere, gogora ditzagun mende honetako gramatikari garrantzitsuenen jarrerak. Jakina denez, XX. mendearen hasiera-hasieran (1905-1906) bada mugari historikotzat jo daitekeen hiztegi bat, ordura arteko literatura eta aurreragokoa bereizteko giltza izan daitekeena, Azkueren hiztegia (*DVEF*), hain zuzen ere. Hiztegi horretan (*DVEF*, t. II: 61, 426), bada, Azkuek gogor salatzen du erabilera hori, jatorri latindarreko «barbarismotzat» joaz; zenbait urte geroago (1925) gaitzespeneko antzeko iritzia edo are gogorragoa azaldu zuen (*MV*, I: §529-530). Altubek berak, mugaz honaindiko idazleengan batez ere hain eragin handia izan zuen *Erderismos* liburuan (Altube, 1929:137-142) ez zituen begi onez ikusten halako egiturak. Erlatibo klasiko edo erromanikoaren kontrako iritzi hori mugaz bestaldera zabaldu zen eta, esate baterako, iparraldean hainbesteko pisua izan zuen Lafitte gramatikariak antzeko iritzia azaldu zuen: zalan-tzarik gabe gaitzesten ditu galdegile anaforikoaz hornitutako erlatiboak⁹ (Lafitte, 1944: §775)¹⁰. Iparraldean, ordea, denak ez dira erlatibo honen kontra mintzo; hor daude Schuchardten lana (1923: §85), Lhanderen hiztegia (1926-1938) eta Gavelen gramatika (1929, I: §97), tradizioko erlatibo-mota hau aurreiritzirik gabe jasotzen dutenak. Bistan denez, alde eta kontrako iritziak badaude ere, ondorioei begira aipatu gramatika-lanak ez dira kidekoak, zabalkunde eta eraginaren aldetik ez baita Azkueren *DVEF* erraldoiarekin pareka daitekeenik.

Azpimarkagarria da, gainera, literatura-tradizioaren eta gramatikariaren tradizioaren arteko bat-etortzea: hots, XX. mendera arte erlatibo hau de-

⁸ Herri-euskaratik abiatuta seguraski (VILLASANTE, 1985:973).

⁹ Hala eta guztiz ere, gogoz kontra bada ere, onartu beharrean aurkitzen da hurrengoan modukoak: kausalak (§776, «nola ... bait-»; «zeren ... bait-»); «nork ere... bait-...», hura...(§777) tankerakoak; eta «bait-» menderagailuaz eraturako erlatibo balioko esaldi bereziak (§772).

¹⁰ R. LAFON bera ere (1966:221-222) Lafitteren jarraitzailea da auzi honetan.

xente erabiltzen da hizkuntza idatzian eta euskalariak (Etcheberri Sarakoa, 1712; Larramendi, 1729; Inchauspe, 1858; Gèze, 1873; Ithurry, 1895; Campion, 1884 II:768) aparteko iruzkin kritikorik gabe jasotzen dute beren gramatiketan (ik. Oyharçabal 1987:299-301); xx. mendean ere, batzuk eta besteak elkarriz bizkarra eman gabe aritzen dira oro har. Beraz, itxura guztien arabera tradizio idatzian gertatu zen etena, gramatikarien gaitzespenak eragindakoa izan daiteke.

Laburpen/ondorioak

1. «Zein (...) bait-» egiturak sustrai sakonak ditu literatura-tradizioan (xvi-xix): historikoki lehenik sortaldeko euskalkietan garatu bazen ere, geroago sartaldeko literaturara hedatu zen, horrela literaturadun euskalki nagusietan sustraituz.
2. Tradizio horrekiko haustura xx. mendean —hasieran— gertatzen da eta orokorra izan zen: hots, etena hegoaldeko literaturan eta mugaz bestaldekoan gertatu zen.
3. Gure ustez, haustura hori xx.eko gramatikarien gaitzespenazko jarreraren eraginez gertatu zen eta bereziki Azkueren DVEF hiztegiko kritiken eraginez.

2. EGITURA HONEN TOKIA GAURKO EUSKARAN

xx. mendearen lehen zatiko gramatikarien (Azkue, Altube, Lafitte...) erasoaldiaren ondoren eta mende honetako literatura-tradizioan erlatibo berezi honek izan duen etenaldiaren ondoren, badirudi gaur egun egitura honetaz baliatu nahi duenak bere burua zuritu edo justifikatu beharra daukala; hau da, tradizio luze eta ongi finkatuak ematen dion zilegitasuna gorabehera, aurreiritzi linguistikoek pisu handiegia dute gure artean eta oraindik ere erabilera justifikatu beharra egoten da, erabilerarik eza eta tradizioarekiko etena azaldu beharrik ez badago ere.

Esanak esan, xx. mendearen bigarren zati honetan gramatikari (Villasante, 1979; 1988) eta idazle zenbaitek (Aresti) tradizioko baliabide hau biziberritzeko edo berpizteko saiakera egin dute; nolahi ere, gaurko gramatikari eta idazleen iritziak ez dauka antzik ere mende-hasierakoenarekin, esan nahi baita askoz ere irizpide zabalagoak dituztela auzi honetan (Goenaga, 1980:294). Jarrera-aldaketaz jabetzeko, aski da gogoratzea 1952an Altubek berak oso bestelako iritzia zuela puntu honetaz; alegia, orduan, Villasanteri aitortu omen zion «*Erderismos* berriz ere atera behar balu, zenbait gauzatan zabalagoa izango zela; batez ere anaforiko batzuk erabiltzea zilegitzat joko lukeela...» (Altube, 1929: VIII).

Azter ditzagun lehenik «zein» erlatibozkoa ez erabiltzeko eman diren arrazoiak, anaforikoaren erabilera-eremua eta mugak eztabaidatzera pasa aurretik.

Bi dira «zein» erlatibozkoaren —eta oro har balio anaforikodun galde-tzaileen— aurka azaldu diren eragozpenak (Villasante, 1988: 205-206): 1) horrelako egiturak latinaren eta latinetik hizkuntzen eraginez sartu direla euskarari; 2) horrelako partikulak, berez, galdetzaile hutsak direla-eta ez dela zilegi galderarekin zerikusirik ez duten zereginetara horiek hedatzea. Eragozpen hauei dagokienez, esan beharra dago hizkuntzalariek (Lafon, 1944; Gavel, 1929, I: §97) ez dutela hain garbi ikusten latinaren eraginaren teoria. Lafonek (1944: 487-489) dioenez, beharbada latinaren ereduak lagundu izan du horretarako, baina berez ere euskal galde-hitzak ez dira galdetzaile huts-soilak; mugagabe-kutsua ere badute (*nor balitz, nori berea, zein bere..., nor bere..., ni ez naiz nor, norbait, inor, inoiz, edonor, noiznahi, zeinahi, zerbait...*), eta orduan errazago ulertzen da enplegu batetik bestera lerratze hori. Bestalde, Villasantek dioenez (ib. 206), latinaren eraginaren teoria egia balitz ere¹¹, hori ez litzateke arrazoi nahikoa izango mendeetan barrena aise erabili den egitura errotua bat-batean lurperatzeko. Izan ere, eraginak eragin, latinez (Lafon, 1944: 488-489) eta latinaren eremutik kanpo ere (hizkuntza germaniar eta eslaviarretan, eta are georgieraz¹² ere) eboluzio berbera bete da, alegia, galdetzaileek izenordain erlatiboen zeregina ere bereganatu zuten eta horregatik bigarren zeregin hori ez da madarikatua izan gure artean bezala.

Villasantek ezin hobeto azaltzen du gure artean «zein» erlatibozkoa eta oro har galdetzaile anaforikoak ez erabiltzeko dagoen beste eragozpen bat. Hona hemen, bere hitz kritikoak: «Gurean beste makur bat egiten da oraindik: elkar hizketan erabili ohi den sintaxia hartzen dela eredu bakar edo orokor bezala. Jakina, elkar hizketan toki guti da anaforikoentzat; eta orduan, hor ageri ez dena, beste literatur motetatik ere erauzi behar omen da.» (Villasante, 1988: 207). Eta honek beste galdera hau dakarkigu gogora: «zein»

¹¹ Ohar gaitezen, dena den, erdizka baizik ez litzatekeela beteko kanpoko eragina, «bait-» soila Leizarragaz geroztik barra-barra erabili izan baita ekialdeko euskalkietan erlatibo ez-murritzailearen balioaz (ik. *OEH*, III: 708-709, «bait-» partikulari eskainitako hirugarren sarrera). Hots, kalkoaren posibilitatea onartzekotan, erdizkako kalkoaz hitz egin beharko genuke; izan ere, Oihartzabalek agerian jarri duenez (OYHARÇABAL, 1987: 303-307), euskal erlatibo honek baditu bereizgarri batzuk erlatibo erromanikoaren aldean: a) euskaraz, inguruko erromantzeetan ez bezala, ez da beti betetzen galdetzaile eta izenordain erlatiboen arteko berdintasun formala (fr. «ils m'envoyèrent un enfant qui avait dix ans»; eusk. *igorri zautaten haur bat, nor hamar urte baitzituen»); b) menderagailuaren (*bait/-n*) erabilera. Hizkuntzalari honen hitzetan «(...) Ceci montre que l'emprunt s'est opéré en fonction de possibilités internes au basque car le simple calque n'aurait pas conduit à l'usage de ces relateurs qui sont absents dans les langues qui sont supposées avoir servi de modèle.» (ib. 306).

¹² ik. MITXELENAREN oinoharra in VILLASANTE (1979: 88). Egia da, hala ere, bilakaera hori hizkuntza indoeuroparretatik kanpo —hizkuntza finougriarretan, adibidez— hizkuntza indoeuroparren eraginez esplikatu izan dela (ik. LAFON, 1944: 487-488).

anaforikoak ba ote du tokirik ahozko euskaran? Galdera horri sarritan ezezko biribil batez erantzun zaion arren, zubereroaz behintzat halako anaforikoak ahozko hizkuntzan erabiltzen direlakoan gaude. Batetik, hor dago Mitxelena-ren oinoharra¹³, zuberotar batek ahoz halakoak naturaltasun osoz erabiltzen zituela ziurtatzen duena. Bestetik, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoaren* arabera, non eta Zuberoako Eskiulan eta Santa Garazin, «zuñ» anaforikoaz baliatu dira hitzunik erlatibozko esaldiak euskaratzean¹⁴. Dena dela, azken datu hauek ez dute balio —edo ez lukete balio behar— auzia erabakitzeko, galdetzaile anaforikoen auzia ez baita sekula planteatu ahozkoaren mailan, idatziarenean baizik. Hots, ahozko hizkeran bizitza murrizta edo ez hain murrizta izanik ere, beste hau da eztabaidakizuna: zergatik erauzi behar dira hizkuntzaren tradizio idatzitik erlatibozko izenordainak? Eta orduan ahozkoaren inguruko emaitzek ez gintuzkete gehiegi kezkatu behar. Begien bistan dago, dena dela, anaforiko hauek toki gutxi dutela ahozko mintzairan.

Esanak esan, hizkuntza idatziak baditu premia batzuk, ahozkoak ez dituenak eta, hain zuzen ere, idatzizkoaren eremu horretan kokatu nahi izan dute gaurko gramatikari eta idazle zenbaitek «zein» erlatiboaren erabilera eta «berpiztea». Idatziaren barruan, batzuek (Villasante, 1979: 88; Villasante, 1985: 980; Villasante, 1988: 207, 141-154) prosa landuari eta itzulpengintzari lotua ikusten dute baliabide honen erabilgarritasuna, bestelako egitura eta bideak ezertarako itxi gabe. Geu ere, iritzi horretakoak gara: gure ustez ez dago arrazoirik galdetzaile anaforikoei atek ixteko, neurri handi batean bide horri esker ikasi baitu euskal prosak sartaldeko prosaren bide nazioartekoetatik ibiltzen, bide hori aberasgarri eta «homologagarri» gertatu baita euskal proarentzat¹⁵. Baina jakina, bide berriak bere tokia eta bere mugak ditu eta atek ixtea kaltegarritzat jotzen dugun era berean, kaltegarritzat joko genuke erlatibo-mota honi sarbide zabalegia ematea eta itzulpengintzan, adibidez, erdarazko erlatibo guztien ordain bakartzat erabiltzea (ik. Biguri, 1994). Eskuinalderako hedapenak baditu bere alde onak itzulpengintzan¹⁶

¹³ «Mlle. Jauréguiberry, en Bilbao, empleaba en exposición oral, con toda naturalidad, frases relativas con *zuñ*, que tengo anotadas» (VILLASANTE, 1979: 88, 2. oinoharra). Bestalde, zubereroaz sarritan hurrengo hitzez ematen zaio hasiera gutunari: «ükhen dit zure letra, zuñek erraiten beiti. . .» nahiz «ükhen dit zure letra, zuñtan erraiten beitizü. . .» (LAFON, 1966: 222).

¹⁴ «L'homme avec lequel j'ai parlé n'est pas grand comme ton fils» = «El hombre con el que yo he hablado no es tan alto como tu hijo». ESKIULA: «gizuna zuñeki mintzatü beniz eztük hire semia bezañ handi»; SANTA GARAZI: «gizuna zuñeki elhestatü beniz ez düzü handi zure semia bezala».

¹⁵ Villasanteren hitzetan «(...) bada subordinazio sistema bat Mendebaldeko hizkuntza landu guztietan onartua dena eta guk ere behar-beharrezko duguna eta gure idazleek erabili dutena, gainera. Zilegi ote da etxeko ondasuna leihotik kanpora botatzea horren beharrean garenan?» (VILLASANTE, 1985: 980).

¹⁶ Baliabide honek bidea egin badu gure tradizio idatzian, aitortu behar da garapen hori neurri handi batean itzulpenaren ondorioz gauzatu dela.

(besteak beste, kultura-hizkuntzetako esaldi konplexu eta korapilatuak gehiegizko egokitzapenik gabe itzultzeko erraztasuna) eta abantaila horien izenean ez bada ere, baliabide horri etekina ateratzen ikasi behar genuke.

Ekar dezagun hona adibide bat, gorago esandakoaren erakusgarri.

- (1) «También habrán de señalarse de manera suficiente para que sean identificados, los documentos o pericias en que se base el motivo de la revisión de los hechos probados que se aduzca.» (*Ley de Procedimiento Laboral*, 193. art. 3.)
- (1a) «Aipatzen den egitate frogatuen berrikuspenaren zioaren oinarri diren agiri eta peritu-lanak ere adierazi behar izango dira, eurak identifikatzeko behar adina hedapenez.» (*Lan Prozedurako Legea.*)
- (1b) «Era berean, identifikatu ahal izateko moduan adierazi beharko dira **agiriak edo peritu-lanak** (.) zeinetan oinarritzen den egitate frogatuak berrikusteko (aipatutako) zioa.»
- (1c) «Era berean, identifikatu ahal izateko moduan adierazi beharko dira **agiriak edo peritu-lanak**, egitate frogatuak berrikusteko (aipatutako) zioa haietan oinarritzen baita.

Goiko (1a) itzulpenean ezker aldeko hedapena ageri da (-n): erlatibozko perpaus azpimarkatua gramatikala izan daiteke, baina ulertezina da, besteak beste, ezker aldean izenlagun gehiegi (aipatzen den/ egitate frogatuen/ berrikuspenaren/ zioaren/ oinarri diren) pilatu direlako. Goiko (1b) aldaera «zein ... bait/-n» baliabidean oinarritzen da eta funtsean erdal «periodoa» errespetatzen du¹⁷. Hirugarren bertsioa (1c) libreagoa da eta transposizioan oinarritzen da.

Beste batzuetan, erdaraz erlatiboa erabili arren, euskaraz ez dago zertan egitura hori erabili. Hona hemen, adibide batzuk:

- (2) «(Tal como expresaba Wallis en su *Algebra* al describir el teorema binomial de Newton, estas series infinitas o series convergentes) “sugieren la designación de alguna cantidad particular mediante una progresión regular o **sucesión** de cantidades que se aproximen a ella de una manera continua **y que**, si se prolonga infinitamente, debe terminar por ser igual a ella”.»
- (2a) «(Wallisek (bere), *Algebran*, Newtonen teorema binomiala deskribatzean adierazten duenaren arabera, serie infinitu edo serie konbergente hauek, “kantitate berezi baten izendapena iradokitzen dute. Izendatze hori, progresio erregularrez gauzatzen da/gauzatu behar da edo kantitate berezi horretara era jarraian hurbiltzen diren kantitateen segidaz; eta **segida honek**, infinituki luzatzen bada, kantitate horren berdina izan behar du azkenean”.)»

¹⁷ Jakinaren gainean, erlatibo murriztailea itzultzeko erabili dugu «zein... bait/-n» egitura (ik. beheago 7).

- (3) «El primer progreso decisivo lo logró E. Lucas, en 1876, quien creó un método basado en un teorema parecido al de Fermat y que permite comprobar muy rápidamente la primalidad de una cierta clase muy particular de números.»
- (3a) «Lehen aurrerapen garrantzitsua, E. Lucas-ek lortu zuen, 1876an. Honek, Fermat-enaren antzeko teorema batean oinarrituta dagoen eta zenbaki-mota bereziaren primalitatea azkar egiaztatzeko erabil daitekeen metodo bat sortu zuen.»
- (4) «Este resultado es totalmente inesperado y la razón por la que Ic es grande, en tanto que Ib es pequeña, debe ser investigada.»
- (4a) «Emitza hau guztiz ustegabekoa da eta aztertu behar da zergatik Ic den handia eta Ib, aldiz, txikia.»
- (4b) «Emitza hau guztiz ustegabekoa da eta aztertu behar da Ic handia eta Ib, aldiz, txikia izateko arrazoia.»
- (5) «Pero en el caso de los pequeños detalles, la atmósfera, que está siempre en movimiento, lo enturbia todo.»
- (5a) «Baina detaile txikiei behatuz gero, atmosfera, etengabeki higitzen ari baita, dena be(l)zten du.»
- (6) «Y luego hubo que esperar cuatro años a causa del accidente de la lanzadera espacial Challenger, en 1986, que atrasó todo el programa espacial norteamericano.»
- (6a) «Gero lau urtez itxaron behar izan zen, Challenger espazio-jaurtiki-gailuaren 1986ko istripua zela eta, (horrek) atzeratu baitzuen iparmerikako espazio-programa osoa.»
- (7) «Y allí fue donde se desarrollaron los textos pictográficos primitivos empleando símbolos más fáciles para que quedaran linealmente enumerados.»
- (7a) «Eta hantxe garatu ziren testu piktografiko promitiboak, linealki zere-rendatuta gera zitezen ikur errazagoak erabiliz.»

«Prosa landua» aipatu dugu goraxeago eta esapide horrek beharbada nahasteak edo gaizki-ulertuak sor ditzake gure artean. Guk «prosa» terminoari bere zentzurik zabalena eman nahi izan diogu, literaturara mugatu gabe. Eta horrek esan nahi du erlatibo anaforikoen baliabideak literaturan ez ezik —saiakeran, adibidez, eta agian beste zenbait generotan ere bai—, bestelako hizkera-moldeetan ere sarbidea izan dezakeela. Horrela, gure ustez, eskuinalderako hedapena duten euskal erlatiboak guztiz erabilgarriak gertatuko dira, esaterako, hizkera estandar jasoaren mailan (kazetaritzako iritzi-artikuletan), hizkera zientifikoetan, giza eta gizarte-arloko jakintzetako teknolekto berezi batzuetan (zuzenbideko hizkeran, diskurtso filosofikoan...) erregistro jaso-landuen mailan¹⁸ behinik behin.

¹⁸ Hots, gure ustez, hizkera berezietan ere erregistroak edo mailak berezi behar lirateke. Administrazioa hizkeran, adibidez, ez da gauza bera herritar arruntari zuzendutako mezua eta teknikarien artean erabiltzekoak. Zentzu horretan, egitura honenganako errezelo gutxiagorekin bada ere, ados geundeke IVAPen proposamenekin (IVAP, 1994: 137-139) erregistro apalene-

Laburpen/ondorioak

1. Gure ustez ez da zilegi, garbizaletasun sintaktikoaren izenean eta kanpoko etorkiaren aitzakian, gure idazleek mendeetan barrena garatu duten baliabidea baztertu nahi izatea.
2. Baliabide honen tresnatasuna eta baliagarritasuna ukaezina da «prosa landua» garatu nahi duen hizkuntza batentzat: hau da, hizkera (idatzi) jasoan eta hizkera tekniko eta zientifiko batzuetan, erregistro (idatzi) jasoaren mailan, behintzat; eta zer esanik ez, egitura hau are emankorragoa izan daiteke itzulpengintzan.
3. Baliabide honi atek ixtea kaltegarritzat jotzen dugun era berean, kaltegarritzat joko genuke erlatibo-mota honi sarbide zabalegia ematea eta itzulpengintzan, adibidez, erdaretako erlatibo guztien ordain bakartzat erabiltzea.

3. «ZEIN» IZENORDAIN ERLATIBOAREN DEKLINABIDEA

3.1. «Zein» erlatibozkoaren deklinabidea literatura-tradizioan

Lehenengo eta behin, esan beharra dago puntu honetan ez dagoela batasunik literatura-tradizioan. Oro har, esan daiteke hiru eredu ditugula, aro eta euskalkiaren arabera banatuak. Lehenik, XVI eta XVII. mendeetan «deklinabide» mugagabea erabiltzen zuten gure idazle zaharrek (Leizarraga, Materre, Axular, Oihenart...). Hona hemen, adibide gisa, garai horretako paradigaren zati bat:

(8)	<u>MUGAGABEA</u>
(NOR)	ZEIN (sing. = pl.)
(NORK)	ZEINEK (sing. = pl.)
(NORI)	ZEINI (sing. = pl.)
(NOREN)	ZEINEN (sing. = pl.)
(ZEREZ)	ZEINEZ (Lç) / ZEINETZAZ (Ax, Mat) /
(ZERTAN)	ZEINETAN (sing. = pl.)
(ZERTATIK)	ZEINETARIK (sing. = pl.)
...	

tan aritzen gareneko, baina ez geundeke hain ados joera garbizale hori maila jasoetara zabaltzarekin. Bestalde, aipatu lanean ematen diren irizpide batzuk ez dira bat ere seguruak («mimesizko itzulpena jatorra dela? Egin dezagun, bada. Ez duela balio? Orduan esaldia moztu...»); izan ere, «jatortasuna» bezalako kontzeptuak guztiz labankorrek dira esku artean darabilgun auzian: ba ote da «jatortasuna» neurtzeko irizpide objetiborik norberaren aurreiritzi, gustu eta lehentasun linguistikoetatik kanpo?

Ageri denez, garai honetan «zein» hitzak sail mugagabeko kasu-mar-
kak hartzen ditu beti, galdegilearen eta izenordainaren artean bereizketa
formalik egin gabe¹⁹. Hortaz, «zein» erlatiboaren aurrekaria singularra
izan edo plurala izan, forma mugagabea nagusitzen da numeroko komunz-
tadurari kasurik egin gabe²⁰; adibidez:

- (9a) ZEIN = NOR SING.
(..) aita, ZEIN {NOR SING.} baita gauza guzien lehen fundamenta
eta kausa (...) (Lç)
- (9a') ZEIN = NOR PL.
(...) liburu hauk diszerni eta berhez eraziten baitrauzkigu berze libu-
ru eklesiastikoetarik, ZEIN {NOR PL.} probetxable izanagatik, ez-
paitirade ordea halako non (...) (Lç)
- (9b) ZEINEK = NORK SING.
(...) eta irakin hartarik ilkitzen da khe bat, lanbo bat, ZEINEK
{NORK SING.}, poetak dioen bezala, itsutzen baitu adimendua (...).
(Ax)
- (9b') ZEINEK = NORK PL.
(...) ezterauet emaiten berehala, zeren ezpaitira oraiño bethe eta kon-
plitu amorreoek bekhatuak, ZEINEK {NORK PL.} baitadukate herri
hura (Ax)
- (9c) ZEINETZAZ = ZEREZ SING.
(..) bekatu hura ZEINETZAZ {ZEREZ SING.} kutsaturik sortzen
baikara Adam gure lehenbiziko aitaren bekatua dela kausa (...) (Mat)
- (9c') ZEINETZAZ = ZEREZ PL.
(..) halatan egin ditut halakoentzat euskaraz debozinozko othoitz eta
orazino batzuk, goizetan, arratsetan, eta bertze anhitz denboratan eta
okasinotan egin eta erran ahal ditezkeienak, ZEINETZAZ {ZEREZ
PL.} egiten baitut hirugarren parte (...) (Mat)

Mugagabearen aldeko joera orokor honek xvii. mendean bertan baditu
zenbait salbuespen, hala ere. Leizarragak, esaterako, «*zeinagatik*
(sing.)/*zeinakgatik* (pl.)» bereizketa ezartzen du eta Etcheberri Ziburukoa
«*zeña* (sing.)/ *zein* (pl.)» bikoteaz baliatzen da. Baina xvii. mendean, za-
lantza, nahaspila eta gorabehera askorekin bada ere, S. Pouvreau da deklin-
nabide mugatuaren aurrekari nagusia²¹. xvii. mendearen bigarren zatian

¹⁹ Izenordain erlatiboan numero-komunztadurarik egiten ez bada ere, ohar gaitzen adiz-
kiak numero-komunztadura gordetzen duela aitzindariarekin. Beraz honelako perpausak zu-
zentzekoak dira?

(...) dena den, manamendu desberdinetan erreferentziak daude, zeinek erakunde-mota hori-
en kompetentziak ere paraleloan definitzeko bidea ematen *duen (→ duten).

²⁰ Ez da gauza bera gertatzen aditzean ordea; izan ere, izenordaina «kasu gramatikal» dei-
tuetariko batez (*zein*, *zeinek*, *zeini*) hornituta badago, singular/plural bereizketa aditzaren bidez
egiten da: *zein baita/zein baitira*; *zeinek itsutzen baitu/zeinek baitadukate*...

²¹ Pouvreauren idazlanetan sistema zaharra (mugagabea) eta berria (mugatu), biak aurki-
tzen dira nahastekatuta.

deklinabide mugatuaren ildotik doazen ale solte batzuk agertzen dira: *zeina* (Arg), *zeñnaril/zeinei* (INav), *zeinaren* (Mong)...

XVIII. mendean Etcheberri Sarakoa da sistema berria finkatzen duena eta harrezkero XVIII. eta XIX. mendeetan²² «zein» izenordain erlatiboaren deklinabide mugatua gailentzen da lapurterazko literatura klasikoan²³. «Singular/plural» bereizketa bilatzen da, honelakoxe paradigmaren bidez:

(10)

	<u>MUGATUA (sing./pl.)</u>	
(NOR)	ZEINA	/ ZEINAK
(NORK)	ZEINAK	/ ZEINEK
(NORI)	ZEINARI	/ ZEINEI
(NOREN)	ZEINAREN	/ ZEINEN
(NOREKIN)	ZEINAREKIN	/ ZEINEKIN
(NORENTZAT)	ZEINARENTZAT	/ ZEINENTZAT
...		

	MUGAGABEA (sing. = pl.)	
(ZERTAN)	ZEIN(E)TAN	
(ZERTATIK)	ZEIN(E)TARIK	
(ZERTARAT)	ZEIN(E)TARAT	
(ZERTAKO)	ZEIN(E)TAKO	
...		

Ikus daitekeenez, «zein» erlatiboak iparraldeko literaturan sail mugatuko kasu-atzizkiak hartzen ditu XVIII. mendetik aurrera (Etcheberri Sarakoa, Monho, Haraneder, Larreguy, Baratciart, Duhalde, *JesBih*, *MarII*, Jauretche, Hiribarren, Duvoisin, *ECocin*, Elissamburu, Arbelbide [BN]...). Dena den, joera orokor hori ez da hedatzen kasu-marka guztietara; izan ere, goiko paradigmaren markatu denez, leku-denborazko kasuetan (*non*, *nondik*, *nora*, *nongo*...) deklinabide mugagabeari eusten diote idazle lapurtarrek²⁴. Hots, ez gure *corpusean*, ezta *Orotariko Euskal Hiztegiarenean* ez da ageri «zeinean, zeinera, zeinetik, zeineko...» tankerakorik. Ho-

²² ITHURRIK (1895: 20), esaterako, deklinabide mugatuaren aukera egiten du («Ce pronom [rélatif], soit au singulier, soit au pluriel, se décline sur la déclinaison définie des noms communs»), Leizarraga eta Axularren bidea baztertuz.

²³ Azpimarkatzekoa da, hala ere, tradizio horretatik kanpo dabilzan ekialdeko idazlanetan mugagabeari eusten diotela. Hala gertatzen da, adibidez, hurrengoetan: LIZARRAGA ELKANOKOA (*zeñen*, *zeintako*, *zeintan*), CatB (*zein*), CATLUZ (*zein*, *zeini*), CatAe (*zeini*, *zeineki*), Legaz (*zein*).

²⁴ Instrumentalarekin ere gorabeherak daude: idazle batzuek (Jauretche) deklinabide mugatua (*zeinaz/zeinez*) erabiltzen dute eta beste batzuek (BARATCIART, *MarII*), aldiz, mugagabea (*zeinetaz*).

rrela, oro har, «zeina/zeinak, zeinak/zeinek, zeinaren/zeinen...» oposizioa gordetzen duten idazlanetan honelakoak aurkituko ditugu:

- (10a) (MarIl). ZEINTAN = ZERTAN SING.
 (...) ez da lengoaja bat ZEINTAN xingleago eta naturalago ezar baititeke nola gurean (...) (MarIl)
- (10a') (MarIl). ZEINTAN = ZERTAN PL.
 (...) bainan aithortzen dut, urthe bat baino gutiagoz, konbertsione gehiago egin izan zela ene herrian, ezen ez, aintzineko hogoi eta hamar urthetan, ZEINTAN ez bainuen pederikatzen ahal bezen pederiku eder eta aphaindurik baizen (...) (MarIl)
- (10b) Duhalde: ZEINETARAT = ZERTARAT SING.
 (...) hortik ere liburu sakratuak mintzo zaiku seinduen zorion hartaz, bazkari batez bezala, ZEINETARAT gonbidatuak direnek (...); eztei batzuz bezala, ZEINETAN sentsu bakhotxa dagokon atseginaz gaindi baitago (...) (Dh)
- (10b') Duhalde: ZEINETARAT = ZERTARAT PL.
 (...) horra bi mugak, ZEINETARAT baitaramate mundu huntan atxikitzen diren bi bidek; (...) (Dh)
- (10c) Jauretche: ZEINTARIK = ZERTATIK SING.
 (...) gauza gutia daiteke, bainan gauza guti harrek ereman gaitzazke handiago batetara, ZEINTARIK baidoha (...)
- (10c') Jauretche: ZEINTARIK = ZERTATIK PL.
 (...) eta kontsidera ditzagun haren zauri sakratuak ithurri abundant batzu bezala, ZEINTARIK atherako baitire (...)

Geroago, XIX. mendean, hirugarren eredu sortu zen mendebaldeko literaturadun euskalkietan, hau da, bizkaieraz (J.A. Moguel, Añibarro, Vicenta Moguel, Astarloa, F. Bartolome, J.J.Moguel, Uriarte, E. Azkue, Iturzaeta, Arrese) eta gipuzkeraz (Iztueta, Lardizabal). Eredu berri honek badu zerbait aurreko bietatik: alde batetik, lapurtar idazle klasikoek (Ax, Lç...) forma mugagabea hartzen dute singularrerako²⁵; beste alde batetik, pluralgiledun (*zeintzu(e)k*) sail berria —mugatu plurala— erabiltzen dute pluralerako. Gure *corpusearen* arabera, sistema honen lehen lekukoa *GavS* (1762) da (*zeintzuek* = nork pl.), baina XIX. mendera arte itxaron behar da sistema berria finkatuta ikusteko. Hona hemen, paradigma berriak:

(11)

MUGAGABEA (sing.) / MUGATUA (pl.)

(NOR)	ZEIN	/ ZEINTZU(E)K (ZEINTSUBAK)
(NORK)	ZEINEK	/ ZEINTZU(B)EK (ZEINTSUBAK)

²⁵ BEOVIDEK (*AsL*), hala ere, lapurterazko eredu berriari jarraitu bide dio; gure corpusean, singularrekoak diren honako bi forma hauek idoro ditugu: *zeina* (nor sing.), *zeinaren* (noren sing.).

(NORI)	ZEIN(ER)I	/ ZEINTZU(B)EI
(NOREN)	ZEINEN	/ ZEINTZU(B)E(E)N
(NOREKIN)	ZEINEGAZ	/ ZEINTZU(B)EKAZ=ZEINTZU(B)EKIN
(NORENTZAT)	ZEINENTZAT	/ ...
(NORENGATIK)	ZEINGAITIK	/ ...
...		
(ZERTAN)	ZEINETAN	/ ZEINTZU(B)ETAN
(ZERTATIK)	ZEINETARIK	/ ZEINTZU(B)ETATIK
(ZERTARA)	ZEINETARA	/ ZEINTZU(B)ETARA
...		

Hau da, edozein kasutan, iparraldeko tradizio berriko idazleen ildotik, «singularra/plurala» bereizketari eusten diote mendebaldekoek: haiek «zein/zeinak» bikotearen bidez, hauek «zein/zeintzu(e)k» aurkakotasun formala dela medio. Baina hirugarren aro honetan beste urrats bat ematen da: singular eta pluralaren arteko bereizketa —(10)ean ez bezala— kasu guztietara zabaltzen da, hots, baita leku-denborazko kasuetara ere.

Laburpen/ondorioak

Labur bilduz, garaiaren eta euskalkiaren araberrako hiru eredu nabaritzen dira «zein» erlatibozkoaren deklinabidean:

1. eredu zaharra (XVI, XVII), balio anaforikodun galdegileari —galdegile hutsari bezalaxe— sail mugagabeko atzizkiak gehitzen dizkiona.
2. XVIII eta XIX. mendeetako lapurterazko idazleena, leku-denborazko kasuetan izan ezik, anaforikoa deklinabide mugatuaren arabera (*zeina* = *sing./zeinak* = pl. etab.) jokarazi duena.
3. XIX. mendeko bizkaierazko eta gipuzkerazko idazleena, «zein = *sing. / zeintzu(e)k*» bikotea dela medio, aurrekoen joera leku-denborazkoen sailera zabaldu duena.

3.2. «Zein» erlatibozkoaren deklinabidea gaurko euskaran

Jakina, gu ez gara nor gaurko euskaran zer bultzatu behar den eta zer bazter daitekeen erabakitzen hasteko. Dena den, deklinabidearen kontu honi buruz zenbait gogoeta plazaratzen ausartuko gara.

Ikusi dugun bezala, funtsean hiru aukera daude literatura-tradizioaren arabera, goiko 3.1. ataleko (8), (10) eta (11) paradigmetan erakutsitakoak, hain zuzen ere.

Euskara estandarrari begira, gehienbat bizkaierazko tradizioko sistema erakusten duen (11)ko aukera (*zein/zeintzuk*) markatutzat jo daiteke agian, tradizio jakin eta mugatu bati lotua agertzen delako (ik. *Euskaltzaindiaren*

Arauk, 11. araua). Formaren aldetik, dena dela, honelakoxe paradigmak lirateke gomendagarriak aukera honen barruan²⁶:

(11')

<u>ZEIN</u> (mugagabea)	<u>ZEINTZUK</u> («nortzuk» bezala)
zein	zeintzuk
zeinek	zeintzuek
zeini	zeintzuei
zeinen	zeintzuen
zeinengan	zeintzuengan
zeinengana	zeintzuengana
zeinengandik	zeintzuengandik
zeinekin	zeintzuekin
zeinez??	zeintzuez
zeinentzat	zeintzuentzat
zeinetan	zeintzuetan
zeinetako	zeintzuetako
zeinetara	zeintzuetara
zeinetatik	zeintzuetatik

Gauzak horrela, beharbada, (8)_[zein mugagabea] eta (10)_[zein/zeinak] izan daitezke aukera orokorrakoak euskara baturako. Bi hauen artean aukera egitea ez da egiteko erraza. Dena den, gogoan izan beharko genuke mugagabearen aldeko apostua (Villasante, 1979: 91-92), nolabait esateko, gutxiengoa osatzen duten idazle klasikoen eredu zaharrenarekin (Leizarraga eta Axular nagusiki) bat datorrena dela. Beste aukera, (10)_[zein/zeinak], tradizio hurbilen eta zabalarenekin bat datorrena da. Edozelan ere, azken aukeraren alde makurtuz gero, leku-denborazko kasuetan mugagabearen aldeko neutralizazioa dagoela (*zeinetan*, *zeinetako*, *zeinetatik*, *zeinetara*) gogoratu behar genuke, «zeinean, zeineko, zeinetik, zeinera» tankerakorik ez baita inon ageri. Hona hemen, bide kontrajarriak gaurko euskara baturan:

(8') MUGAGABEA	(10') MUGATUA (SING./PLUR.)
zein	zein / zeinak
zeinek	zeinak / zeinek
zeini	zeinari / zeinei
zeinen	zeinaren / zeinen
(zeinen baitan...)	(zeinaren baitan...) / zeinen baitan)
(zeinengan...)	(zeinarenengan...) / (zeinengan...)
zeinez, zeinetzaz?	zeinaz / zeinez

²⁶ Atzizkibide hau hartuz gero, aditz jokatuan «-n» menderagailua erabiltzea litzateke mendebaldeko tradizioarekin bat datorren hautua, jakina.

zeinekin	zeinarekin	/ zeinekin
zeinentzat	zeinarentzat	/ zeinentzat
zeinetan	zeinetan	
zeinetako	zeinetako	
zeinetara	zeinetara	
zeinetatik (zeinetarik)	zeinetatik (zeinetarik)	

Orain artekoan, literatura-tradizioak zilegitzen dituen aukerak agerian jartzen saiatu gara eta ez genuke aurrerago jo nahi geure gustuak edo lehentasunak eztabaidatzeko. Bego hortxe, beraz, deklinabideen inguruko auzia, ez baikenuke geure gain hartu nahi besteri —Euskaltzaindiari— dagokion erabakia.

Laburpen/ondorioak

1. Euskaltzaindiak erabakirik hartzen ez duen bitartean, uste dugu goiko hiru bideak (11', 8', 10') zabalik daudela eta bata bestea bezain zilegi dela gaurko prosa landurako.
2. Hiru eruedetatik (11') dialektalki markatutzat jo daiteke; eta beste bien artean (10') da tradizio berrien eta zabalenaekin bat datorrena.
3. Hori bai, egiten dugun aukera egiten dugula, beti ere koherentzia bilatu beharko genuke; alegia, gure ustetan, ez litzateke bat ere txukuna izango sistema bateko eta besteko formak era nahasian erabiltzea.

4. MENDERAGAILUA

Erlatibo-egitura honi gagozkiolarik aztertu beharreko beste osagai bat, menderakuntza-marka da. Bi marka dira nagusi husturiko corpusean: *bait-* eta *-n*. Eta bataren edo bestearen erabileran, nabari da, bete-betean, euskalki-banaketa garbia. Horrela, *bait-* menderagailua, iparraldeko euskalkietan (lapurtera, benafarrera, zuberera [*beit-*]) eta hegoekialdekoetan (goinafarrera, Baztan, aezkera [*beit-*], zaraitzua, erronkaria [*bai-*]) erabiltzen da batik bat. *-n* menderagailuaren erabilerak, ostera, hegomendebaldeko herrialdeak hartzen ditu bere barruan, Bizkaia eta Gipuzkoa alegia²⁷.

²⁷ *Bait-* menderagailu honen hasierako hedapen dialektalaz, *Orotariko Euskal Hiztegiak* badakarkigu argibide bat, oso jakingarria: «No es esto lo que ocurría, sin embargo, en el s. XVI, al menos en fórmulas fijadas en su literalidad (...), hacen pensar que hubo de ser general, habiéndose perdido casi por completo en vizcaino y gipuzcoano, mientras que sus funciones se han desarrollado enormemente en los dialectos septentrionales./ Con todo, se han introducido en los dialectos literarios guipuzcoano y, modernamente, vizcaíno. (...) (*bait* sarrera, 703 or.)»

Gaur egungo erabileraz den bezainbatean, bi menderakuntza-marka horietaz baliatzen gara egun ere euskara estandarrean, ikasleen lanetatik ateratako ondoko adibideetan ikus daitekeenez:

-n

(...) laser-izpi berezia, zeinaren bidez airearen edukina aztertzen dugun, (...)

bait-

(...) eta burmuinerantz bidaltzen ditu, zeina gure ikusmen-mundua sortzeaz arduratzen baita.

Bukatzeko, eta darabilgun aztergaiari zuzen-zuzen ez dagokion arren, gogoratu behar da *bait-* menderagailua adizkiari erantsi behar zaiola, hau da, ez dela lokabe joan behar, dagokion aldaketa morfofonologikoaz baizik.

Laburpen/ondorioak

1. Gisa honetako erlatibo-esaldien eraiketakarako, batez ere, bi menderagailuz baliatu eta baliatzen dira idazleak: *bait-* eta *-n*. Eta bata edo bestea erabiltzeko ez dago arrazoi gramatikalik, euskalki-banaketa soila baizik.

ERRAKUNTZAK:

- a) menderagailurik ez erabiltzea.
- b) menderagailu biak erabiltzea.

5. ORDENA LITERATURA-TRADIZIOAN

5.1. Barne-ordena

Ataltxo honetan, erlatibo-esaldiaren barruko ordena dugu aztergai. Baina ez dugu aztertuko osagai bakoitzak bere funtzioaren arabera ageri duen ordena (SVO edo SOV), adizki soilaren ordena baizik. Azterketa honetarako, *zein* izenordaina erabiliko dugu erreferentzia-gune modura.

5.1.1. BAIEZKO ESALDIETAN

Hiru ordena bereizi ditugu, eta *1 ordena*, *2 ordena* eta *3 ordena* izena eman diegu, hurrenez hurren.

1 ORDENA = *zein* + *adizkia*+ *gainerako osagaiak*

(...) kontritioneaz bertze dolore molde bat, parabisurako loriaren galtzeko, edo ifernuko penetara ioaiteko beldurtasunetik heldu dena, *zein* deitzen baita: Atritio, Atrizioea. (Ax)

2 ORDENA = *zein* + *gainerako osagaiak*+ *adizkia*

(...) hura da kristino guztiek egiten duten fedearen konfesioean: *zein* komunzki apostuluaren sinboloa deitzen baita (Lç, Ins)

3 ORDENA = *zein* + *osagaiak*+ *adizkia*+ *osagaiak*

(...) orain aiphatzera daramatzadan bi mezu hauk, *zeinak* gizonaren ongi bizitzeko baitira hagitz progotxosak (...) (ES)

Tradizioan hiru ordenak (1, 2 eta 3) agertzen diren arren, 1 ordenak du maiztasun altuena²⁸, gure azterketaren emaitzek agerian uzten dutenez:

Emaitza orokorrak:

1 ORDENA:	500 esaldi	%58
2 ORDENA:	168 esaldi	%20
3 ORDENA:	191 esaldi	%22

Bestetik, jasotako adibideen argira, esan behar da menderagailu batarren edo bestearen erabilerak ez duela eraginik ordenaren aukeran; izan ere, *-n* menderagailudun esaldiak nahiz *bait-* menderagailudunak atzeman daitezke, esaterako, 1 ordenan:

(...) kristiñau doktriniaren bigarren partia, zeinetan espliketan dan zer eskatu biar dan; (...) (CatLlo)

(...) esperantza da berthute bat zeinek emaiten baiterauku fidanzia handi bat (...) (Mat)

Berdin esan daiteke adizkiaren izaeraz, hau da, adizkia sintetikoa edo perifrastikoa izateaz, adizkia sail batekoa edo bestekoa izateak ez baitakar ordena berezirik.

Laburpen/ondorioa

1. Tradizioaren arabera, baiezko esaldietan goiko hiru ordenak (1, 2, 3) erabil daitezke, 1 ordenak askoz ere maiztasun handiagoa ageri du baina.

²⁸ Esan behar da esaldi-talde jakin bat, *zein(a)* + (*bait-*)*izan (-n)* egiturako esaldi kopulati-boei dagokiena hain zuzen, ia ehuneko ehunean agertzen dela 1 ordenan:

(...), zeren guztiek egiten dute gorpuz bat, *zein* baita eliza (...). (CatB)

5.1.2. EZEZKO ESALDIETAN

5.1.2.1. *Aditz laguntzailearen ordena*

Bi dira aztertzeko aukerak:

- a) *ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia.*
- b) *aditz nagusia + ez + aditz laguntzailea.*

Erabili dugun corpusean, 55 ezezko esaldi jaso ditugu, euskalki guztietakoak; eta batean ere ez dugu aurkitu b ordena (*aditz nagusia + ez + aditz laguntzailea*), lehenengo ordena (*ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia*) nagusi izanik. Honekin ez dugu esan nahi beste ordena hori gaizki dagoenik, ezta ere erabiltzen duen idazlerik ez dagoenik. Baina gure corpuserako hustu ditugun testuetan idazleek ez dute erabili, eta, beraz, zalantzakotzat jo behar dugu²⁹.

Laburpen/ondorioak

1. Tradizioaren arabera, hauxe da joera nagusia:

ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia

5.1.2.2. *Adizkiaren ordena*

Adizkiak ezezko esaldietan izenordainari buruz hartzen duen ordenari dagokionez, baiezko esaldietarako erabili ditugun adizkiaren hiru kokapen berberak bereizi ditugu: *1 ordena*, adizkia izenordainaren atzean bertan ageri da; *2 ordena*, adizkia esaldiaren bukaeran dago, eta *3 ordena*, adizkiak tarteko kokagunea hartzen du.

Hiru balizko kokagune horietatik, 2 ordena ez dugu esaldi bakar batean ere aurkitu; eta beste bi ordenek (1 eta 3), maiztasun-alde oso nabarmena ageri dute elkarren artean. Hauexek dira gure emaitzak:

1 ORDENA:	%80
2 ORDENA:	%0
3 ORDENA:	%20

²⁹ Gure corpusaren miaketan emaitza hori izan den arren, VISALLANTEK (1979) dakarkigun adibide batean argi eta garbi ikus daiteke hizpide dugun ordena hori:

Munduko etxe oni goiti ifini utsan... egunerako eguzkia, zein sei milla urte oneetan beinbere urten baga egon ezta (ANIBARRO: 1877, Curutze santiaren...)

Bestetik, esaldi honetan orobat nabarmentzekoa da menderagailurik eza.

Aukera horretan, baiezkoetan bezala, adizkiaren izaerak ez du eragirik.

1 ORDENA

(perpaus nagusia + zein + **ez** + **adizki sintetikoa/aditz laguntzailea**)

a. sintetikoa

(...) asko ezagutu dituzte ni baino gazteagoak, nik bezain luzeki bizitzeko iduri ederra zutenak, eta zeinak **ezpaitire** orain munduan. (Dh)

b. perifrastikoa

(...); manatu zituen bere azpikoak amarratzeaz gizon haren eskuak eta oinak, eta haren artikitzeaz leze beltz batetara, zeinetan **ez baida entzuten** nigar-marraskarik eta hotz kharraxkarik baizen. (Lg)

2 ORDENA

(perpaus nagusia + zein + **aditz nagusia** + **ez** + aditz laguntzailea)

Adibiderik ez.

3 ORDENA

(perpaus nagusia + zeina + osagarriak + **ez** + **adizki sintetiko/aditz laguntzailea** + osagarriak + aditz nagusia)

a. sintetikoa

(...) izate bat guziz handia ta majestatez bethea, zeinaren aldean munduko goratasun, handitasun, distiradura guziak **ez paitira** herrautsik eta itxurapenik baizen (...) (Dh)

b. perifrastikoa

(...) sekulako berezitzea, zeinaren ondoan bi konpainia eta biltzarrehek **ezpaitira** sekulan elkharrekin geiago **kausituko**. (SP, *Phil*)

Laburpen/ondorioak

1. Ez baiezko esaldian ez ezezkoan ez dago ageriko faktore sintaktikorik ez morfologikorik ordena bat bai baina bestea ez hartzea baldintzatzen duenik.
2. Beharbada, aditzaren kokatzeko aukera hori lotuta dago esaldiaren hitzordenari edo galdegaiari.
3. Maiztasunaren aldetik azpimarkatzekoa da 1 ordenaren nagusitasuna (1 = perpaus nagusia + zein + **ez** + adizki sintetiko/aditz laguntzailea).

5.1.3. GAURKO USTE OKERRA

Esan behar da joera ezberdinak -are alderantzizkoak ere- somatzen direla autore klasikoen eta gaur egungo idazleen artean gai honi buruz. Autore klasikoen artean 1 ordena da nagusi; gaur egun, ostera, batez ere bigarren ordenaz baliatzeko joera igertzen da, tradizioa ondo ezagutzen ez dutenen artean batik bat. Joera horren atzean uste okerra egon daiteke, eta da pentsatzea erlatibo-esaldi hauetan menderagailua (eta, beraz, adizkia ere) nahitaez bukaeran ipini beharra dagoela. Hona hemen pare bat adibide:

- Hala ere, arau honek ordezkaritza nagusiko erakunde sindikal eta enpresariari erreserbatzen die «lanbidearteko akordioak» negoziatzeko legimititatea, zeintzuek bai nazio mailan eta bai elkarte autonomo baten mailan negoziazio kolektiboaren egitura ezartzen duten.
- Askatasun sindikalaren erregulazioa Konstituzio aurreko garaian hasi zen, trantsizio politikoaren prozesu paralelo batean, zeinen arauko urrats nagusiak (...) 31/1977 Errege Dekretu Legea, ekainaren 2koa, sindikatu bertikalean obligazioz afiliaturik egon beharra kendu zuena (...); 3.149/1977 Errege Dekretua, abenduaren 6koa, organizazio korporatibo hori ezabatu zuena; (...) izan baitziren.

Laburpen/ondorioa

1. Uste okerra da pentsatzea erlatibo-esaldi hauetan menderagailua (eta, beraz, adizkia ere) nahitaez bukaeran ipini beharra dagoela.

5.2. Kanpo-ordena

Azpiatal honetan, erlatibo-esaldiak esaldi nagusian hartzen duen kokapena dugu aztergai. Arterketa honetarako, esaldi nagusiaren adizkia erabili dugu erreferentzia-gune modura, eta bi kokapen bereizi ditugu: adizkiaren aurrekoa («erlatibo-esaldia + perpaus nagusiko adizkia») eta adizkiaren atzekoa («perpaus nagusiko adizkia + erlatibo-esaldia»).

Bigarren ordenari dagokionez («perpaus nagusiko adizkia + erlatibo-esaldia»), esan daiteke ordena nagusia dela, izan ere, ordena horretan aurki daitezke esaldirik gehienak, bai eta erlatibo-esaldia mendeko esaldiari dagokionean ere.

Azterketa hau are xehekiago egitearren, erlatibo-esaldiak adizkiaren atzean hartzen duen gunea aztertu dugu. Eta azterketa horretatik ikusi dugunaren arabera, erlatibo-esaldiak, oro har, esaldi nagusiaren azken-azkeneko gunean ageri dira, adizkiaren atzeko gune horretan dagokeen beste

edozein osagairen atzean. Hots, idazleek jotzen dute erlatibo-esaldia azken gunera eramatera, hurrengo adibideetan ikus daitekeenez:

«...perpaus nagusiko aditza + **osagarriak** + **erlatiboa**»

(...) landareek hostoetarik eta erroetarik edaten dute airearen gozoa; aireak ematen diote **hazkurari bat zeina** gabe hil bailitazke]. (Dv, *Lab*)

(...), ofritzen darozkitzut aphezaren eskuz, egiazko jainko bizi eta eternala, **ogi hori eta ardo hori, zeinak** izan behar baitute ganbiatuak zure seme Jesu Kristoren gorphutzerat eta odolera. (Brct)³⁰

Bestetik, goraxeago esana denez, «perpaus nagusiko adizkia + osagarriak + erlatiboa» ordena nagusi den arren, ez da bakarra arakatu dugun corpusean, bada «erlatiboa (+osagarriak) + perpaus nagusiko adizkia» ordena ere aurkitu dugu, maiztasun txikiagoan hala ere. Gure corpusean bitariko esaldiak aurkitu ditugu adizkiaren aurreko kokapen horretan. Batzuetan, erlatibo-esaldia adizkiaren aurre-aurrean ageri da; beste batzuetan, ostera, adizkitik (esaldi nagusiko adizkitik, noski) urrunago ageri da.

Hona adibide batzuk:

a. «aurrekaria + **erlatiboa** + **perpaus nagusiko adizkia**»

(...) baina jainkoak, zeina bethi atzarria baitago bere elizaren gainean, sustatu zuen gizon bat eta jauntzi apostoluen izpirituz. (*MarII*)

(...) Goragoko VIII, IX eta X numeroetan aipatuak diren indulientziak, zeinentzat bisitatu behar beita konfrarioko eliza, irabaz daitezke, non nahi, aita sailduak, bethikotz, egin duen grazia baten ariaz, (...) (*JesBih*)

b. «aurrekaria + **erlatiboa** + osagarriak + **perpaus nagusiko adizkia**»

(...) baina Iesus iauna, zein baita bere aitaren substantziatik eternalki enjendratua, eta haren esentzia bereko, zuzen onez seme bakhoitza deitzen da, ezen ezta (...) (*Lç, Ins.*)

(...) konsiderazione haukin ondoan, zeinek dakusazun bezala, nahiz bezanbat afekzione onik emaiten baitute, zure orazionea sinpleki serratu behar duzu iankoari eskerrak emaiten diotzatuzula, (...) (SP, *Phil*)

³⁰ Guztiarekin ere, orobat aurki daitezke erlatibo-esaldia azken-azken gunean ez duten adibideak. Horrelakoetan, esaldi nagusiari dagokion mendeko esaldiren batek hartzen du kokagune hori:

(...) gure salbatzailleak ordenatu du eukaristia guziz sailduaren guzian gaineko sakramendu hura, zeinak baitaduka egiazki haren haragia eta odola, arren hura iaten duena sekulakotz bizi dadin (SP. *Phil*)

Laburpen/ondorioak

1. Maiztasunaren aldetik, «perpaus nagusiko aditza + osagarriak + erlatiboa» da ordena nagusia.
2. Perpaus nagusiko adizkiaren aurreko ordenan (erlatiboa (+osagarriak) + perpaus nagusiko adizkia) oso erlatibo-esaldi gutxi aurkitu ditugu.

6. AURREKARIA

Aurrekaria da erlatibo-esaldiak osatzen edo konplementatzen duen esagaia; esaterako, azken adibidean *konsiderazione* dugu aurrekari, berari baitagokio erlatibo-esaldia.

6.1. Aurrekariaren ordena

Aurrekariari buruz, bi aztergai darabilgu: batetik, erlatiboa txertatuta dagoen esaldian aurrekariak hartzen duen tokia eta, bestetik, aurrekariaren eta erlatibo-esaldiaren arteko distantzia.

Ataltxo honen barruan bitariko azterketak egin ditugu, jakiteko erlatibo-esaldia esaldi nagusiari edo mendekoari egokitzeak eraginik ba ote duen aurrekariaren kokapenean.

6.1.1. ERLATIBO-ESALDIA ESALDI NAGUSIARI DAGOKIO

Honi buruz esan behar da aurrekariaren kokapena oso lotuta dagoela erlatibo-esaldiak hartzen duen lekuari. Ematen du erlatibo-esaldiak berekin daramala aurrekaria bukaeralderantz, bada, corpuseko esaldirik gehienetan ageri da aurrekaria adizkiaren atzean kokatuta. Eta joera hori kasu banaka batzuetan bakarrik hausten da, hala nola, erlatibo-esaldiak adizkiaren aurreko kokagunea hartzen duenean edo aurrekariaren eta erlatiboaren artean adizkia ageri denean. Adizkiaren atzean kokatze hori, esaldi kopulatibo zein predikatiboetan aurkitzen da.

a. Aditz kopulatiboa + aurrekaria (atributua) + erlatiboa

(...) gurutzera da eskola saindu bat zeinetan har baidetzakegu lekzionerik salbagarrienak (Lg)

(...); andria, bitxi, ta jantzi arro orreek dira lazuz batzuk, zeintzubenkin diabruak ostuten deutzazan arimak Jesusi. (JJMg, *BasEsc*)

b. Aditza + aurrekaria + erlatiboa

(...) esaterako: ilten dozu gizon ezkondu bat, zeinek bere biar, edo irabaziaz emoten eutsen bere emazte, eta semeari biar eben guztija; (...) (Astar)

(...) Noeren barka hura gelditu zen Armeniako mendi baten gainean, zeina deitzen omen baita Baris, eta (...) (ES)

Halaber, aurrekaria aditzaren atzera eramate hori ikus daiteke subjektua eginkizun horretan dugunean ere, ondoko adibideetan ageri den bezala:

c. Aditza + aurrekaria (subjektua) + erlatiboa

(...) Jeroboam intsentsu erre-arazten hari zen ordu berean, hurbildu zitzaion jainkozko gizon bat, Judako herritik heldu zena, zeina hasi baitzen, oihuz, erraten (...) (Lg)

(...) purgatorio handi eta sendagarri bat du gizon pazienzitsuak, zeinak bidegabeztatua denean damu geiago baitu bertzeren maliziaz bere etsekabez baino: (...) (SP, *Imit*)

d. Bestelako ordenak: Aurrekaria + Aditza + erlatiboa

Aurrekaria adizkiaren atzean kokatze horretaz gain, zeina joera nagusia baita, orobat aurkitu ditugu corpusean aurrekariaren eta erlatibo-esaldiaren artean adizkia ageri duten esaldiak; aurrekoen aldean askoz ere maiztasun baxuagoan daude baina.

Aurrekaria + aditza + (osagarriak) + erlatiboa

(...) egun bat ethorriko da zeinetan ezagutuko baitugu jainkoa dela bakharra (...) (Lg)

(...) onek bere seme eta ondorengo asko ezagutu zituen, zeintzuek amabi etxe edo familiaetan, nor bere buruarekin jarririk, lur-bazter andiak landu eta erabiliaz, bizi izaten ziran; (...) (Lard)

Laburpen/ondorioak

1. Halako joera somatzen da erlatibo-esaldiak berekin eramateko aurrekaria bukaeralderantz; adizkiaren atzean kokatuta ageri da aurrekaria esaldirik gehienetan.
2. Goiko joera nagusia den arren, badira aurrekaria adizkiaren aurrean ageri duten esaldiak, maiztasun txikiagoan hala ere.

6.1.2. ERLATIBO-ESALDIA MENDEKO ESALDIARI DAGOKIO

Aurrekoetan ez bezala, aurrekaria mendeko esaldiko osagai denean, ez da igertzen joera nagusirik aurrekariaren kokapenean, aurrekaria adizkiaren aurrean zein atzean aurki daiteke eta.

(...) hortik heldu da hainintz kongregazionetan ezarria den usantza guziz laudagarria, **lephotik eralbiltzeko medaila xume bat, zeintan** aurkhitzen baitire jainkoaren amarentzat hain lorios diren hitz hauk: (...) (*MarII*)

(...) bi oien esan-alak ezer etziran, **beste amarrai arpegi emateko, zeintzuek** deadar egiten zuten (...) (Lard)

(...) Piarresek hitztorio hau akhabatu zuen **heldzen ginelarik gure ahaiden** artera, **zeinak** gure begira baitzauden mahainean yartzeko. (Elzb, *PAd*)

(...) **buru bakhoitz baten azpiko diradelarik, zein** baita Iesus Krist iauna ipizpiku subirano, eta unibersal bakhoitza (Lç, *Ins*)

(...) **beldurra sartuaz gure animako etsaiari, zeintzuek** eragotzi nai diguten ebiltea zeruko bidetik (Mg, *CC*)

(...) bada sainduki eta iainkoaren beldurrean bizitzeko grazia fedez rezebitzen dugu, **ebanjelioaz emaiten zaikun promesa rezebituz, zein** baita ezen iainkoak emanen draukula bere spiritu saindua. (Lç, *Ins*)

(...); baña **balitz** garizuman, **zeinetan** ezin egon leitekian lexibia egin бага, orduban agindu leiyo (...). (Astar)

(...) **aparteko errazoe pisutsu bat agertuten ez bada, edo jazoten ez bada** ezkongeijen artian, **zeinek** eragotzi legijan jakitunen eiritxijan, berba emonari kobru emotia. (fB, *Ic*)

Nolabaiteko joera somatzen da, ordea, mendeko esaldien mota jakin batzuetan aurrekaria aurrean edo atzean ipintzerakoan.

a. Adizkiaren atzeko kokapena



[menpeko perpausa] + aurrekaria + erlatiboa

1. Mendeko esaldia konpletiboa denean, aurrekari den osagaia adizkiaren atzean kokatuta ageri da gehienez. Hona hemen zenbait adibide:

(...) Jesusek erran zioten bere hirur dizipuluei ordu zela yaikitze eta hari yarraikitze; ethorria **zela oreña zeinetan gizonaren semeak utziko baitzuen** (...) (Lg)

(...) jadanik erran dugu maihatzaren lehenean, eta ilhabethe berean bertze bi egunez, phartitzen **direla maximak zeinetan markatuak baitire berthutezko akta diferentak**, (...) (*MarII*)

(...) arrekertzen zaitut **ikus dezadan gurutze sakratu hura, zeinaren gainean zure seme dibinoak ixuri baitu bere odola ene salbatzekotzat** (*MarII*)

(...) nahi izan du ilhabethe hau osoa izan zadin ilhabethe pribiatu bat, zeintan tresor izpiritualak egonen baitziren idekiak Mariaren zerbizari lejalen fagoretan.(*MarII*)

Zer esanik ez, arakaturiko esaldietan, aurrekaria aditz konpletiboaren aurrean duten esaldiak ere aurkitu dira, baina askoz ere kopuru txikiagoan.

(...) guk dugu sinhesten ezen Adamen leinu guzia khotsu hunez khotsatu izan dela, zein baita bekhatu orijinala, (...) (Lç, *Ins*)

2. Aurrekaria *mendeko egitura* deritzokegunetik kanpora ateratzeko joera hori, *zeren...bait/-n* kausazko esaldietan ere ikusten da.

(...) zeren estudioko enplegua baita jakin nahizko hidropesia bat, zeinak berekin baitakarke ikhasteko, egartsu ezin asesiaturkoa, (...) (ES)

(...) zeren hura baita eguna, zeinetan Jesu-kristo gure jauna bere phizteaz edo resurrezioez sarthu izan baita bere errepausu eternalan. (Arb, *Igand*)

Esaldi konpletiboetan bezala, gisa honetako kausazko esaldietan ere, aurrekaria adizkiaren aurrean ageri duten adibideak aurkitu ditugu corpusean, baina maiztasun baxuagoan.

(...) zeren zure karitatea guziei erakustea gatik, afari handi hura ap-haindu duzun, zeinetan emaiten baituzu, ez figurazko bildotza, baina bai zure gorputz eta odol sakratua (SP, *Imit*)

3. Beste esaldi batzuk, zeinetan orobat mendeko egituratik kanpo aurkitu baitugu aurrekaria, denborazko esaldiak dira.

(...) ethorri nintzanean jaun doni joaniren elizara, zeina baita hiba-jaren bazterrean, han, (...) (*MarII*)

(...) Samuelek ikhusi zuenean Eliab, haurrideetarik zaharrena, zeina baitzen gizon handi eta iduri ederreko bat (...) (Lg)

4. Bestetik, aurrekaria aditz-izenari dagokiola ageri denean ere iger-tzen da halako joera aurrekari hori kanpora ateratzeko:

(...) hainitz progotxos laiteke,(...), emaita beherago aurkhitzen diren maximetarik zenbeit, zeinetan kausitzen baitire markatuak zenbait berthutezko akta, (...) (*MarII*)

(...) manatu zituen bere azpikoak amarratzeaz gizon haren eskuak eta oinak, eta haren artikitzeaz leze beltz batetara, zeinetan ez baida entzuten nigar-marraskarik eta hortz kharraxkarik baizen (Lg)

Beste ordenan ere, aurrekaria mendeko esaldiaren barruan dagoelarik alegia, esaldiren bat aurkitu da; baina kopuru txikiagoan.

(...) lehenbiziko bisita horren ondoan, bihur zaitezte zuen etxetarat, jainkoaz betherrik, **zuen etxeko lanez** artha izaterat, zeinak baitire egun guzietakoak eta baitezpadakoak. (Arb, *Igand*)

b. Adizkiaren aurreko kokagunea

Bestalde, mendeko esaldia *bezala* erkaketazko partikuladuna edo erlatibozkoa denean, aurrekaria, mendeko esaldiaren barruan ageri da oro har, eta berari dagokion erlatibo-esaldia, ostera, kanpoan.

(...); aitzitik sar ezazu bihotzean, **birjina guziz sailduak egiten ohi** zuen bezala, zeinak berean barrena gordetzen baitzituen bere semearen ohoretan erraiten ziren hitz guziak (SP, *Phil*)

(...) jaun jangoiko, zure pasioko señalea **maindire sailduan utzi zinuena, zeintan bildua izan zen zure gorputz saildua,** (...) (Legaz)

Laburpen/ondorioak

1. Esaldi nagusietan ez bezala, aurrekaria mendeko esaldiko osagai denean, ez da igertzen joera garbirik aurrekariaren kokapenean, aurrekaria adizkiaren aurrean zein atzean aurki daiteke eta.
2. Nolabaiteko joera somatzen da, ordea, mendeko esaldien mota jakin batzuetan aurrekaria aurrean edo atzean ipintzerakoan:
 - a. Aurrekaria kanpora ateratzeko joera: konpletiboak, *zeren* kausaletan, denborazko esaldietan (-nean), aditz-izena
 - b. Aurrekaria barruan uzteko joera: erlatibozkoa, *bezala* erkaketazko partikuladuna

6.1.3. AURREKARIAREN ETA ERLATIBO-ESALDIAREN ARTEKO DISTANTZIA

Atal honetan ere joera nagusiaz mintzatu behar dugu. Izan ere, idazle guztiek jotzen dute erlatibo-esaldia aurrekaritik ahalik eta hurbilen ipintzera. Hala ere, beharaxeago ikusiko dugun bezala, kokapen hori ez da beti gertatzen, eta horrelakoetan aurrekariaren eta erlatibo-esaldiaren artean beste osagai batzuk³¹ ageri dira, honek irakurketa zail dezakeelarik. Honelako hurrenkerak aurki daitezke:

³¹ Atal honetan ez ditugu kontutan hartuko aurrekariaren eta erlatibo-esaldiaren artean adizkia ageri duten esaldiak.

1. Aurrekaria + Erlatibo-esaldi sustantibatua aposizioan + zein...bait-

(...) hurbildu zitzaion **jainkozko gizon bat**, Judako herritik heldu zena, zeina hasi baitzen, oihuz, erraten: (...) (Lg)

(...) bizitzau akabau azkero, izango dala **beste betiko bat**, edo iños akabauko eztana: zeinetan egongo dirian, jangoikoa jaingoiko dan arte guztiyan, onak zeruan gloriya gozetan, (...) (*CatLlo*)

(...) asko ezagutu dituzket **ni baino gazteagoak**, nik bezain luzeki bizitzeko iduri ederra zutenak, eta zeinak ezpaitire orai munduan. (Dh)

Ikus daitekeenez, *-n* menderagailudun erlatibo-esaldiek eta *zein...bait-* egituraz eraikiek aurrekari bera dute.

Bestetik, erlatibo-esaldien arteko hurrenkera, goiko adibideetan ageri dena da esaldi guztietan, hau da, lehenengo *-n* menderagailudun erlatibo-esaldia eta bigarren *zein...bait-* egituraduna. Beste ordenaren adibiderik ez dugu aurkitu³².

2. Aurrekaria + partizipioa(aposizioan) + zein...bait-

(...) aditzen dut trinitate sainduaren bigarren presuna dela **aia zerukoaren seme bakoitza**, egundaiñoz geroztik haren sustantziatik enjendratua, zein baita aita berdin gauza guztietan; (...) (Mat)

3. Aurrekaria + zein...bait-+ eta + zein...bait-

(...) ala **Jesus**, zeinaren saindatasuna ezagutua baitzen eta zeinak ez baitzion egin populuari ungirik baizen (...) (Lg)

4. Aurrekaria + osagarria(k)+ zein...bait-

(...) bada **bertze arrazoin bat**, emaztetarik apartatzeko, heken artean ez maiz ibiltzeko, eta solhasean ez sobera egoiteko, zein baita exemplo onaren emaiteko, eta eskandaluaren eskusatzeko dugun obligazioa. (Ax)

Honelako adibideei buruz pentsa daiteke osagarriak aurrekariari dagozkiola, zeren honela ere eman baitaitezke:

- a. bada emaztetarik apartatzeko, heken artean ez maiz ibiltzeko, eta solhasean ez sobera egoiteko bertze arrazoin bat, zein baita exemplo onaren emaiteko, eta eskandaluaren eskusatzeko dugun obligazioa.

³² Honi dagokionez, OYHARÇABALEK (1987) dio ezen bi erlatibo-esaldien artean halako norabidetasuna adierazten duen erlazioa ezar daitekeenean, ohiko hurrenkera ez dela goiko esaldiena, alderantzizkoa baizik.

(239a) gizon bat ezagutzen dut, [zeinek besorik ez baitu] baina [gidatzen duena]

(239b) ? gizon bat ezagutzen dut [besorik ez duena] baina [zeinek gidatzen baitu]

Batzuetan, ostera, ez da hain erraza erlaziorik ezartzea, edo besterik gabe ez dago:

(...) dakusdala ezkerreko aldeti deabru madarikatua pozarren ozta; liburuto andi tzar bategaz eskuetan, zeinetan darakusdazan banaan banaan, eta bakotxa berez ene bizi guztiko gaistakeriek eta okerkuntza eskergeak (Añ, *El 2*)

Beste zenbaitetan, bestalde, nekez igertzen da zein den aurrekaria, ize-nordain erlatiboaren aurreko bi sintagmak aurrekaritzat jo daitezke eta.

(...); aitzitik bethi berekin izanen dute **bake maitagarri hura (?) bere pobrezia dohatsuan (?)**, zeinak itzultzen baiditu atsekabea atseginetarat, eta bidegabea irabazitarat .(Lg)

5. Aurrekaria + osagarria + erlatibo-esaldi sustantibatua (aposizioan) + zein...bait-

(...) baina oraiko kofesatzean asko da, aphezaren absoltbazinoarekin batean, **kontritioneaz bertze dolore molde bat**, parabisuko loriaren galtzeko, edo ifernuko penetara ioaiteko beldurtasunetik heldu dena, zein deitzen baita: (...) atrizioea (Ax)

6. Aurrekaria + adjektibo-sintagma/izen-sintagma (aposizioan) + zein...bait-

(...) da **Erromako aphez nausia**, lurrean Kristoren bukariora, zeini guziak baigira obligatuak obeditzera (*CatLlo*)

7. Aurrekaria+adjektibo-sintagma/izen-sintagma+erlatibo-esaldi sustantibatua (aposizioan)+ zein...bait-

(...) lurraren hondarrean edireiten da **leze handi bat, labe gori bero bat**, behinere hotzten eta iraungitzen eztena: alde guztietarik hertsia, atherik eta leihorik eztena: kondemat guztien edukitzeko asko handia, zein baita eta deitzen baita ifernua (Ax)

8. Aurrekaria (-ren) + posposizioa+zein...bait-

Piarresek historio hau akhabatu zuen heltzen ginelarik gure **ahaiden** artera, zeinak gure begira baitzauden mahainean yartzeko. (Elzb, *PAd*)

9. Aurrekaria + -ren + izen-sintagma + zein...bait-

(...) eta oraino bertze lekhu batean laudatzen du **sugearen eta xinhaurriaren** prudentzia, zeinekin gisa hunetako presuna erho enorantak, eta urguilliaz betheak ez baitira gai konparatzeko. (ES)

Zenbaitetan, hala ere, ez da erraz izaten igertzea zein den aurrekaria, zeren genitibo-markaren aurrean ageri den izenari zein atzean ageri denari aitor baitakioke eginkizun hori:

(...) bada haiñitz superbiotasun eta **deabruaren(?) artifizio(?)**, zeinak, alegia ederren azpian, zuri pena egitea billatzen baitu (He, *Gudu*)

Beste aldetik, zenbait adibidetan bigarren sintagmaren atzean posposizioa ageri da, aurrekaria erlatibo-esalditik areago urruntzen duelarik.

(...) zure ganik grazia hauk guziak uste ditut, **J Kristo zure semearen** merezimenduen bidez, zeinak nahi baitu berak izan, sakrifizio adoragarri hunen apheza eta biktima. (Brct)

10. Aurrekaria + bezala+ zein...bait-

(...), eta **sugeak** bezala egiten du, zeinak non ere burua sartzen baitu, handik gorputz guzia errazki atheratzen baitu. (SP, *Phil*)

11. Aurrekaria +baizik (baizen...)+ zein...bait-

(...) eta **iturbide bakoitz bat** baizen ez dugu, zein baita haren miseri-kordia. (Lç, *Phil*)

Laburpen/ondorioa

1. Idazle guztiek jotzen dute erlatibo-esaldia aurrekaritik ahalik eta hurbilen ipintzera. Hala ere, kokapen hori ez da beti gertatzen: horrelakoetan aurrekariaren eta erlatibo-esaldiaren artean beste osagai batzuk ageri dira, honek irakurketa zail dezakeelarik.

7. BALIO SEMANTIKOA

Izenburu honetaz murriztaile/ez-murriztaile aurkakotasunari gagozkio. Jakina da euskararen inguruko hizkuntzetan eta euskararen bertan ere (Villasante: 1979; Goenaga: 1980; Arejita: 1978; Oyharçabal: 1987) bereizketa semantikoa egin daitekeela, erlatibozko esaldiak murriztaileetan eta ez-murriztaileetan bananduz.

Bereizketa hau funtsean honexetan datza. Esaterako, demagun ondoko bi esaldi hauek ditugula:

Greban dauden langileek hitzarmena sinatu dute enpresako zuzendaritzarekin.

Langileek, zeinak greban baitaute, hitzarmena sinatu dute enpresako zuzendaritzarekin.

Darabilgun bereizketa honen arabera, lehenengo esaldian erlatibo murriztailea dugu, zeren erlatibozko esaldiaz langile-sail bat banandu baita enpresako langile guztietatik: greban dauden langileez osotutako saila ale-

gia. Bigarren esaldian, ostera, erlatiboa ez-murriztailea izango da; izan ere, bigarren honetan ez dago bereizketarik greban dauden eta ez dauden langileen artean, enpresako langile guztiak greban baitaute. Horrexetan datza, beraz, gutxi gorabehera bereizketa hau.

Bestelako auzia da semantika-mailan egindako bereizketa horrek islapen sintaktikorik ba ote duen, hau da, banaketa semantikoaren eta egitura sintaktikoen artean ba al dago banan-banako erlaziorik?

Euskaraz den bezainbatean, autoreek bereizketa hori aipu badute ere (goraxeago ikusi dugun bezala), gutxik darabilte bereizketa semantiko horren gauzapean sintaktikoaren auzia. Horiatarik bat, Oyharçabal (1987: 192) da. Autore honen hitzetan, euskaraz ere zuzena da semantika-mailan bereizketa hori egitea, baina sintaxi-mailan ez dago horrelako bereizketarik egiterik.

Hala ere, *zein bait*-egituradun erlatibo-esaldien eginkizun semantikoari bagagozkio, badago, edo igertzen da, gramatikarien artean, halako joera gisa honetako erlatiboei ez-murriztaileen esparrua bakarrik aitortzeko. Horrela, Villasantek (1979: 87), Goenagak (1980: 294) eta Arejitak (1982: 133), besteak beste, argi eta garbi adierazten dute mota honetako erlatiboa erlatibo ez-murriztailea eraikitzeke erabiltzen dela³³. Hortaz, eta goiko paragrafoan generabilen auzira itzulirik, autore hauen esanaren argira, badago, nolabait, murriztailearen eta ez-murriztailearen arteko bereizketa semantiko hori sintaxi-mailan gauzatzea. Izan ere, *zein bait*-egitura sintaktiko honi, esparru semantiko zehatz eta mugatua ezarria diote, ez-murriztailea, alegia.

Oyharçabal (1987: 208), aldiz, ez dator bat autore horiekin, eta aditzera ematen du erlatibo-mota hau bai murriztailea bai ez-murriztailea egiteko balia daitekeela.

Hau ikusita, ondoriozta dezakegu ez dagoela adostasunik autoreen artean, egitura sintaktiko honi esparru semantiko zehatza esleitzean; bada batzuek, goraxeago ikusi dugunez, adiera ez-murriztailera mugatzen dute haren erabilera, eta beste batzuek (edo batek), ostera, ez dakarte halako murrizketarik.

Darabilgun corpusetik atera ditugun datuak arakatzan baditugu, bestetik, Oyharçabalekin bat egin behar dugu. Izan ere, nahiz eta *zein bait*-egitura maizago erlatibo ez-murriztailea egiteko erabilia dagoen, ez dira bakanak adiera murriztailea onartzen duten adibideak.

Hau autore guztietan agertzen da, euskalki batekoak zein bestekoak izan, eta halaber, ez bakarrik erlatibizazio zaila duten deklinabide-kasuetan (*non, nondik, zergatik...*), baita *nor, nork* eta *nori* kasuei dagoikiela ere, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala.

³³ Batzuek, hala nola VILLASANTEK (1976: 87), nabarmentzen dute horixe dela erabilpen-esparru bakarra: «Pero téngase en cuenta que este procedimiento vale únicamente para las adjetivales explicativas, o sea, para las no restrictivas».

(...) handik erakutsi zioten yuduei erraten ziotelarik:...: huna gizon hura zeinaren heriotzea galdetzen baitziduten hanbat fuliarekin:... (Lg)

(...) jaun handi hura zeinaren aintzinean zeruak eta lurak ikharatzen baitira, zankapetan ibili dut ostikoka (Dv, *LEd*)

(...) profetek erakusten dute eliza mendixken gaineko hiri bat bezala, argitu eta bildu behar dituena nazione guziak, mendi gora bat bezala zeinetarat ethorriko baitire populuak ostenz. (Hb, *Egia*)

(...) hargatik bada hizkuntza da lanabes bat zeinaren bidez gizonak aditzen baititu bertzek hitzez erraiten dituzten gauzauk (...) (ES)

(...) hau da atheka zeinetarik iragan behar baita: (...) (ES)

(...) bekatu hura zeintaz kutsaturik sortzen baikara Adam gure lehenbiziko aitaren bekatua dela kausa (Mat)

(...); etorria zela orena zeinetan gizonaren semeak utziko baitzuen bere burua bere etsaieen eskutarat. ... (Lg)

(...) ez da herririk hain abandonaturik zeinetan ez baitire aurkihitzen zenbeit arima lejal, (...) (*MarII*)

(...) Maria sortzen da jainkoarentzat, haren zerbitzatzeko, haren maitatzeko haren ama izateko, sartzeko haren xede guzietan, zeinentzat egin izan baita gizon. (Jaur)

Ai legez zorigaixtoko orena zeinetan bekhatu egiten hasi bainintzan! (Dv, *LEd*)

(...) da gura zeineki guziok jaiotzen beikira, (...) (*CatR*)

Goiko adibide guztiok, erlatibizatzen diren kasuak dakartzate; eta idazleek, kasu horietan, *zein bait-* egitura erabiltzera jo dute, mezua argi eta garbi, eta gaizki-ulerturik gabe igortzeko.

Hala ere, gorago esana denez, adiera murritzailan, egitura honen erabilera ez da mugatzen kasu berezi horietara, inolako eragozpenik ez darten kasuetara ere zabaltzen baita (*nor, nori, nork*). Hona hemen zenbait adibide:

(...) esperanza da berthute bat zeinek emaiten baiterauku fidanzia handi bat iainkoaren faborearekin batean zeruko loriaren ardiesteko. (Mat)

(...) baldin ezagutzen baginu, birjina sainduak bezala, gaztigu horren handitasuna, urrikalmendu ekhar ginezokete hainbertze populuei, zeinek galdu baitute fedea, hainbertze bekhatorsei zeinek galdu baitute grazia; (...) (Jaur)

(...) ekhar daitezke bertze hainitz exenplu zeinek erakusterat emaiten baitute, denbora eta lekhu guzietan, (...) (*MarII*)

(...) duela ehun urthe hurbil, Jesusen konpainiako aitetarik batek, Agustin Kardaberaz donestiarrak argitara eman zuen liburu bat zeina deithu baitzuen: aita san Ignazioren ejerzizioen gañean afektoak. (Dv, *LEd*)

(...) ez da hain etxeko jaun ttipirik zeinak ez baitezake harts urthe batz phuska bat (Dv, *Lab*)

(...) badira presunaja batzuek zeinei idurutzen baitzaie halako hitzak eztirela eskuarazkoak, (...) (ES)

(...) tokiak badira zeinetan lasterrago baxhandu behar baita. (Dv, *Lab*)

Laburpen/ondorioak

1. Egitura hau maizenik erlatibo ez-murritztailea adierazteko erabiltzen den arren, ezin da mugatu esparru soil horretara; izan ere, tradizioaren arabera erlatibo murritztailea adierazteko ere erabil daiteke.
2. Esan gabe doa honekin ez dela aditzera eman nahi erlatibo-egitura honen «erlatibo arruntari» bere lekua kendu behar dionik, ezta erdarazko erlatibo «bihurri» guztien euskal ordaina erlatibo «klasiko» honen bidez bilatu behar denik.
3. Hala ere, sarritan oso erabilgarria izaten da: esaterako, itzulpenetan, joskera-berrantolaketa handiegirik egin nahi ez bada; eta erdarazko zenbait preposizio-sintagma bihurri euskaratzean («el virus contra el cual está inmunizado...», «la hipótesis según la cual...»).

8. PUNTUAZIO-ZEINUA

Halako joera nagusia somatzen da puntuazio-zeinuari buruz. Joera horren arabera, zein erlatibo-mota adierazi nahi den, hurrenez hurren, koma erabiltzen da (ez-murritztailea) edo ez (murritztailea).

EZ-MURRIZTAILEA: KOMA ARTEAN

(...), eta **sugeak** bezala egiten du, zeinak non ere burua sartzen baitu, handik gorputz guzia errazki atheratzen baitu. (SP, *Phil*)

MURRIZTAILEA: KOMARIK GABE

(...) jaun handi hura zeinaren aintzinean zeruak eta lurra ikharatzen baitira, zankapetan ibili dut ostikoka (Dv, *LEd*)

9. GAUR ERABILTZEN DIREN EGITURA BADAIEZPADAKO BATZUK

9.1. Aurrekariaren eta erlatiboaren arteko distantzia: arazoak

—Lehendabiziko begirada azkarrean, **zeruaren, itsasoaren eta lurraren** artean sailka daitezke tramankulu hauek, zeinak goialdean ageri diren astronomi tresna eta lurraren globoaz, apalean ageri diren laute eta liburu lurtarrez, eta zoluaren ondoan nabari den arrain-itxurakoaz irudikatuak diren.

(En una primera mirada rápida estos elementos se pueden clasificar entre el cielo, el mar y la tierra, que están representados...)

Lehendabiziko begirada azkarrean, tramankulu hauek **zeruaren, itsasoaren eta lurraren** artean sailka daitezke, eta hauek goialdean ageri diren astronomi tresna eta lurraren globoaz, (..).

—Ohartarazi beharra dago sekzio sindikalak ez direla langileek beren burua enpresan antolatzeko daukaten modu bakarra. Izan ere, legeriak onartzen du langileen ordezkaritza unitario bat ere lantokian, **zein** biziro loturik **baitago** askatasun sindikalarekin (...)

Ohartarazi beharra dago sekzio sindikalak ez direla langileek beren burua enpresan antolatzeko daukaten modu bakarra. Izan ere, legeriak onartzen du lantokian langileen ordezkaritza unitario bat ere, **zein** biziro loturik **baitago** askatasun sindikalarekin (...)

—**Sindikatuak enpresan duen iharduerak** kontsiderazio berezi bat merezi du, **zeinen** zilegitasuna, nahiz eta espreski KEren 28. art.an aitortu ez, eztabaidaezina baita.

Kontsiderazio berezi bat merezi du **sindikatuak enpresan duen iharduerak**, **zeinen** zilegitasuna, nahiz eta espreski KEren 28. art.an aitortu ez, eztabaidaezina baita.

—Negoziaketa kolektiborako eskubideak **perfil berezia** dauka Espainiako ordenamenduan, **zeinetatik** alderdi hauek azpimarra daitezkeen: (...)

(El derecho a la negociación colectiva tiene en el ordenamiento español **un perfil singular, del que** merecen destacarse los siguientes rasgos: (...))

Espainiako ordenamenduan negoziaketa kolektiborako eskubideak **perfil berezia** dauka, **zeinetatik** alderdi hauek azpimarra daitezkeen: (...)

Negoziaketa kolektiborako eskubideak **perfil berezia** dauka Espainiako ordenamenduan; **perfil horretatik** alderdi hauek azpimarra daitezke: (...)

—Mikorestruktura hauen garapenak gizaki / ordenadore komunikazioaren arloan, hizkuntza naturalarekin, zeinak informatikaren munduan desafio handiena osatzen duen, aurrerakuntza garrantzitsuak sortaraziko ditu.

(comunicación hombre-ordenador mediante lenguaje natural)

Mikorestruktura hauen garapenak aurrerakuntza garrantzitsuak sortaraziko ditu hizkuntza naturalaren bidezko gizaki / ordenadore komunikazioaren arloan, zeina informatikaren munduan desafio handiena den.

9.2. **«Zein bait-/ -n» egitura: ordena okerrak eta bestelako baliabideak**

—Efektu hori, (...) duten zabalgunee edo zuloguneen, **zeinek** uhin intzidentea difraktatzen duten, derrigorrezko ondorioa da.

Efektu hori, (...) duten zabalgunee edo zuloguneen derrigorrezko ondorioa da; **zabalgunee horiek** uhin intzidentea difraktatzen dute.

—(...) higiduraz eta siliziozko pieza bakar batetik abiatuz, mintz mehe bat, zeinak uhin akustikoen akzioen bidez ahosgoragailuak bezala bibra dezakeen, «extrusionatzea» lortu dute.

(...) higiduraz eta siliziozko pieza bakar batetik abiatuz, mintz mehe bat «extrusionatzea» lortu dute; mintz mehe horrek ahosgoragailuak bezala bibra dezake uhin akustikoen akzioen bidez .

—Bestalde, Lege Organiko honek badiu **erregela batzuk**, zeintzuek erakunde sindikal nagusienen posizio juridikoa sendotzea bilatzen duten (...)

Bestalde, Lege Organiko honek **erregela batzuk** ere badiu, erakunde sindikal nagusienen posizio juridikoa sendotzea bilatzen dutenak.

—Kontsiderazio berezi bat merezi du **sindikatuak enpresan duen iharduerak**, zeinen zilegitasuna, nahiz eta espreski KEren 28. art.an aitortu ez, eztabaidaezina baita.

Kontsiderazio berezi bat merezi du **sindikatuak enpresan duen iharduerak**, honen zilegitasuna, KEko 28. art.an espreski aitortzen ez den arren, eztabaidaezina da.

—Hala ere, arau honek ordezkari nagusiko erakunde sindikal eta enpresariari erreserbatzen die «**lanbidearteko akordioak**» negoziatzeko legitimitatea, zeintzuek bai nazio mailan eta bai elkarte autonomo baten mailan negoziazio kolektiboaren egitura ezartzen duten.

Hala ere, arau honek ordezkari nagusiko erakunde sindikal eta enpresariari erreserbatzen die «**lanbidearteko akordioak**» negoziatzeko legitimitatea, horiek baitira bai nazio mailan eta bai elkarte autonomo baten mailan negoziazio kolektiboaren egitura ezartzen dutenak.

—(...) sendotuta geratzen **baita «irradiazioaren» erregelarekin**, zeinaren ondorioz ordezkari nagusiko erakunde sindikalek beren barruko sindikatu eta ente sindikalei izaera hori komunikatzen dieten.

(...) por la regla de «irradiación», en virtud de la cual, (...)

(...) sendotuta geratzen **baita «irradiazioaren» erregelarekin**; bada honen bertutez ordezkari nagusiko erakunde sindikalek beren barruko sindikatu eta ente sindikalei komunikatzen diete izaera hori.

—(...) dena den, manamendu desberdinetan **erreferentziak** daude, zeinek erakunde mota horien eskuduntzak era paraleloan definitzeko bidea ematen baitute.

(...) dena den, manamendu desberdinetan badaude **erreferentzia batzuk**, erakunde mota horien eskuduntzak era paraleloan definitzeko bidea ematen dutenak.

10. BIBLIOGRAFIA

ALTUBE, S. (1929), *Erderismos*, Bermeo. Gaubeka.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, ETONOLOGI MINTEGIA (1983), *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa -EAEL-*, Muniberen eranskina. Donostia.

AREJITA, A. (1978), *Euskal joskera*, Durango. Leopoldo Zugaza.

AZKUE, R.M.^a (1905-1906), *Diccionario vasco-español-francés*, 2 liburukia. Tours (2. argitaraldia, Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca).

- (1923-25), *Morfología Vasca (Gramática básica dialectal del euskera)* [=Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca].
- BIGURI, K. (1994), «Erdarazko erlatiboan itzulpenaz», *Senez*, 10.urtea, 1994: 37-71.
- CAMPION, A. (1884), *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa (Bilbao, 1977, La Gran Enciclopedia Vasca, 2 liburukia).
- ETCHEBERRI, J.D. (1712), *Eskual Herriari eta eskualdun guztiei eskuarazko hatsape-nak latin ikhasteko*, berrargitarapen partziala X. Kintana ed., Lan Hautatuak. San Sebastián, 1972, Lur Editoriala (col. Kriselu 21): 219-254.
- GAVEL, H. (1929), *Grammaire Basque. I Phonétique. Parties du discours autres que le Verbe. II Le Verbe* (H. Gavel, G. Lacombe) (=Gure Herria, 1933 [maiatza-ekaina]-1936 [iraila-abendua]).
- GEZE, L. (1873), *Éléments de grammaire basque* Baiona (= San Sebastián 1979), Hordago-Lur (col. Euskal Klasikoak 27).
- GOENAGA, P. (1980), *Gramatika bideetan*², Donostia. Erein.
- INCHAUSPE, M. (1858), *Le verbe basque*, Bayonne, Paris, Veuve Lamaignère née Teulières, imprimeur, et Benjamin Duprat...
- ITHURRI, J. (1895), *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. (= Hordago-Lur (Euskal Klasikoak 26)) Donostia. Ediciones Vascas, 1979, berrargitarapenetik aipatua.
- BATZUEN ARTEAN (1994), *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz.
- LAFITTE, P. (1944), *Grammaire Basque (navarro-labourdin littéraire)* (berrargitaratua. Donostia, 1979, Elkar).
- LAFON, R. (1944), *Le système du verbe basque au XVII^e siècle* (2. argitaraldia. Zarautz, 1980, Elkar).
- (1966), «La particules *bait-* en basque; ses emplois morphologiques et syntaxiques», *Bulletin de la Société de Paris*, 61: 217-248.
- LHANDE, P. (1926), *Dictionnaire Basque-Français*, Paris. Gabriel Beauchesne ed.
- LARRAMENDI, M. de (1729), *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, berrargitarapen facsimila. San Sebastián, 1979, Hordago-Lur (col. Euskal Klasikoak 23).
- MICHELENA, L. (1966), «Azkue lexicográfico», in Michelena, Caro Baroja-Tovar (1966), *Don Resurrección María de Azkue: lexicógrafo, folklorista y gramático*, Bilbao. Publicaciones de la Junta de Cultura de Bizkaia.
- OYHARÇABAL, B. (1985), *Les relatives en basque*, Collection UA 1028, CNRS-Université Paris VII.
- (1987), *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Doktorego-tesia (CNRS, UA 04 1028, Paris 7).
- OIHARTZABAL, B. (1986), «Erlatibakuntza: perpaus erlatiboaren egitura: izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean», in Rebuschi et alii, *Euskal Sintaxiaren Zerbait Arazo*, Argitarapen Zerbitzua-Euskal Herriko Unibertsitatea: 131-153.
- RIJK, de R. (1972), *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MITen aurkeztutako tesia.
- SALABURU, P. (1980), *Baztango euskalkiaz (1)*, Bilbo. Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- SCHUCHARDT, H. (1923), *Primitiae Linguae Vasconum*. Einführung ins Baskische, Halle, Verlag von Max Niemeyer. A. Yrigarayren Espainierazko itzulpena. Salamanca, 1947, C.S.I.C. Tesis y estudios salmantinos-III.

- VILLASANTE, L. (1976), *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate. Edit. Franciscana Aranzazu.
- (1985), «Euskal anaforikoak», in J.L. Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena oblatae*, II: 971-980, Vitoria. UPV/EHU.
- (1988), *Euskararen auziaz*, Estella. Colección Eleizalde 9.

OHAR BATZUK *-(E)LA/ (E)LARIK* ATZIZKIEN ERABILERA ETA BALIOEI BURUZ*

Antton Elozegi

0. LAN HONEN HELBURUAK ETA MUGAK

Artikulu honen xedea da garai desberdinetako testu batzuetan aurki daitezkeen *-(e)la* eta *-(e)larik* atzizkien erabilera eta balioak deskribatzea eta azterketa horretatik hainbat puntu ilunetarako argibideak ematen saiatzea. Intuizio batetik abiatzen gara, gure jabetzakoa ez den intuizioa ordea: euskaltegietan, itzulpen-ikastaroetan, estilo-liburutan eta gramatikaren baitan, ugari, eta gogor kritikatzin dira atzizki horien erabilera batzuk.

Lehen atalean, aztergai hartu ditugun *-(e)la/* eta *-(e)larik* atzizkiak zehazki zein diren mugatzen eta bereizten saiatu gara. Bere funtzioa lehenik, *-(e)la*-ren kasuan forma bera duen konpletibotik bananduz, bere forma ohikoenak zein izan diren, eta zein adizki-motari erantsi izan ohi zaien zehazten dugu. Ondoren, euskal gramatiketan atzizki horiei buruz dauden erreferentzien erreposoa egiten dugu, zein balio eta erabilera-modutan deskribatzen den zehaztuz. Hirugarren atalean, jasotako adibideak bere egitura sintaktikoaren arabera lehenik, eta bere esanahiaz ondoren, sailkatzen saiatu gara. Sailkapen hau izan da, hain zuzen ere, gure lanaren parterik zailena eta emankorra. Baita ere, dudarik gabe, eztabaidagarriena. Laugarrenean, adibide-corpus mugatu horren azterketatik atera daitezkeen ondorio batzuen berri laburra ematen saiatu gara, horietako puntu bakoitza ondorengo ikerketa sakonago baten gai izango den esperantzatan, eta bosgarrenean, erabilera praktikorako, bereziki euskara teknikoko idazkuntzarako baliagarri izan daitezkeen gomendio batzuk proposatzen ditugu.

Inolako exhaustibotasun-pretentsiorik ez duen lan honetan, hainbat testutatik ateratako adibideak sailkatuz eta esanahiak aztertuz saiatu gara

* Bere lankidetzan, aholku, ohar eta kritikekin laguntza estimagarria eskaini didaten Martin Gartzandia, Joxe Antonio Mujika, Patxi Petrirena, Juan Carlos Odriozola, Igone Zabala eta Xabier Alberdiri niri eskerrik zintzoenak.

intuizioz somatzen genuen zerbait egiaztatzen: ea bazegoen diferentziarik «bereiz», naturaltasunez *-(e)larik* erabili izan dutenen (lehengo eta oraingo ekialdetarrak) eta berriki arabiltzen hasi direnen artean.

Garai eta euskalki desberdinetako hogeita hamar pasatxo idazlanetatik atera ditugu adibideak, baina idazlan horiek ez ditugu, inondik ere goitik behera arakatu. Zenbait kasutan jaso ditugu begi aurrean topatu ditugulako, beste arrazoirik gabe. Beraz, aipatzen ditugunak badirela baieztatu dezakegu, ez aipatu gabeak ez direnik.

Adibide horien bilketak, ez digu baimentzen, argi ikusten dugu, inolako ondorio definitiborik ateratzea. Dena den, uste dugu, bere behin-behinekotasun guztiarekin ere, azterketa honen ondorioz ausar gaitzkeela erabilera batzuk zein garaisutan hasi (edo gutxienez ugaritu) diren esatera, eta ondorioz baieztatzea gaurko zenbait balio nahiz erabilera, oso luma ohoretsutik jalgiak badira ere, nekez aurki dezaketela eredu zaharrik.

Aztertu gabe utzi ditugu, «denbora» izenburupean nahas-nahas sartuta, kontzeptu horren inguruan dagoen problematika guztia, garaikidetasuna, gerotasuna, ekintza puntuala edo jarraitua, gramatikari batzuek, aipatuko dudan bezala, seinatu dutena.

Halaber, ia aztertu gabe geratu dira *-(e)la/-(e)larik*, daraman perpausaren kokapena (nagusaren aurretik, atzetik, txertatuta...), mendeko perpausaren ordena, aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko hurrenkera...

Idazle zaharren adibideen ondoan, erreferentzia bibliografikoak ipini ditugu modu honetan: idazlearen deitura, gehi, parentesi artean, lanaren edizio-urtea, bi puntu eta orrialdea. Adib: Landart (1982:125). Agirre Berzibarren (1991) gramatika jaso eta guk geuk baieztatu ezin izan ditugunak, AB letrekin markatu ditugu, horien erreferentzia bibliografiko zehatzik eman gabe.

1. -(E)LA ETA -(E)LARIK ATZIZKI MENDERATZAILA ZIRKUNSTANTZIALEN FORMA, ALDAERAK ETA ERROA

Argitu beharreko lehen auzia da izenburuak argi uzten ez duen puntu bat, alegia *-(e)la* *-(e)larik* diogunean atzizki bakar baten bi forma edo bi atzizki desberdin diren. Badirudi argi dagoela jatorrian, Lafittek (458) dioen bezala, *-(e)larik* ez dela *-(e)la*-ren forma partitiboa baizik. Baina hainbat autoretan, batez ere garaikidetan erabilera eta balio desberdinez jantzirik aurki daitezkeenez, banan banan aztertu beharrekoak dira. Lan honetan, usuenik arazo-iturri suertatzen den *-(e)larik* atzizkia duten adibideak aztertu ditugu gehienbat.

Erabileraren aldetik duda-muda gutxien sortu duen *-(e)la* atzizkia da, izan ere, forma bereko konpletiboetako *-(e)la* atzizkitik bereizi behar duguna. Esaldi konpletiboek gure gramatikarien arreta sarritan merezi izan dutenez, (ikus bereziki Goenaga 1980,1984,1985) eta *-(e)la* atzizki kon-

pletiboa zer den eta nola funtzionatzen duen aski ezagutzat eman daitekeenez, esan dezagun hemen aztertuko duguna, konpletiboa ez den *-(e)la* dela. Esklusiozko mugapen horren ondoren esan dezagun gure azterketaren gaia, gramatika tradizionaletan perpaus menderatu zirkunstantzial izezez ezagutzen diren horietako *-(e)la* eta *-(e)larik* atzizkiak direla.

Formari buruz, nahikoa finkaturik azaltzen dira. Euskara batuan *-(e)la* eta *-(e)larik* forma dute, eta autoreetan, euskalkiaren araberrako aurreko *-e/-a* bariazioez aparte, *-r*-aren desagertzea da maizenik gertatzen dena: *láic* forma, oso ugari ikusten baita ipar-ekialdeko autoreetan. Gure adibideetako Elkanoko Lizarragaren lanetan, esate baterako, hori da forma erabiliena, bakarra ez bada. Aldaera beraren berri ematen du Bruno Echeniquek, Salaburu (1980), Baztango euskalkiaz ari dela.

Bestalde, aspaldidanik eta hainbat euskalkitan *-an* eransten zaio bukaeran *-larik*-i: *delarikan*, *zirelarikan* bezalako aldaerak osatuz. Joannes d'Etcheberry-rengan *-an* enklitiko gehiturik oso maiz irakur daiteke, Azkuek (1969) ohartarazten duenez. Aldaera horiek, *-ik* bukaera askorekin gertatzen den bezala, oso arruntak dira eta ez dute inolako erabilera edo esanahiaren aldetiko desberdintasunik adierazten.

Atzizki horiek, jasotako adibideetan ikus daitekeenez, adizki jokatuari eransten zaizkio, hala aditz laguntzaileetan nola trinkoetan: *izan delarik*, *zizkigutela*, *natorkielarik*, *ziotsala*.

Villasantek (1976:199) dioen bezala, *-(e)la* eta *-(e)larik* atzizkiak ia beti indikatibozko aditz jokatuari loturik aurkitu ditugu, eta horrela erabili izan dira euskalki eta garai guztietan; baina salbuespenak ere atzeman ditugu testu berrietan. *Dezalarik*, *daitezelarik*, *dadilarik* bezalako formekin aurkitu ditugun testu guztiak, 80. urteetakoak eta juridiko-aministratiiboak dira; den denak itzulpen bidez sortuak. Dakigunez, ez du ez aurrelari ez jarraitzaile askorik izan jokaera horrek. Horien agerpenak *hapax legomena* bailira tratatuko ditugu: badiren berri emango bai, baina modu sistematikoan aztertu gabe. Esanahia ilun samar dutela dirudigunez, testu itzuli horiek, bere jatorrizko testuen laguntzarekin emateari iritzi diogu egokiena. Hona bizpahiru adibide:

- ia) Bilkurarako deia, ... eta Araudian oharmandako zabalkundea emanango zaio, beti ere bazkide guztiek ezagutu ahal izateko bide eman dezalarik.
- ib) La Asamblea se convocará ... y se le dará la publicidad que prevean los Estatutos, de forma que en todo caso posibilite el conocimiento de todos los socios.
- ii) Sailak (...), salbuespenezko egoerak kontutan hartu ahal izango ditu, beti ere bezero edo baliatzaileari beharrezko argipideak ematearen kaltetango izan ez daitezelarik.
- iii) el Departamento (...), podrá contemplar supuestos de excepcionalidad (...) aconsejen, sin que vaya en detrimento de la debida información al consumidor o usuario.

- iii) lotzeko diruizendapenak, horretarako dagokion ordainketarako diruizendapena egina izan dedilarik.
- iiib) Los créditos de compromiso (...), y a cuyo efecto esté dotado el correspondiente crédito de pago.

2. ATZIZKI HORIEK GRAMATIKETAN

2.1. Funtzioaz eta bien arteko berdintasun/ezberdintasunaz

Euskal gramatikako eskuliburuetan nahiz lan espezializatuagoetan, arakatu ditugun autore guztiak bat datoz *-(e)la/-(e)larik* atzizkiak menderakuntza-atzizkien artean sailkatzerakoan, Euskaltzaindiaren *EGLU* gramatikaren *Lokailuak* liburukian egiten den bezalaxe.

Halaber, Azkue (1969), Altube (1969), Lafitte (1962), Villasante (1976) Mitxelena (1976), Txillardeggi (1978), Goenaga (1980), Arejita (1982), Zubiri eta Zubiri (1995), Agirre Berezibar (1991) eta gainerako gehienek, bi atzizki horiek *-(e)la*-ren bi forma, absolutiboa eta partitiboa, bezala hartzen dituzte oro har, balio beretsukoak, alegia.

Mitxelenak (1976: 201) espreski dio, esanahiaren aldetik ez duela ezer gehitzen ez kentzen, nahiz eta ondoren, kasuren batean desberdinak izan daitezkeela aitortu. Zentzu bereko baieztapenak egiten dituzte beste gramatikari batzuk: Azkuek (1969: 363) eta Villasantek (1976: 201) esate baterako, zeinak, ideia horren indargarri, idazle klasikoen lekukotasunak baitakartzate, Leizarragarena eta Haranederrena, hurrenez hurren, atzizki horien trukagarritasuna frogatzeko.

Funtzioaren aldetik bien arteko baliokidetasuna autore gehienek onartzen badute ere, ez da salbuespenik falta. Azkuek (1969: 362) *larik* formadun beste atzizki desberdin bat badagoela dio, bere adibideek ezer argitzen ez badute ere. Lafittek behin eta pasarte bakar batean *-(e)larik* atzizkiak *-(e)la*-k ez duen balio bat duela badio ere, ez du gehiago sakontzen. Atzizki horietaz idatzi dutenen artean, Arejita (1982), Irazola (1987: 94) eta Aurrekoetxea eta Armaolea (1990:32) alde batetik, eta Odriozola (1984) bestetik, dira bi atzizkion arteko desberdintasunak gehien azpimarkatu dituztenak.

Arejitak (1982:268), esanahiari dagokionez, *-(e)la* atzizkiak aldikidetasun soila, eta *-(e)larik*-ek berriz, aldikidetasuna eta gerokotasuna adierazten dutela dio; baina, horren froga gisa ematen dituen adibideek ez dute horrelakorik frogatzen. Morfosintaxiari buruz, berriz, *-(e)la* ia beti aditz trinkoekin eta *-(e)larik* berriz, biek erabiltzen direla dio. Irazolan (1987: 94) eta Aurrekoetxea eta Armaolearen liburuan antzeko baieztapenak irakur ditzakegu, baina ez azken hauek eta ez Arejitak proposatutako adibideetan ez da hori frogatzen.

Odriozolak, (1984:183) garaiko euskal testu zientifikoaren joerak aztertuz, bi atzizki horien arteko diferentzia nabarmendu egiten du. Alde bate-

tik, kokapenez ari dela *-(e)larik* atzizkidun menderatua perpaus konposatuaren aurrean zein atzean joan daitekeela dio, *-(e)la*-k berriz atzeko posizioa debeku izanik, eta esanahiaz, *-(e)larik* ondorioa ere adierazteko erabiltzen dela.

2.2. Hedadura dialektalaz

Atzizki horien hedaturari buruz zerbait aipatzen dutenen artean, denak bat datoz forma biekin edo bakarrarekin *-(e)la*, euskalki guztietan eta garai guztietan erabili direla. *-(E)larik* formakoari gagozkiola ere, adostasuna dago [Azkue (1969:362), Agirre Berezibar (1991: 1007) eta Arejita: (1982: 268)] bizkaieraz izan ezik euskalki guztietan entzun daitezkeela aldaera absolutiboa eta partitiboa. Hain zuzen ere, bertako euskalkietan *-(e)larik* forma erabiltzeko tradizioarik batere edo oso eskasa zuten lurraldeetan, eta euskara batuan idatzitako testuetan ugaritu dira gramatiketan jaso gabeko erabilerak.

2.3. Balioez eta erabilerez

Sintaxiko beste puntu askorekin gertatzen den bezala eskura dauden gramatika-lanek ez dute xehetasun handirik ematen atzizki horien balio eta erabilerari buruz. Agirre Berezibarren *Gramatika Deskriptiboa* (1991) da oraindainokoen artean modu zabalenean tratatu dituen. Esan daiteke, terminologia desberdinak gora-behera, autore guztiak funtsean ados daudela bai funtzio menderatzailea, eta bai balio tenporala esleitzerakoan.

Balio tenporalarekin denak bat badatoz, beste balioak ere ematen zaizkie. Modua ere adierazteko balioa egozten diote gehienek. Honela, Villasante (1976: 198-207), Arejita (1982: 268) Odriozola (1984: 183-186, 225, 230, 231) Irazola (1987: 94), Aurrekoetxea eta Armaolea (1990: 32) Agirre Berezibar (1991: 1006-1011), Zubiri eta Zubiri (1995: 690, 704, 712).

Hainbat gramatikatan beste gainerako balioak ere atxikitzen zaizkie bi atzizki horiei, edo bietako bati. Lafittek (1962: 402) dioenez atzizki horrek forma partitiboan denbora, kontzesioa, eta kausa adieraz ditzake. Balio bera jasotzen du Elkanoko Lizarragaren edizio kritikoko Ondarrak (1984: 22).

Ondarrak berak baldintzazkotzat ematen ditu klasikoak «*laic*» atzizkiarekin osatzen dituen esaldi batzuk. Adibidetegian erakutsiko dugun bezala, ez dago kutsu hori ukatzerik.

Balio kontzesiboa espresuki onartzen dutenak, aipatu berri dugun Lafitzez gainera, Villasante (1976: 201), Mitxelenaren oharrak indargarri dituela, Arejita (1982: 268) eta Agirre Berezibar (1991: 1010-1011) dira. Azken honek egiten duen balio kontzesibodun perpausen sailkapena aski

interesgarria da gure ustez. Dena den, aipatzen ez badute ere, esaldi kontzesiboak egiteko ahalmen hori denek onartzen dutela esan daiteke.

Arejitak (1982: 267-271, 293-296) aurrerago esan dugun bezala, *-(e)la* eta *-(e)larik*-en arteko diferentziak nabarmentzen ditu baina bien erabilera ugari bezain ezberdinak azpimarratuz. Modua eta alditasuna edo denbora eta kontzesioa, ere ondoan duela, dira gehien lantzen dituen balioak.

Odriozolak (1984: 183-186, 225, 230, 231), beste puntuetan ere aipatzen dugun Idazkera Teknikoa liburuan, *-(e)la/-(e)larik* atzizkien balio, erabilera eta sintaxiari buruzko ohar ugari dakartza. Aurreko gramatikariek baino balio gehiago esleitzen dizkie atzizkioi, lehen aipatu bezala, bien arteko diferentziak nabarmenduz.

Agirre Berezibar (1991: 1006-1011) da, dakigunez, atzizki horien funtzio eta erabilerak modu zabalenean tratatu dituenena. Bere hitzak erabiliaz, «*balio logiko gabea*» izatea seinatzen du atzizkion ezaugarri nagusitzat, «*predikazioaren zirkunstantzia bariatsuak*» adierazteko erabiltzen dela gehituaz. Balio ugari aurkitzen die *-(e)la/-(e)larik*-dun esaldiei: denboraz eta moduz gainera, enuntziatu zirkunstantzial zehaztugabeak, edo kondizionalak edo kausalak, kontzesiboak, eta ondorioa edo bilakaera adierazten dutenak, besteak beste. Mende honetako (literatura-) idazle andana baten obrak arakatu dituen Gramatika Deskriptiboan, aurreko gramatiketan jasotzen ez ziren hainbat erabilera berri nabarmenarazten ditu. Kontutan hartzekoa da, hala ere, berak analizatzen dituen obra gehienak literarioak edo saiakera-modukoak izanik, testu-liburuak, artikulua eta liburu juridiko-administratiboak edo zientifikoak falta direnez, erabilera berri gutxitxo jasotzen dituela. Izan ere, azken aipatutako idazki-mota horietan agertzen baitira *-elarik* atzizkiaren erabilera berri eta zalantza-koenak.

Euskaltzaindiaren (1994b: 962) XIII. Biltzarretik ohar labur baino zehatzak ialgi ziren, *-(e)la* atzizkiaren ondoriozko eta erlatibozko perpaus batzuetako erabilerak gaitzesterakoan. Gramatika Batzordearen agirian, *-ela* atzizkia konpletiboetan edo modu-denborazkoetan soilik agertzen dela esaten da.

Gramatiketan esan denaren errebaso labur hau bukatu baino lehen esan dezagun hainbat autoretan irakur ditzakegula gerundioari egindako erreferentziak. Honela, Azkuek, (1969: 262-263), atzizki horiek batzuetan gerundioaren ideia ere adierazten dutela diosku, eta Villasantek 1976 (198-207) argiro azaltzen du perpaus horien bidez, gaztelaniaz gerundioaren bidez adierazi ohi diren *ñabardura* semantikoak ematen direla. Zubiri eta Zubiriren liburuan, erdarazko gerundioa adierazteko erabiltzen diren hizkuntz baliabideen artean aipatzen da *-(e)la(rik)* atzizkia (1995: 542).

3. JASOTAKO ADIBIDEEN EGITURA SINTAKTIKOAK ETA BALIOAK

Atal honetan, arakaturako adibide-multzotik aukeraturako batzuk sailkaturik aurkezten ditugu. Lehenik, egitura sintaktikoari begiratu diogu,

horren araberako 3 multzo nagusi eginez. Lehen multzoan egitura aldetik gardenak eta zalantza gabekoak iruditu zaizkigunak sartu ditugu, hau da mendeko perpaus zirkunstantzialaren egitura garbia dutenak. Beste bi multzoetan, aldiz, *-(e)la/-(e)larik* atzizki menderatzailearen marka duten arren, gure ustez benetako mendetasuna agertzen ez duten perpausak jaso ditugu, horietako batzuk perpaus elkartuen antza gehiago, eta besteak, nolabaiteko erlatibozko egituratik hurbilagozat eman ditugulako.

Hipotesi gisa proposatzen dugun sailkapen hau, bere behin-behinekotasun guztiarekin, aski funtzional eta argigarria delakoan planteatzen dugu.

Egitura sintaktikoaren araberako multzo bakoitzaren barruan, esanahiaren araberako sailkapena egiten saiatu gara, jakinik ere mota honetako sailkapenak eztabaidagarriak izan daitezkeela beti.

3.1. Sintaxi-egiturak

3.1.1. Mendeko zirkunstantzialak

Mendekotasun argiko perpaus elkartuak dira; *-(e)la/-(e)larik* atzizkidun adizkia daraman perpausak perpaus nagusiko aditzaren zirkunstantziaren bat adierazten du. Ondoko hau izango litzateke bere eskema:

p[p[ad mend.-(e)la(rik)] ad nag.]

eta ondoko hau adibide bat:

p[p[Eta hiltzera zihoalarik], haren inguruan zauden emaztekiek erran zioten:]]

Kontutan har bedi eskema orokor horretan egitura soila islatzen dela, ez perpausen hitzordena, ez bere arteko ordena ere. Izan ere *-(e)la/-(e)larik* duen mendeko perpausa nagusiaren atzetik kokaturik doan adibideak bai baitaude.

3.1.2. Antzeko prominentzia duten gertaerak adierazten dituzten perpaus konposatuak («Sasi-mendekoak»)

Horrela deitu ditugun perpausetan, *-(e)la/-(e)larik* atzizkidun perpausak (ia beti *-(e)larik* formarekin) ez du benetako mendekotasunik nagusi moduan azaltzen denaren aurrean. Benetako juntadura da egiazko erlazioa.

Hona adibide bat:

p[p[Hierarkiaren goi-maila, memoria azkar eta garestiei dagokie], p[behekoa, berriz, memoria motel eta merkeei dagokielarik]]

3.1.3. *Erlatibo baten bidezko parafrasia onartzen duten menderatuak* («Erlatiboaren balioak»)

Honela sailkatu ditugunetan, *-(e)la/-(e)larik* atzizkia duen perpausak, nagusiaren elementu nominal baten izaera, nolakotasuna, edo oro har, erlatiboazko perpausak bete dezakeen edozein eginkizun betetzen du. Hona adibide bat:

p[p[ikuspegi berri hau galderezi beterik dago], gaur egun mirespenaz batera beldur sakon eta serioa sortzen digutelarik_{i,j}]

3.2. Mendeko zirkunstantzialen balioak

Ondoko sailkapenean, adibideetako *-(e)la/-(e)larik* atzizkidun perpausen egitura sintaktikoa gardentzat jo dugu eta balio zirkunstantzialaren arabera multzokatu ditugu, gramatika tradizionalerako balioak edo esanahiak baliatuz.

3.2.1. *Denbora-balioa*

Oso adibide ugarien artean denbora-baliozkoak jaso ditugu hemen denbora-balio orokor horren barruan egin daitezkeen —eta egin beharko lirakeen— sailkapenak (aldiberekotasuna, uneberekotasuna, iraupena...) zehaztu gabe.

- (1) *eztú deitunái vicitza, baizic eriótze perpétuoá, escatzenduélaic letanian «a morte... LIZARRAGA J (1991: 41).*
- (2) *Oroibedí nitas, Jauna, doaieláic bere erreinuá ONDARRA (1984: 57.3).*
- (3) *Eta hiltzera zihoalarik, haren inguruan zauden emaztekiek erran zioten: DUVOISIN (1972: 270).*
- (4) *bost urte irian neure gurasoek herriko eskolara bidali nindutelarik ez nekien frantses tutik .LANDART (1982: 15).*
- (5) *..., haren ikustera zetorrelarik, irriño bat erakarri zion ezpainetara. MIRANDE (1995: 20).*
- (6) *Soziologoa mintza daiteke (...) «gizarte» batez, baina erabil dezake termino bera (...) gizatalde bati dagokiolarik ere... BERGER (1994: 42).*

3.2.2. *Modua*

Modua da, denborarekin batera, gramatika gehienetan jasotzen den balioa; izan ere, horiek dira testu zaharretan, eta berrietan, *-(e)la/-(e)larik* atzizkiekin maizenik adierazten diren zirkunstantziak.

- (7) *Orduan batzuc iaiquiric falsuqui testifica ceçaten haren contra, cioi-tela*, LEIZARRAGA J (1571: 93, 57).
- (8) *baina hark vka ceçan, cioela*, LEIZARRAGA J (1571: 93, 68).
- (9) *Eta Saphanek... eta laneko berriak eman ziozkan, zioelarik*: DUVOISIN (1972: 465).
- (10) *Lau orenak irian agertu ziren Hazparne-Zelaitarrak, (...) neskato ile harrodun andana besoz beso zerakartelarik*. ETCHEPARE J (1980: 38).
- (11) *...irtenbide horren desesperantzaren bitartez ez beste hel gaitetzke esperantzara, (...) beti ere arrazoimenera ezin murriz daitekeen zerbait badela dioskularik*, UNAMUNO (1994: 198).
- (12) *Neskamena ittzuli zen sukaldetik, Vodka-botoilla bat zekarrela*. MIRANDE (1995: 13).
- (13) *behinere bezain azkar lotzen dira guduari, hainbertze diruren gora-behera beien menean dela oroitzeak berotzen dituelarik aitzina*. ETCHEPARE (1980: 43).

3.2.3. Kontzesioa

Esaldi kontzesibo ugari jaso daiteke, halaber, garai eta euskalki guztietako autoreetan. Maiz, *ere* partikula ondoan duela azpimarkatzen da balio kontzesiboa, baina *-(e)la* edo *-(e)larik* soilekin ere osatzen dira balio horretako perpaus menderatuak.

- (14) *Ta zuek, indartsuak zeratela, laguna bear dezute zugatz zirzil bat gurdira jasotzeko* AB AGUIRRE. Garoa, 32.
- (15) *Tobias bere arrebakaz sekula ez zan ondo konpondu. Hori, mutil mazala ta borondate onekoa zala* AB ERKIAGA Iribarrea, 114.
- (16) *Azentu au, gitxi-asko, izkuntza guztietan dala be, gurea «ta gogozkoa»* AB ONAINDIA Gure, 23.
- (17) *Euskal deitura duelarik, ez gaitu gehiegi maite euskaldunok* AB MITXELENA Idazlan, 270.
- (18) *Nahi ez nuelarik ere, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen* AB MITXELENA Idazlan, 376.

Azpiatal honetan aipatuko ditugu aditzaren errepikapenez osatzen diren esapide kontzesiboak, sarreran genioen bezala, aztergai uzten ditugunak.

- (19) *Datorrena datorrela, baietza emon biotz-eske etorrenari?* AB ERKIAGA Arranegi, 61.
- (20) *Dana dalarik izkuntza guzti oneik dakarre oindiño be lenengoaren zer bat* AB ONAINDIA Gure, 23.

3.2.4. Kausa

Lafittek eta Ondarrak aipatzen duten balio, edo kutsu hori duten adibi-deak ez dira falta. Dena den, esan behar da aurreko balioekin ez bezala,

oso zoru labainean abiatzen garena, oso zaila baita jakitea idazleak zehazki zer adierazi nahi zuen. Ondoko adibideak, denak hegoaldeko euskalkieta-koak (goi-nafarrerazkoak) edo modernoak, arazo horren adierazgarriak dira.

- (21) *:baña gañaracoóc gareláic campocoác generácios, arcengaitu caridádes...* (1976: 34).
- (22) *Guizonarén azquén fin bacarra delaríc ellegatzea (...), ori berás izan-beárda gure inténciao* (1976: 31).
- (23) *Kristo ezin izan zitekeelarik (Nietzsche), Kristoz blasfematu zuen.* (1994: 79).
- (24) *zuréa dá ceruétaco erreinua, zuregátic pagatudueláic aimberce Jesus ónac»*(1984: 48).

3.2.5. Ondorioa

Aurreko puntukoetan baino areago somatu dugu ondoko esaldiak zehaztasunez ulertzeko zailtasuna. Dena dela, uste dugu adibide horietan, ondorio-balioa emanez lor daitezkeela parafra-sirik egokienak. Azpimar-katzekoa da adibide horietan guztietan (ez dugu esan nahi besterik gerta-tzen ez denik) perpaus nagusiaren eskuinetara doala *-(e)la/-(e)larik* duena.

- (25) *Existitzea, zerbait gugandik kanpoan jartzea da, hartaz dugun haute-matea baino lehenagokoa izanik, gu desagertzean ere bera izaten se-gitzeo era duelarik* (1994: 197).
- (26) *Hori esan ondoren alde egin du gela hutsean bakarrik uzten nindue-larik AB* (1985: 93).
- (27) *«...elektroiaren orbita gero eta txikiagoa izango zen, azkenean nahi-taez nukleoarekin talka egingo zuelarik* (1991).
- (28) *Kasu honetan, -a artikulua-ren kidea dugu, bat/-a oposaketa gertatzen delarik* (1984: 35).
- (29) *oligoketoen sailkapenean nahasketa handia izan da, autore desberdi-nen arabera familia batzu baztertu ala sartu izan direlarik.* (1982: 302).
- (30) *...J. Needham-ek (...) lan astuna burutu du, europarren (...) ikuspegi estu eta dogmatikoari erabat marko zabala ireki diola* (1991: 72).
- (31) *Neskatxa bera eta haien familia, gehienetan bazterre-ra utziak zien (...) horrela, barkamenik merezi ez duten hobendun zitalak bilakatzen zirela* (1982: 21).

3.2.6. Balio zirkunstantzial lausoak: aurrekoen konbinaketak

Aurreko balioak oso eztabaidagarriak dira, dudarik gabe. Izan ere, neke handia hartu dugu hainbat kasutan adibidea non kokatu erabaki ahal izateko. Ondoren datozenek argi asko erakusten dute zein alor labaina den esanahi edo balioarena; zirkunstantzialetan sar badaitezke ere, ezin izan

ditugu kokatu balio unitariokoetan. Ziur gaude ondokoak bezainbeste az-pisailkapen erants lekizkiokeela zerrenda honi.

Denbora/modua?

- (32) *Haren ille-adats ederra gizonak perekatzen zuelarik esan zion:* (1995:)
- (33) *Theresaren begiak (...) idortu ziren beingoan, gizonak zutik erazten eta beso bat gerri-inguruan ezartzen ziolarik.* (1995)

Denbora/baldintza?

Ondarrak (1984:22) ondorengo adibide hauei balio kondizionala esleitzen badie ere, uste dugu denborazkotzat ere har daitezkeela:

- (34) *Berás bere borondatea deláric gú héri egotea, héri egotean paciência onaréqui dá cervitzatua* LIZARRAGA (1984: 55)
- (35) *baña nior ez (legoke segúro) bere búruas, dabilaláic aimberce peli-gro értéan.* LIZARRAGA J (1991: 47)

Denbora/kausa?

- (36) *ten Jangoicoac piedáde aiéi ere, daudeláic oráño fede Christioan* LIZARRAGA (1976: 40)

Kausa/ondorioa?

- (37) *comunicaciogáu edatzendá Purgatorioráño, validioteláric angóei gure suffrágioac* LIZARRAGA (1976) 40.
- (38) *Kultur eginkizunak ekimen pribatuaren esku utz daitezke, Estatuak bere gain hartzen dituenak mugatuak direlarik.* (1993: 49)
- (39) *baina egungo lanek, eritzi hauek berraztertzekeo beharra azaltzen dute, oligoketoen ekologiaren ikuspegi konplexuagoa ematen ari direlarik.* (1982: 314)
- (40) *gaur egun bakterioak programaturiko mikrofabrikak direla esan daiteke, bioteknologia eta bioindustriaren oinarri bihurtu direlarik.* (1991: 18)
- (41) *eta horregatik ez gara baliatzen eskubideen teknikaz edo tresneriaz; pentsamolde eta instituzio juridiko berrien beharra dugularik.* (1993: 297)

3.3. Antzeko prominentzia duten gertaerak adierazten dituzten perpauk konposatuak («Sasi-mendekoak»)

Ondoren datozen adibideetan, denak mende honetakoak, «sasi-mendekotzat» jo daitezkeen egiturak soma daitezke. Testu zientifiko-pragmati-

koetan, juridikoetan, administratiboetan, honelako adibide ugari aurkitu ditugu.

Hona adibideen artean aukeratutako lagin bat.

- (42) ... *baina* 1968 urtera arte ez zen CM zuen ordenadorerik eraiki, hau IBM 360/85a izan zelarik. (1990: 2)
- (43) *bai* CM eta *bai* MN lerro-multzo batez eratzen dira, CMko lerroak beti MNkoen kopiak direlarik. (1990: 3)
- (44) *disolbatzailearen* (...) 25 cm³ sartu ziren, kantitate zehatza pisaketaz ezaguna zelarik, eta huts-linea batean desgasifikatu egin zen. (1982: 290)
- (45) *Lumbriculidae* ipar hemisferioko familia termofobo bat da, (...) multzo bat endemikoa delarik. (1982: 311)
- (46) ...*ale* negatibo haiek karga positiboak erakarri egiten zituen eta aleek elkar aldarazi egiten zuten, guzti horrek multzoaren kohesioa segurtatzen zuelarik. (1991: 40)
- (47) Bertako lehen Atalburua Herri Arduralaritzan euskera erabiltzeari buruzkoa da, (...) harremanetan euskera eta gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen delarik. (1982)
- (48) Bere ezarketa eta zaingoa Euskal Herriko Hauteskunde-Batzordeak egingo du, bere eginkizuna Arduratze-Batzordearen eta Artezkari nagusiaren bitartez beteko duelarik. / LEGEA 22.2 art.
- (49) Beste aldetik, *bai* bata, *bai* bestea jasota daude hiztegietan eta gramatika-liburuetan; ez, ordea, guztietan, ageri den gehienetan azalpena lehenengo erabilerara mugatzen delarik, (1993: 877)
- (50) ...*parafrasia* baldintza kutsukoa da, bestela-k nolabait perpaus oso bat ordezkatzan duelarik. (1990: 26)
- (51) *perpausak* lotu ezezik, elkartu ere egiten dira, elkarketa horren ondorioz lortzen dena perpaus delarik halaber. (1990: 23)
- (52) *Nor-nork* eta *Nor-nori-nork* bezala erabiltzen da forma sintetiko galdutzat jo dezakegarik. (1984: 70)
- (53) *azpimarratutako* elementuak izen-sintagmak ditugu, atalka aztertuz, ondoko ondorioak aterako genituzkeelarik. (1984: 76)

Orain arteko adibide horietan guztietan *-(e)larik* bazen ere azaltzen zen atzizkia, ez dira falta *-(e)la*-rekin osatutako perpaus juntatuak. Gure ustez, horietarikoak dira ondoko adibideak, hiruak, literatura-testuetatik jalgiak.

- (54) *Barruratu* zen apaiz zaharra biblioteca isil eta ilun hartara, handik berehala eskuskribu batekin irten zitzaigula AB (1985:25)
- (55) *Kolorezko kristal haundiz osoturiko sabai altua* du galeriak, hormak ere kristalezkoak direla. AB (1985:51)
- (56) *Lenengo ardaa bakarrik jokatu zan, mandazañak galdu ebela* berau AB (1918:25)

3.4. Erlatibo baten bidezko parafrasia onartzen duten menderatuak («Erlatiboaren baliokoak»)

Hirugarren multzo honetan, *-(e)la/-(e)larik* duen perpausak, perpausen nagusiko izen-sintagma baten azalpen-erlatibo balioa edo du. Gorago aipatu dugun Euskaltzaindiaren Gramatika batzordearen agirian, erlatiboaren ordeztze *-(e)la* atzizkia erabiltzea gaitzesten da, esanaz 1 osagaiak lekuz aldatuta dituen erlatiboaren esaldia dela. Kasu hartan argi badirudi ere, beste hainbatetan ez dago hain garbi egitura sintaktikoaren aldetik benetako erlatiboaz hitz egin daitekeenik. Batzuetan badirudi erlatiboaren ordeztze osatzeko balio duten *-en*, edo *bait-en* ordeztze dagoela *-(e)larik* atzizkia. Beste kasu batzuetan, berriz, balioa edo esanahia bakarrik da erlatiboaren baten bidez azal daitekeena. Oso ugari dira gure adibideten gainean sailkatutako erlatiboaren esaldiak.

- (56) *ikuspegi berri hau galderez beterik dago, gaur egun mirespenaz batera beldur sakon eta serioa sortzen digutelarik.* (1992: 5)
- (57) *batetik euskarazkoa, eta bestetik erdarazkoa, azken hau batez ere gaztelarazkoa delarik.* (1993: 878)
- (58) «...gaur egun bakterioak programaturiko mikrofabrikak direla esan daiteke, bioteknologia eta bioindustriaren oinarri bihurtu dirrelarik.» (1991: 18)
- (59) *Euskal Irrati-Telebistarako herri-zerbitzuak eraentzeko sor dadin Herri-Baltzu bakoitzak Eraentza-Batzorde bat sortzea ekarriko du honako hauek osatutako dutelarik* (1982 Legea 15. art. 1.)
- (60) *Erabakia, 1995eko ekainaren 15ekoa, UPV/EHUarena, beronen bidez XX andreak jarritako errekurtsioa onartzen ez delarik.* (1995: Erabakia)
- (61) «*espermatekak inbaginazio ektodermikoak dira, bi zona dituztelarik, bata ireki konduktua...*» (1982: 301)

4. ONDORIO ETA GOGOETA BATZUK

Atal honetan bildu ditugu aipatutako adibideen azterketatik eta sailkapen-saiakeratik ateratako ondorio batzuek gainera, ondorioren mailara iristen ez diren puntu zehatz batzuei buruzko gogoeta moduko zertzelada batzuk.

a) Erabilera zaharrak, erabilera berriak

Aurreko ataleko sailkapenean idazleak nola banatzen diren ikusita ondorioztatu dezakegu atzizki horiekiko perpausen egiturek eta balioek badutela denborarekin eta geografiarekin lotutako banaketa. Mendeko zirkuntzientzialen egitura izaki, denbora edo modua adierazten dutenak euskalki

eta garai guztietako autoreetan aurkitzen ditugu, nahiz eta, *-(e)larik*-en balio tenporal batzuk maizenik Ipar edo Ekialdeko testuetan aurkitzen diren. Gauza bera esan genezake balio kontzesibodunei buruz. Zirkunstantzialen artean, kausa eta ondorioa, (sarritan modu anbiguoan) adierazten dutenak, eta «sasi-mendeko» nahiz «erlatiboaren baliokoak» deitu ditugun gehien gehienak, aitzitik, hegoaldeko eta mende honetako idazleenak dira. Azterketa luze-sakonagoa egin beharrekoa den arren, berrikuntza nabarmenak somatzen ditugu, bereziki mende honetako idazle eta itzultaile batzuen testuetan, gehienak Gipuzkoa-Bizkaia aldekoak.

b) Erabilera berriak baliatzen dituzten testuen generoak

Testu-mota anitz azterketa honetatik kanpo geratu badira ere, bai Agirre Berezibarren eta bai gure adibideteak erakusten bide dutenez, badi-rudi erabilera berriak ez direla gehiegi ugaritu sormenezko testu literarioetan. Guri dagokigunez, *-(e)larik*-en erabilera eta balio berrien adibide gehienak testu pragmatikoetan eta itzulpenetan aurkitu ditugu. Saiakerak, artikulu zientifikoak, zientzia-dibulgazioa, testuliburuak, araugintza, era guztietako testu administratiboak eta itzulpenak oro har dira adibide gehien eskaini dituzten generoak.

c) Balio zabaletik «erabileraorotako» tresna bihurtzera

Agirre Berezibarrek (1991: 1006) dioenean atzizki horiek «*funtzio enmarkatzaile kontestuala (...) balio logiko gabea*» dutela ez dabil desbidean. Izan ere, oso zirkunstantzia desberdinak adierazten dira guk jasotako adibide batean edo bestean, atzizki horien bidez. Idazle zaharretan zirkunstantzia generiko zehaztugabe batzuk (denbora, modua, kontzesioa gehienbat; kausa, batzuetan) adierazteko balio zuen atzizkiaren erabilera erraz lerra zitekeen beste eremu zabalagoetara. Hori gertatu da azken garaietako hainbat testutan, aztertutako adibideen arabera. Gramatiketan, ikusi bezala, 80ko hamarkadara arte gehienbat denbora edo modua balioekin lotzen bazen, eta handik aurrerakoetan, balio berri batzuk ere nolabait deskribatzen badira, gaur eguneko testuetan «komodin» gisa erabilia ikusten dugu, tradizioan baino askoz balio gehiagorekin, eta baita funtzio desberdinetan ere.

d) *-(E)larik* eta *-(e)la*-ren trukagarritasunaz

Adibide-bilaketan gehienbat *-(e)larik* atzizkidunen atzetik ibili bagara ere, *-(e)la*-dun batzuk ere jaso eta aztertu ditugu. Esapide jakin batzuk

(e.b. aipatzen den unetik igaro den denboraldia adierazteko: *d(u)ela 5 urte...*, edo kontzesioa: *dena dela...* adierazten dutenak bezalakoak) kenduz gero, badirudi autore zaharretan ez dagoela alde nabarmenik *-(e)la* eta *-(e)larik*-en balioen artean, eta beraz, bien arteko trukagarritasunaz hitz egin daitekeela oro har. Besterik da, ordea, erabilera berrietan. Kausa eta ondorio balioekin, ia beti *-(e)larik*-ekin osatutako esaldiak aurkitu ditugu. Gauza bera «sasi-mendeko» eta «erlatiboaren balioko» deitu ditugun egituretan *-(e)la* atzizkiaren erabilerak aldaketa txikiak erakusten ditu, guk jorratutako adibideetan bederen. Ondoriozta daiteke gaurko idazle zenbaiten praktikan trukagarritasuna murriztu egin dela, balio eta erabilera desberdineko atzizkitzat jotzen direla bi atzizki horiek.

e) Erabilera berrien aztarnak testu klasikoetan?

Atzizki horien funtzio testualetan —Agirre Berezibarrek urratutako bidean, alegia—, ez bagara sartuko ere, kasu bakar batean geratu egingo gara, uste baitugu bertan salbuespen garrantzitsu bat, eta agian berrikuntza batzuen abiapuntua edo soma daitekeela.

Aipamen zuzenekoa iragartzeko edo sarbidea emateko funtzioan oso ugari ikusten dira bai *-(e)la* eta bai *-(e)larik*, atzizkiak. Uste dugu garai guztietako izkribuetan aurki daitekeela, eta bereziki autore klasikoetan, Leizarragatik hasita.

Baina funtzio testual hori betetzen, gure sailkapeneko irizpideak aplikatuaz, egitura desberdinak somatzen direla uste dugu.

a) Moduzko mendekoak, non *-(e)la/-(e)larik* atzizkidun perpausak perpaus nagusiaren gertatzeko modua adierazten duen. Perpaus nagusiko aditza, *esan*, *deitu*, *izendatu*, *erantzun*, *irakatsi*, *kantatu* edo antzekoa izan ohi da, honako adibide hauek erakusten duten legez:

- (7) *Orduan batzuc iaiquiric falsuqui testifica ceçaten haren contra, cioitela*, LEIZARRAGA (1571:91)
- (8) *baina hark vka ceçan, cioela*, LEIZARRAGA (1571:91)
- (9) *Eta Saphanek... eta laneko berriak eman ziozkan, zioelarik*: DUVOISIN(1972:465)

b) «Sasi-mendekoak» Hainbat adibidetan *-(e)la/-(e)larik* atzizkidun perpausaren eta nagusiaren artean garaikidetasun-erlazioa besterik ez dago. Esate baterako:

- (61) *Orduan ethortzen dirade (...) semeac, dioitela*, LEIZARRAGA (1571:82)
- (62) *Paratucéquo béin leprosobát belauríco escatzenziola, Jauna*. (LIZARRAGA: 1984:14)

- (63) *Filistindarrak lotsatu ziren ziotelarik: Jainkoa kompetara etorri da.*
(DUVOISIN 1972: 269)
- (64) *Jende guztia bozkario haundiz betetzen zen: «heldu dira, heldu... zio-
telarik.* (LANDART 1982:85)

Gure ustez, argi dago *-(e)la/-(e)larik* atzizkidun perpausaren balioa ez dela perpaus nagusiaren gerta-denbora zehaztea. Moduzkotzat ere nekez eman daitezke. Hartaz, eta J.A. Letamendiak (1979: 459) ematen duen argibidea¹: kontutan harturik, hipotesi moduan aurreratuko dugu erabilera «normaletik» urruntzen den honen sorreraren esplikazioa itzulpenean bilatu behar dela.

Izan ere, Letamendiak aipatzen duen balio horixe aurkitzen diogu kasu guztietan, latinezko «dicens», gaztelaniazko «diciendo» frantsesezko «en disant».

Gure analisia zuzena bada, *-(e)la/-(e)larik* atzizkien balioen artean badekegu aspaldidanik besteak bezalako menderakuntzakoa ez den bat. Egiaztatuz gero, zehazkizun legoke jokabide horrek erabilera berrietan izan duen eragina.

f) **Gaztelaniazko gerundioaren eraginaz**

Zirriborro moduan bada ere, ez genuke aipatu gabe utzi nahi hainbate-tan, gai hau aipatzen denean, ia ahobatezko izaten den gogoeta: gaztelaniazko gerundioak zenbaterainoko eragina izan bide duen gure berrikuntza horietan.

Gogora dezagun hasteko nola agertzen den, jadanik XVI. mendean, latinezko *dicens*-en eraginez edo, *-(e)la/-(e)larik* atzizkien erabilera bat non menderakuntza-egitura ez den beti gardena. *Dicens* orainaldiko partizipioa eta ez gerundioa den arren, abusurik gabe har genezake gaztelaniazko *diciendo* nahiz frantsesezko *en disant* gerundioen aurrekaritzat.

Askotan aipatu ohi da *gerundio* hitza euskal gramatika-lanetan. Argi dago izen horrekin ez dela adierazi nahi gure aditz-sistemaren forma edo adizki jakin bat, baizik eta latinezko, espainolezko edo frantsesezko adizki horren balioak emateko erabiltzen ditugun egiturak.

Guztiek onartzen dute moduzko zirkunstantzialen balioarekin funtzio beretsua betetzen dutela erdal gerundioak eta *-(e)la/-(e)larik* atzizkiekin osatutako esaldiak.

Paralelismo hori berez ez da arazo-iturri. Arazoak sor daitezke erdal gerundioa azaltzen den toki guztietan euskal esaldian *-(e)la/-(e)larik* atzizkiak ipintzen badira.

¹ «*Dicens*, adibidez, etengabe agertzen zaigu baina gehienetan erraiten *çuela*, *cioela*, *cioitela*, *ciotsala* eta antzekoen bidez ematen digu Leizarragak, forma pertsonalez *-ela* atzizkiarekin.»

Eta arazoak oso kezkarri bihur daitezke morrontza linguistikoak bultzaturik erdaraz txartzat edo gutxienez zalantzazkotzat jotzen diren azken garaiotan modan jarritako gerundio batzuen ordainetan euskaraz traketsak eta ilunak diren *-(e)la/-(e)larik*-dun esaldiak egiten baditugu.

Gaztelaniazko gramatiketan jaso daitezkeen erabilera zalantzazkoen artean, Maria Molinerren hiztegian «*gerundio*» sarreran «*gerundio copulativo*» izenarekin deskribatzen denari erreparatu diogu, bertan ikusi baitugu *-(e)la* eta bereziki *-(e)larik* atzizkien erabilera berrietan eragin handienetakoa izan duena.

Bi perpausen arteko lotura kopula hutsezkoa izan zitekeela, gerundiozko perpaus konposatuak osatzen direnean dugu «*gerundio copulativo*»-a. «Real Academia Española»-ren *Esbozo*-n (1982: 488, 489) eta beste gramatiketan horrelako perpausak erabat gaitzesten dira gerundioak berez eskatzen duen aldiberekotasuna ez dagoelako. Maria Molinerrek usuarioari begiratuta, jendeak erabili eta ulertu egiten dituela dio, hartaz, ez direla erabat baztergarriak, nahiz eta bere erabilera mugatzeko gomendioa ematen duen.

Harrigarria da gaztelaniazko gerundio kopulatiboaren eta euskarazko *-(e)la/-(e)larik*-dun perpaus batzuen paralelismoa. Bi hizkuntzotan ikusenezake berez menderakuntzaren marka diren elementuak juntadura-balioa duten elkarketak osatzeko erabiliak. Ondoko adibideotan gure ustez argi ageri da paralelismoa:

(65a) *En los establecimientos autorizados podrán aplicarse sistemas de control de admisión (...) debiendo existir un Libro de Reclamaciones (...)*

Gaztelaniazko esaldia honela berriidatz daiteke RAEren gomendioak jarraiki:

(65a'): *podrán aplicarse sistemas de control de admisión (...) y deberá existir un Libro de Reclamaciones*

eta 65b)-ri buruz uste dugu argiago nabarmentzen duela bere benetako egitura ondoko berriidazketa honek:

(65b'): *Baimena duten establezimenduetan pertsonak ez onartzeko kontrol sistemak ezar daitezke (...) eta Kexa Liburua izan beharko dute*

Maria Molinerrek gaztelaniazko «*gerundio copulativo*»-zko esaldien juntadura-izaera nabarmentzeko proposatzen duen proba —gerundioa aditzez aldatzea— euskarazko horrelako esaldiei aplikatuz, alegia *-(e)larik* atzizkia adizki «nagusiari» ipiniz esanahi beretsuko esaldiak lortzen dira.

(65b'') *Baimena duten establezimenduetan pertsonak ez onartzeko kontrol sistemak ezar daitezkeelarik(...) Kexa Liburua izan beharko da.* (1991)

edo perpausen ordena trukatur:

(65b^{'''}) *Baimena duten establezimenduetan Kexa Liburua izan beharko da (1991) pertsonak ez onartzeko kontrol sistemak ezar daitezkeela-rik(...)*

5. BALIO ETA ERABILERA «BERRIAK» HIZKERA TEKNIKO-ZIENTIFIKOAREN IKUSPEGITIK

Nabarmena izan da, aurrerago ondorioztatzen genuenez, mende honen bigarren aldiko Hegoaldeko testu-mota askotan, baina oso bereziki tekniko-zientifikoetan, gertatu den *-(e)la/- (e)larik* atzizkien erabileraren ugaltzea eta zabaltzea. Erabilera «berrien» artean sailkatu ditugun adibideetako batzuen egileak «susmo guztien gainetik» dauden horietakoak izateak argi asko adierazten du zenbaterainoko onarpena eta hedadura erdietsi duten berrikuntza horiek.

-(E)la/- (e)larik atzizkien inguruan arazoak daudela eta zalantzezko erabilerak egiten direla edozein euskaltegitan entzuten zen zerbait bada ere, orain dela gutxi arte ezer gutxi zegoen argitaraturik gai horri buruz. Alde batera utzirik aurrerago aipatu dugun Odriozolaren laneko oharra, 1992an plazaratu zen Euskaldunon Egunkariaren *Estilo Liburuan* argitaratu ziren lehen aldiz atzizki horien erabilerari buruzko prebentzio-oharrak.

Estilo Liburuan, aipaturiko bi bertsioetan, bi modutako erabilerak onartzen dira. Horietako bat, «-nean» bukaeraren parekoa, eta Ipar Euskal Herrian batez ere zabaldua, *-(e)larik* formarekin bakarrik erabiltzea gomendatzen da. Bertan datorren adibideak: «*hamasei urte betetzen dituzularik, lanean hasi edo ikasten segi erabaki behar duzu*» ondo argitzen du zein den erabilera eta balio hori. Bestean, hau da, menpeko aditzak adierazten duen denbora tartearen erdian beste zerbait gertatzen dela adierazteko, eta horren kideko moduzko perpausetan, *-(e)la* zein *-(e)larik* posible direla aitorturik, *-(e)la* erabiltzea gomendatzen da. Gainerako erabilerak baztertu egiten dira, kasu askotan bere orde ezaldi koordinatuak egitea gomendatzen. Arau horien azpian, gure azterketaren ondorioekin bat datorren analisisa dagoela uste dugu.

Gorago aipaturiko Euskaltzaindiaren (1994b:962) *Euskeran*, *-(e)larik* gabe, *-(e)la* atzizkiaren erabilera berri batzuk aztertzen dira. Gure azterketarekin funtsean guztiz bat datozen gomendioetan, ondoriozko eta erlatibozko perpaus batzuetako erabilerak gaitzesten ditu akademiaren Gramatika Batzordeak.

Aipatu beharrekoak dira halaber fotokopia moduan zabaldu diren Miren Azkarateren Hobekuntza Ikastaroko *-elarik* atzizkiari buruzko lau orrialde mamitsuak. Tradizioan bezala denbora, modua eta kausa adierazten duten perpausetan izan ezik, aurretik esan denaren ondorioa adierazte-

ko balio berria ematen zaiola esan ondoren, zalantzazko erabilera berri horren ordez, koordinazioaz, -z gerundioaz eta erlatiboaz baliatzea proposatzen du. Nabardura batzuk gora behera Azkarateren gomendioak gurekin oso ondo lotzen direla deritzogu.

Jakina da hizkuntza-kontutan ez dagoela mugiezinezko legerik, eta hizkuntza komunikabide hobea eta erosoagoa bilakatu duen berrikuntza ugari ezagutzen dugula euskararen historian. Gogoratu nahi dugu hemen, «*dicens*»-en itzulpenaren inguruan egindako gogoeta; alegia, eskema tradizionaletan eroso sartzen ez diren egiturak aurki daitezkeela hizkuntzetan, eta beste hizkuntza baten eraginezkoa izateak ez duela baliabide bat besterik gabe betiko deserrira kondentatzen.

Ikuspegi hori baztertu gabe baieztatu dezakegu idazle, eta bereziki itzultzaile askorentzat, oso baliabide eroso bilakatu dela atzizki hori, bereziki *-(e)larik* formarekin. Izan ere, gaztelaniazko gerundio askoren itzulpenarako beste egituren bidez emateko zailak diren erlatiboak edo erlatiboaren antzekoak adierazteko, eta loturik adierazi nahi diren perpausak elkartzeko, besteak beste, oso tresna erabilterraza baita atzizki hori. Besterik da, ordea, erraztasun horrek idazkerari, batez ere idazkera tekniko edo zientifikuari, pentsamendua zehaztasunez eta doitasunez adierazteko tresna eskaini dion.

Gure ustez, eta aztertu ditugun adibideez soilik ari gara, zehaztasuna gabe, kasu asko eta askotan, anbiguitatea eta/edo ulertzeko zailtasuna darrige egitura eta balio berriei. *-(e)larik* atzizkiarekin osatutako esaldien parafraasi egitea zaila suertatu zaigu kasu askotan; perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko lotura, atzeman gaitza.

Hona hemen aztertutako adibideetatik atera ditugun ondorio praktikoko batzuk. Behin-behineko gomendio horiek, *-(e)larik* atzizkiaren erabileran zentratzen dira, hor ikusten baitugu arazo-iturririk nagusia.

a) Ondoriozko perpausetan

Balio guztien artean, «ondorioa» da gure ustez zalantzazkoena, eta esaldi ilunenak osatzen dituena. Hobeto, beraz, «ondorioa» balioa adierazteko *-(e)larik* gabe beste atzizkiak edo beste egiturak erabiltzen badira.

Hona, gure adibidetegitik ateratako kasu horietan nola egin daitezkeen tradizioaren araberrako, eta zehaztasun handiagoko esaldiak. Zehaztasunaren kontu hau, noski, idazlearen baitan legoke beti; hortaz, hemengo proposamenok, balizko zehaztasuna areagotu nahi izatekotan izango lirateke onargarriak:

- (25) *Existitzea, zerbait gugandik kanpoan jartzea da, hartaz dugun haute-matea baino lehenagokoa izanik, gu desagertzean ere bera izaten segitzeko era duelarik.* (1994: 197)

- (25') *Existitzea, zerbait gugandik kanpoan jartzea denez, hartaz dugun hautematea baino lehenagokoa izanik, gu desagertzean ere bera izaten segitzeko era du.*
- (27) *elektroiaren orbita gero eta txikiagoa izango zen, azkenean nahitaez nukleoarekin talka egingo zuelarik.(1991)*
- (27') *elektroiaren orbita gero eta txikiagoa izango zenez, azkenean nahitaez nukleoarekin talka gingo zuen.(1991)*

Hurrengo adibide hau, Miren Azkarateren apunteetako 12. zenbakikoa da:

- (66a) *Mende honen hasieran, bidegabeko banaketa kolonial batek herri hau muga artifizialen bidez zatikatu zuen, ondorioz, azken ehun urte hauetan, ofizialki behintzat, Kurdistanek izaterik ez duelarik.*

Eta berea da ere proposatzen dugun konponketa:

- (66a') *Mende honen hasieran, bidegabeko banaketa kolonial batek herri hau muga artifizialen bidez zatikatu zuen, eta ondorioz, azken ehun urte hauetan, ofizialki behintzat, Kurdistanek ez du izaterik.*

b) «Sasi-mendekoak»

Horrela deitu ditugunak, oro har, baztertzekotzat jotzen ditugu zehaztasuna lortu nahi bada. Kasu gehienetan egitura hori hartzen duten esaldiak argiago eman daitezke behar diren juntagailuak, nahiz alborakuntza, erabiliz.

- (46) *...ale negatibo haiek karga positiboak erakarri egiten zituen eta aleek elkar aldarazi egiten zuten, guzti horrek multzoaren kohesioa segurtatzen zuelarik. (1991: 40)*
- (46') *...ale negatibo haiek karga positiboak erakarri egiten zituen eta aleek elkar aldarazi egiten zuten; guzti horrek multzoaren kohesioa segurtatzen zuen. (1991: 40)*
- (46'') *...ale negatibo haiek karga positiboak erakarri egiten zituen eta aleek elkar aldarazi egiten zuten; guzti horren bidez multzoaren kohesioa segurtatzen zen. (1991: 40)*
- (48) *Bere ezarketa eta zaingoa Euskal Herriko Hauteskunde-Batzordeak egingo du, bere eginkizuna Arduratze-Batzordearen eta Artezkari nagusiaren bitartez beteko duelarik.*
- (48') *Bere ezarketa eta zaingoa Euskal Herriko Hauteskunde-Batzordeak egingo du ; bere eginkizuna Arduratze-Batzordearen eta Artezkari nagusiaren bitartez beteko du.*

c) Erlatiboaren balioa dutenak

Sasi-erlatiboazko balioa edo egitura duten esaldi gehienetan, erlatiboa esplizitatuz, edo erlatiboazko perpaus tradizionalak (bere modalitate ugarrietan) eratuz, zehaztasuna eta argitasuna irabazten dela deritzogu.

- (56) *Nolanahi ere, ikuspegi berri hau galderez beterik dago, gaur egun mirespenaz batera beldur sakon eta serioa sortzen digutelarik. (1992)*
- (56') *Nolanahi ere, ikuspegi berri hau gaur egun mirespenaz batera beldur sakon eta serioa sortzen diguten galderez beterik dago (1992)*
- (56'') *Nolanahi ere, ikuspegi berri hau galderez beterik dago, zeinak gaur egun mirespenaz batera beldur sakon eta serioa sortzen baitigute. (1992)*
- (59) *Euskal Irrati-Telebistarako herri-zerbitzuak eraentzeko sor dadin Herri-Baltzu bakoitzak Eraentza-Batzorde bat sortzea ekarriko du honako hauek osatuko ditelarik. (1982)*
- (59') *Euskal Irrati-Telebistarako herri-zerbitzuak eraentzeko sor dadin Herri-Baltzu bakoitzak Eraentza-Batzorde bat sortzea ekarriko du, honako hauek osatuko ditena. (1982)*

d) Geroaldiko adizkiekin

Hasieran esaten genuenez, salbuespentzat eman daitezkeen kasu bakan batzuk aparte, indikatiboazko adizkiei erantsi ohi zaizkie *-(e)la/-(e)larik* atzizkiak. Gure adibideetan ikusi ahal izan dugunez, eta Azkaratek (1995: 37) dioen bezala, badirudi orainaldiko eta iraganaldiko adizkiekin soilik osatzen dira esaldi zuzenak. Hortaz, zuhurrago jokatuko dugu geroaldiko adizkiekin erabili gabe.

- (53) *azpimarratutako elementuak izen-sintagmak ditugu, atalka aztertuz, ondoko ondorioak aterako genituzkeelarik. (1984)*

Beste kasu askotan bezala, geroaldiko adizki batekin osatutako perpaus hori «sasi-mendekotzat» eman dezakegu, eta honela berridatz:

- (53') *azpimarratutako elementuak izen-sintagmak ditugu; atalka aztertuz, ondoko ondorioak aterako genituzke. (1984)*

e) Atzeko kokapena

Esan dezagun bidenabar nahiko arriskutsua dela atzeko kokapena, hau da, *-(e)larik* duen perpausa perpaus nagusiaren eskuinetara botatzea. Izan ere kasu askotan, ondorio-balioa eman nahi zaionean, eskuinera botatzen

da mendeko perpausa. Tradizioaren araberako moduzko edo denborazko perpaus menderatuak egiten direnean, gehien gehienetan aditz nagusiaren aurretik idatzi ohi dira.

f) Gomendio orokorra

Atzizki horien erabilerarako gomenda genezakeena, hitz gutxitan bil-tzen da: tradizioari eustea, eta hizkera tekniko-zientifikoetarako, esaldien balioa modu zehatzenean esplizitatzen dituzten baliabideak erabiltzea. Aipatutako *Estilo Liburuaren* arauak gomendagarriak dira inolako arriskutan sartu nahi ez dutenentzat. Azkarateren nahiz Gramatika Batzordearen gomendioetan esaten dena ere oso lagungarri dela deritzogu.

Gomendio anekdotikoa besterik ez bada ere, hainbat kasutan baliagarri gertatu zaigun froga bat egitea gomenda genezake, ekialdeko euskalki-ren bateko erabilerak ongi menderatzen ez dituztenei: *-(e)larik* ipintzera-koan froga egin bedi *-(e)la* idatzita nola geratzen den. Gutxi gora behera bi aukerek balio berdintsua eta antzeko onargarritasuna balute, ez legoke arazorik; ezin balira trukatu, hobe beste egituraren bat bilatzea.

6. BIBLIOGRAFIA

Euskararen Gramatikaz

- AGIRRE BEREZIBAR, J.M. (1991), *Euskal gramatika deskriptiboa*, Bilbao. Bizkaiko Foru Aldundia, Labayru Ikastegia.
- ALTUBE, S. (1929), *Erderismos* Bermeo. Gaubeka.
- AREJITA, A. (1982), *Euskal Joskera*, Durango. Leopoldo Zugaza.
- AURREKOETXEA, B. & ARMAOLEA, J. (1990), *Perpausen Erabilera*, Bilbao. Gero, Mensajero.
- AZKARATE, M. (1995), *Hobekuntza Ikastaroa (3. zatia)*, Leioa (fotokopia).
- AZKUE, R.M. de (1969), *Morfologia*.
- EGUNKARIA (1995), *Estilo liburua*, Andoain. *Egunkaria*.
- EUSKALTZAINDIA (1994a), *EGLU IV Juntagailuak*, Bilbao. Euskaltzaindia.
- (1994b), «Gramatika II. Okerrak zuzenduz. (e)la atzizkiaren zenbait erabilera oker», *Euskera*, XXXIX (2).
- GOENAGA, P. (1980), *Gramatika bideetan*.
- (1984), *Euskal Sintaxia: Konplementazioa eta nominalizazioa*, Argitaragabeko te-sia.
- (1985), «Konpletiboak, Zehargalderak eta Erlatiboak», *Euskal Sintaxiaren zenbait arazo*.
- IRAZOLA, J.M.^a (1987), *Euskal joskera gaiak*, Bilbao. Bilboko Hizkuntza Eskola.
- LAFITTE, P. (1962), *Grammaire Basque* Bayonne. Ed. des Amis du Musée basque et Ikas.
- LEKUONA, M. (1983), «Gerundioa euskeraz», *Iker II*, Piarres Lafitteri omenaldia. Bil-bao. Euskaltzaindia.

- LETAMENDIA, J.A. (1979), «Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak Duvoisinin ordainekik alderaturik», *Euskera*, XXV (2), 1980.
- ODRIOZOLA, J. C. (1984), *Idazkera teknikoa*, UEU.
- ONDARRA, F. (1984), «Sarrera», LIZARRAGA, J. (1984), *Ongui iltzen laguntzeco itz-gaiac*, Bilbo. Euskaltzaindia.
- MITXELENA, K. (1976), «Apostillas», Villasante (1976: 201).
- SALABURU, P. (1980), *Baztango euskalkiaz I*, Bilbo. Universidad de Deusto.
- TXILLARDEGI (1978), *Euskal Gramatika*, Bilbao. Vasco Libro.
- VILLASANTE, L. (1976), *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate. Editorial Franciscana.

Gaztelaniaren Gramatikaz

- ALCINA, J & BLECUA, J.M. (1980), *Gramática española*, Barcelona. Ariel.
- BELLO, A. (1982), *Gramática de la lengua castellana*, Madrid. Edaf.
- GILI GAYA, S. (1961), *Curso superior de sintaxis española*, Barcelona. Bibliograf.
- GÓMEZ TORREGO, L. (1989), *Manual del español correcto*, Madrid. Arco/Libros.
- MOLINER, M. (1990), *Diccionario de uso del español*, Madrid. Gredos.
- MOLHO, M. (1975), *Sistemática del verbo español*, Madrid. Gredos.
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (1982), *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*, Madrid. Espasa-Calpe.

Adibideak

- AGIRRE BEREZIBAR, J.M. (1991), *Euskal gramatika deskriptiboa*, Bilbao. Bizkaiko Foru Aldundia, Labayru Ikastegia.
- ALBERDI, J. & GARCÍA, J. (1993), «Are lokailua (Axularren Gero liburuan oinarritutako azterketa)», *ASJU*, XXVII-3, 1993.
- ARREGI, O. & RODRÍGUEZ, C. (1990), «Cache memorien oinarriak ordenadoretan», *Elhuyar*, 16 (1-2): 1-11.
- BENGOETXEA, J. R. (1993), *Zuzenbideaz Teoria Kritiko Trinkoa*, Oñati. IVAP.
- BERGER, P.L. (1992), *Soziologiarako gonbitea*. Julian Maiaren itzulpena. Bilbo. EHU.
- DUVOISIN (1972), *Bible Saindua*, Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca.
- EINSTEIN, A. (1993), *Munduari buruzko nire pentsamoldea*, Iñaki Azkune Mendia itzulpenaren arduradun. Donostia. Gaiak Argitaldaria.
- ELHUYAR 8, tomoa, 3, alea (1982).
- ETCHEPARE, J. (1980), *Buruxkak*, Donostia. Elkar.
- EUSKALTZAINDIA (1994), *EGLU, IV, Juntagailuak*, Bilbao. Euskaltzaindia.
- EUSKO LEGEBILTZARRA 8/81, 1/82, 10/82, 8/83, 31/83, 14/91 *Legeak*.
- GAIK (1991), *Materiaren erdigunearen bila*, Oinarritzko liburutegia. Donostia. Gaiak argitaldaria.
- GAIK (1992), *Roboten mundu kezkarria*, Oinarritzko liburutegia. Donostia. Gaiak argitaldaria.
- GARMENDIA, M.K. (1981), «Elebitasuna eta interferentziak», *Jakin*, 19/20.
- IZAGIRRE, K. (1995), *Euzkadi merezi zuten*, Hernani. Egin.
- LANDART, D. (1982), *Aihen ahula*, Donostia. Elkar.
- LETAMENDIA, J.A. (1979), «Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak Duvoisinin ordainekik alderaturik», *Euskera*, XXV (2), 1980.

- LEIZARRAGA, J. (1571), *Jesus Christ gure jaunaren testament berria*.
- LIZARRAGA, J. Elkanokoa (1979), *Doctrina Christiorén catechima*, DFN. Pamplona. Euskaltzaindia.
- MIRANDE, J. (1995), *Haur besoetakoa*, Hernani. Egin.
- MITXELENA, K. (1984), *Aurkezpena Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, A-Aurten: 11-23. Pasaia. Gipuzkoako Aurrezki-kutxa Probintziala.
- ODRIOZOLA, J.C. (1984), *Idazkera Teknikoa* (1984), UEU.
- ONDARRA, F. (1984), «Sarrera», LIZARRAGA, J. (1984), *Ongui iltzen laguntzeco itz-gaiac*, Bilbo. Euskaltzaindia.
- ROTAETXE, K. (1981), «Irakaskuntzaren sistema eta euskararen irakaskuntza», *Jakin*, 19/20.
- SARASOLA, I. (1984), *Sarrera Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, A-Aurten: 25-39, Pasaia. Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintziala.
- TXILLARDEGI (1995), *Leturiaren egunkari ezkutua*, Hernani. Egin.
- UNAMUNOKO M. (1994), *Bizitzaren sentimendu trajikoaz*, Xabier KINTANAREN itzulpena, Bilbao. Klasikoak.

EUSKAL BALDINTZAZKO ADIZKIAK ETA EUSKAL BALDINTZAPENAK

Juan Carlos Odriozola

0. SARRERA

Lan honetan, baldintzapenak adierazteko euskal bide morfosintaktiko nagusiak aztertuko ditugu. Hasteko, baldintzapen esanda zehazki zer esan nahi dugun argitu behar dugu: baldintzapen bat ematerakoan, mundu posible bat deskribatuko dugu, eta posible den baldintzapen-mundu horrek, gauzatzeko bide emango dio bigarren gertaera bati, zeinari ondorio izena jarriko baitiogu. Ondorioa, mundu posible horren barruan hiztun/idazlearen ustez ezinbestez gauzatu litzatekeen edo gauzatzen den gertaera bat da. Horrela bada, baldintzapen-ondorioak, kontzeptu semantikoak ditugu.

Lan honetan ordea, ondo bereizi nahi ditugu baldintzapen delako kontzeptu semantikoa eta baldintza, euskal adizki jakin batzuei emango diegun izena. Izan ere, euskal aditzaren paradigmaman, baditugu tradizionaliki baldintza izena hartu ohi duten adizki batzuk: *izan /ezan* aditzen adizki hipotetiko ez-potentzialak (*banintz*). Hauetaz gain, baldintzapen-eredu tradizionaletan, baldintza-adizkien atzetik nagusitzat hartu ohi den perpausean doazen adizki potentzial iraganekoak (*nintzatekeen*) eta hipotetikoak (*nintzateke*) ditugu. *Banintz* bezalakoak, hau da, baldintza-adizkiak, baldintzapenak adierazteko bideetako bat dira euskal gramatikan. *Nintzateke(en)* bezalakoak, hau da, adizki potentzial iraganekoak eta hipotetikoak, ondorioak adierazteko bideetako bat ditugu era berean, eta ondorio-adizki direla esan genezake.

Horiek guztiok alde batera utzirik, badakigu *ba-* aurrizkia orainaldiko *naiz* bezalako adizkiei edo iraganaldiko *nintzen* bezalako adizkiei lotzeko aukera dagoela. Bai *naiz /nintzen*, bai *banaiz /banintzen*, adizki ez-hipotetikoak eta ez-potentzialak dira, baina azken finean, *banaiz* eta *banintz* era informalean baldintza-adizkiak direla onar genezake, *ba-* aurrizkia dela bide. Atzeko perpausa nagusian azaltzen diren adizkiak, ez dira hipotetikoak ez potentzialak, eta beraz ez daukate baldintzapen-berezitasunik (*egon legongo legoten naiz*). Edozein modutan, eredu hauek ere, baldintzapen-

eredu ditugu. Irizpide morfosintaktiko honi eutsirik, hots, *ba-* daramaten adizki guztion inguruko egiturak aztergai harturik, oso ondo muga genezake lan-esparru jakin bat: *baldintzak* izeneko adizkiak aztertuko genituzke.

Baldintza-adizkiko egiturak beraz, bi esparrutan sailka ditzakegu. Lehenengo azpi-esparru semantikoan, iraganean gauzatu ez den edo oraingoz gauzatu ez den baldintzapenezko mundu posiblea adierazten da, eta hiztunaren iritziz, hor adierazten dena mintzatzeko testuinguru egokia da, hots, iraganean gertatzeko zegoen edo etorkizunean gerta litekeen zeozer dugu: *Dinosauruak desagertu izan ez balira...* edo *Ozono-geruza desagertuko balitz...* Mendeko perpaus delako horren atzetik, perpaus nagusia dator; bertan, aurretik adierazitako mundu posiblearen baitan ziurtasun osoz gertatuko litzatekeen ondorioa adierazten da: *...gaur eguneko gainontzeko fauna oso ezberdina izango litzateke* edo *...lurreko bizitzaren gaineko kalte neurrigabeak gertatuko lirateke*. Bigarren esparru semantikoan, gauzak oso bestelakoak dira: lehenengo esaldiak geure mundu erreal honetan benetan gertatzen den zeozer adierazten da, hots, *Ur gutxi edaten badugu...* bezalakoak ditugu; atzetik datorren perpaus nagusiak, era berean, benetan gauzatzen den ondorioa azaltzen digu, guztia geure ezaguera-iritzien erantzunkizunaren menpe utziz: *...azkar zahartzen gara*.

Bi esparruak bildu lituzkeen baldintza-adizkien esparru morfosintaktiko orokorrean, bada, bi perpaus agertu ohi dira. Lehenengoan, mundu posible bat edo mundu hau adierazten da. Bigarrean, mundu horren barruko gertaera edo ondorio bat ematen da aditzera.

Lan honen helburua ordea, ez da ikuspegi morfosintaktiko hutsekoa. Berez, nolabaiteko hizkuntzalaritza aplikatuaz arituko gara, eta euskarak arlo horretan duen edo har dezakeen erabilera teknikoa deskribatzen saiatuko gara orriotan zehar. Hori dela eta, irizpide morfosintaktikoari, irizpide pragmatiko edo eta semantiko jakin bat gainezari beharko diogu, baldintzapenezko adierak benetan zer diren finkatzen saiatuz: batetik baldintza-adizkiek eta ondorio-adizkiek, baldintzapenezko balioez gain bestelako batzuk ere badituztela ikusiko dugu; bestetik, baldintzapenezko eta ondoriozko balioak, baldintza-adizkietatik eta ondorio-adizkietatik kanpo ere adieraz daitezkeela azpimarratuko dugu.

Hortaz, garbi dago baldintzak izen adizkiak ez direla hemen aztertze-ko bide morfosintaktiko bakarrak. Ohiko gramatikan denborazko, aspektuzko edo kontzesiozko adverbial modura azaltzen direnek, baldintza «formaletik» oso hurbil dauden harreman semantikoak adieraz ditzakete. Izan ere, zilegi da *-(e)z gero*, *-takoan*, edo, areago, *-(e)nean* edo *nahiz eta* modukoetan oinarrituriko mendeko perpausak nola edo halako baldintzapeña adierazten dutela esatea.

Gisa horretako irizpideei jarraituz ordea, euskararen adverbial guztiak aztertzeraz helduko ginatke, eta seguraski, ez genuke baldintzapenen es-

parru semantikoaren muga non den oso garbi finkatzerik izango. Gera bedi, beraz, adverbialen azterketa orokorra beste lan baterako, eta artikuluska honetan irizpide morfologikoari eutsiko diogu ardatz modura: soilik *ba-* aurrizkidun adizkiak aztertuko ditugu. Adizki hauekin batera, jakina, *-ke* daramaten adizki hipotetikoak hartu beharko ditugu kontutan. Edozein modutan, aipaturiko *-(e)z gero*, *-takoan*, *-(e)nean* edo *nahiz eta* modukoei beren tarte txikia emango diegu, batez ere ereduzko baldintzekin zernolako parekotasunak dituzten adierazteko.

Azkenik, esan beharrekoa da lan honetan oinarrizko filosofia jakin bati eutsi nahi diogula. Batetik, Euskaltzaindiak du hitza euskara normatibizatzerakoan. Berak ezarri ditu eta ezarriko ditu mugak eta aukerak euskara estandarrean, «estandar» delako berba soziolinguistikazko esku-liburuetan bezala erabilia. Izan ere, hemen egingo dugun guztia, Euskaltzaindiak finkatutako mugen barruan, eta zehazkiago *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (II)* liburukian adierazitakoak eta Akademiaren Euskara Batuko Batzordeak harturiko erabakiek ezarritako mugen barrukoa.

Hala ere, soziolinguistikazko esku-liburu horietan bertan, erabilera berezietarako hizkerak deskribatu ohi dira. Euskara teknikoa euskararen erabilera berezietako bat baizik ez den neurrian, zenbait (unibertsitate-) esparrutan lagungarri gerta daiteke harreman semantiko batzuen berri zehatzagoa eta estandarizatuagoa izatea, eta horretaz arituko gara ondoko orrietan.

Lehenengo atalean, *organo hori garatu izan balute, bizirik mantenduko ziren* bezalakoak ikusiko ditugu, hau da, iraganeko beste «mundu posible» batzuk azaltzeko tresnak ikusiko dira.

Bigarren atalean, *organo hori garatuko balute, bizirik mantenduko lirerateke* modukoak aztertzerari ekingo diogu: hitz egiten ari garen unetik aurrera sor daitezkeen mundu posibleak adierazteko tresnak bilduko ditugu sail horretan.

Hirugarren atalean, *horrelako organo bat garatzen badute, gai izaten dira bizirik mantentzeko* modukoak ikusiko ditugu. Agerian geldituko da sail honetan geure mundu erreal honetan gertatzen diren gauzak edo eta harremanak azaltzen ditugula. Gainera, *-(e)nean*, *-(e)z gero* eta *-takoan* direlakoek hemen beren tokia merezi dutela esango dugu, azken finean haiek ere geure mundu erreala baldintzapen eran ematen baitute aditzera.

Laugarren atalean, *komenigarria izango litzateke eta gerta liteke lbaliteke gertatzea* moduko adizkien balio zehatzak finkatzen saiatuko gara. Honelako kasuetan, *ba-* aurrizkidun adizkirik ez agertzeaz gain, apur bat urrun gabiltza baldintzapenen mundutik (beste mundu posible batzuk azaltzetik), eta hurrenez hurren, balio kortesa, ondorioriorik gabeko mundu erreal soila, edo errealitate baten azalpen hipotetikoak adierazi ohi ditugu bi adizki horien bidez. Gainera, *liteke* eta *zitekeen / daiteke* adizkien artean soma daitezkeen bereizkuntzaz arituko gara sail horretan, beti bal-

dintzapenetatik at. Ikus daitekeenez, atal hau ez dago *ba-* aurrizkia duen adizkiez osatuta, baina hala ere, sartuko dugu lan honetan, gai nagusiari ezinbestez loturik doan eranskintzat hartu baitugu «bakarkako» adizkion saila.

Bosgarren atalak, *balitz bezala* modukoak aztertuko ditugu, *ba-* aurrizkia daraman adizki oro bildu nahirik. Bertan ikusiko denez, horrelako adizkiak beste mota batzuetako harreman adberbialak adierazteko gai dira, baina hala ere aipatu beharrekoak ditugu hemen, hain zuzen ere *ba-* aurrizkia beti baldintzapenei loturik ez dagoela agerian uzteko.

Seigarren atalean, berriro aurkituko dugu *ba-* aurrizkia, baldintzapentzat hartu ohi ez den erabilera bati loturik: *ba-...ere* moduko perpausak. Sail honetan, baldintzapenen eta aurkaritzen arteko gatazkari emango diogu tarte txiki bat.

Azkenik, hona hemen guztion ezaguna den euskal laguntzailearen modu-tempusen koadroa, hurrengo lerroetan emango ditugun zehaztasunak ulertzeko laguntza gisan.

Modua		Tempusa		
		Iragana	Oraina	Hipotetikoa
Ez-potentziala	Izan	nintzen	naiz	banintz
	Edin	nendin	nadin	banendi
Potentziala	Izan	nintzatekeen	naizateke	nintzateke
	Edin	nintekeen	naiteke	ninteke

1. IRAGANEAN GAUZATU EZ ZEN MUNDU POSIBLEA: *DINOSAURIOAK BIZIRIK MANTENDU IZAN BALIRA...*

Atal honetan, zientzia esperimetal/espekulatiboetan oso maiz erabili behar diren adierazpideak ikusiko ditugu: iraganean egia izan ez zen mundu posibleetako bat deskribatzen dutenak. Gauzatu ez zen mundu posible hori, euskararen *balitz bezalako* adizki ez-potentzial (*ke* atzizkirik gabeko) hipotetikoaren bidez azalduko dugu beti (1).

(1) Lurreko bizitza silizioan oinarritu (izan) balitz...

Esan beharrekoa da honelako kasuetan oso landuak ez diren hizkeretan beste adizki batek ere erabilera zabal samarra duela: iraganeke adizki ez-hipotetikoa, *ba-* aurrizkia daramana (2a). Euskaltzaindiak berak adierazia du (2a)ko iraganeke adizkia ez dela (1)eko adizki hipotetikoa bezain

zuzena honelako kasuetan, hots, inoiz gauzatu ez den mundu bat adierazi behar direnetan. Iraganean benetan gertatu zena adierazteko (2b), erabat arrunta da *ba-* aurrizkidun adizkia —ikus (4) oharra—.

- (2) a # Lurreko bizitza silizioan oinarritu bazen...¹
b Bizidunek lehorra konkistatu bazuten...
c # Bizidunek lehorra konkistatu izan balute,

(1)ean beraz, gure mundu ezagun honetan gauzatu ez den gertaera adierazi da. Ezagunak ditugun bizidunen kimika, karbonoan oinarriturik dago. (1) perpausa egin duenak, jadanik egia izatera inoiz helduko ez den mundua (silizioan oinarrituriko bizidunen mundua) asmatu du, beraren inguruan gogoetak egiteko. Mezuaren transmisioan dagoen arriskua, agerian dago honelakoetan: entzule/irakurleari *balitz = gauzatugabea /bazen = gauzatua* bereizkuntza garbi eskaini behar zaio, eta ez dugu inola ere jakintzat eman behar hartzaile horrek silizio/karbono harremanaren berri duenik, ez eta hartzaileak bizidun-espezie batek edo bestek lehorra konkistatu duela dakienik ere. Hortaz, *bazen* eta *balitz* iraganeko mundu erreala zein irrealia adierazteko eta *balitz* soilik irrealia adierazteko erabiltzen badira ere, ezaguera estralinguistikoak laguntza nekez eman dezaketenetan, *balitz = gauzatugabea /bazen = gauzatua* delako bereizkuntza hori mantentzea eta indartzea komeni zaigu. Horretaz gain, Euskaltzaindiak behin betiko erabakia hartu du, (2a) modukoak iraganeko hipotesien esparrutik baztertuz.

Iraganean gauzatu ez zen mundu horretan, hiztun/idazlearen ustez gertaera jakin bat gauzatu zatekeen. Gertaera horri, ondorio deritzo, eta berak hiztunari begira duen denborazko kokapenaren araberrako sailkapena egingo dugu hemen.

- a) *Gauzatu ez zen iraganeko mundu posible horretan bertan gauzatu zatekeen ondorioa*

Zenbaitetan, gauzatu ez zen mundu horretan bertan gertatu zatekeena adierazten da. Gertaera, bi modutara adieraz daiteke euskaraz. Batetik, iraganeko adizki potentziala (3a) eta bestetik, iraganeko adizki ez-poten-

¹ Lan honetan zehar, # delako ikurrak nola edo halako ez-egokitasuna dagoela adieraziko du. Horrela, (2a) ez dago euskararen gramatikatik kanpo, baina kasu honetan, oso forma landugabetzat edo nahasgarritzat har daiteke. Ikusi bestalde (2c), non adizkiak, euskal paradigmaren barrukoa izan arren, gezurra adierazi baitu. Hor ere, # erabili behar da. * delako ikurrak, ordea, euskal gramatikaren ikuspegitik ezinezkoa den (edo izan beharko lukeen) zeezer eman-gu du aditzera: ikusi testuko (4a'), zeina besterik gabe gaizki egindako perpaus konposatua baita. Ezinezkotasun hori zalantzarria denean, azkenik, ? ikurra erabiliko dugu: ikusi testuko (23a'). Hizkuntzaren maila (tekniko) jakin bat deskribatzen edo garatzen ari garen neurrian, # ikurra da erabiltzeko beharrik handiena sortaraziko diguna.

tziala (3b). Lehenengo kasuan, jokatzeko ari garen aditzaren partizipioak ez du halaberrez *-ko* atzizkia hartu behar. Bigarren kasuan ordea, atzizkia ezinbestekoa da. Kasu honetan, iraganeko adizkiak ez dauka eragozpenik, eta bi ereduak dira egokiak eta eman nahi den adierari ondo doituak: (1a) bezalako baldintza baten atzetik, hiztun/irakurleak ondo ulertuko du mezua (3a) zein (3b)ren bidez. Lehenengoak, hots, iraganeko adizki potentzialak, kutsu kultuagoa dauka, eta urrun samar dago (mendebaldeko) lagun edo familiarreko hizkuntz mailetatik, baina ondo koka daiteke hizkuntza idatzian. Bigarrena, iraganeko adizki ez-potentziala, guztiz arrunta da maila guztietan. Euskaltzaindiak biak onartu ditu.

- (3) a ...oso bizidun ezberdinak garatu(ko) ziratekeen planetan.
 b ...oso bizidun ezberdinak garatuko ziren planetan.

Hala ere, (3a) eta (3b)ko adizkiak, zenbait esparru sintaktikotan ez dira guztiz baliokide, mezuaren argitasunari dagokionez behintzat. *Esan* bezalako aditzen mendeko modura agertzen direnean, adizki potentziala soilik *esan* aditzaren denborarekiko iragana izan daiteke (4a-a'). Iraganeko adizkiak, berriz, *esan* aditzaren denborarekiko iragana (4b), zein hitz egiten den unearrekiko etorkizuna (4b') adieraz dezake.

- (4) a Garai hartan oso bizidun ezberdinak garatu(ko) ziratekeela adierazi zen liburu horretan.
 a' * Etorkizunean oso bizidun ezberdinak garatu(ko) ziratekeela adierazi zen liburu horretan.
 b Garai hartan oso bizidun ezberdinak garatu(ko) zirela adierazi zen liburu horretan.
 b' Etorkizunean oso bizidun ezberdinak garatuko zirela adierazi zen liburu horretan.

Beraz, (4b')ko etorkizuna, ez da hiztunaren orainarekikoa, *esan* aditzaren denborarekikoa baizik. Horretaz gain, ikus bedi (4b')an, *esan* aditzaren subjektuarekiko etorkizuna adierazi dela, baina (5)eko adizki hipotetiko potentzialak *esan* aditzaren subjektuarentzat hipotetikoa zena adieraziko duela. Beha bedi (5b)an perpaus konposatu honen analisi sintaktikoaren zirriborroa.

- (5) a Aurrerantzean silizioan oinarrituriko bizitza gauzatzen hasiko balitz oso bizidun ezberdinak garatuko liratekeela esan zuen.
 b [[Aurrerantzean silizioan oinarrituriko bizitza gauzatzen hasiko balitz] [oso bizidun ezberdinak garatuko liratekeela]] esan zuen.

Azken hau *esan* aditzaren denboran aipatu egin zen mundu posible bati dagokio, eta zerikusirik handia dauka 2. sailean ikusteko ditugun etorkizun-hipotesien adizkiekin.

- b) *Gauzatu ez zen iraganeko mundu posible horren ondorio modura hitz egiten ari garen unean bertan izango genukeen egoera.*

Hemen, geure orainean segurtasun osoz izango genukeen ondorioa adieraziko dugu. (1) eta (3) adibideetan, iraganeko mundu posiblea eta iraganeko ondorioa adierazi ditugu. Ondorio hori gaurko egoerari dago-kiola adierazi nahi dugunean, adizki potentzial hipotetikoa erabiliko dugu, (3a)ko iraganeko potentzialaren edo (3b)ko iragan ez-potentzialaren ordez (6). Gainera, hitz egiteko une puntuala zehazki adierazteko, adizki sintetiko bat hautatzen dugu eskuarki (6a). Esan beharrekoa da (3b)an ikusi du- gun adizkia, kasu honetan ere kaskar samarra gertatzen dela eta hizkera landuetatik kanpo utzi behar genukeela (6c). Areago, hizkuntza teknikoan gaizkiulertu larriak sortaraz ditzake, (3)koak bezalako iraganeko ondorio- ak eta hemengo (6a)koak bezalako oraingo ondorioak ondo bereizteko unean: entzule/irakurleak ondo ulertu beharko du bizitza silizioan oinarri- tu ez dela eta beraz desberdinak izango lirartekeen bizidun horiek gaur egun lurrian ez daudela. *-Ko ziren* delakoa beraz, iraganean bete ez zen mundu baten ondorioa adierazteko izango da —(6b) = (3b)—, baina ez iraganean bete ez zen mundu batetik gaur egun ondorio modura izango genukeena (6c).

- (6) a ...oso bizidun ezberdinak leudeke gaur egun planetan.
b Lurreko bizitza silizioan oinarritu (izan) balitz, oso bizidun ezber- dinak egongo ziren.
c # ...oso bizidun ezberdinak egongo ziren gaur egun planetan.

- c) *Gauzatu ez zen iraganeko mundu posible horren ondorio modura hitz egiten ari garen unetik aurrera gauza litekeen gertaera*

Honelakoetan ere, adizki potentzial hipotetikoa izango dugu, eta oro har, adizki ez-sintetikoak izango ditugu eskutartean (7a)². Hemen ere,

² Ez da lan hau euskal aditzaren paradigmako balio guztiak aztertze-ko tokia, baina gogora bedi adizki sintetikoek gainontze-ko adizki perifrastikoek baino errazago adieraz dezaketela hitz egiteko unea. Hitz egiteko unea bera baino zehazkiago, denboraz neur daitekeen egoera edo iharduera bat adierazi ohi dute adizki horiek. Horrela, *legoke / leramake* bezalako batek, iraganean zeozer bete izan balitz oraintxe bertan izango genukeen egoerazko/iharduerazko on- dorioa adieraziko digu. Adizki perifrastikoek beren aldetik, ohiko gertaerak adierazteko joera dute, baina dena dela, har dezakete horrelako balio puntuala, berez duten balio aspektualaren menpe. Horrela, *aritu* (i), *bizi izan* (ii) edo *behar(ra) izan* (iii) bezalakoek, berez adieraz deza- kete hitz egiteko unea bera, adizki perifrastikoen bidez. Edozelan ikus bedi (iii) eta (iv) direla- koen artean egin litekeen bereizkuntza, oraina/etorkizuna hain zuzen.

- (i) ...gaur egun oso bizidun ezberdinak arituko lirarteke planetan.
(ii) ...gaur egun oso organismo ezberdinak biziko lirarteke planetan.
(iii) Hasieratik ondo aztertu izan bagenitu, orain ez genuke datuak berraztertze-ko beharrik.
(iv) Hasieratik ondo aztertu izan bagenitu, ez genituzke datuak berraztertu beharko.

adizki ez-hipotetikoak ez dira oso zuzenak: (7b)an, ezin jakin daiteke iraganeko ala etorkizuneko baldintza-ondorioez ari garen, eta areago, iraganeko adizkia ez da gai, iraganeko baldintzaren iraganeko ondorioa (7c) eta etorkizuneko ondorioa (7a) bereizteko. Edonola ere, Euskaltzaindiak baztertu egin du (7b)ko adizkien konbinaketa, etorkizuneko hipotesi-ondorioen esparrutik.

- (7) a Espeziea, beste arnas-aparatu bat garatu izan balu, nagusi egingo litzateke etorkizun hurbilean.
- b # Espeziea, beste arnas-aparatu bat garatuko bazuen, nagusi egingo zen.
- c Espeziea, beste arnas-aparatu bat garatu izan balu, nagusi egingo zen/gingo zatekeen iraganean.

Laburtuz, iraganean gertatu ez den eta jadanik inoiz gauzatuko ez den mundu posible bat, adizki ez-potentzial hipotetikoaren bidez adierazten da (*garatu izan balute*). Mundu horren barruan hitzunaren iritzi ziurtasun osoz legokeen ondorioa (baina benetan egon ez dena) hiru tokitan koka daiteke hitzunaren orainari dagokionez: 1) Hitz egiteko unea baino lehenagoko ondorioa adierazteko, partizipioa (+ko) + iraganeko adizki potentziala (nagusi egingo ziratekeen) edo aruntagoa den partizipioa +ko + iraganeko adizki ez-potentziala (nagusi egingo ziren) egin daiteke. 2) Hitz egiteko unean bertan legokeen ondorioa, batez ere adizki potentzial hipotetiko sintetikoaz (legoke) adierazi behar genuke, *egongo zen* modukoak hizkera landuetatik eta bereziki hizkuntza teknikit baztertuz. 3) Hitz egiteko unetik aurrera gauzatuko litzatekeen ondorioa adierazteko, partizipioa (+ko) + iraganeko adizki potentziala egiten da (*egingo lirateke*), eta adizki potentziala oro har ez da sintetikoa; kasu honetan ere, partizipioa +ko + iraganeko adizki ez-potentziala (egingo ziren) forma ez-egoki samarra da hizkera landu-teknikoetan.

Bukatzeko ikus bedi sail honetan esandakoaren laburpena.

Baliabidea	1. perpausa: Bizitza silizioan oinarritu izan balitz.
Jakintzat emandakoa:	2. perpausa: oso bizidun ezberdinak garatu(ko) ziratekeen/garatuko ziren planetan.
Ziurtzat emandako ideia berria:	Bizitza ez zen silizioan oinarritu eta gaur egun daudenetatik oso ezberdin den bizidunik ez zen sortu.
	<u>Silizioan oinarrituriko bizitza/bizidun ezberdinen sorrera</u> direlakoen artean <u>sortarazlea/sortarazia</u> harremana dagoela ziurtatu du hitzunak.

Baliabidea	1. perpausa: Bizitza silizioan oinarritu izan balitz.
Jakintzat emandakoa:	2. perpausa: oso bizidun ezberdinak biziko lirateke gaur egun planetan. Bizitza ez zen silizioan oinarritu eta gaur egun bizi direnak baino ez ditugu.
Ziurtzat emandako ideia berria:	<u>Silizioan oinarrituriko bizitza/bizidun ezberdinen sorrera</u> direlakoan artean <u>sortarazlea/sortarazia</u> harremana dagoela ziurtatu du hitzunak.

Baliabidea	1. perpausa: Bizitza silizioan oinarritu izan balitz.
Jakintzat emandakoa:	2. perpausa: oso bizidun ezberdinak garatuko lirateke hemendik aurrera. Bizitza ez zen silizioan oinarritu eta etorkizunean ez da daudenetatik oso ezberdin den bizidunik garatuko.
Ziurtzat emandako ideia berria:	<u>Silizioan oinarrituriko bizitza/bizidun ezberdinen sorrera</u> direlakoan artean <u>sortarazlea/sortarazia</u> harremana dagoela ziurtatu du hitzunak.

Baliabidea	1. perpausa: Bizidunek lehorra konkistatu bazuten.
Jakintzat emandakoa:	2. perpausa: oso aldaketa bortitzat jasan(go) zituzketen/jasango zituzketen. Bizidunek lehorra konkistatu zuten.
Ia ziurtzat emandako ideia berria:	Bizidunek lehorra konkistatu zutela jakin du hitzunak eta bertatik, oso aldaketa bortitzak jasan zituzketelako ustea atera du.

2. INOIZ GAUZA LITEKEEN MUNDU POSIBLEA: OZONO-GERUZA DESAGERTUKO BALITZ...

Hitz egiten ari garen unetik aurrera benetan gauza litekeen mundu posible bat adierazten dugunean, aurreko sailean ez bezala, ondorioa ezin har daiteke gezurtzat. Izan ere, azpimarratu beharrekoa da honelakoetan

benetan egia bihur litezkeen mundu posible bat eta bere ondorioak ematen ditugula. Adizkien konbinaketa, partizipioa + ko + adizki ez-potentzial hipotetiko (*garatuko balute*) / partizipioa + ko + adizki potentzial hipotetiko (*nagusi egingo lirateke*) dugu. Esparru honetan, bai baldintza-adizki iraganekoa (*garatuko bazuten*) bai ondorio-adizki iraganekoa ere (*lortuko zuen*), ez-egoki eta nahasi samarrak ditugu, eta halaber, Euskaltzaindiak baztertuak dira.

Mundu posible horri dagokiolarik, ezberdin samar diren bi egoera adieraz daitezke adizki hauen bidez.

a) *Nekez gauza litekeen baldintzapenezko mundua*

Honelakoetan, mundu posible delako hori oso posibilitate urrunaren eran aurkezten da. Azken finean, entzule/irakurleari burura lekiokoen mundu posible hori nekez beteko dela iradokitzen da, baina hala ere, mundu horren ondoriozko gertaera ematen da bigarren perpausean (8).

- (8) Elektroi bat galduko balitz, karga positibo bat lortuko luke (baina horrelakorik ez da inoiz gertatzen, molekularen egitura dela kausa).

b) *Gauzatzeko probabilitateak dituen baldintza edo batzuetan benetan gauzatzen den baldintza*

Adizki hipotetiko berberak erabiliz, zenbaitetan mundu erreala eta beraren barruko ondorioa ematen ditugu aditzera (9), 3. sailean ikusiko ditugun adizki ez-hipotetikoaren kasuaren antzera (10). 3. sailekoetan ez bezala ordea, oro har gertatzen diren baldintzazko mundua eta ondorioa kasu jakin batean ez betetzea gerta litekeela iradokitzen dugu adizki hipotetikoaren bidez. 3. saileko adizki ez-hipotetikoek ohiko baldintza/ondorio harremana adierazten dute besterik gabe eta beraien baliokide semantikoak, adberbial hutsak izan daitezke (10b).

- (9) Elektroi bat galduko balu, karga positibo bat lortuko luke, soberazko protoi bat gelditzen delako.
- (10) a) Elektroi bat galtzen badu, karga positibo bat lortzen du, soberazko protoi bat gelditzen delako.
- b) Elektroi bat galtzen duenean, karga positibo bat lortzen du, soberazko protoi bat gelditzen denean.

Horrela bada, geure mundu erreala ari garelarik (10)ean, elektroi bat galtzen denean zer gertatzen den adierazten dugu. (9)an ordea, geure kasu honetan mundu erreala hori, hau da elektroiaren galera ez burutzea gerta litekeela iradoki da, galeraren ondorioa isiltzen ez bada ere.

Beraz, adizki hipotetikoaren bidez etorkizuneko mundu posible bat adieraz daiteke, baina era berean, geure mundu erreala hau ere eman daite-

ke aditzera. Bigarren kasuak, mundu erreala kasu jakin batean ez betetzea gerta daitekeelako ñabardura darama.

Azkenik, gogoratu beharrekoak dira *edin /ezan* laguntzaileen adizki hipotetiko potentzialak (*zenezake*) eta ez-potentzialak (*bazeneza*). Hauek ere, ereduzko baldintzapean bat adieraz dezakete, baina marginal samarrak dira gaur egungo euskara estandarrean, eta zehazki, aurrean ikusi ditugun *izan /edun* adizkien ordezkio dialektalak ditugu, iparraldean erabiliak. Euskaltzaindiaren arabera, *izan /edun* laguntzailekoek *edin / ezan* laguntzailekoek baino «gertaera gertagarriagoak» adierazten dituzte. Agian, konnotazio afektiboagoak edo pertsonalagoak soma daitezke horrelakoetan. Labur esanda, oso adizki markatuak dira, eta nonbait, balio handikoak izan daitezke adibidez zenbait literatur esparrutan (11a). Hizkuntza teknikitik kanpo daudela dirudi (11b).

- (11) a Niregandik alde egin bazeneza, hil ninteke
b # Elektroi bat gal baleza, karga positibo bat lor lezake

Adizki bion konbinaketa hizkuntza estandarretik bazterturik badago ere, ondorioan doan *edin / ezan* laguntzaileen adizki hipotetiko potentzialak (*lezake*) beste erabilera estandarago eta garrantzitsuago bat duela ikusiko dugu 4.2. sailean.

Amaitzeko hona hemen sailaren laburpena.

Baliabidea	1. perpausa: Elektroi bat galduko balitz. 2. perpausa: karga positibo bat lortuko luke (baina horrelakorik ez da inoiz gertatzen, molekularen egitura dela kausa).
Jakintzat emandakoa:	Ez da elektroi bat galduko eta ez da karga positibo bat lortuko.
Ziurtzat emandako ideia berria:	<u>Elektroi-galera/karga positiboaren lorpena</u> direlakoan artean <u>sortarazlea/sortarazia</u> harremana dagoela ziurtatu du hiztunak.

Baliabidea	1. perpausa: Elektroi bat galduko balitz. 2. perpausa: karga positibo bat lortuko luke (soberazko protoi bat gelditzen delako).
Jakintzat emandakoa:	Elektroia galdu ohi da eta galduko da, eta karga positiboa lortu ohi da eta lortuko da.
Ziurtzat emandako ideia berria:	<u>Elektroi-galera/karga positiboaren lorpena</u> direlakoan artean dagoen <u>sortarazlea/sortarazia</u> harremana ohikotzat jo du hiztunak.

3. GEURE MUNDU HAU: *UR NAHIKO EDATEN EZ BADUGU...*

Sail honetako adizkien bidez, geure mundu errealean benetan gauza-tzen diren gertaerak adierazten ditugu batez ere. Hau da, hiztun/idazleak egiaztat jotzen duen baldintza-mundu erreala eta beraren barruan ezinbestez azaltzen den ondorioa eskaintzen dira.

Adizkiak aurreko sailen aldean erabat ezberdinak dira. *Ba-* aurrizkia, oraineko edo iraganeko adizkiei lotzen zaie, geure mundu erreal hau adieraziz (*banaiiz /banintzen*). Ondoriozko perpaus nagusiak, adizki ez-potentziala darama. Bestela esanda, hemengo baldintzaren bidez, geure munduan hiztunak egiaztat jo duen gertaera adierazten da. Areago, mundu erreal honen barruan, atzetik datorren ondorioa ezinbestez gertatzen da. Hala ere, euskarak kasu honetan oso adiera-sare aberats eta korapilotsua dauka, gutxienez hiru sail nagusi bereiziz.

a) *Kausa/ondorio harremana azaltzen duten bi gertaerak*

Hemengo perpaus nagusia, mendeko perpausaren ondorio frogatu modura ematen du hiztun/idazleak (12). Bi adizkiek, orain/iragan ez-burutua izen tempus bera daramate, ohikoa den harreman hori emateko. Era berean, orain burutua/etorkizuna delako aukera dago (12c).

- (12) a Proteina-kantitate txikia ematen bazaie, animaliak ahuldurik aurkitzen ditugu
- b Proteina-kantitate txikia ematen bazitzaie, animaliak ahuldurik aurkitzen genituen
- c Proteina-kantitate txikia eman bazaie, animaliak ahuldurik aurkituko ditugu

Ikus daitekeenez, bete-betean sarturik gaude (hiztunaren ustez) benetan gauzatzen diren gertaeren munduan: proteina-kantitate txikia ematen den kasuetan animaliak ahuldu egiten direla ikusi izan da metodo esperimentalen bidez.

b) *Inoiz gauza litekeen mundu posiblea*

Adizki ez-hipotetikoaren konbinaketa hauek, badute aukera hitz egiteko unetik aurrera gauza litekeen baldintzapenezko mundua eta ondoriozko gertaera adierazteko. Edozein modutan, baldintza orainaldi ez-burutu edo burutu modura azaltzen da eta ondorioa, halaber, etorkizunean ipini behar da (13). Gogora bedi horren ondoan, ohikoak direnek adizki ez-burutuak (12a-b) zein etorkizuna (12c) daukatela aukeran.

- (13) a Oraindik ez dugu behar den beste frogarik egin, baina gure eredu matematikoak datu enpirikoak ondo aurrezaten baditu, lana bukatuzat emango dugu.

- b # Oraindik ez dugu behar den beste frogarik egin, baina gure eredu matematikoak datu enpirikoak ondo aurrezaten baditu, lana bukatutzat ematen dugu.

Berrikus ditzagun (9-10), hemen (14a-b) modura errepikatuta, eta bes-tetik (12-13) ere.

- (14) a Elektroi bat galduko balu, karga positibo bat lortuko luke, baina horrelakorik ez da inoiz gertatzen, molekularen egitura dela kausa.
b Elektroi bat galduko balu, karga positibo bat lortuko luke, soberazko protoi bat gelditzen delako.

Errepikatu beharrekoa da (12/13) kontrastea, zeina morfosintaktikoa izan gabe semantikoa baita. (12)an, ohiko harreman frogatutzat ematen dugu proteina-eskasiaren eta ahuleziaren artekoa. (13)an ordea, ez dugu harreman bat kausa/ondorio frogatutzat emango, eta hitz egiten ari garen unetik aurrera gauza litekeen mundu posiblea eta beraren barruko ondoriozko gertaera bat adieraziko ditugu, (12a-b)ko adizki hipotetikoetan ez bezala nolabaiteko zalantza epistemologikoa jarritz³. (14a)an, mundu bat oso posibilitate urrun modura adierazten da. (14b)an, geure mundu honetan gauzatzen den harreman bat adierazten dugu baina nola edo halako arriskua, oztopoa edo zalantza tartekatzen dugu, kasu jakin batean harreman hori gauzatzeko. (14)koen arteko bereizkuntza ere sintaktikoa izan gabe morfologikoa dela azpimarratu behar da.

Laburbilduz, bai adizki hipotetikoek, bai adizki ez-hipotetikoek, gai dira mundu erreal hau adierazteko edo etorkizunean gauza litekeen mundu posible bat adierazteko. Baldintza gisara *izan ledun* laguntzailea erabili beharrean *edin ledun* erabiltzen baditugu, adiera beti dagokio bigarren aukerari. Edozein modutan, gogora dezagun adizki hauek testu teknikoetarako duten nola edo halako ez-egokitasuna (15).

- (15) # Elektroi bat gal baleza/badeza karga positibo bat.

³ ODRIOZOLAK (1995), honelako modalitateak aurkitu ditu *-ke* atzizkidun adizkietan: a) Epistemologikoa, (hiztunaren jakintza-maila), *etorri izan balitz*, *etorriko balitz*, eta egokitzat jo dugun *etorri bazen* batetik, eta bestetik *etorriko zatekeen* eta *etorriko dateke*. b) Ebidentziala -hiztunaren ondorio (intelektuale)zkoa-, *etorriko zatekeen* eta *etorriko balitz* direlakoak, baldintza baten atzetik; ikus bedi beraz baldintza-ereduetan, modalitate epistemologikoa eta ebidentziala batera azaltzen direla. c) Perpauseko subjektuaren gaitasuna, *daiteke* eta *zitekeen*. d) Deontikoa (arau jakin batzuekiko apurketa), *-ke* atzizkidunetan baino zehazkiago, izenki-predikazioa eratuko duten *bidezko*, *zilegi*, *zuzen*, *komenigarri*, *egoki* izenondoetan oinarritua.

(12-13) bezalako harremanak direla eta, ereduako baldintzapenetatik urrun samar dauden baliabide morfosintaktikoak aipatzeko beharrean gaudede, *ba-* aurrizkirik gabeko adizkiak lan honen oinarritzko helburutik kanpo egon arren. Izan ere, helburu semantiko-pragmatikoak dituen lantxo hone-tan, gainetiko aipua baino egingo ez badiogu ere, ezin ahantz dezakegu hemen *-(e)nean*, *-(e)z gero* eta *-takoan* direlakoen mundua. Hasteko, (16)ko mendeko adberbialak, (12) direlakoen parekoak direla onartu behar da. Alegia, geure baldintzapen-mundu erreal hau eta bere ondorio-gertaera bat deskribatzen ari gara.

- (16) a Proteina-kantitate txikia emanez gero, animaliak ahuldurik aurkitu-ko/aurkitzen ditugu.
- b Proteina-kantitate txikia ematen/eman zaienean, animaliak ahuldu-rik aurkituko/aurkitzen ditugu.

Ezin esan daiteke (16a) ereduak inolako geroagokotasuna adieraz-ten duenik. Izan ere, *gero* aditzondoaren jatorrizko balioa galdurik dago *emanez* horren atzetik. Areago, instrumentala edo partitiboa daraman partizipio soila ipinita ere, datu berberak emango genituzke (17), ikus-pegi morfosintaktiko hutsetik baldintzapen bat dugunik esango ez bage-nu ere.

- (17) Proteina-kantitate txikia emanez/emanik, animaliak ahuldu egingo dira.

Hala ere, ez da ahantzi behar *gero* horrek beste zenbait egituratan ge-roagokotasuna bete-betean adierazten duela, eta horrelakoetan baldintza-penaz nekez mintza gintezkeela (18a). Areago, (12)ko aukera bat partizi-pioko baliabidea, hots, *eman bazaie* dela ikusi dugu, eta azpimarratu beharrekoa da honelako adizkiak zenbait kasutan geroagokotasun garbia ere adieraz dezaketela. Zer esanik ez, *-takoan* delakoak ere, geroagokota-suna adierazten du (18b).

- (18) a Proteina-kantitate txikia eman eta gero hasten da ahulezia-proze-sua.
- b Proteina-kantitate txikia emandakoan animaliak ahuldu egingo dira.

Edozein modutan, (18) adibideetako ardatza geroagokotasun-harremana bada ere, hots, perpaus nagusiaren gertaera geroago gauzatu bada ere, (12) bezalako baldintza/ondorio harremana ez dago inola ere bazterturik. Besterik gabe, ez da zehaztu geroagokotasunaz gain benetan baldintza-pen/ondorio edo kausa/ondorio harremanik ote dagoen.

c) *Kausa logikoa*

Zenbait kasutan, *ba-* aurrizkidun adizki orainaldi edo iraganaldikoak, gauzatutzat ematen dugun gertaera bat adierazten du, baina geroago datoren mendeko perpausak, ez du adierazten inolako ondorioarik edo mundu erreala honen barruko gertaerarik: *ba-* daraman perpausako gertaeratik hitzunik maila logikoan ondorioztatzen duen bestelako gertaera erreala bat ematen da aditzera. Bi adizkiak, orainaldi burutuaren eran joan ohi dira (19)⁴.

(19) Proteinak laugarren egitura galdu badu, prozesuan ez dugu pH-a konstante mantendu

Demagun hitzunik proteina baten egitura hori mantentzeko pH-a konstante mantendu behar dela uste duela edo dakiela. Prozesu esperimentalaren bukaeran egitura hori aldarazirik badago, berehala ondorioztatuko du pH-aren aldaketa izan dela aldarazpenaren sortarazlea. Horrela bada, baldintza formalak, gertaera errealeko kausa logiko bat adierazi du, eta ondorio delakoak, frogatu izan gabe ondorioztatu egin dugun zeozer darama, ondorio logiko bat alegia.

d) *Helburua eta kausa erreala*

Beste batzuetan, baldintzako perpausak mundu erreala honetako gertaera adierazten du. Ondorio delako nagusiak ordea, baldintzazkoaren hel-

⁴ Gogoratu egin nahi genituzke testuko (2a-b) perpausak, hemen (i a-b) modura eta osotuz ipinita.

- (i) a # Lurreko bizitza silizioan oinarritu bazen, oso bizidun ezberdinak garatuko ziren planetan
- b Bizidunek lehorra konkistatu bazuten, oso aldaketa bortitzak jasango zituzten/zituzketen

(ia) ez-egokitzat jo dugu, Euskaltzandiak berak ere baztertu egin duela gaineratuz. Eredu morfosintatiko bera duen (ib) ordea, guztiz zuzena dugu. Izan ere, oso adiera ezberdina darama perpaus horrek: baldintza-adizkidun perpausak guztiz ezaguna den gertaera *erreala* eman du aditzera, 3. sailean ikusten ari garen bezala. *Jasango zituzten / zituzketen* horrek bere aldetik, ez du baldintzaren baten ondorioa adierazi. Berez, hitzunik ondorioztatu duen zeozer da: adibidea oso jasoa ez delarik, bizidunek lehorra erdietsia dutela gogorarazi du hitzunik, geroago, horretarako aldaketa bortitzak beharko ziratekeela uste duela gaineratzeko. Horrela bada, *konkistatu bazuten* adizkiak batetik, eta *jasango zituzten / zituzketen* adizkiak bestetik, oso balio ez-ohikoak dituzte, itxuraz baldintza-eredutzat joko litzatekeen perpaus konposatu batean: mundu errealeko gertaera eta ondorio intelektuala. (3) oharrean aipatu dugun ODRIOZOLAREN (1995) modalitate-sailkapenaren arabera, *baldintza-adizkiak /-ke atzizkidun adizkiak* direlako bikoteek, modalitate epistemologiko eta ebidentzialaren arteko konbinaketako balio desberdinak ematen dituzte: a) *Oinarritu balitz /garatuko ziratekeen* delakoak, modalitate epistemologiko ez-markatua (ziur ez dela oinarritu) eta hitzunaren erantzunkizuneko ondorio intelektuala (hori bete izan balitz, garatuko ziratekeela ondorioztatu da). b) Etorkizuneko baldintza-ereduak (*galduko balu / lortuko luke*), antzeko balioak eramango litzuke, hemen aurreko baldintza oraindik ziur bete ez dela. c) Egokitzat jo izan den *konkistatu bazuten /jasango zituzten* bikoteak, modalitate epistemologiko markatua darama (errealizat jo den gertaera adierazi baita), eta era berean, hitzunaren ondorio intelektualaren balio ebidentziala. Modalitateen ikuspegitik, balio ebidentzialak berdin azalduko lirateke azken perpaus berezi hauetan, eta baldintza-eredu arruntetan.

burua (20a) edo kausa erreala (20b) ematen du aditzera. Orainaldi buru-
tuan joan ohi dira bi adizkiak⁵.

- (20) a Atomoaren nukleoa bonbardeatu bazen, protoia eta elektroia baino partikula txikiagoak lortzeko/lortzegatik/lortzearen izan zen.
- b Atomoa protoia eta elektroia baino partikula txikiagoetan apurtu bazen, modu jakin batez bonbardeatu zelako / bonbardetzeagatik/bonbardeatzearen izan zen.

Adierazpide hauek, oso arruntak ez izateaz gain, oso murriztapen bortitzak dituzte bigarren perpausean, eta nekez atera gaitzke *izan da* horretatik. Areago, azpimarratzekoa da baliabide hauek ez dagozkiola inola ere baldintzapen-eredu bati, hots, ez dugula ondorio bat geuk finkatututako mundu batean kokatzen. Bestalde, helburuzkoak (20a) *-t(z)eko / l-t(z)ea-gatik/ l-t(z)earren* atzizkiak eraman ditzakeen bitartean, besteak (20b) *-(e)lako* jokatuaz gain, soilik *-t(z)egatik l-t(z)earren* har ditzake, kausa erreala adieraziko badu. Atzizki hauen banaketa korapilotsuak, ezin har dezake tokirik lan honetan, baina edonola, X lortzeko Y egiten dugunean, X delako helburu hori, Y-aren kausatzat ere har daiteke, adierazpide morfosintaktikoak gorabehera.

Edozelan, oso era adierazkorrak dira, eta ez dirudi hizkuntza teknikoan maiztasun handiz erabiltzekoak direnik: hiztunak teknikoki oso zalan-tzagarri edo ez-egoki zena egitearen defentsa (afektiboa) ematen duela soma daiteke honelakoetan.

e) *Helburu baldintzatua*

Ba- daraman perpausak, erreal bihurtu nahi duguna adieraz dezake (21): Euskaltzaindiak adierazi duenaren arabera, (21)eko *mantenduko*

⁵ (19)ko kausa logikoaren kontura itzuliz, gogora dezagun baldintza-adizkiek kausa logikoa adierazten dutela eta ondorio-perpausek ondorio logikoa. Hala ere, pH-aren aldaketak egituraren galerarekin duen harremana, bi modutara uler daiteke. Batetik galera (kausa logikoa) / aldaketa (ondorio logikoa) daukagu, esana dugunaren arabera; bestetik, badakigu galera hori hain zuzen ere aldaketak sortarazi duela; beraz, gauzak beste era honetara uler daitezke: galera (ondorio erreala) /aldaketa (kausa erreala). Azken hau, testuko (20)koak bezala gauzatuko litzateke.

- (i) Proteinak laugarren mailako egitura galdu badu, prozesuan pH-a ez dugu konstante mantendu.
- (ii) Proteinak laugarren mailako egitura galdu badu, pH-a prozesuan konstante mantendu ez dugulakoa da.

Ikus bedi (i) eta (ii) oso prozesu epistemologiko desberdinei dagozkiela: lehenengoan, galera behatu dugu eta pH-aldaketa gertatu dela ondorioztatu dugu; bigarrenean, ohikoa den galera/aldaketa harremana eman dugu aditzera. Edozein modutan, testuan iradoki dugunez, kausa logikoa /kausa erreala /baldintzapena /helburua direlako munduak ikerketa sakonagoa merezi du, lan honetatik harantzago.

badu horren ordez, *mantendu behar badu* edo *agian mantentzea lortu nahi badugu* moduko parafrasiak erabil daitezke.

- (21) Proteinak bere laugarren egitura mantenduko badu, prozesu osoan zehar pH-a konstante mantendu behar dugu.

Bigarren perpausak, lehenengoak bezala, nola edo halako etorkizuna adierazten du, eta ondorio bat adierazi beharrean, *ba-* daraman perpausaren gertaera egia bihurtzeko *sine qua non* baldintza dela dirudi. Beha bedi hemen ere, etorkizunaz mintzatu arren, frogatutzat ematen dugun gertaeraz edo kausa/ondorio harremanaz ari garela: esana dugunez, hiztunaren ustez pH-aren aldaketak proteinaren egituraren galera dakar. Edozein modutan, baliabide hau ez da aipaturiko parafrasiak (*behar, -tzea lortu*) bezain garbia eta neutroa, eta egia esan, ez dirudi goi-mailako idazkera teknikoan oso erabilera handikoa izan daitekeenik.

Laburtzeko, *ba-* aurrizkidun adizki ez-hipotetikoek (*bada*) oro har geure mundu hau adierazten dute, eta 2. sailean ikusi ditugun adizki hipotetikoek (*balitz*), hitz egiteko unetik aurrera gauza litekeen mundua adierazten dute. Hala ere, ikusia dugu zenbait kasutan ez-hipotetikoek etorkizuneko mundu posible hori adieraz dezaketela eta hipotetikoak batzuetan geure mundu erreala honi molda dakizkiokela. Inoiz erreala izango ez den mundua huts-hutsean adierazten duten bakarrak, iraganeko adizki hipotetikoak dira (*zatekeen* bezalakoak), *etorri izan balitz* moduko baldintzapenen atzetik. Bestalde, adizki ez-hipotetikoek, ez dute ezinbestez mota bateko edo besteko baldintzapen bat adierazten, eta zenbait kasutan, nagusiaren ondorio intelektual bat atera delako adierazle dira; beste zenbaitetan, nagusiak adierazten duena lortzeko bide erreala adierazten du *ba-* aurrizkidun perpausak; batzuetan, azkenik, hiztunak frogatutzat ematen du etorkizuneko baldintzaren gertaera erreala bihurtzeko, nagusiaren etorkizuneko *sine qua non* baldintza dagoela; hau da, benetako baldintzapena ondorio gramatikal modura azaltzen da, eta *ba-* daramana, ondoriotzat edo helburutzat jo genezake.

Ikus hau guztia laburpen batean.

Baliabidea

Jakintzat emandakoa:

Ziurtzat emandako ideia berria:

1. perpausa: Gure eredu matematikoak datu enpirikoak ondo auresaten baditu.
 2. perpausa: lana bukatutzat emango dugu. Eredu matematikoak agian datu enpirikoak ondo auresango ditu etorkizunean, eta horrela izanez gero, bukatutzat emango dugu lana une horretan.
- Lanaren helburua datu enpirikoak auresateko eredu matematikoa dela ziurtatu du hiztunak.

Baliabidea	<ol style="list-style-type: none"> 1. perpausa: Proteina-kantitate txikia ematen bazaie/emanez gero/ematen zaienean. 2. perpausa: animaliak ahuldurik aurkitzen ditugu
Ziurtzat emandako ideia berria:	<u>Proteina-kantitate txikia/ahuldura</u> direlako-en arteko <u>sortarazlea/sortarazia</u> harremana ohikotzat jo du hiztunak.

Baliabidea	<ol style="list-style-type: none"> 1. perpausa: Proteinak laugarren egitura galdu badu. 2. perpausa: prozesuan ez dugu pH-a konstante mantendu.
Jakintzat emandakoa:	Proteinak laugarren egitura galdu du.
Ia ziurtzat emandako ideia berria:	Proteinak laugarren egitura galdu duela jakin du hiztunak eta bertatik, pH-a konstante mantendu ez dela ondorioztatu du.

Baliabidea	<ol style="list-style-type: none"> 1. perpausa: Atomoaren nukleoa bonbardeatu bazen. 2. perpausa: protoia baino partikula txikiagoak lortzeko/lortzeagatik/lortzearren izan zen.
Jakintzat emandakoa:	Atomoaren nukleoa bonbardeatu zen.
Ziurtzat emandako ideia berria:	Atomoa bonbardeatzeko arrazoia protoia baino partikula txikiagoak lortu nahia izan zela ziurtatu du hiztunak.

Baliabidea	<ol style="list-style-type: none"> 1. perpausa: Proteinak bere laugarren egitura mantenduko badu. 2. perpausa: prozesu osoan zehar pH-a konstante mantendu behar dugu.
Jakintzat emandakoa:	Proteinaren laugarren egitura mantendu nahida.
Ziurtzat emandako ideia berria:	Proteinaren laugarren egitura mantentzeko ezinbesteko bidea pH-a konstante mantentzea dela ziurtatu du hiztunak.

4. EREDUZKO BALDINTZAPENETATIK KANPO

Esana dugu, lan-esparru modura *ba-* aurrizkidun adizkiak hartu ditugula hemen. Era berean, adierazia dugu horrelako adizkiak daramatzaten baldintzapenezko perpausen atzean, nola edo halako ondorioa adierazten duten perpaus nagusiak azaltzen direla. Azken hauen adizkiak, ez-potentzialak izan daitezke, 3. sailean ikusi dugun bezala. Bestalde, potentzialak ere, erabil daitezke ereduzko baldintzapenak adierazteko. Adizki potentzial hauek bestalde, aurreko baldintzarik gabe azal daitezke euskal syntaxian, baldintzapen-adierarik hartu gabe. Hala ere, komenigarri iruditu zaigu «banakako» adizki potentzial hauek ere hemen ikustea. Zenbaitetan, 41 sailean ikusiko dugunez, 1. saileko baldintzapenetatik hurbil ibiliko gara, baina beste zenbaitetan, baldintza-ereduetatik erabat urrun gaudela ohartuko gara 4.2 sailean.

4.1. Oztopoak iradokiz: *Komenigarria izango litzateke...*

Izan / edun laguntzaileko adizki potentzial hipotetiko soilak (*litzateke*), bi adiera har dezake honelakoetan. Alde batetik, balio kortes antzeko zeozer bereganatzen du (22a), besterik gabe ez-hipotetiko baten (22b) edo agintera baten (22c) ordez. Zenbaitetan, badugu baldintzaren baliokidetzat har litekeen elementua: ikus bedi (22a)ko *itzultzea* eta (22a')ko *itzuliko bazenu* baliokide direla⁶. Beste zenbaitetan inolako baliokidetasunik somatzea zailago gertatzen da (23).

- (22) a Ona izango litzateke liburua datorren astean itzultzea.
a' Ondo legoke liburua datorren astean itzuliko bazenu.
b Beharrezkoa da liburua datorren astean itzultzea.
c Itzul ezazu liburua datorren astean.
- (23) a Komenigarria izango litzateke liburua datorren astean itzultzea.
a' ? Komenigarria izango litzateke liburua datorren astean itzuliko bazenu.
b Komenigarria da (zuk) liburua datorren astean itzultzea.

Edozein modutan, hauek guztiok ez dira bereziki teknikoak.

Bigarren balioak, erabilera espezifikoa du hizkuntza teknikoan. Hemen, ez da inolako baldintza isilik somatzen, eta adizki potentzialak (24a), ez-potentzial (24b) baten tokia hartuz gertaera jakin bat gauzatzeko nola edo halako oztopoak daudela iradokitzen du.

⁶ (i) modukoak ere badira euskaraz (ikus AKESOLO), baina hizkuntza tenikoak behar duen neutraltasunetik urrun daudela esan genezake.

- (i) a Nahi(ago) nuke geratuko bazina.
b #Nahi(ago) genuke datu zehatzak lortuko bagenitu.

- (24) a Honelako arazo baten aurrean, oso egokia izango litzateke gas-kromatografia erabiltzea, baina gainontzeko eragozpenak ditugu.
 b Honelako arazo baten aurrean, oso egokia da gas-kromatografia erabiltzea.

(24a)an gas-kromatografia metodo egokia dela diogu. Hau da, mundu erreala honen gertaera frogatu baten berri eman dugu: kromatografia delako metodoa, egokia da kasu honetan. Hala ere, adizki hipotetikoak kromatografia benetan erabiliko ote dugun, zalantzan utzi da. Zer esanik ez, oztopo horri dagozkion ñabardurak desagertu egingo dira adizki ez-hipotetikoak erabiliz gero (24b).

Bestalde, (23a/b) bereizkuntza, kortesa/ez-kortesa direlako balioen arteko bereizkuntza hutsari dagokio, baina (24)an gauzak oso bestelakoak dira. Bertako bereizkuntza ikusita, gogora bedi adizki ez-hipotetikoaren 3. sailean aztertutako (8-9) adibideen artekoa, hemen (25a-b) gisan errepikatua.

- (25) a Elektroiti bat galduko balu, karga positibo bat lortuko luke, baina horrelakorik ez da inoiz gertatzen, molekularen egitura dela kausa.
 b Elektroiti bat galduko balu, karga positibo bat lortuko luke, soberazko protoi bat gelditzen delako.

(25)eko adibide bietan, baldintza-adizki hipotetikoak eta ondorio-adizki hipotetikoak ditugu, baina (25a)an, mundu hipotetikoak azaldu da eta (25b)an, mundu erreala. (24)ko adibideetan aldiz, adizki potentzial hipotetikoak dugu lehenengoan eta ez-potentzial ez-hipotetikoak bigarrean; adierak hala ere, bietan dagozkio mundu errealarari. Azkenik, gogora bitez (10a) eta (13a), hemen (26a-b) eran jarriak.

- (26) a Elektroiti bat galtzen badu, karga positibo bat lortzen du, soberazko protoi bat gelditzen delako.
 b Gure eredu matematikoak datu empirikoak ondo aurrez aurre baditu, lana bukatutzat emango dugu.

Hemen, baldintza-adizki biak dira ez-hipotetikoak eta ondorio-adizkiak hurrenez hurren orain ez-bukatutako eta etorkizunekoak. Bereizkuntza beraz, mundu erreala eta mundu hipotetikoaren artekoa izango litzateke, (25)ean bezala.

Laburbilduz, aurreko baldintzarik gabeko adizki hipotetikoak (*litzateke*), zenbait kasutan hurbil daude baldintzapenezko balioetatik, edo bestela esanda, baldintza isildu egin dela edo beste baliabide batez azaldu dela dirudi. Hala ere, askotan ez daukate zerikusirik baldintzapenekin: gure mundu honen ohiko zehaztasun bat ematen dute, oro har ebaluazio bat (*komenigarria, ona...*), baina adizki ez-hipotetikoaren ordez adizki hipoteti-

ko hauek erabiltzen ditugularik, eskutartean dugun kasua zehaztasun horrekiko salbuespena izan litekeela, edo zehaztasun hori betetzeko eragozpenak egon litezkeela adierazten dugu.

Beha bedi orain azpisail honen konturik garrantzitsuena:

Baliabidea	Honelako arazo baten aurrean oso egokia izango litzateke gas-kromatografia erabiltzea.
Jakintzat emandakoa:	Gas-kromatografia erabiltzeko nola edo halako eragozpena,
Ia ziurtzat emandako ideia berria:	Gas-kromatografia egokia dela uste du hiztunak.

4.2. Geure mundu erreala azaltzen saiatuz: *Baliteke mutazio bortitz bat gertatu izana eta horregatik...*

Edin lezan laguntzaileen adizki hipotetiko potentzialak (*liteke*), batetik aldakortasun handiko morfologia dauka euskalkietan zehar; bestetik, oso harreman estuetan dago laguntzaile hauen oraineko (*daiteke*) eta iraganeko (*zitekeen*) adizki potentzialekin; azkenik, *edun /izan* laguntzaileko adizki hipotetikoekin ere (*litzateke*) harremanak dauzka. Hala eta guztiz, gaur egun garapenean dagoen zenbait hizkuntz mailatan, esparru honen barruko bereizkuntza garbi samar dagoela edo bereizkuntza garbi samarrera jotzen ari garela eta jotzea komeni dela dirudi⁷. Horretaz gain, gramatikalarien (Lafitte, 1944) eta Euskaltzaindiaren (*EGLU-II* delakoaren) deskribapena, bai eta Gramatika Batzordeko proposamenak ere, horrelako joeren alde daude nonbait.

⁷ Testuan aurrerantzean ikusiko ditugun (ia-b) bezalakoek, oso gai interesgarriari buruzko eztabaidarako bidea emango digute.

- (i) a Espezie horrek hegaz egin dezake (/lezake) gaur egun
- b Espezie horrek hegaz egin lezake (/dezake) etorkizunean

Bi perpausok ez dira anbiguoak gaur egun / etorkizunean direlakoei begira. Testuan esango dugunez, lehenengoan, *dezake* erabiltzeko joera soma daiteke, eta bigarrenean *lezake* erabiltzekoa. Eztabaidagaia, hauxe dugu: aditzondo/adizlagunen desanbiguazioaz balia ote gaitzake, adizkien morfologia anbiguo batean nola edo halako normatibizazioa bultzatu gabe? Horrela eginez gero, aditzondo/adizlagunik gabeko perpaus erabat anbiguoak igortzeko atea zabalduko genuke, gure ustez. Horrek, zalantzarik gabe, ahulezia lekarkioke euskarari, hizkuntza hau mezu korapilotsuak adierazteko tresna izatea nahi badugu behintzat. Hala ere, gera bitez eztabaidagai, normatibizazio- eta modernizazio-zereginetan ari garen guztien artean, testuaren gramatikaren desanbiguazioa / morfosintaxiaren desanbiguazioa direlako bi aukera horiek.

a) *Kortesiazko balioa*

Edin aditzaren potentzial hipotetikoak ere, bi balio har ditzake. Bate-tik, ikusia dugun era kortes bera (27).

- (27) a Ona izan liteke liburua datorren asterako itzultzea.
- a' Itzul ezazu liburua datorren asterako
- b Zinemara joan gintezke.
- b' Goazen zinemara.

b) *Inoiz gauza litekeen mundu posible soila (baldintza/ondorio bikote bat gauzatu gabe)*

Adiera hau (28) hedatua eta arrunta ote den, zalantzan jarri du Eus-kaltzaindiaren Gramatika-Batzordeak, eta haren ordeztu, (29) bezalakoek nahi dugun adiera guztiz garbi adierazten dutela aldarrikatu du. Edonola, oraingo honetan soil-soilik mundu posible bat adierazten da gainontzeko gertaeren berririk eman gabe. Hemen adierazitako mundua ondea, hurbil dago gertatzen. Alegia, zenbait baldintzaren erreal bete dira jadanik mundu hori etorkizun batean posible bihurtu da. Honekin batera, (30) bezalakoak ere gogoratu beharrekoak dira.

- (28) Espezieak erabat gal lezake organo hori etorkizunean.
- (29) a Gerta liteke etorkizunean espezieak organo hori erabat galtzea.
- b Baliteke etorkizunean espezieak organo hori erabat galtzea.
- (30) Horrelako ingurune-aldaketak gertatuko balira, espezieak organoa galdu egingo luke.

Ikus daitekeenez (30)eko *ba*- aurrizkidun adizki hipotetiko ez-potentzialek ere gauza bera adierazten dute, baina beraien atzetik ondorioa adierazten da adizki potentzial hipotetikoaren bidez. Gainera, eredu horretan ez da garbi esaten mundu posible horrek gauzatzeko norainoko eragozpenak izango lituzkeen, eta benetan azpimarratzen dena (agian gauzatu ez den mundu horretan) ziur behatuko genukeen gertaera bat da.

c) *Mundu erreal honen azalpen posiblea*

Adizkiok, ezberdin samarra den adiera bat emateko erabil daitezke, gaur egun enpirikoki ezaguna dugun gertaera baten azalpen hipotetiko menturatzeko hain zuzen (31).

- (31) a A entzimak parte har lezake erreakzioan.
- b Gerta liteke erreakzioan A entzimak parte hartzea.
- c Baliteke erreakzioan A entzimak parte hartzea.
- c' Baliteke erreakzioan A entzimak parte hartu izana.

d) *Litzateke /liteke /daiteke /zitekeen /dateke /zatekeen*

Gaur eguneko euskara estandarrean⁸, Odriozolak (1996) adierazi due-
nez, nahiko bereizkuntza tinkoa soma daiteke *litzateke /liteke /daiteke /zite-
keen* adizki potentzialen artean, eta bereizkuntza hori hiztun-kopuru handia-
ren baitan eta esparru kultuetan indartsua den neurrian, oso baliogarri
gertatuko zaigu erabat ezberdinak diren kontzeptu korapilotsuak adierazte-
ko nean. *Litzateke* eta *liteke*, hots, *izan /edun* eta *edin /ezan* laguntzaileen
adizki potentzial hipotetikoak deskribatuak ditugularik, *daiteke* eta *zitekeen*
direlakoan balioak finkatu behar ditugu hemen, baldintzapenen mundutik
kanpora joango bagara ere. Azpimarratzeko lehenengo gauza, hain zuzen
ere, hauxe da: *edin /ezan* laguntzaileen orain eta iraganeko adizki potentzial
hauek ez daukate inolako zerikusirik baldintzapenen munduarekin. Gauzak
ahalik eta garbien uzteko, *liteke*, *daiteke* eta *zitekeen* ezarriko ditugu tes-
tuinguru berean, lortzen diren ondorio semantiko ezberdinak antzemateko.
Areago, *litzateke* eta *datekeen /zatekeen* adizkiek ere, beren tokia izango
dute, azken finean *ke* hizkidun adizki guztien ikuspegi orokorra gauzatuz.

⁸ Euskalkietan zehar, adizki potentzialen banaketa oso korapilotsua da, Euskaltzaindiak
deskribatu duenaren arabera. Perpauseko subjektuaren gaitasuna, *edin /ezan* adizkien orain eta
iraganeko adizki potentzialen bidez adierazten da mendebaldean (ia-a'), baina ekialdean adizki
potentzial hipotetikoaren aukera dago (ib). Honi, mendebaldeko *leike* moduko formak (ia')
gaineratu beharko litzaizkioke; hauek, (ib) delakoaren senide morfologiko eta sintaktikoak
dira, nonbait a/a' kontrastea neutralizaturik dute eta euskara estandarretik bazterturik daude.
Testuan, bestalde, (a/a'/b) bereizkuntza bultzatuko dugu, euskarak jadanik nola edo hala ba-
duen bereizkuntza indartzea onuragarri gerta daitekeelakoan.

- (i) a Diru horrekin etxe bat eros dezaket.
- a' Diru horrekin etxe bat eros nezakeen garai hartan.
- a' Diru horrekin etxe bat erosi neinke (garai hartan).
- b Diru horrekin etxe bat eros nezake.

Bestalde, EUSKALTZAINDIAK *litzateke /liteke* direlakoan arteko gurutzamendua aipatu du
(ii) Izan ere, etorkizuneko mundu hipotetikoa, *izan /edun* laguntzaileen adizki hipotetikoaren bi-
dez adierazten da mendebaldean (ii a) ekialdean ordea, ondorio hipotetikorako erabiltzen den
adizki bera erabil daiteke (ii b-b') aukera modura

- (ii) a Dirua izango banu, etxe bat erosiko nuke.
- b Dirua izango banu, etxe bat eros nezake.
- b' Dirua izan baneza, etxe bat eros nezake.

Edozein modutan, testuan esana dugu Euskaltzaindiak berak (iib)ko bezalako formak era-
bat markatuz hartu dituela eta gure hizkera estandar teknikoetik bazter daitezkeela. Gaur egu-
neko hizkera estandarrean ordea, *nezake* hori bere iragan eta oraineko kide potentzialetik des-
berdintzatuz doala edo desberdintzatua dagoela dirudi, eta LAFITTE (1944) eta TXILLARDEGI
(1978) ere horren alde azaldu bide dira -ikus berririo (ia-a'-b). *Liteke* delakoaren espezializa-
zioa hain zuzen ere testuan iradokiko duguna da: mundu erreal honen edo mundu hipotetiko
baten azalpena, zeintzuentzat *dezaket /zezakeen* modukoak nahiko nahasiak izango bailirateke.
Lan honen testuinguruan, *dezaket /zezakeen /lezake /luzkeen* direlakoan arteko bereiz-
kuntzak euskararen erabilera teknikoan berebiziko garrantzia duela eta oso emankorra izan
daitekeela adieraziko dugu.

- (32) a A entzimak parte har lezake prozesuan /Baliteke A entzimak prozesuan parte hartzea, eta horregatik gertatzen bide da hain azkar erreakzioa.
- b A entzimak parte hartuko duke erreakzioan.
- c A entzimak parte hartu zukeen erreakzioan.
- c' Bertan egon izan balitz, A entzimak parte hartu zukeen erreakzioan.
- d A entzimak parte har dezake erreakzioan. Izan ere, substratuarekiko afinitatea frogatu da bestelako saio batzuetan.
- e Eboluzioaren egoera hartan, A entzimak parte har zezakeen erreakzioan. Gaur egun ordea, espezie honek metabolismo ezberdin samarra dauka, eta honelako entzimak ez dauka zeregirik.
- f Horren arabera, A entzimak parte hartuko luke erreakzioan.
- f' Komenigarria izango litzateke saioan A entzima erabiltzea.
- g A entzimak, bertan balego parte hartuko luke erreakzioan.

(32a)an, geure munduan gertatzen denaren azalpen posible bat eman dugu, baina gogoratu edozein modutan b) eta c) azpisailetan eman ditugun zehaztasun guztiak.

(32b)koak, etorkizuneko gertaera bat ia ziur gauzatuko dela adierazten du, *izan ledun* laguntzaile potentzial orainaren bidez. (32c)ko adizkiak, antzeko adiera ematen du baina iraganari dagokiola. Azpimarratu beharrekoa da (32c) eta 1. sailean ikusi dugun (32c') oso ezberdinak direla. Izan ere, (32c')koa baldintzapen-eredu bat da, eta esana dugunez, iraganean gauza zitekeen baina inoiz gauzatu ez zen mundu posiblea eta beraren barruko ondoriozko gertaera bat adierazten dira honelakoetan. Beraz, *zukeen* horrek egia bihurtu ez den (c') edo seguraski egia izan den (c) gertaera adieraz dezake.

(32d-e)ko adizkietan, oso bestelako adierak eskaini ditugu. (32d)ko adizkiaren bidez, entzimaren ahalmen edo gaitasun (fisikokimiko) erreal eta frogatu bat eman dugu aditzera. (32e)ko adizkiak, iraganeko une jakin batean entzimak izan duen (eta ziuraski geroago galdu duen) gaitasun bat adierazi du⁹.

(32f)koak, esana dugunez, isilean dagoen baldintza-eredu bat darama eta (32g)koak, jakina, ageriko baldintza. Gogora bedi (32f') oso bestelakoa dela: A entzima onuragarria izango litzateke gure saiorako, baina beraren erabileran nolabaiteko oztopoa dagoela iradoki dugu.

Laburbilduz, *liteke* delakoaren bidez, iritzi-mailan mugi gaitetzke euskarazko testu (tekniko)etan zehar. *Baliteke ...-t(z)ea* delako baliabidea, are egokiagoa eta garbiagoa da esparru horretan. *Litzateke* delakoaren bidez, oro

⁹ Lan honetan ez dugu kontutan hartuko *parte har dezake / parte hartu ahal du* adizkiek benetan adiera desberdinak emateko gai (izan) ote diren, eta batak zein besteak mundu errealeko gaitasun bat adierazten duela onartuko dugu. Ikus GARCÍA (1990), ustezko bereizkuntza baten berri eduki nahi izanez gero. Lerro berean, Gramatika Batzordearen proposamenak irakur daitezke, *ezin lahal* horiek, gaitasun-esparrutik kanpo duten murriztapen edo ezintasunez.

har, inoiz gauza litekeen mundu posible baten barruan (gure ustez) ziur lego-keen ondoriozko gertaera bat iradokitzen dugu. *Zitekeen* eta *daiteke* adizkien bidez, frogatuzat ematen ditugun zenbait gaitasun erreal adierazten ditugu.

Ereduzko baldintzapenetatik at egin dugun txango hau bukatzeko, gai-
netik aipatu behar dugu zenbait potentzialitatearen ukapenaren arazoa. Izan ere, kasu batzuetan eman nahi den ezintasuna ez da erreal, edo nahi bada, fisikokimikoa, eta zehazkiago, zenbait arau moral, etiko, edo tekniko ez be-
tetzearen epaiketak egiten dira. Horrelakoetan, doituagoa bide da *daiteke*
eta *zitekeen* adizkien ordez eta kasuaren arabera *bidezkoa* eta *zilegi*, *komeni-
garrria* eta *egokia*, eta *zuzena* erabiltzea. *Bidezkoa* oro har esparru teknikitik
kanpo dago (33), bioetika bezalako esparruetakoa ez bada (34a). *Zilegi* ize-
nondoak ere, bere aldetik, datu enpiriko jakin batzuk eman gabe huts-hu-
tsean hiztun/idazlearen iritzia ematen du (34a); azken kasu hauetan, adizki
potentzialek gezur hutsa iradoki lezakete (34b). *Komenigarrria* (35a) eta
egokia (35b) izenondoek behetik goranzko doitasun-maila bat adierazten
dute. Gradiente hori dela eta, *zuzena* puntu gorenean dagoela dirudi (36).

- (33) Ez da bidezkoa jendea horrela tratatzea.
- (34) a Ez da zilegi/bidezkoa immunoeskasiaren inguruko saioak gizakia erabiliz egitea.
b # Ezin egin daitezke immunoeskasiaren inguruko saioak gizakia erabiliz.
- (35) a Ez da komenigarrria saioa argipean egitea, fosintesia gerta baitaite-
ke.
b Ez da egokia saioa argipean egitea, fosintesia gerta baitaiteke.
c # Ezin egin daiteke saioa argipean, fosintesia gerta baitaiteke.
- (36) Animaliek ekoizturiko CO₂-a neurtu nahi izanez gero, ez da zuzena saioa argipean egitea, landareak fosintesiaren bidez hartuko baitute CO₂-aren parte bat.

Beraz, *ke* hizkidun adizkiek, ereduzko baldintzapenetatik kanpo ere, erabilera ugari daukate. Zenbait kasutan, inoiz gauza litekeen mundu bat adierazten dute, baina baldintzapen-ereduek ez bezala, ez dute mundu ho-
rren barruko gertaerarik gaineratzen. Beste zenbait kasutan, arras urrun dabilta *ke* hizkidun baldintzetatik eta geure mundu honen egia frogatuak edo azalpenak adierazten dituzte.

Azkenik, hona hemen azpisailaren laburpena:

Baliabidea	Baliteke A entzimak parte hartzea/hartu izana (eta horregatik...).
Jakintzat emandakoa:	Perpausetik kanpoko gertaera bat.
Probable modura emandako ideia berria:	Jakintzat emandakoaren azalpena A entzimaren parte hartzea dela uste du hiztunak.

Baliabidea

Baliteke espezie honek etorkizunean hegaz egitea.

Probable modura emandako ideia berria: Espezie honek etorkizunean hegaz egingo duela uste du hiztunak.

Baliabidea

A entzimak parte hartuko duke/hartu(ko) zukeen/hartuko zuen prozesuan.

Ia ziurtzat emandako ideia berria: A entzima parte hartzen duela uste du hiztunak.

Baliabidea

A entzimak parte har dezake/zezakeen prozesuan.

Ziurtzat emandako ideia berria: A entzimak parte hartzeko ahalmena duela ziurtatu du hiztunak.

5. GEUK ASMATUTAKO AKORDIOZKO MUNDUA: ZERO *ABSOLUTUAN BAGEUNDE BEZALA*

Hemen adieraziko ditugunek, toki berezia daukate hizkuntza teknikoan. Berez, errealtatetik urrun edo hurbil dagoen mundu irreal bat, akordio baten arabera errealtzat jotzen dugu, abiapuntuko hipotesi modura eta lan jakin bat aurrera eramateko. Honelako kasuetan, adizkia hipotetiko ez-potentzial arrunta izan daiteke, atzetik *bezala* hartuz (37).

(37) Balio energetikoen inguruko kalkuluak, izerdi-galerarik ez balego bezala egingo ditugu.

Garbi dagoenez, badago izerdi-galera, baina txikia bide da, edo beste-la galera zerotzat hartuta nola edo halako datu baliogarriak lortuko ditugula jakintzat eman da (37)an.

Balitz bezala horren ordez, soilik honelako kasuetarako balio duen adizki berezi bat erabil daiteke: *bai* + (*ba*- aurrizkirik gabeko) adizki ez-potentzial hipotetikoa + *-(e)n* atzizkia (38).

(38) Balio energetikoen inguruko kalkuluak, izerdi-galerarik ez bailegoen egingo ditugu.

Hauxe da beraz sail honen emaitza:

Baliabidea	1. perpausa: Zero absolutuan bageunde bezala.
Ia ziurtzat emandako gauza berria:	2. perpausa: egingo dugu. Zero absolutuan gaudela onartzea lagungarri gertatuko dela uste du hiztunak.

6. ALDEZ AURRETIK ONDO AZTERTU EZ DEN MUNDU ERREALAREN AURKAKO GERTAERAK: *ITSASOAN BIZI BADIRA ERE, UGAZTUNAK DIRA*

Ba- aurrizkidun adizkiek, badute baldintzapenen mundutik erabat kanpo dagoen beste erabilera bat (39).

(39) OH talde bat badauka ere, CO taldea dauka era berean, eta beraz, azken talde honi dagozkion ezaugarriak ere baditu.

Honelako kasuetan, alde batetik konposatuak OH talde bat duela adierazi dugu, eta beraz suposatzea da OH horri loturik doazen ezaugarri fisiko-kimikoak ikusiko ditugula gure saioetan. Konposatu organiko horrek duen atomo-talde berezi bakarra ez da OH, CO ere baitauka. Beraz, OH talde hidroxiloari dagozkion ezaugarriez gain, lotura bikoitzeko C=O taldeari dagozkionak ere agerian geratuko dira. OH talde bat edukizetik ez dugu zertan ondorioztatu behar CO taldea ez dagoela¹⁰. Gogoratu beharreako da karbono bakar batek ere OH batekiko lotura eta O batekiko lotura bikoitza izan ditzakeela. Izan ere, COOH atomo-talde osoa erabat arrunta da kimika organikoan. Hortaz, zer da *ba-* aurrizkidun adizkiak eta *ere* horrek adierazten dutena? Garbi dago aurkaritzako balio «ofizial» hori ez baina bi gertaeren nolabaiteko aldiberekotasuna dugula eskutartean.

Hortaz, arreta handiz erabili beharreko egitura dugu hau. Batetik, aurkaritzako harremana adieraz dezake eragozpenik gabe: (40)an aipatuko den hidratazio horren ondorio modura, biologiaren inguruko jakintza minimoa izanik erraz ondoriozta genezake animalia hil dela, baina hala ere, ez da hil.

(40) Deshidratazioa jasan bazuen ere, animalia bizirik mantendu zen.

¹⁰ Ikus bedi (i)ko parafraasi «librea».

(i) a Batetik OH talde bat badauka ere, bestetik CO taldea dauka era berean, eta beraz, azken talde honi dagozkion ezaugarriak ere baditu.

Bestalde (39)an ikusi dugun bezala, baditugu (40) ez bezalako erabile-
rak, non aurkaritza-itxura daraman perpausak eta perpaus nagusiak elka-
rren aurka ez doazen gertaerak adierazten baitute. Horrelakoetan, zehaz-
kiago, jakintzat ematen da itxurazko aurkaritza bat baizik ez dagoela;
horretaz gain, perpaus nagusiko gertaeraren berri ematen da entzulearen-
tzat hain ezaguna ez delakoan. Ikus bedi kasu batean zein bestean ez du-
gula inolako baldintzapenik.

Bestalde, kontutan hartu beharrekoa da kasu hauetan *ba-* horren atze-
tik zer nolako adizkia ipin daitekeen. Izan ere, (39-30) horietan, orain eta
iraganeko adizkiak erabili ditugu bai mendeko perpausian, bai nagusian
ere. Zer gertatuko ote litzateke *ere* mantendurik adizki hipotetikoak jar-
tzen baditugu? Ikus (41).

- (41) a OH talde bat baleuka ere, CO taldea leukake era berean, eta beraz,
azken talde horri dagozkion ezaugarriak ere azaltzen ditu.
- b Deshidratazioa jasan izan balu ere, animalia bizirik mantenduko
zen.

(41) koetan, (39-40) direlakoetan eman izan ditugun ñabardura berbe-
rak mantendu ditugu. Alegia, batetik molekular OH eta CO taldeak dauz-
ka eragozpenik gabe (41a), eta bestetik, animalia bizirik mantendu da,
nahiz eta deshidratazioa jasan (41b). (39-40) adibideetan ordea, geure
mundu erreala ari ginen. (41a-b) hauetan berriz, etorkizuneko mundu po-
sible bat eta iraganeko gauzatu ez zen mundu posible bat adierazi dira hu-
rrenez hurren. Beraz, 1-3 sailetan deskribatu izan ditugun baldintza/ondo-
rio harremani besterik gabe aurkaritzazko ñabardura gaineratu diegu.

Aurkaritzak direla eta, azpimarratu beharrekoa da gramatika-liburue-
tan azaldu ohi diren bestelako egiturek (*nahiz eta, arren*) ez dituztela hain
era garbian bi balio hauek adierazten. Hau da, *ba-...ere* egiturak, (39-
40)ko adiera-bikoteari eusten dio. *Nahiz eta* edo *arren* direlako baliabide
morfosintaktiko hauek ordea, benetako aurkaritza adierazteko joera nagu-
sia dutela dirudi. Hizkuntza teknikoan bestalde, ezaguera estralinguistikoa-
k nekez eman dezake laguntza, eta esparru honi gagozkiola, gerta daiteke
entzule/irakurleak (39) ala (40) bezalako harreman bat eman nahi ote den
bereizten ez jakitea. Areago, bi gertaeren artean benetako aurkaritza-ha-
rremana ba ote den jakitea ere, hiztunaren eta entzulearen jakintza-maila-
ren menpekota da, azken faktore honek mezuen transmisioa are korapilo-
tsuagoa eginik.

Laburbilduz, honelako aholkuak eman daitezke:

a) Bi gertaeren arteko aldebereotasun hutsa dugunean (42), *nahiz eta*
edo *arren* bezalakoak hizkuntza teknikitik baztertzea komeniko litzateke:
kultura orokorreko kontua dugu hegaz egitea ez dela hegaztietatik kanpo
debekaturik dagoen ahalmen bat, saguzaharrak kasu. Horrelakoetan, oso
maila dibulgatibo baxuetatik at, ez dirudi *nahiz eta* modukoak oso egokiak

direnik, eta inork hegaz egitea eta ugaztun izatea bateraezinak direla uste badu ere, *ba-...ere* egitura erabilia ez dugu hori indartuko.

- (42) a Hegaz egiten badute ere, saguzarrak ugaztunak dira¹¹.
b # Hegaz egiten duten arren, saguzarrak ugaztunak dira.

b) Aldiberekotasunaren eta aurkaritzaren arteko harremana jakintza-mailaren arabera denean, edo besterik gabe benetan zein motatako harremana den ez dakigunean ere, hobe genuke *nahiz eta* edo *arren* bezalakoak baztertzea. (43)an, jakintza-mailaren arabera ez dago hain garbi animaliarenekin tamainuak beste animalia taldeen gainean nagusitzerakoan zein eragin izan dezakeen. Beraz, (43a) egingo dugu, eta ez dugu iradokiko tamainu txikia desabantaila denik (zeina egia zehatza ez baita).

- (43) a Ornodunek baino gorputz-masa txikiagoa badute ere, intsektuen espezie-kopurua askoz ere handiagoa da.
b # Nahiz eta ornodunek baino gorputz-masa txikiagoa izan, intsektuen espezie-kopurua askoz ere handiagoa da.

c) Eskutartean aurkaritzako harreman garbia dugunean, egiturotatik edozein erabil dezakegu oztoporik gabe. Jakintza-maila minimoa izanda ere, erraz uler daiteke proteina batek bere funtzioa ondo betetzeko jatorrizko egitura ikutu gabe eduki behar duela (44). Kasu jakin batean egitura aldatua egon arren bere funtzioa betetzen badu, ez dugu inolako anbiguotasun-arazorik izango eta baliabide gramatikal biak izango dira guztiz zuzenak.

- (44) a Laugarren egitura galdu badu ere, proteinak bere jatorrizko funtzioa bete du.
b Laugarren egitura galdu arren, proteinak bere jatorrizko funtzioa bete du.

Azkenik, baldintzapenen eta aurkaritzaren arteko beste bereizkuntza garrantzitsu bat aipatu behar dugu hemen. Ikusi (45-46).

- (45) a Nahiz eta instituzioek eskualde hori ingurune babestua izendatu, espeziea desagertu egingo da (bere desagertze-prozesua oso aurreraturik baitago).

¹¹ Jesus María Makazagak komunikazio pertsonalean adierazi didanez, (42) bezalakotan, (i) bezalako esapideak, «ziurragotzat» jo behar ditugu, eta beraz beharbada egokiagotzat ere.

(i) Saguzarrak hegaz egiten duten ugaztunak dira.

Areago, hizkuntzalari berak eskaini didan *Administrazioa Euskaraz* aldizkariko 11. zenbakian, *ba-...ere* egitura, besterik gabe, baztertu egin da benetako aurkaritzarik adierazten ez den esparru guztietatik.

- b Instituzioek eskualde hori ingurune babestua izendatzen badute ere, espezie hori desagertu egingo da (bere desagertze-prozesua oso aurreraturik baitago).
- (46) a Nahiz eta instituzioek eskualde hori ingurune babestua izendatu duten, espeziea desagertu egingo da (bere desagertze-prozesua oso aurreraturik baitago)
- b Instituzioek eskualde hori ingurune babestua izendatu badute ere, espeziea desagertu egingo da (bere desagertze-prozesua oso aurreraturik baitago).

(45)ean, baldintzapenen mundura itzuli gabela esan dezakegu, nola edo halako baldintzapen bikoitzaz arituko bagara ere. Berez, bi mundu posible azaldu ditugu etorkizunerako. Lehenengoan eskualde hori babestua izango da, eta bestean ez. Ondorioa ordea, bera izango da bi mundu posible horietan. Garbi gera bedi hortaz, aurkaritza eta baldintzapen berezi hauen arteko bateratasuna.

(46)an, aurkaritza hutsa dugula onartu dugu. *Ba-* daraman perpausak geure mundu hau adierazi du, eta nagusiak, mundu honetatik atera genezakeen ondorioa ez bezalako gertaera bat eman digu aditzera.

Sail hau laburbilduz, *ba-...ere* egitura egokia da aurkaritza adierazteko, nahiz eta aurkaritza delako hori gure jakintza-mailaren arabera aldakor samarra izan. Bestalde, *nahiz eta* edo *arren* bezalako egiturek, aurkaritza garbia adierazteko joera garbiagoa dute, eta ez bide dira hain egokiak eman nahi dugun mezuaren aurkaritza erabateko ziurtasuna ez dugunean. Edozein eratan, *ba-...ere* egiturak ez dauka hemen inolako zerikusirik baldintzapenekin. Badu ordea, nolabaiteko baldintzapen bikoitza adierazteko ahalmena, eta inoiz gauza litezkeen bi mundu paralelo adieraz ditzake, mundu bien barruan gure interesekoa den ondorio berbera izango badugu ere.

Hauxe dugu beraz:

Baliabidea	1. perpausa: OH taldea badauka ere. 2. perpausa: CO taldea dauka era berean.
Ziurtzat emandako ideia berria:	Bai CO eta bai OH taldea kontutan hartu behar dela ziurtatu du hiztunak.

Baliabidea	1. perpausa: Deshidratazioa jasan bazuen ere/jasan arren. 2. perpausa: animalia bizirik mantendu zen.
Jakintzat emandakoa:	Baliteke norbaitek deshidratazioak heriotza ekartzen duela pentsatzea.
Ziurtzat emandako ideia berria:	Deshidratazioak heriotza ekarri ez duela ziurtatu du hiztunak.

Baliabidea

1. perpausa: Nahiz eta ingurune babestua izendatu.

Jakintzat emandakoa:

2. perpausa: espezia desagertu egingo da. Baliteke izendatzea ala ez izendatzea.

Ziurtzat emandako ideia berria:

Edozein kasutan espezia desagertu egingo dela ziurtatu du hiztunak.

7. LABURPENA

Lan honetan, batez ere euskararen erabilera teknikoari begira, *ba-* aurizkia daramaten adizkien balioak deskribatu ditugu batetik, eta bestetik, horrelako adizkiak daramatzaten perpausen atzetik datozen perpausetako adizki (potenzial)en balioak ere aztertu ditugu. Hona hemen balio-erabileren ikuspegi orokorra, adibide erraztuak erabiliz eta gramatikazko izen espezifikorik azaldu gabe.

- a) *Galdu izan balu lortuko zuen / zukeen*. Iraganean gauzatu ez ziren eta inoiz gauzatuko ez diren baldintzazko mundu posiblea eta beraren barruko ondorioa
- b) *Galduko balu lortuko luke / #lortuko zuen*. Etorkizunean gauza litezkeen baldintzazko mundu posiblea eta beraren barruko ondorioa, edo geure mundu erreal honetan oro har gertatzen diren baina kasu jakin batean eragozpenak izan ditzaketen baldintzazko mundua eta beraren barruko ondorioa.
- c) *Galtzen badu lortzen du / lortuko du*. Etorkizunean gauza litezkeen baldintzazko mundu posible eta beraren barruko ondorioa, edo geure mundu honetan beti gertatzen den ondorioa.
- d) *Lortuko luke*. Eragozpenak izan ditzakeen gertaera bat.
- e) *Galduko badu, isolamendutik atera behar dugu*. Egia bihurtu nahi edo behar dugun gertaera bat.
- f) *Gal lezake*. Etorkizunean gauza litekeen ondorio soila, edo geure mundu erreal honen azalpen hipotetikoa. Gogora bedi *baliteke galtzea* delakoa egokiagoa eta garbiagoa dela.
- g) *Gal dezake / zezakeen*. Gaitasuna, orainaldian edo iraganaldian
- h) *Galdu(ko) duke*. *Galdu zukeen*. Etorkizunean ziurtasun handi samarraz gauza daitekeen gertaera edo iraganean seguraski gauzatu zena.
- i) *Galduko balu bezala, galduko bailuen*. Mundu errealetik hurbil daogoen mundu irreal bat, akordio baten pean, errealtzat hartua.
- j) *Galdu badu ere*. Bi gertaeren arteko aldiberekotasuna.

8. BIBLIOGRAFIA

- AKESOLO, L., *Baldintzazko esaldi batzuen berezitasuna*.
- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (II)*.
- EUSKALTZAINDIA (1979), *Euskal aditz batua*.
- EUSKALTZAINDIA (1994), Gramatika Batzordearen proposamenak.
- EUSKALTZAINDIA (1994-1995), Euskara Batuko Batzordea. Gomendioak eta erabakiak.
- GARCÍA, J. (1990), «Euskaraz potentzialitatea adierazteko bi bideen arteko erabilerari buruzko azterketa konparatiboa», *Euskera*, 35 (1): 171-199.
- GOENAGA, P. (1978), *Gramatika bideetan*, Erein. Donostia, 1980.
- HENGEVELD, K. (1995), «Mood and modality», *Inaugural Meeting of the Association for Linguistic Typology*, Vitoria-Gasteiz.
- LAFITTE, P. (1944), *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, Donostia, 1978.
- ODRIOZOLA, J.C. (1995), «Marcadores de modalidad en el auxiliar vasco», *Congreso nacional de Lingüística del texto y enseñanza de la lengua*, Universidad de A Coruña.
- ODRIOZOLA, J.C. (1996), «-Ke atzizkia, euskal ikertzailearen tresna anizkoitz», *Ekaia* (in press).
- TXILLARDEGI (1978), *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas Argitaletxea. Donostia.

EUSKARA INSTITUA

Idazkera teknikoa

Liburua baino gehiago artikulu-sorta dela esan genezake eskuetan duzun hau. Edonola, gai baten inguruan antolaturiko lanak dira guztiak: testu-loturan parte hartzen duten baliabideak aztertzen dituzte, ikusmiran beti ere testu teknikoak izanik.

Askotan aipatzen den kontua da testu egokiak edo koherenteak idazteko ez dela nahikoa ortografia, gramatika eta puntuazioa behar bezala erabiltzea eta badirela testu baten taxuketan kontutan hartu beharreko beste puntu batzuk: izaki edo ideia bera adierazten duten gauzatze desberdinek eraikitzen dituzten erreferentzia-sareak, testu-antolatzaileak, galdegai/mintzagai hautaketarekin zerikusi zuzena duen hitz-ordena, ideien eta parrafoen antolaketa, modalitatea ...

Puntu horiek guztiak ikutzen dira liburu honetan baina baita euskara batuaren erabilera arruntari dagokionez eta askoz ere nabarikiago euskara tekniko-zientifikoari dagokionez askotan zalantzagarritzat jo izan diren zenbait menperatu edota menperatu horien zenbait erabilera ere, *-elarik* daramaten menperatuak eta *“zein-... bait/-n”* formulaz eraturiko erlatiboak alegia.